




URTXINTXA

Haur hezkuntza

IRAKASLEAREN GIDALIBURUA

3
urte



elkar | Ikastolen Elkartea

URTXINTXA 3 urte

Irakaslearen gidaliburua

Koordinatzailea: Maite Saenz

Edizio eguneratuaren koordinatzailea: Iratxe Ramirez

Egileak: Amaia Mendizabal, Maite Saenz

Eguneratze-lanen egileak: Iratxe Ramirez, Arantza Zugazagasti, Jabi Santa Cruz

AURKIBIDEA

1. ATARIKOAK

- 1.1 Aurkezpena
- 1.2 Urtxintxa proiektuaren ezaugarriak
- 1.3 Urtxintxa 3ko ikasmaterialak

2. BIGARREN ZEHAZTAPEN MAILA

2.1 Marko pedagogiko orokorra

- 2.1.1 Etaparen xedeak
- 2.1.2 Haur Hezkuntzako ikasleen ezaugarri orokorrak

2.2 Irizpide metodologikoak

- 2.2.1 Globalizazioa
- 2.2.2 Ikuspegi eraikitzailea: esku-hartze estiloa
- 2.2.3 Gelako antolamendua: Txokoak
- 2.2.4 Eremuen trataera
- 2.2.5 Jarduera konstanteak
- 2.2.6 Gurasoekiko harremana

2.3 Curriculumaren deskribapena

- 2.3.1 Etapak helburu orokorrak
- 2.3.2 Gaitasunak eta hezkuntza-kompetentzia orokorrak
 - 2.3.2.1 Urtxintxako gaitasunen panela eta hezkuntza-kompetentzia orokorrak
 - 2.3.2.2 Oinarrizko hezkuntza-kompetentzia orokorrak
 - 2.3.2.3 Zeharlerroaren trataera Urtxintxan eta hezkuntza-kompetentzia orokorrak
 - 2.3.2.4 Euskal dimentsioaren trataera
- 2.3.3 Eremuetako helburu orokorrak
- 2.3.4 Eremuetako helburu didaktikoak

3. HIRUGARREN ZEHAZTAPEN MAILA

Unitateak banan-banan

1. Ikastolara goaz
2. Nire etxea horrelakoa da
3. Mendia zoragarria da udazkenean
4. Gabonak, Gabonak, hau zoriona!
5. Hotzez dar-dar
6. Hau da nire gorputza, polita benetan!
7. Jan, jan, jan eta jan!
8. Behin batean baserrian
9. Eguzkitan din-dan
10. Igerian jolasean

4. MATERIAL OSAGARRIA

Irudien aurkibidea

Atarikoak

1.1 Aurkezpena

Haur Hezkuntzak berebiziko garrantzia du haurren garapen osoan. Etapa horretan garatzen hasten dira adimenaren gaitasunak, nortasunaren ezaugarriak, gorputzaren ahalmenak, eta gizarteratzeko eta harremanetarako hastapenak.

Bestalde, ezin dugu ahantzi euskalduntze-prozesua ere etapa honetan hasten dela kasu askotan, eta garrantzitsua dela haurrak hizkuntza-gaitasuna gero eta hobeto garatzea, era egokian egingo badu aurrera. Beraz, haur hezkuntzako hezkuntza-arloan, haurren hizkuntza gaitasunak garatzen laguntzea betekizun nagusi bilakatzen da.

Ondorioz, haurren gaitasun guztien garapena bultzatzeko eta euskalduntze-prozesua indartzeko, hezkuntza-komunitatearen etengabeko ikerketa- eta hobekuntza-prozesuan, pauso berri bat da orriotan aurkezten den URTXINTXA proiektua.

Hauek dira proiektu honen berrikuntza nagusiak: hezkuntza-proiektua hobetzea, curriculum diseinuaren ulermen-maila erraztuz eta koherentzia bertikala ziurtatuz; zehar-lerroekiko konpromisoa indartzea; aniztasunari erantzuna emateko bide berriak jorratzea; eleaniztasunaren hainbat eragile integratzea; irakurketa-idazketaren paradigma eraikitzailea garatzea.

Testuinguru horretan, Urtxintxaren ezaugarri nagusiak aurkezten dira ondorengo orrialdeetan.

1.2. Urtxintxa proiektuaren ezaugarriak

a) Haurra bere osotasunean hartzen duen proiektua

- **Gaitasunen garapenean oinarritua.** Pertsonaren gaitasun orokorren (gaitasun kognitiboak, oreka pertsonalezkoak, motorrak, komunikatiboak eta gizarteratzekoak) garapena lehenetsi egiten du proiektuak, horiek baitira haurren garapen orekatuaren eta ezagutzaren jabetzearen oinarriak. Gaitasunak era globalizatuan jasotzen dira, eduki mota guztien aldibereko lanketa bermatuz.
- **Ikaskuntza esanguratsuaren eta ikasle aktiboaren bila.** Haurren bizipenean, esperientzian eta jolasen testuinguruan txertatutako ikas-prozesua, haurra gatazka kognitiboen aurrean jarriz, eta ikaskuntzaren eraikuntza autonomia eta konpartitua bultzatuz.
- **Aniztasuna errespetatzen duena.** Haurren garapen-prozesu indibidualak errespetatzeko eta aberastasun-iturri bezala tratatzeko, ikasmaterial irekia da, egokitzapenak errazteko pentsatua. Hainbat zailtasun-mailatako proposamenak eskaintzen ditu, jarduera, eduki edo helburuetan aukeraketak edo aldaketak egiteko bideak errazten ditu, eta metodologiako gogoetak egiten ditu.
- **Balioen eta jarrerren hezkuntzarekin konprometitua.** Ikasleen prestakuntza integrala baloratzen du proiektuak. Unibertsalak eta funtsezkoak diren printzipioen hezkuntzari (eskubideen berdintasuna, lagunkidetasuna, justizia, osasunaren balioespena, askatasuna) arreta berezia, sistematikoa eta kontzientea ematen dio. Honela, unitateetako jardueretan ikuspuntu hau integratu egiten da,

baita zenbait proposamen berezi aurkeztu ere, haurren bizitzan gerta daitezkeen arazodun egoerak behatzeko, interpretatzeko, eztabaidatu eta irtenbideak bilatzeko aukerak eskainiz.

b) Euskal Herri osorako egina

- **Jatorriz euskaldun nahiz erdaldun diren haurrak euskaraz eta curriculum bateratuan hezteko proposamena.** Curriculum komun baten barruan, betiere, hizkuntzarekiko abiapuntuak kontuan hartzen dira eta proposamen didaktiko berezi batez erantzuten zaie.

- **Curriculumaren euskal dimentsioari garrantzia ematen diona.** Euskal kultura-ondarea gordetzeko eta luzatzeko konpromisoa gure gain dugula, euskal kulturaren elementu bereziak sistematikoki lantzen eta esplizituki adierazten dira ikasmaterialean. Haurrak bere inguruko agerpen kulturaletikiko interesa eta errespetuzko jarrera garatu dezan, interesguneen testuingurura ekarrita, tradiziozko abestiak, olerkiak, esaera zaharrak, euskal artistek egindako hainbat lan plastiko, egungo literaturaren hainbat adierazle, musika, festak, folklorea, mitologia... eskaintzen dira.

- **Herrialde guztietako erreferentziak jaso eta euskalkien presentzia ziurtatuko duena.** Herrialde guztietako ikasleek ulertzeko eta identifikatzeko moduko proposamena da. Era bateko zein besteko erreferenteak kontenplatu ditu, eta, euskara batuan idatzita egon arren, euskalkien ulermena eta errespetua pizteko proposamenak txertatzen ditu. Horrela, abestiak, haur jolasak, edota bertso tradizionalak aukeratzekoan, euskalkien aberastasuna bildu nahi izan da, irakasleak kontaketa garaian tokian tokiko euskalkia erabiltzeko aukera izan dezan.

- **Euskalduntasunetik abiatuz, kultura unibertsalerako bidea egingo duena.** Gure garaiko ezaugarri nagusi bat mundu zabalean bizi garenon arteko lotura da. Gaur egungo gizartearen bizitzeko erreferentzia-esparrua gizadi osora zabaltzen da. Gure proiektuak, euskaldun izaera abiapuntu izanik, kultura unibertsalaren aniztasunaren eta aberastasunaren partaide egin nahi ditu ikasleak.

c) Diseinu bateratua eta eraginkorra

- **Derrigorrezko Hezkuntzarako curriculum deskribapen bateratua.** Derrigorrezko Hezkuntzaren planteamendu bateratu eta koherente bat ziurtatu nahian, etapen arteko harremana eta loturak bideratzeko, Haur Hezkuntzako hiru urtetik hasi eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaraino diseinu bateratua eraiki nahi da. Diseinu horrek, noski, etapa bakoitzaren berezitasunak errespetatu behar ditu eta, beraz, OSTADARren Curriculum diseinua ardatz bezala harturik, Haur Hezkuntzako berezitasunei egokitutako deskribapena proposatzen du URTXINTXA proiektuak. Ildo horri jarraituz Lehen Hezkuntzan TXANELA proiektuak izango du jarraipena.



- **Hezkuntzaren asmoen esplizitzailea.** Deskribapen pedagogiko zabal eta sakona egiten da, etapako helburu orokorretatik jarduera zehatzerainoko bidea zehazki esplizitatzen delarik. Informazio horren babespean, irakasleak bere erabakiak hartzeko gaitu nahi da.

1.3 Urtxintxa 3ko ikasmaterialak

a) Hezitzailearen karpeta (hiru karpeta ikasturterako)

- Ipuinen laminak
- Horma-irudiak
- CDa
- Alfabetoa
- Zenbakiak
- Unitatearen hiztegia irudietan eta hitzetan
- Ipuinaren hiztegia irudietan eta hitzetan

b) Haurraren karpeta (karpeta bat ikasturterako)

- Lan-koadernoak (6)

c) Ipuinak

Hamaika ipuin lantzen dira ikasturtean. Ipuinak hiru multzotan eskaintzen dira, bat hiruhilabete bakoitzeko.

d) CDak

Hezitzailearen karpetetan abestien CDa dago, hiru ikasmaita bakoitzeko. CD hauek karpetetatik kanpo ere eskura daitezke, haurrek etxean ere entzuteko aukera izan dezaten. Honako hau da CDen egitura:

- Pertsonaia gidariaren abestia

- Ipuinaren abestia
- Tradiziozko abestia
- Jolaserako abestia(k) eta beste
- Entzunaldiak: musika klasikoa, musikari euskaldunak eta unibertsalak

e) CD-ROMak

Ikasmaterialen osagarri gisa, CD-ROM interaktibo bat dago maila bakoitzeko: *Ttantto*, 3-4 urteko haurrentzako, *Txirritx* 4-5 urtekoentzako, eta *Xango* 5-6 urtekoentzako.

f) Web-orriak

- **Urtxintxa Gida Didaktikoen webgunea:** www.urtxintxa.net
Webgune honetan 3, 4 eta 5 urteko gidak eskuratzeko, manipulatzeko eta plangintzak egiteko aukera eskaintzen da.

- **Urtxintxa proiektuaren webgunea:** www.ikastola.net

Ikasmaterialgintza atalaren barruan, Urtxintxa proiektuak bere gune espezifikoa badauka. Bertan honako eduki hauek dauzkagu:

- Multimedia ikasmateriala
- Multimedia ikasmaterialari buruzko gida-mailako informazioa eta jardueren deskribapena eta kontestualizatzea.
- Musika CDari buruzko informazio orokorra eta behar espezifikoentzako atala.
- Urtxintxa proiektuari buruz garatutako mintegietako dokumentazioa.
- Ekarpenen atala. Atal honetan lanak, esperientziak... partekatzeko txokoak sortu dira. Hezitzaileen txokoa eta gurasoen txokoa da.

2. zehaztapen-maila

2.1 Marko pedagogiko orokorra

Urtxintxa proiektuak hamarkada bat bete du. Proiektua sortu zenean, aurrerapauso handia eman zuen arloen trataera globalizatua eta gaitasunetan oinarritutako markoa proposatzean. Kontuan izan ordura arte arloz-arloko edukiak era isolatuan aurkeztu ohi zitzaizkiola haurrari, orduko aholku metodologikoez kontrako adierazten bazuten ere. Hamarkada honetan, esperientziak alde batetik, hezkuntzaren azken dekretuak, bestetik, eta garatzen hasi den Euskal curriculumak, egoera berri baten aurrean jarri gaitu.

Trantsiziozko egoera bezala definitu daitekeen egoera honetan kokatu behar dugu orain aurkeztu dugun informazioa eta azalpena. Izan ere, une honetan, hezkuntza komunitatean azterketa eta eztabaida sakona izaten ari da hezkuntza kompetentzien inguruan, eta, aurrerapausoak aurrerapauso, hainbat erabaki hartzeke daude. Oparoa izango den ibilbide berri baten lehen urratsak ematen hasiak gara, eta urrats berriek izango dute beren isla proiektuaren ondorengo eguneratze eta berritze faseetan.

Urtxintxa proiektuaren eguneraketa kompetentzien diskurtsorako hurbilketa bat da, beraz. Ez dugu, momentuz, goitik beherako aldaketarik planteatzen. Urte hauetan sortu zaizkigun beharrei eta egoera berriari ahalik eta modu txukunenean erantzuteko saiakera da orain egiten dugun proposamena.

2.1.1 Etaparen xedeak

Haur Hezkuntzaren xederik garrantzitsua haurraren garapena bultzatzea da.

Jaio ondorengo lehen urteak oinarri-oinarrizkoak dira pertsonaren garapen osoa bere eremu guztietan bultzatzeko eta sendotzeko, nahiz gizarte eremuan, nahiz eremu kognitibo-linguistikoa, nahiz motorean, nahiz oreka pertsonalekoan. Haur Hezkuntzak berebiziko garrantzia du haurraren garapen pertsonala eta eskolako historia orekatuagoak ahalbidetuko dituzten oinarriak sendotzeko orduan.

Adin hauetan oso garrantzitsua da era askotan adierazten ikastea, fase honetako prozedura linguistikoez garrantzi handia baitute.

Haur guztiek garapen integral honetara iristeko aukera izateko, Haur Hezkuntzak funtzio bikoitza bete behar du: *prebentziozkoa* eta *konpentsaziozkoa*. Izan ere, jatorri sozial, kultural edo ekonomikoez eragindako desberdintasunei garapenean sortutakoak gehitu behar zaizkie. Haur Hezkuntzak horiek guztiak hauteman eta erantzuna eman behar die, eta aipatu zailtasunak eskolaratze prozesuan zehar areagotu ez daitezten saiatu behar du.

Eta honetan haurrek era *global* edo orokor batean adierazten dituzte gauzak; hala erlazionatzen dira, eta ikasi ere halaxe ikasten dute. Bere izatearen osotasuna inguruko munduarekin dituen harreman guztietan adierazten eta garatzen du haurrak. Bere dimentsio guztiak (afektibo-emozionala, sentso-motorea, soziala eta kognitibo-linguistikoa) oso estuki lotuta daude, banaezinak dira, eta ezin dira bakoitza bere aldetik garatu.

Haurrek osotasunaren batasunean oinarrituta jokatzeko dutenez, haur eskolak ere era horretan jokatzeko ahalbidetzen duen hezkuntza-marko bat sortu beharko du, haurren garapenaren alderdi guztiak elkarrekin landuz. Horregatik, Urtxintxa proiektuak ikuspegi globalizatzailea jarraitzen du bere curriculum-diseinuan, haurren garapeneremu guztiak interesgune baten inguruan txertatuz.

Izaera global hori ikaskuntza esanguratsuari lotuta dago, zeren, hain zuzen ere, ikaskuntza mota honetan ez dira soilik esperientziak eta ezagupenak pilatzen. Elementu zahar eta berrien arteko loturak ere sortzen dira. Honela, haurren ekintza- eta pentsamendu-eskemak berregituratu eta zabaldu egiten dira.

2.1.2 Haur Hezkuntzako ikasleen ezaugarri orokorrak

Hezkuntza-sistemaren lehen maila da Haur Hezkuntza. Haurren jaiotzatik 6 urtera bitarteko aroak osatzen du, eta bi ziklotan egituratzen da: lehena 0 eta 3 urte bitartekoa, eta bigarrena, 3tik 6ra bitartekoa.

Adin hauetako ezaugarriak beste etapetatik desberdinak dira, eta hori horrela islatu behar da ikastetxeko, gelako eta jardueren antolaketako planteamenduetan. Lehen urte hauetan, familiak zeregin handia du, ikastetxearekin batera, haurren hezkuntzan, eta Urtxintxa proiektuan nahiko zehatz adierazten dira gurasoekiko harremana, elkarlana eta interbentzioaren nondik norakoak.

Haur Hezkuntzaren bigarren zikloan, lehen zikloan abian jartzen diren garapenaren alderdiak zabaltzen eta sendotzen dira. Ziklo honen lehen urtean zenbait haur lehenengo aldiz izango da Haur Hezkuntzako zentro batean. Egokitze-garaian familiak, hezitzaileak eta zentroak berak parte hartu ohi dute. Egokitze-prozesu hori ahalik eta samurren burutzeko jarraibide komunak hartzea komeni da.

Honako hauek dira praktika pedagogikoaren oinarriak: jarduera-ekintza, jolasa, behaketa eta esperimentazioa. Eta guztiak bai bakarka, bai taldeka.

Hiru urteko haurrek etengabe mugitzeko beharra dute. Haurrak bere gorputz-trebetasunak frogatu behar ditu, baina, aldi berean, mugak ditu. Mugimendu handiko jolasak eta lasaiagoak tartekatzen ditu. Garai hau aproposa da orekatzeko, mugimendu koordinaziozko eta erritmo sinpleak dituzten jarduerak proposatzeko.

Esku-kontrolari esker, gero eta ekintza gehiago burutu ditzake: elkartu, hatz egin, moztu, pintatu, erantsi, lotu... Gero eta hobeto menperatzen du trazaketa, eta esku biak erabiltzen ditu bietako bat aukeratu arte.

Espazioan objektuak bere tokian ipintzen ikasten du eta oinarritzko nozioez jabetzen da: aurre/atze, goi/behe... Objektuen ezaugarriez jabetzeko, kontrastez baliatzen da: handi/txiki, luze/motz, lodi/mehe, garai/baxu, etab.

Gorputz-atalak izenda ditzake, baita irudi batean ezagutu ere.

Keinuen eta begiradaren bitarteko adierazpena oraindik indartsua da, baina ahozko hizkuntzaren bitartez erabat aberasten du bere komunikazio-gaitasuna. Inguru ezagutzeak eta elkar ekintza sozialak laguntzen dio ezagutzen dituen hitzen kopurua

handitzen, eta esaldiak hobeki egituratzen eta artikulatzen. Lehen baino azalpen eta kontakizun konplexuagoak ulertzeko gai da, eta gero eta denbora luzeagoz entzun dezake helduek esaten diotena.

Plastikako jarduerak oso atseginak zaizkio, eta beti dago pintatzeko, modelatzeko eta konposatzeko prest. Gauza bera gertatzen zaio musikarekin eta dantzarekin ere.

Helduei aurre egiten die haien aurrean autoafirmatzeko, baina gero eta errazago zaio amore ematea edo helduek arrazoituriko erabakiak eta proposamenak onartzea.

Adin honetako haurra sarriago ikusten da lagunena batekin edo jolas talde batekin; bereizi ezin izan daitezke denbora tarte batean. Bere jarrera gero eta hartzaileagoa da, baina adin horri dagokion egozentrismoak nagusi izaten jarraitzen du. Berekoitasun horretatik irteten laguntzeko oso garrantzitsua da zer hezkuntza-jarraibide hartzen dituen: bere gauzak lagunena artean banatzera gonbidatu, talde-lanak egitera bultzatu, jostailuak partekatu, bere txanda iritsi arte zain egoteko eskatu, etab.

Bere ohiturak ere zabalduz doaz: jantzi eta erantzi, hortzak garbitu, oheratu, sardexkaz jan, erabili dituen materialak jaso... Hori guztia bakarrik egiteko gai da. Horrela, helduekiko mendekotasuna gutxitu eta bere autonomia gehitu egiten du. Ziklo honetan lehen baino askoz hobeto ezagutzen du bizi den ingurua, eta, horri esker, gauza berriak ikasten ditu beste buruari, naturari, eta bizimoduari buruz. Egoera horrek komunikatzeko eta errealitatea errepresentatzeko tresna berriak garatzera bultzatzen du haurra. Jolas sinbolikoak oso garrantzitsuak bihurtzen dira taldearen bizitzan.

Hiru urterekin pentsamendu logikoaren lehen ezaugarriak agertzen hasten dira, eta horiei esker sailkapen edo ordenamendu sinpleak egin ditzake. Kantitatearen edo espazioaren errepresentaziozko nozio errazak ere beregana ditzake.

Lau urtera hurbiltzen doazen heinean, haurrek hobeto bereiz dezakete zer den erreala eta zer beraiek asmatua. Beren azalpenek sinesgarritasun handiagoa dute.

Zikloa amaitu arteko hurrengo urteek planteamendu pedagogiko berdintsua dute. Orain arte landu diren garapen-alderdiak sakontasun handiagoz azalduko dira, eta beren arteko oreka mantenduko da. Haurren pentsaera logikoaren garapenak zenbakizko, topologiazko eta denborazko nozioetara hurbiltzen duten estrategiak aplikatzea ahalbidetuko du.


Nolanahi ere, haur bakoitzak garapen erritmo propioa daukanez, sailkapen guztien gaitetik, bakoitzaren bilakaera indartzea eta errespetatzea izango da hezkuntzaren helburua.

2.2 Irizpide metodologikoak. Proiektuaren ikuspegi eraikitzailea

2.2.1 Globalizazioa

Lehen aipatu bezala, hezkuntza-etapa honen ezaugarri nabarmenetako bat haurraren izate **globala** da. Haren ekintza eta jarduera guztietan eta inguruko munduarekin dituen harremanetan, pertsonaren dimentsio guztiak oso estuki lotuta daude, banaezinak dira, eta ezin dira bakoitza bere aldetik garatu.

Horregatik, Urtxintxa proiektuak ikuspegi **globalizatzaile** batetik, haurraren garapenaren alderdi guztiak elkarrekin lantzea ahalbidetuko duen hezkuntza-markoa sortu nahi izan du.



Esperientzia-eremu guztiak batera, **interesgune** baten inguruan garatzen dira. Interesgune horren aurkezpenarako abiapuntua, horren arabera hautatu, moldatu edo sortu den ipuin bat da.

Honenbestez, Urtxintxaren unitate didaktikoen antolaketaren ardatza interesguneen garapen tematikoa izango da. Jarduerak sekuentzia tematiko horien arabera lotuz joango dira; eremuetako jarduerak gaiaren segida logikoan eskainiko dira. Eremuak errealitatean banaezinak direnez, jarduera bakoitzak eremuetako helburu didaktikoak landu ditzake.

Ikasleek gaiaren bilakaera jarrai dezaten, unitatearen ikasnorabidea marrazkien bidez islatuko da haien lan-koadernoan. Ikasnorabideak hainbat funtzio ditu unitatean zehar:

hasieran, aurrebaluazioa eta sarrerako motibazioa bideratuko ditu; tartean, gaiaren bilakaeraren sekuentzia tematikoak identifikatzen lagunduko du; bukaeran, sintesia eta azken balioespena egiteko modua eskainiko du.

Globalizazioaren ikuspegi honetan txertatzen da Urtxintxaren curriculumeko ardatz nagusietako bat: hizkuntzaren (euskararen) trataera. Euskarari zehar-lerro trataera esplizitua ematen zaio, eremu guztiak besarkatzen baititu. Jardueretan sortutako hizkuntza-erabilerak aztertu eta definitu egiten dira, eta haien lanketa helburu didaktikoetan irudikatzen da.

Hizkuntza lantzeko proposamen espezifikoak ere egiten dira, jakina, ipuina hizkuntzaren lanketa bereziaren muin bezala hartuta. Proposamen berezi horietan, haurren hizkuntza-abiapuntuak kontuan hartu dira, bakoitzari egokitutako proposamen didaktikoak eskainiz. Eleanitz proiektuan garatutako metodologiazko berrikuntzak euskarari aplikatzen zaizkio, haur erdaldunen euskalduntze-prozesua erraztu nahian.

Haur Hezkuntzan aspaldian hasitako bideari jarraituz, hizkuntza idatziaren sarrera egiten du Urtxintxak. Komunikazio-hizkuntza horren inguruko haurren bizipen naturaletatik abiatuz, idatziaren behaketa, interpretazioa eta haren bidezko komunikazioa lantzen dira. Hizkuntza idatziarekiko motibazioa eta jarrera baikor bat garatzea da helburu nagusia.

2.2.2 Ikuspegi eraikitzailea: esku-hartze estiloa

Aurreko atalean adierazi denaren ildotik, unitateen interesgunearen inguruko garapen globalean oinarrituz, gaiak eta gaiekin loturiko ipuinak sortzen dituzten testuinguruak (haurren bizipenak eta beharrak barne) erabiltzen ditu Urtxintxak proposamenari zentzua emateko.

Jarduerak ez dira era isolatuan eta testuingurutik kanpo aurkezten, haurrak zentzua hartuko dion hari bati jarraituz baizik. Testuinguru baten barruan zentzua eta funtzionaltasuna izango duten jarduerak proposatzea da helburua.

Proposamenaren bidez, ikasketa esanguratsuak sustatu nahi dira eta, horregatik, haurren bizitzarekiko, esperientziarekiko eta interesarekiko lotura egiten da, gelatik kanpo ahalik eta testuinguratzeko handiena bilatuz. Horretarako, ekintzaren eta jolasaren garrantzia kontuan hartzen da, eta izaera ludikoa duten hainbat eta hainbat jarduerak txertatzen dira proposamenean.

Aktibitate mental jarraia eta trinkoa sustatzea da Urtxintxaren helburu nagusietako bat, apendizaiaren eraikuntza autonomoa eta konpartitua bultzatuz. Haurra gatazka kognitiboen aurrean jartzen saiatzen gara, bere garapen-maila errespetatuz, garapeneremu hurbila bilatuz eta bertan eraginez. Ez da pertzepzio pasiboa bilatzen, buru jarduerak baizik, eztabaida, berreraikitze pertsonala, interakzioa. Esku-hartzea jarduerak eta harreman guztietan ildo honetatik bideratzen bada ere, badaude bi jarduerak konstante interbentzio mota hau esplizituki bideratzen dutenak eta unitate guztietan azaltzen direnak:

- **Egoera komunikatiboak.** Haurren gertuko egoerak, beti antzeko prozesua bideratuz: behaketa sistematikoa, arrastoen bilaketa, hipotesiak egitea, konponbiderako estrategien hautua, printzipioa edo ikasketa ateratzea, orokortzea.
- **Problemen ebazpena.** Baliabide ezberdinen bidez IDEAL prozeduran trebatze-hasiera proposatuz.

Ikuspegi honetan txertatzen da lan-koadernoko fitxen planteamendu berritzailea. Fitxek galdu dute aplikazio izaera, neurri handi batean. Hau da, Urtxintxa proiektuko fitxak ez dira haurrak egiten dakiena demostratzeko sortu; haurra pentsatzen jartzera, jarduera mentala sustatzera eta jarrera aktiboa bideratzera zuzenduta dauden proposamenak dira. Ondorioz, garrantzi handia ematen zaio prozesu horiek guztiak konpartitzeari, hitzez adierazteari, irakaslearen aldetik jarrera irekia azaltzeari, erantzun dibergenteak onartzeari eta eztabaidatzeari... Hori guztia behar bezala bidera dadin, emaitza-maila desberdinak onartu beharra dagoela proposatzen da.

Beraz, emaitzari berari baino, garrantzi handiagoa ematen zaio prozesuari, haurrak aktiboki jarduteari. Izan ere, adin hauetan ikasteko, edukiak baino garrantzi handiagoa daukate haurren inguruan sortzen den giroak eta irakaslearekin eta beste lagunekin antolatzen diren harremanen dinamikak.

Ikuspegi horren ondorioz, taldekatzeari aipamen berezia egiten zaio proiektuan; jardueren deskribapenean adierazi egiten da taldekatze mota. Eskola berritzailearen nortasun zeinuetatik esanguratsuenetako bat talde-lana da; talde-lana, kooperazioa eta ikasleriaren arteko eta ikasle-irakaslearen arteko erlazioaren indartzea eragiten duen neurrian. Interakzio-prozesuak oinarritzkoak dira ikasketa esanguratsu baten eta sozializazio sendo baten garapenerako.

Era berezian bultzatu nahi izan da haurren arteko kooperazioa (helduen interbentzio egoki batez lagunduta), hori baita biderik egokiena benetako ideien elkar trukaketa eta eztabaida errazteko, hau da, pentsamendu kritikoa, objektibitatea eta gogoeta diskurtsiboa hezteko jokabideak garatzeko.

Urtxintxa proiektuan, jardueren ezaugarriak aztertu ondoren, lan mota bakoitzerako egokiena izan litekeen taldekatze proposamena aurkezten da. Irakaslearen esku geratzeko da betiere proposamenaren egokitasuna baloratzea eta gelako egoerara egokitzea.

2.2.3 Gelako antolamendua: Txokoak

Haurra bere ikaste-prozesuaren protagonismoa hartzea, ziurtasun afektiboa bermatzea eta autonomia bultzatzea dira Urtxintxa proiektuaren bitartez lortu nahi diren helburuak. Horretarako, berebiziko garrantzia eman behar diogu esplorazioari, manipulazioari eta jolasari. Zalantzarik gabe, espazioaren antolaketak eta, batez ere, hautatzen dugun esku-hartzearen estiloak (haurrei ikaste prozesuan protagonismoa ematen zaien ala ez) baldintzatuko du.

Hezkuntza-konpetentzia orokorrak garatzeko, hau da, NORBERA IZATEN IKASI (autonomia lortzen joateko), ELKARREKIN BIZITZEN IKASI (talde bizitzan trebatzeko), eta batez ere EGITEN ETA EKITEN IKASI konpetentziaren garapenean aurrerapausoak emateko, **gela txokoetan** banatzea proposatzen dugu. Horrela, haurrak

berez daukan esperimendatzeko, sortzeko, ekiteko eta egunerokoan erabakiak hatzeko joera hobeto bultzatuko eta bermatuko dugu.



Autonomia intelektualak bultzatzea da lan-txokoen helburu nagusia; horregatik, haurrak bere kasa joan behar du txoko bakoitzera. Horrela, jarduera erabakitzen, antolatzen eta burutzen duena haurra bera dela ziurtatuko dugu, beste ikaskide batzuen laguntzarik edo presiorik jaso gabe.

Hezitzailearen eginkizuna

Lan-txokoak antolatzeko unean, oso garrantzitsua da **hezitzailearen funtzioa**. Hezitzaileak **espazioa eta materiala prestatzen eta egituratzen** dituen moduaren arabera, eraginkorrak eta motibatzaileak izango dira, edo ez. Hezitzaileak haurrak bultzatu behar ditu lan-txoko bakoitzean aurkitzen dituen materialak esperimendatzera eta manipulatzera; sormen- eta irudimen-gaitasuna estimatu behar die; txoko bakoitzaren antolamenduaren bidez, ordena, garbitasuna eta errespetua sustatzen lagundu behar die.

Materialak ongi ordenatuta eta sailkatuta egon behar du. Hasieran, antolamendu-sistema bat ezarri behar da. Garrantzitsua da, hasieran, ezarritako antolamendua errespetatzea; izan ere, materiala toki batetik bestera aldatzen bada, haurrari zaila egiten zaio espazio-erreferente batzuk ezartzea. Materiala hartzeko eta itzultzeko, ez da komeni egotea apaletan pilatuta edo hurbilegi elkarrengandik.

Materiala horrela antolatuz gero, jasotzeko eta sailkatzeko zeregina garrantzitsua izatera iritsiko da taldearen eguneroko bizitzan. Horrela, ingurunea errespetatzeko eta estimatzeko azturak bultzatuko ditugu.

Haurrek erabiliko dituzten tresnek eta materialek haurren zerbitzuan egon behar dute. Horregatik, haien eskura egon behar dute. Modu horretan, autonomia pertsonal handiagoa izaten lagunduko zaie.

Bestalde, jokabide- eta portaera-jarraibideen bitartez ikasiko dute gelako elementu guztiak errespetatzen eta erabiltzen. Haurrek, pixkanaka, unibertso egonkor eta ezagun bat behar dute, berezko identitatea lortzeko.

Pixkanaka, ume bakoitzak jakiteko guraria izateko behar dituen jarrerak bereganatu behar ditu eta, aldi berean, guztien artean landu diren prozedura batzuk indibidualki aplikatzen jakin behar du.

Horrela lortuko da lantzen diren talde ikaskuntzak bakarka aplikatzea eta, horrez gain, elementu motibatzaileak izatea. **Haurrak poz handia hartzen du taldean ikasitako teknika bat edo eduki bat berak bakarrik aplikatzen duenean.**

Ekintza, **jarduera eta zeregin bakoitzak programatuta egon behar du**, eta ez zaio tarterik utzi behar inprobisazioari, hori ez baita lagungarria suertatuko gehienetan. Jakina, hezitzaile on batek eskola-jarduera batean ager daitezkeen bat-bateko interesak jaso behar ditu, baina jarduera osoa ez da antolatu behar hezitzailearen inprobisazioan oinarrituta. **Denbora-antolamendua eta denboralizazioa beharrezkoak dira, haurrak ikaskuntzez eta denbora-egiturez pixkanaka eta jarraian jabe daitezzen.**



HARRERA TXOKOA

Ikasgelaren erdigunea izango da eta ez du altzairuek mugatuta egon behar. Harrera-txokoaren muga fisikoa lurrian markatuta dagoen korrua izango da. Eguneko zenbait mementotan, korruan bilduta lan egingo dugu taldeko haur guztiekin. Saioa bukatu ondoren, haur batzuk txokoan jarraitzeko gogoia izan dezakete, eta aukera hori eskainiko diegu harrera-txoko honekin.

Horman, ondo antolatuta, honako elementu hauek guztiak egon daitezke:

- Arbela
- Horma-irudirako gunea
- Oharren eta eskutitzen panela
- Kantak, olerkiak eta hiztegia ipintzeko espazioa
- Eguneroko zereginak

Txoko honen berezitasuna komunikaziorako espazioa dela da: sentimenduen adierazpena, horma-irudiaren irakurketa anitzak, etxetik etorriko diren oharren, gutunen, argazkien harrera-lekua...

Kontuan izanda zer-nolako jarduerak egiten ditugun espazio honetan talde handian (biribilean) gaudenean, txokoetara joatean gerta liteke hurrek, imitazioz, antzeko jarduera egiten jarraitzea jolas modura, modu librean. Ume batzuek, esate baterako, hezitzailearen papera betetzeko tentazioa izan dezakete. Txoko honen berezitasun nagusia, berriro diogu, komunikazioa da, sentimenduen adierazpena, rolen banaketa...

Txoko honetako jarduerak zentzu kolektiboa izan behar dute, komunikazioa elkartrukatuta beti. Jarduera kolektiboak indibidualak baino pisu handiagoa eduki behar du. Soziabilizaziorako oso gune interesgarria izango da, ezberrik gabe.

HEZITZAILEAREN EGINKIZUNA

Komunikazio egoeretan moderatzailea izatea da hezitzailearen zeregina. Dinamizatzailea: sentimenduen adierazpenak proboka ditzake, ereduak eskainiz. Behatzailea: esparru kolektibo honetan, hainbat datu interesgarri jaso ditzake.

ERAIKUNTZEN TXOKOA

Haurraren sormenari atea zabaltzen dion espazioa da, eta oso arrakastatsua izan ohi da. Txoko honetan egiten diren jolas-jardueretan, ez da ia adierazpen kolektiborik izango, hasieran, behintzat. Ume bakoitzak berea egiteko eta berea defendatzeko joera izango du.

MATERIALA

- Egurrezko piezak (tamainarekin kontuz ibili beharko dugu, ez handiegia, ez txiki-txikiak)
- Plastikozko piezak
- Ibilgailuak
- Animaliak
- Materialak gordetzeko kutxak
- ...

HEZITZAILEAREN EGINKIZUNA

Alde batetik, txoko honen hornitzailea izango da, eta pieza kopuru egokia zein den erabakiko du. Antolatzailea: nagusiaren ardura da arauak markatzea eta sor daitezkeen gatazken aurrean irtenbideak bilatzen laguntzea. Umeen produkzioen ikuskatzailea eta behatzailea izango da, gainerako espazioetan bezalaxe.

ADIERAZPEN PLASTIKOAREN TXOKOA

Txoko honetan adierazpenarekin (plastikoa, berbazkoa, matematikoa...) zerikusia duten jarduerak landuko dituzte.

Txoko honen berezitasun nagusia, apendizai didaktiko espezifikoaren garapena ez ezik, haurren sormen eta adierazpen-grinari eta komunikatzeko beharrari ere gune bat eskaintzea da.

MATERIALA

- Mahaiak (hobe luzeak badira edo elkartzeko aukera ematen badute)
- Aulkiak
- Apalak (espazioan erabiliko diren materialak gordetzeko)
- Margoak
- Errotulagailuak
- Borragoma
- Artaziak
- Papera
- Arkatzak
- ...

HEZITZAILEAREN EGINKIZUNA:

Ez du adierazpena bideratu behar, adierazpen librea izan behar da. Hurrek aukera izan behar dute barrutik ateratzen zaiena marrazteko, margotzeko, idazteko... Beste une batzuetan, jarduera bideratuta egongo da, baina, betiere, askatasunez jokatzeko aukera eta laguntza emanda, bakoitzak behar duen neurrian.

Gainerako txokoetan bezalaxe, prozesuari behatuko dio hezitzaileak eta jarraipena egingo dio.

LIBURUTEGI TXOKOA

Espazioa eroso eta atsegina izango da. Txoko hau altzairuekin ixtea komeni da; horrela, gainerako txokoetatik bereizita geratuko da. Liburutegian egiten diren jarduerak lasaiak eta erosoak izango dira.

MATERIALA

- Ipuinak antolatzeko erakustokia
- Eserleku erosoak
- Alfonbra
- Ikastolako ipuinak
- Etxetik ekarritako ipuinak
- Testurik gabeko laminak (ipuin formatuarekin)
- Txotxongiloak
- Argazki-albumak
- Aldizkariak
- Interesgunearekin lotura duten kontsulta-liburuak...

Iradokizunak: Txoko honek nahi denerako egokitzeko modukoa izan beharko du: txotxongiloen antzezpena egiteko, hezitzaileak ipuinak kontatzeko...

HEZITZAILEAREN EGINKIZUNA

Txoko honetako dinamizatzailerak izan daiteke memento batzuetan. Hezitzailearen esku egongo da txoko honek izan dezakeen kutsu magikoa bilatzea, eta etekina ateratu beharko dio. Ipuinaren kontaketa zainduko du, beharrezkoak diren baliabideak eta estrategiak erabiliz (sarrera eta bukaerako erritualak egin, ipuina kontatzeko aukeratu dituen elementu magikoak erabili...).

JOLAS SINBOLIKOA (ETXEKO TXOKOA)

Imitazioaren bitartez, inguruarekin harremanetan jartzeko modua topatzen du haurrak. Hasieran, haurren buruan egoten da; ondoren, ondoan duen helduaren arreta bereganatzen saiatuko da.

Haurrak helduen jokaerei behatzen die, eta imitatu egiten ditu: lotan egongo balitz bezala ipiniko da, orrazten arituko balitz bezala, sukaldaria balitz bezala... Geroxeago, panpinak sartuko ditu jolas horretan, eta horiek izango dira lotan egongo direnak, orraztu behar direnak eta jan behar dutenak.

Objektua aurrean egon gabe egoera horiek bizitzeko gaitasuna daukanean, jolas sinbolikoa agertuko da. Jolas sinbolikoaren bitartez, afektuzko tentsioak eta desioak bideratzen ditu. Geroago, helduagoa den neurrian, rolak banatzen dira eta arauak ezartzen egiten dira jolasean, jolasaren gizarte-dimentsioan bide berriak esploratuz.

MATERIALA

- Etxea, sukaldea, ohe txikia
- Panpinak
- Ispilua
- Etxeko tresneria
- ...

HEZITZAILEAREN EGINKIZUNA

Txoko hau lantzen ari garen gaiaren arabera molda daiteke. Adibidez, mozerroak sar ditzakegu inauterietan, denda antolatu janariaren gaiarekin ari garenean; ospitalea, ile-apaindegia...

ONDORIOZ

Txoko bakoitzak bere berezitasunak izango ditu, baina, aldi berean, malguak izan behar dute. Txokoak elikatu, hornitu, aldatu... egin behar dira, eta aldaketa horiek guztiak haurren interesetan eta beharretan oinarritu behar dira.

Txoko hauetan egiten diren hainbat jarduerari eskaintzen zaien denbora luza daiteke, eta txokoaren espazioa (beharraren arabera) zabaldu ere bai. Horrela, haurren interesa pizten duen jarduera bat mantentzeko daiteke zabalik, haurrek aukera izan dezaten esperimentaziorako eta ondorioak ateratzeko. Denda txiki bat, adibidez.

Urtxintxa proiektuko 3 urteko lehen hiruhilabeteetan ageri diren jarduerak batzuek horrelako izaera har dezaketela aurreikusten da. Dena dela, haurren interesari eta jarduerari behatu beharko zaio, jarduerak horiekin jarraitu ala ez erabakitzeko.

Hezitzailearen eginkizuna beraz, bikoitza izango da. Haurrak, lan-txokoetan libre ibiltzen diren mementoetan, aurreko atalean deskribatu dena, txoko bakoitzaren definizioa garatzerakoan; eta bestetik, bideratzaile papera hartuko du beste hainbat jarduerak proposatzean (harrera-txokoa, jarduerak konstanteak...)

Behaketa jarraia egiteko (txoko libreetan zein jarduerak gidatuetan), hainbat erreferentzia har ditzake hezitzaileak **datuak jasotzeko**. Hona erreferentzia batzuk:

- Materialarekiko jarrera
- Besteekiko jarrera
- Hezitzailearekiko jarrera
- Txokoen erabilera (lehentasunak)

EGUN BAT HIRU URTEKO GELAN

- 9:30 Sarrera/Harrera
- Bilerakorra: Haur guztiak ez dira kemen berarekin iristen ikasgelara, batzuk pozik azaltzen dira, beste batzuk haserre, triste, urduri... Emozio horiek guztiak bildu eta, ahal dugun neurrian, kontrolatzen saiatu behar dugu. Giroa lasaitzea lortzen dugunean, prestatuta dauzkagun jarduerak baliatu ditzakegu:
 - Horma-irudia
 - Ipuin dramatizatua
 - Atzamar-jolasak
 - Hiztegi-jokoak
 - Olerkiak
 - Igarkizunak

Bilerako denbora oso garrantzitsua da gelako bizitzan. Horrek eskatuko digu saio honetako jarduerak guztiak ondo planifikatuta izatea, dinamikoak, parte-hartzea bultzatzen dutenak eta, bereziki, haurren interesa erakartzen duten jarduerak osatuak. Ezin dugu onartu memento hori aspergarria izatea haurrentzat; horrek bileraren zentzua apurtuko luke.

- 10:30 Txokoetara goaz

Une honetan, gelako txokoetan dauden aukeren artean egingo duten jolasa aurreikusteko eskatuko diegu:

—Pentsatu al duzue zertan jolastuko duzuen gaur?

—Pentsatu al duzue non jolastuko duzuen? Zein txokotan?

—Zer egin behar duzue?

—...

Interesgarria da oinarrizko arauak gogoratzea (minik ezin da eman, ezin da apurtu besteen jolasa...).

Hezitzaileak markatuko du saioaren bukaera, eta ordura arteko datu bilketa egingo du.

- 11:00 Hamaiketako eta komuneko buelta
- 11:15 Patioa
- 11:45 Berriro gelara lehenengo orduan bezala, piztutako emozio guztiak jaso, eta hitzetara ekarri. Goizean zehar bizi izan dutena gogoratu, eta, bukatzeko, jolas kanta abestu, olerkia errezitatu...
- 12:30 Bazkaria
- 14:30 Bilera-korrua. Haurrak arratsaldean nekatuago egoten direla kontuan izanda, saio honek laburragoa izan beharko luke. Memento egokia izan daiteke ipuin kontaketa gozoak egiteko, musika entzuteko, baina dena labur-labur.
- 15:00 Txokoetara goaz. Goizeko dinamika berari jarraitu.
- 15:30 Komuneko buelta eta patioa
- 16:00 Etxera joateko prestatu. Goizean bezala, korruan ipini, eta, egunari bukaera emateko, bizipenen errebaso laburra egin. Bukatzeko, kantatu, olerkitxo bat kontatu edo antzeko beste zerbait egin.
- 16:30 Etxera!!

2.2.4 Eremuen trataera

NORBERAREN EZAGUERA ETA AUTONOMIA PERTSONALA

SARRERA

«Norberaren ezaguera eta autonomia pertsonala» esperientzia-eremuak zera biltzen du: haurrak, hezkuntzako esku-hartzearen laguntzarekin, eta pixkanaka, bere buruari buruz barneratzen duen ezagutza guztia. Ezagutza horrek haurrari lagunduko dio bere nortasuna sendotzeko prozesuan, eta erabateko mendetasuna izatetik nahikoa autonomia izatera eramango duen ibilbidean.

Haur-eskolaren eremuari loturiko norbanakoaren eraikitze-prozesuan, hasteko, nahitaezkoa da lotura afektiboa ezartzea haurraren eta eskola-ingurune heldu baten artean; atxikimenduko irudi bat izatea, alegia. Lotura horrek segurtasuna emango dio haurrari, eta ingurunea miatzen eta ingurune elementuen artean harremanak ezartzen lagunduko dio. Interakzio horiek lagunduko diote bere garapen kognitiboa eta mugimenarena garatzen, bere aukerak eta mugak egiaztatzen, ingurukoengandik bereizten. Halaber, helduekiko independentzia-prozesua hasten erraztuko diote.

Nortasun pertsonala eraikitzea haurrak bere ingurune fisikoarekin, naturalarekin eta, batez ere, sozialarekin dituen interakzioen emaitza da, haurraren esperientzia multzoaren ondorioa, alegia. Interakzioek sustatu behar dute nork bere buruaren benetako irudia lortzea, norberaren gaitasunez jabetzea, autonomia, segurtasuna eta autoestimua. Prozesu horretan haurraren sortzen diren sentimenduek lagunduko dute bere buruaren kontzeptu egokitua gauzatzeko. Horrek, gero, aukera emango dio bere gaitasunen arabera hautemateko eta jarduteko, garapen oso eta harmonikorantz aurrera egin dezan.

Afektibitatea garatzea bereziki garrantzitsua da etapa honetan; irakaspenen oinarria da eta haurraren nortasuna eraikitzen du. Horretarako, funtsezkoa da haurrak, hasierahasieratik, emozioak eta sentimenduak pixkanaka onartu, adierazi eta kontrola ditzan bultzatzea.

Kontuan izan behar da haurrak bere buruaren inguruan egiten duen irudia, hein handi batean, inguruan dituen erakusten dioten irudiaren barneratzea dela, bai eta haiengan jartzen duen konfiantzarena ere. Halaber, helduek haurraren ekimenak jasotzeko erabiltzen duten moduak erraztu du haren garapena, edo oztopatu.

Haur-eskolan oso garrantzitsua da bizi-kalitate hobea izaten lagunduko duten ohiturak eta balioak sustatzea. Nork bere burua zaintzen ikasteak, pixkanaka, jarduteko jarraibide egokiak hartzea eskatzen du, elikadurari, segurtasunari eta higienari dagokienez. Ohiturak hezi daitezke, eta funtsezkoa da ildo horretan esku-hartzea haurrak hezkuntza-komunitatearekin ezartzen dituen lehenengo harremanetatik. Bizitzan aukera osasungarriak hartzen lagunduko dion ezagutza eraiki behar da.

Etaparen honetako **haurren garapenaren dimentsio guztiak jolasarekin loturik daude**. Haurrek ekintza behar dute, objektuak erabili, ingurukoekin harremanak izan, eta hori jolastuz egiten dute. Jolasaren bitartez, haurrak bere ulertzeko moduak antolatzen ditu, bere gaitasunak probatzen ditu, bere esperientzia berregin eta ulergarriago egiten du, bere emozioak menderatzen saiatzen da eta bere burua ezagutzeko bidean aurrera egiten du.

Jolasaren eta ekintzaren garrantzia

Irakaskuntza aktiboaren printzipio nagusia, "norberaren ekintza da, ikaskuntzaren oinarria", funtsezkoa da Haur Hezkuntzan ekintzak hartzen duen garrantzia ulertzeko. Eta haurraren ekintzaren manifestazio nagusia JOLASA da.

Handia da jolasak hartzen duen denbora eta espazioa Haur Hezkuntzan. Horregatik ekintza horren balioa garbi izan behar dute bai hezitzaileek eta bai gurasoek.

Jolasaren bitartez, haurra behin eta berriro saiatuko da helburuak lortzen, askotan erraz nekatu gabe. Saiakera horietan bere iraunkortasuna garatuko du. Jolasaren bitartez haurrak, ukitu, sentitu, manipulatu, esperimendu... egingo du, objektuekiko harremanean bere pentsamendu arrazional eta zientifikoa garatzeko aukera egokiak aurkituz.

Psikoanalisiak terapia moduan erabiltzen du jolasa. Ekintza horren bitartez haurrak bere nahiak, bere inguruko gertaerak, bere esperientziak, sentipenak... kanporatzen ditu, eta aukera ugari ematen dizkie beste haurrei, guraso edo helduei, barneratutako zailtasunak, eta blokeoak deskubritzeko eta beren gainditzean laguntzeko.

Jolastuz espazioa esploratzen du haurrak, eta esplorazio horren bitartez hainbat nozioz jabetuko da.

Bada beste alderdi bat jolasaren bitartez garatzen dena: hezkuntzaren gizarteratzerako dimentsioan duen eragina. Haurrak inguruko kideekin duen jolas-harremanak aukera emango dio bizikidetzaren egokian beharrezkoak diren gizarte-arauen balioa sentitzeko. Arauen errespetua, aniztasunarena, partaidetzaren garrantzia, autonomiaren beharra, talde-lanen balioa...

Haurrak, inguruarekin izango dituen esperientzien bitartez, egoera ugari biziko du pentsamenduaren oinarriak eraikitzeke, hala nola, elementu desberdinen ezaugarriak behatzeko, elementuen arteko erlazioak ikusteko, bere inguruko elementuak sailkatzeko...

Haur Hezkuntzako haurra ekintza eta esplorazioa jolas bilakatuz, bere gaitasun guztiak garatzen ari da. Jolastuz bere adimena garatzen du kontzeptuak eraikiz, bere ahalmen motrizak espazioa esploratuz eta bere gorputzaren ahalbideak neurtuz, bere gaitasun komunikatiboak eta gertaerak imajinatuz, besteei adieraziz, interpretatuz.. Bere gizarteratzeko trebetasunak eta gaitasunak garatzen ditu, lagunen arteko jolasen bidez.

Urtxintxa proiektuan, jolas librearen osagarri modura, taldekako jolasak proposatzen dira: mahai-jolasak, jolas musikatuak, hainbat arau kontuan harrarazten dituzten bestelako jolas motrizak eta herrikoiak...

Psikomotrizitatea

Urtxintxa proiektuan, psikomotrizitate erlazionala (La Pierre, Aucouturier) hartzen da haurraren garapena bultzatzeko biderik egokientzat. Praktika hori da proiektuak iradokitzen dituen. Hori aurrera eramateko baliabide nagusia horretan formatu eta trebatu den irakaslea da. Bestalde, praktika horren osagarri modura, Urtxintxak jolas-motrizitatea lantzeko jarduerak proposatzen eta deskribatzen ditu unitate didaktiko guztietan.

BIZITZA INGURUKOEKIN

SARRERA

Ingurunearen ezagutza da globalizazioaren ardatza ematen diona Urtxintxa proiektuari. Baina, zertan datza esperientzia-eremu hau? Bada, ingurune naturala, fisikoa eta soziala osatzen duten testuinguruen ezaguera gero eta doituago bat eraikitzean. Ezaguera horrek berekin dakar errealitatearen adierazpen zehatza egitea, ingurunearen zati garen sentimendua garatzea, eta ingurunea osatzen duten elementuak errespetatzea, haiekiko interesa izatea eta behar bezala balioestea.

Inguruan dituen helduek segurtasun afektiboa ematen diote haurrari, eta horiekiko lotura positiboak ezarri behar dira; horiek lagunduko diote haurrari errealitateak nola funtzionatzen duen jakiteko eta ulertzeko jakin-mina erakusten, eta hartara jotzen. Ingurune fisikoarekiko harremanetan, ingurune hori osatzen duten elementuak aztertzen, behatzen, ikuskatzen, ikertzen eta identifikatzen ditu; haien artean loturak ezartzen ditu;

antzekotasunak eta aldeak aurkitzen ditu; bere ekintzek inguruneko elementuetan dituzten eraginak ordenatzen, sailkatzen eta kuantifikatzen ditu, eta aurrea hartzen die; azkenik, manipulaziotik adierazpenera eta hitzezko adierazpenera eboluzionatzen du.

Eremu honi dagozkion edukiek honako gai hauek hartzen dituzte, nagusiki: hurbileko ingurune naturalak eta sozialak, horietako elementu fisikoak eta horien arteko harremanak, ingurune horietan gertatzen diren antolaketak, eginkizunak eta gizarte-harremanak. Eremu honi dagozkio, halaber, haurrei komunikabideen bidez edo bidaien eta antzekoen bidez iristen zaizkien urrutiko inguruneak. Izan ere, urrutiko ingurune horiek haurren arreta erakartzen dute, eta ezagutzeko interesa pizten diete.

Proposamen honen oinarrian, haur-eskolaren honako kontzeptu hau dago: ingurunera irekia, haurrek eskolaz kanpo bizi dituzten esperientzien ezaguera hartzen duena, inguruan gertatzen den guztiarekiko sentikorra, kanpoko errealitatea eskolan sartzeko aukera ematen duena, eta eskolari inguruan duen errealitate sozialean eta naturalean bere ekarpenekin eragiteko aukera ematen diona.

Ingurune naturala eta bertako izakiak eta elementuak dira haurren jakin-min eta interes nagusia. Naturako elementuei loturik dituzten bizipenen bidez, eta haien gaineko gogoeta gidatuen bidez, haurrek aztertu egingo dituzte hainbat fenomeno, horien agerraldiak eta ondorioak. Helduen laguntza eta babesa izango dute horretarako. Halaber, pixkanaka ezagutuz joango dira izaki bizidunak, haien arteko harremanak, ezaugarriak eta funtzioak.

Ingurune soziokultural hurbilena estimulu-iturri da adin horretan. Estimulu horiek haurren arreta berenganatzen dute, eta interes nagusi bihurtzen dira laster. Etapan zehar, haurrek familiako eta eskolako kide direla ikusiko dute; azken batean, hazten ari diren ingurune sozialeko kideak direla ohartuko dira.

Eskola-bizitzak berekin dakar gero eta esperientzia zabalagoak izatea. Esperientzia horiek pertsonak eta pertsonen arteko harremanak ezagutzeko aukera emango diete, loturak sortuko dituzte eta zenbait jarrera garatuko dituzte, hala nola konfiantzazkoak, enpatiazkoak eta atxikimenduzkoak. Jarrera horiek haurren sozializazioaren oinarria izango dira. Gizarte-harremanak lankidetzakoak izaten dira maiz, baina gatazkatsuak ere bai, alditan. Hala ere, esku-hartze egokiaren laguntzarekin, beti egingo dute gizarte-ikaskuntzaren, pertsonen arteko garapenaren eta bizikidetzaren alde.

Kultura-aniztasunak haurrak gizarte-ohituretara eta usadioetara hurbiltzea gomendatzen du, bai eta beren inguruko kultura-eremuetara hurbiltzea ere. Eta, hori guztia, gizartean dauden askotariko modu eta adierazpen kulturalak ezagutzeko aukera emango dien ikuspegi ireki eta integratzaile batetik. Horrela, haiekiko errespetua izango dute eta estimatu egingo dituzte.

Haur Hezkuntzan ingurune fisiko eta sozialaren eremuan aztertzen diren testuinguruak eta egoerak garatzen dira era globalizatuan unitatean zehar, ipuinaren laguntzaz. Testuinguru horiek ez dira berdinak urtero, zenbaitetan urtez urte errepikatzen badira ere; ez horien lanketa-sekuentzia eta ez lantzen diren elementuak. Aldagai berriak txertatzen dira, gaiarekiko ikuspuntua zabalduz, eta aurreko urteetan landutako hainbat ideia erreperatuz. Adibidez, urtero, udazkenean, gai hori lantzen du proiektuak. Hiru urterekin, “Mendian zoragarria da udazkenean” izenburupean, eta *Txanogorritxo* ipuinarekin aztertzen dira mendiko bizidunak, udazkeneko aldaketak, eta mendian aurki daitezkeen fruituak eta jakiak. Lau urterekin, “Hostoak firin-farin” izenburupean, eta *Inurria eta txirrita* ipuinarekin, inurrien bizitza aztertzen da, udazkeneko fruituekin egiteko proiektu txikiak lantzen dira, hostoekin lanak egiten dira eta udazkeneko San

Martin festaren inguruko jarduerak proposatzen dira. Azkenik, bost urteko materialean, “Zatoz hostoen eta perretxikoen erakusketara” izenburupean, eta *Artzain gezurtia* ipuinarekin, esnekien (gazta, jogurta, mamia) elaborazio-prozesuak aztertzen dira, udazkeneko aldaketak behatzen jarraitzen da, hostoak sakonkiago aztertzen dira, eta hostoen eta perretxikoen erakusketa baten antolaketa bideratzen da. Hortaz, gai bera izanik ere, urtez urte sakontze- eta zabaltze-lan bat bideratzen da ikasnorabide baten inguruan.

Utxintxa proiektuan zuzeneko behaketa eta esperimentazioa bultzatzen dira, unitate didaktikoetako jardueren bidez, objektu, toki eta pertsonetikiko ekintzen bidez, errealitatea antzemateko eta errealitatearen inguruan teoriak eraikitzeko.

HIZKUNTZAK: KOMUNIKAZIOA ETA ADIERAZPENA

SARRERA

Eremu honen helburua banakoaren eta ingurunearen arteko harremanak zabaltzen laguntzea da. Hizkuntzak dira barneko eta kanpoko munduaren arteko lotura; tresna egokia dira errealitatea adierazteko, norberaren jokabidea arautzeko, harremanetarako, eta pentsamenduak, sentimenduak, bizipenak eta abar adierazteko.

Haurrek eremu honetan bildutako edukietan aurrera egin ahala, komunikatzeko eta adierazteko dituzten tresnak hobetuko dituzte. Horrek norberaren, gizarte-ingurunearen eta ingurune fisikoaren ezagutzan aurrera egitea dakar.

Haurrek jaiotzatik dauzkaten eta lantzen dituzten bizipenak eta komunikatzeko eta adierazteko moduak, Haur Hezkuntzako etapan hasten dira, zabaltzen eta dibertsifikatzen. Lehendabizi, gorputzaren eta keinuen bidezko komunikazioa darabilte; horiekin oinarrizko harreman- eta orientazio-beharrak asetzen dituzte. Hortik, hizkuntza guztiak garatzera pasatzen dira, ahozko hizkuntza bereziki, helduekiko harremanei esker.

Etapak aurrera egin ahala, haurrak inguruarekin duen harremana aberastu eta sakondu egiten da, beste adierazpen-bide batzuk ezagutzen ditu, eta parekoekin eta helduekin komunikaziozko harremanak sendotzen ditu. Komunikazioetan gero eta eduki landuagoak sartzen dira, eta adierazpen konplexuagoak egiteko aukera emango dioten kontzeptuak, trebetasunak eta jarrerak barneratuko ditu.

Komunikazio-trebetasunak ikasteko, mezuak jasotzeari eta interpretatzeari loturiko gaitasunak indartu behar dira; mezuak igortzea edo ekoiztea helburu dutenei loturikoak ere sendotu behar dira. Horrek laguntzen du mundua hobeto ulertzen eta modu originalean, irudizkoan, sortzailean eta funtzionalean adierazten.

Hauek dira eremu honetan biltzen diren hizkuntzak: hitzezkoa, artistikoa, gorputz-hizkuntzarena, ikus-entzunezkoa eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiena. Askotariko adierazpen modu horiek garatzean, esanahien negoziatzearen bitartez, haurrek aurrera egingo dute, eta gizarteko arauen kodeak modu esanguratsuan eta funtzionalean eskuratuko dituzte.

Haur Eskolak komunikazio-eremu bat izan behar du. Topaleku honek haurrei esanahietan aberatsa, argia eta ondo egituratua den hizkuntza-eremu bat eskainiko die. Baina, batez ere, elkarrizketa egiteko aukera asko eskaini beharko dizkie; hezitzaileekin zein parekoekin elkarrizketan jarduteko aukera asko, hipotesiak probatu eta beren burua

zuzendu dezaten. Haurren ekoizpenetan sor daitezkeen akatsak hizkuntza eraikitzekeo prozesu aktiboaren seinaleztat hartu behar dira.

Idazketa da haurraren inguru hurbileko beste elementu bat. Haurraren arreta erakartzen du eta, helduek egiten duten modura, idazketarekin interakzioan jarduteko nahia pizten die. Ikasgelan irakurketa eta idazketa modu funtzionalean eta esanguratsuan erabiltzen bada, hezkuntzako esku-hartze egoki batez, haurrak hasiko dira testu idatzien zenbait bereizgarri eta ohiko ezaugarriak ezagutzen. Ezagutza hori Lehen Hezkuntzako lehenengo zikloan osatu behar da.

Plastika-hizkuntzaren bitartez, haurrek errealitatea aztertzen dute, errealitatearen inguruan duten ezaguera islatzen dute, beren burua adierazten dute... Hizkuntza pizgarria da trebetasun eta gaitasun berriak eskuratzeko, eta sentikortasun estetiko eta sormena pizteko.

Musika-hizkuntzak hainbat gaitasun garatzeko aukera ematen du, pertzepzioari, erritmoari, kantuari, soinudun objektuak eta instrumentuak erabiltzeari, gorputz-mugimenduari eta sorkuntzari loturikoak. Hori, besteak beste, arretaz entzutetik, aztertzetik, manipulaziotik eta soinuekin eta musikarekin jolastetik sortzen da.

Gorputz-hizkuntzak adierazpenezko dimentsioan sartzeko aukera ematen du, jarrerek, keinuek, harreman tonikoez, begiradez eta antzekoez osatutako adierazpidean, hain zuzen. Halaber, haurraren bizipen emozionalak kanporatzen ditu, eta haurra gero eta hobeto egokitzen da inguruarekiko harremanean bizitako egoeretara. Objektuekin egiten duen jolas horren bitartez, eta niaren eta munduaren arteko etengabeko dialektikan, bere gorputzaz jabetzen hasten da, bere gorputza baita errealitatearekin harremanetan jartzeko bitartekoa, eta bere jarduera gero eta zehatzago erregulatzea lortzen du.

Haurren bizitzan dauden ikus-entzunezko hizkuntzek eta informazioaren eta komunikazioaren teknologietako hizkuntzek, hezkuntzako trataera berezia eskatzen dute, haurrak egokitu ditzan eta dagokien garrantziaz erabil ditzan. Hezkuntzako trataera horren bidez, haurrak ikus-entzunezko mezuak interpretatzen eta ulertzen has daitezten eta modu egokitan eta sormenez erabil ditzaten lortu nahi da.

HIZKUNTZAREN IKUSPEGI KOMUNIKATIBOA

“Hizkuntza beste edozer gauzaren gainetik, besteekin komunikatzeko era sistematiko bat da, bestearen eta norberaren ekintzak bideratzeko, elkarren arreta suspertzeko, ekintzak eragiteko...”

Jerome Bruner, *El habla del niño: aprendiendo a usar el lenguaje*

Hizkuntzaren ikuspegi interaktiboak gidatzen du Urtxintxaren lan proposamena arlo honetan (ahozkoan zein idatzian). Hizkuntza, elkarrekintzan erabiliz, besteekin gauzak egiteko erabiliz ikasten da. Hizkuntzaren gramatika-elementuak ez dira era abstraktuan garatzen; alderantziz, esanahia duten neurrian, konpartitutako ekintzen testuinguruan txertatuta agertzen direnean bakarrik jasotzen ditu haurrak.

Ikuspegi horren ondorioz, hainbat testuinguru eta egoera biziak eta komunikazio-mailan ahalik eta aberatsenak eskainiz, ziurtatu nahi izan da hizkuntzaren garapena. Ikaslearen

produkzioak, beraz, ahalik eta naturalena eta eguneroko bizitzarekin eta interesekin lotuena behar du izan; baina aldi berean, irakaslearen lanak ere oso esplizitua, kontzientea, intentzionala eta sistematizatua izan behar du.

Hiru esparru nagusitan garatzen da hizkuntza lantzeko proposamena:

1. Gelako eguneroko bizitza

Hizkuntzak zehar-lerro trataera garbia du: gelako edozein ekintza eta gertaeratan hizkuntzaren lanketa bideratzen da. Batetik, eguneroko errutinen esparrua dago: denbora-espazioaren antolaketa, lanaren banaketa eta antolaketa, harreman arruntan garapena. Eguneroko errutina horiek erritualizatuz eta ondo egituratuz, oinarrizko hizkuntza-erabilerak ziurtatzen dira. Bestetik, gaiaren inguruko jarduera guztietan ari gara hizkuntza erabiltzen eta, beraz, hura ere lantzen eta aberasten. Jarduera horietan ematen diren hizkuntza-lanketarako aukerak bakoitzaren deskribapen didaktikoan azpimarratzen dira.

2. Taldeko elkarrizketa

Haurrak helduarekiko elkarrizketan du hizkuntzaren garapenerako tresna nagusia. Eskola giroan, elkarrizketa hori nahi baino gehiagotan talde mailan garatzen da. Taldeko elkarrizketa horri garrantzi handia ematen zaio Urtxintxa proiektuan, eta ondo egituratutako eta gidatutako proposamenak egiten dira, ahalik eta komunikazio-mementorik aberatsena bihurtu dadin. Haurrak garatu beharreko hizkuntza-funtzioen inguruan sortzen da elkarrizketa. Funtzioak definitzeko unean, Joan Tough-en sailkapena (*Lenguaje, conversación y educación*, Visor, Madrid, 1989) hartu da oinarritzat. Tough-ek eskolaren testuinguruko komunikazio-egoeren analisia egin ondoren, honako hizkuntza-funtzio nagusi hauek proposatzen ditu:

1. NORBERE BURUAREN BAIEZTAPENA

- 1.1 Behar eta gura fisiko eta psikologikoen aipamena
- 1.2 “Ni”aren eta honen interesen babesa
- 1.3 Portaeren edo eskaeren zuritzea edo justifikazioa
- 1.4 Besteak maiseatzea edo kritikatzeta
- 1.5 Besteak mehatxatzea

2. NORBERAREN EDO BESTEEN EKINTZEN BIDERATZEA EDO KONTROLA

- 2.2. Norbere ekintzen gainbegiratzea edo azterketa
- 2.2. “Ni”aren ekintzen norabidea
- 2.3. Besteek ekintzen norabidea
- 2.4. Ekintzan besteekin batera parte hartzea

3. ORAINGO ETA LEHEN BIZI IZANDAKO ESPERIENTZIEN KONTAKETA

- 3.1. Partaideak izendatzea
- 3.2. Xehetasunen aipamena
- 3.3. Izandako gorabeheren aipamena
- 3.4. Gertakizunen sekuentzien aipamena

- 3.5. Konparazioak egitea
- 3.6. Elkarrekin zerikusia duten gauzen ezagutza
- 3.7. Gorago aipatutako ezaugarrietako batzuk erabiliz, azterketa bat egitea
- 3.8. Gertakizun baten esanahi nagusia ateratzea edo ezagutzea
- 3.9. Esperientzien esanahiei buruzko hausnarketak egitea, haurraren beraren sentimenduak barne

4. ARRAZONAMENDU LOGIKORANTZ

- 4.1. Prozesu baten azalpena
- 4.2. Harreman kausalak eta mndetasunezkoak ezagutzea
- 4.3. Arazoak ezagutzea eta horien irtenbideak ezagutzea
- 4.4. Iritziak eta ekintzak arrazoitzea
- 4.5. Gertakizunei buruzko hausnarketa egitea eta ondorioak ateratzea.
- 4.6. Hastapenen edo printzipioen ezagutza.

5. IRAGARRI

- 5.1. Gertakizunak aurreikustea eta aurrea hartzea
- 5.2. Gertakizunen zehaztasunei aurrea hartzea
- 5.3. Gertakizun sekuentzia batzuk aurrez adieraztea
- 5.4. Arazoak aurreikustea eta izan ditzaketen irtenbideak aurkitzea
- 5.5. Ekintza-maila alternatiboak aurreikustea
- 5.6. Ekintzen edo gertakizunen ondorioak aurrez ateratzea

6. PROIEKTATU

- 6.1. Besteen esperientzietarako proiektzioa
- 6.2. Besteen sentimenduetarako proiektzioa
- 6.3. Besteen erreakzioekiko proiektzioa
- 6.4. Bizi izan ez diren egoeretarako proiektzioa

7. IMAJINATU

- 7.1. Bizitza errealean oinarritutako irudipenezko egoera bat kontatzea edo azaltzea
- 7.2. Ameskerietan oinarritutako irudipenezko egoera bat kontatzea edo azaltzea
- 7.3. Asmatutako istorio bat asmatzea edo kontatzea

HORMA-IRUDIA da funtzio horiek lantzeko baliabide nagusia. Horma-irudiak interesgune bakoitzeko elementu eta komunikazio-egoera nagusiak islatzen ditu, eta, beste zenbait erabileren artean, gidatutako elkarrizketarako bidea eskaintzen du. Unitate bakoitzean interesgunearen inguruan hainbat funtzio erabiliz garatzen da elkarrizketarako gidoia. Gidoi hori era malguan eta komunikazio-tresna bezala erabili beharko luke irakasleak. Hasiera batean, funtzio jakin batzuen inguruan, irakasleak berak hitzez adierazi beharko ditu galdera-erantzunak, poliki-poliki ikasleek ereduja jaso eta ekoizten has daitezten.

Gidaturiko taldeko elkarrizketarako, beste bi jarduera nagusi eskaintzen ditu Urtxintxak: IPUINAREN INGURUAN eta EGOERA KOMUNIKATIBOA. Bi jarduerotan hainbat

egoeraren eta gertakizunen inguruko bizipenak, sentimenduak eta arrazonamenduak jasotzeko gidoia eskaintzen da.

3. Literatura

Hizkuntzaren lanketarako beste esparru nagusia literatura da. Literatura hizkuntza-eredu aberatsak eskaintzeaz gain, kultura-adierazle nagusia da, eta haurren bizipenetatik eta interesetatik oso gertuko mundua adierazten du.

- IPUINA. Hizkuntzaren trebakuntzarako baliabide nagusia da IPUINA. Ipuinaren inguruko jarduera eta estrategia didaktikoen bidez, lanketa honetan ere ikuspegi eraikitzailea garatu nahi izan da. Ikasleak ez ditu ipuinak era pasiboan entzuten; ulermenerako estrategiak (irakurketan ere aplikatzen direnak) garatzera bideratzen da lana: gertatuko denaren inguruko hipotesiak egin, horiek egiteko zertan oinarritu den arazoitu, ipuinaren edo ipuin zatien ideia orokorrak atera, izenak gogoratzeko moduak bilatu, testuetan azaltzen diren deskribapenak imajinatu, horiek buruan grafikoki irudikatu, denboraren sekuentziak argitu, pertsonaietan eta egoeretan bere burua proiektatu, etab.

Bestalde, ipuina haurren bizitzako gatazka eta afektibitate mundutik oso hurbil dago eta, beraz, oso bide aberatsa da hizkuntza-helburuekin batera, irudimena, afektibitatea, baloreak eta sentikortasuna lantzeko. Horregatik, ipuinaren inguruko ELKARRIZKETA jardueran, berkontaketa beharrean, identifikazio, orokortze eta kreatibitateko proposamenak dira nagusi.

Ipuinaren inguruan beste baliabide didaktiko nagusi bat garatzen da, hizkuntza-aniztasunari erantzuteko proposamen gisa: TALDEKO ANTZERKIA. Ikasle erdaldunekin, taldeko antzerkia izango da ipuina aurkezteko lehen baliabidea. Antzerki mota berezi hau Ikastolen Elkarteko “Eleanitz” proiektuan sortutako teknika berritzailea da. Horren bitartez, oraindik ezezaguna zaien hizkuntza hasiera-hasieratik erabiltzeko egoeran jartzen dira ikasleak.

Taldeko antzerkiaren bidez, ipuina “entzun” beharrean, hura “bizitzeko” aukera ematen zaio ikasleari. Horretarako, hizkuntzaz kanpoko hainbat baliabide erabiltzen da: mimika, keinua, ahotsaren erabilera, ipuinaren egituraketa, espazioaren antolaketa... Ipuinaren ulermena ziurtatzeko eta haren hizkuntza era esanguratsuan errepikatze eta ekoizteko bidea eskaintzen zaio haurrari.

Honako hau da taldeko antzerkiaren teknika: ipuina talde handian dramatizatuko da, ikasleak U *moduan* biribilean jarrita, irakaslearen inguruan. Denek hartuko dituzte pertsonaia guztien paperak, ipuinaren ekintza eta elkarrizketa guztiak elkarrekin antzeztuz. Horretarako, irakasleak espazioan markatuko du pertsonaia bakoitzaren kokagunea, alde batera edota bestera lekuz aldatuz, eta haren hizketaldia esango du, dagokion tokian pertsonaia bakoitzaren keinuak eginez. Haurrek dramatizazioa imitatuko dute, pertsonaia bakoitzaren hitzak eta ekintzak errepikatuz. Haurrek elkarrizketa memorizatzen duten neurrian, irakasleak, isilean, dagozkion keinuak bakarrik egingo ditu, haurrei elkarrizketa aurreratu dezaten eskatuz. Bukatzeko, nahi izanez gero, has daitezke talde txikian euren ohiko modura antzezten.

Irudi bidezko kontaketa ondoren egingo da, behin ipuina antzerkiaren bidez barneratuta dagoela.

- POESIA. Poesiaren esparruari garrantzi berezia eman zaio, bertsoen, olerkien, kantuen (herrikoiak, berriak, jolas kantuak) eta igarkizunen altxor zabala proposatuz. Poesia dela eta, Juan Kruz Igerabideren hitzak hartu ditugu mailegu, gureak baino adierazgarriagoak baitira:

Hitz bi eta erdi: poesia eskolan

Hitz-aleak bezala erein nahi izan ditut liburuxka honetan. Ez duzu fruitu umoturik topatuko. Hori zeure lana duzu; hazi pittin bat eskaintzen dizut, landarea osatu nahi bazenu.

Inork eskolan erabiltzeko asmorik balu, ez beza mesedez ezer irakasteko hartu poemarik. Aleak direla esan dut eta aleak erein egin behar dira.

Zertarako? Begira: poema bakoitzean irudi bat daukazu, gehienetan analogiaz osatua. Irudi horiek dira haurren barnean ereiten direnak, eta bere sormenaren euskarri bihurtzen dira. Haurrak bere-berea du analogiaren prozedura eta, irudi berrien bidez suspertzen badiogu, testu harrigarriak sortzeko gauza da, zein ahoz, zein idatziz (eta, beharbada, esku-lanez edo gorputz adierazpidez). Poemak erabiltzeko bideak eta moduak norberaren sormenaren araberakoak dira. Jar daiteke paretan zintzilik egunean (edo astean) poema bat, une egokia (isilunea, arreta) topatzean ahoz ere esan daiteke (aldian poema bat, ez gehiago, irudia ondo barnera dezaten; hobe behin baino gehiagotan poema bera errepikatuz gero). Eta ez pentsa haurrak kolpean ikasiko duenik poemak entzuten eta gozaten; pittinka egiteko lana da hori, eta ahozkotasanaren kultura gehiago lantzea eskatzen du.

Azken gomendio bat: haurrak, zenbat eta ttikiago, orduan eta errepika gehiago behar du. Beraz, aukera itzazu poeman, adibidez hiru gune (gune bat izan liteke hitz bat, izan liteke sintagma bat, izan liteke lerro bat, esaldi bat...), eta errepika ezazu bakoitza hiru bider; topa ezazu erritmoa eta eutsi horri poema esaterakoan, malgutu poema zure erara, hitz egin poemarekin, eta aska bedi zure mintzo propioa, poema aitzakia. Poema enbutuan kirastu egiten da, aire librean bakarrik du usain gozoa, usaindu nahi dezanarentzat.

Juan Kruz Igerabide, *Begi-niniaren poemak*, Auskalo-Erein

IRAKURKETA-IDAZKETA

Haur Hezkuntzan tradizionalki irakurketa-idazketari buruz hitz egin denean, gehienetan, prozesuaren mekanikaren irakaskuntzaz hitz egin izan da. Horrela, metodo silabikoaz edo globalaz, letren ezagupenaz... eztabaidatu izan da. Urtxintxak hizkuntza idatziaren trataera orokorra proposatzen du, ahozkoaren inguruan hartutako bide bera jorratuz: hurrei idatzizko komunikazio-esperientzia askotarikoak eta funtzionalak eskainiz, eta esperientzia horien inguruko hipotesiak eta hausnarketak garatzen lagunduz, idazketaren barne-egituraz bere modura jabetzeko bidean jarri nahi dira.

IDATZIA	OBJEKTUA ABIAPUNTU (tradicionalki)	IKASLEA ABIAPUNTU (Urtxintxa-Txanela)
NOIZ?	Ikastolaren erabakia; apendizaiia zerotik hasi.	Jaiotzetik; aurrezaguerak kontuan hartu.
ZER?	Kodea: forma.	Hizkuntza idatzia: esanahia.
HELBURUA	Dekodifikazioa: esan, idatzi	Komunikazioa; mezua jaso eta eman.
ABIAPUNTUA	Grafia-fonema lotura	Idatziaren erabilera eta harekiko interesa.
PROZESUA	Dekodifikazioa lehendabizi, ulermena, ondoren adierazpena.	Estrategia guztiak batera garatzen dira. Irakurriz eta idatziz iristen da grafia-fonema loturara.
DENBORALIZAZIOA	Mugatutako epea: hasi, bukatu.	Etengabeko prozesua.
OINARRIA	Pertzeptzioa-motrizitatea deszifratu.	Estrategia kognitiboak: pentsatu, deszifratzea barne.
SEKUENTZIAZIOA	Sistemaren elementu progresioa "errazenetik zailenera".	Haurraren garapen-prozesua: ontogenesia.
BILAKAERA	Kuantitatiboa: elementuak gehitzen.	Kualitatiboa: hipotesiak aldatzen.
LAN UNITATEA	Hitza/esaldia	Komunikazio-ekintzak: testua bere testuinguruan.
IRAKASLEA	Irakatsi: ezaguera transmititu.	Jabetzen lagundu: idatzia elkarrekin eraiki; ulermen/ekoizpen-prozesuak bideratu.
IKASLEA	Ikasi-trebatu.	Idatzia ikertu, aztertu, kodea aurkitu, komunikazioa garatu.

Ikaslearen jabetzaren prozesu naturalari laguntzea da helburu nagusia. Haurrak ez daude hutsik. Oso sakonak diren ideia, hipotesi eta teoria pertsonalez beterik daude. Hipotesi horiek garatzen, kontrastatzen, osatzen eta poliki-poliki aldatzen doaz idatziaren kode konbentzionala aurkitzera iritsi arte. Urtxintxa proiektuan, era progresibo batean, irakurketa- eta idazketa-sistemen ezaugarriak aztertzeke proposamenak txertatu dira, interakzioa deskribatuz, bai ardatz kualitatiboari dagokionean, bai ardatz kuantitatiboari dagokionean. Proposamen horiek Ferreireok eta Teberoskyk haurraren idatziaren ontogenesiaren garapenari buruz egindako ikerketetan oinarritzen dira. Honako hau da ontogenesiaren faseen laburpena (*Los sistemas de escritura en el desarrollo del niño*, Siglo XXI Mexiko, 1989):

ONTOGENESIAREN FASEEN LABURPENA

FASEAK	EZAUGARRIAK
IDAZTEA eta MARRAZTEA ez da gauza bera	Grafismo primitiboak, zirriborroak, biribilak, makilatxoak, etab.
	Alineazio horizontala, ezker-eskuin, letraren bat agertzen hasten da.
BEREIZITAKO IDAZKETAK (ideografikoa)	Letren erabilera. Letra multzo jakin baten errepikapena esanahi desberdinekin.
	Letren konbinazio desberdinak esanahi desberdinekin. Izenaren letren konbinazio guztia idazteko.
IDAZKETA SILABIKOA	Lotura fonetikoa. Soinu bat (silaba) letra bat. Edozein letra.
	Silaba bakoitza bere bokalez adierazia.
	Silaba bakoitza bokal eta/edo kontsonantez adierazia.
IDAZKETA SILABIKO- ALFABETIKOA	Silaba bakoitza letra bat baino gehiagoz adierazia.
IDAZKETA ALFABETIKOA	Fonema/grafia oinarritzko lotura egina.

Baina irakurtzen eta idazten ez da espontaneoki ikasten.

Lehenik, ikasle guztiek ez dituzte hizkuntza idatziarekiko aurreiritzi berak (ingurua, familiaren eragina...).

Gainera, kultura idatziak etxean ematen dena baino informazio gehiago eskatzen du.

Laguntza behar du haurrak, kontzeptu asko berrikusi, argitu, eztabaidatu eta gainditu behar ditu, eta hori guztia bere kideekin eta irakaslearekin bideratzen den interakzioan lortuko du.

Idatzizko hizkuntzaren bidez komunikatzea ez da gizakiaren behar intrintseko bat. Ez da heldutasunaren bidez lortzen. Motibazio eta jarrera baikorrak behar dira ikaskuntzaren inguruan, eta horiek guztiak testuinguru berezi batean erakutsi eta bizi behar dira.

Idatzizko egoera nagusiak Haur Hezkuntzan	
Gelako antolaketa	ardurak oharrak arauak leku-banaketak jabetzak
Eguneroko ekintzak	etorri direnak eguraldia egutegia urtebetetzeak eguneroko berriak menuak etxerako mezuak jolasen arauak
Ipuin-kontaktak Hizkuntza poetikoak	izenburuak hizkuntza-poetikoa pertsonaiak ipuina entzun/“irakurri” sekuentziak komikia abestiak/olerkiak ikasi errimak
Testu-bildumak	abestiak olerkiak informazio-txartelak
Gaien ingurukoak	gutunak instrukzioak prozesuak komunikabideen behaketa ontzi komertzialen behaketa bildumak jarduerak zenbakiekin biografiak lan-dosierrak errezetak

Hizkuntza idatziaren lanketa sistematizatzeke, testu pedagogiaren ildotik, testu moten ezaugarriak hartu dira abiapuntutzat:

HAINBAT IDATZIZKO EKINTZA JARDUERA

1. ENUMERAZIOA

- 1.1. Norbere izenaren identifikazioa
- 1.2. Norbere izena idaztea
- 1.3 Gelaren antolaketarako behar diren errotuluak idaztea
- 1.4. Izenak horma-irudi tematikoetan idaztea
- 1.5. Ikasleen izenen zerrenda idaztea
- 1.6. Izen arrunta edo izenburuen zerrenda idaztea
- 1.7. Gelako jarduera baten kartel iragarlea osatzea
- 1.8 Kartel bat irakurtzea
- 1.9. Data idaztea
- 1.10. Norbanakoaren egunkaria idaztea

2. INFORMAZIOA

- 2.1. Egunkarien behaketa informazio-bide bezala
- 2.2. Gelan komentatutako argazki baten oinaren idazketa
- 2.3. Argazki-oinak dagozkien irudiekin erlazionatzea
- 2.4. Berri baten titularraren idazketa
- 2.5. Berri baten idazketa
- 2.6. Berri baten irakurketa
- 2.7. Idazketa eta beste forma grafikoaren arteko bereizketa iragarki edo ontzien behaketaren bidez
- 2.8. Logotipoen interpretazioa
- 2.9. Iragarki publizitarioen irakurketa

2.10. Produktuaren argazkitik edo logotipotik abiatuz, iragarki baten testua idaztea

2.11. Jasotako gutunaren irakaslearen irakurketa

2.12. Gutun pertsonal baten idazketa

2.13. Ikasleek irakasleari ohar baten diktaketa

2.14. Ohar baten idazketa

2.15. Gonbidapen baten idazketa

3. LITERATURA

3.1. Ipuin baten irakurketa (irakasleak)

3.2. Ipuin ezagun baten izenburuaren irakurketa

3.3. Sekuentziatutako irudien interpretazioa ondoren ordenatzeko

3.4. Pertsonaien edo ipuinen izenburu-zerrenda bat bere irudiekin erlazionatu

3.5. Ipuin ezagun baten dramatizazioa

3.7. Ipuin ezagun baten izenburuaren idazketa

3.9. Hutsuneak dituen testu literario (olerkia, bertsoa) baten testua osatu

3.10. Ordenatutako irudietatik abiatuz ipuin ezagun baten berridazketa

3.11. Buruz ikasitako kanta edo olerki batean hitz bat identifikatu

3.12. Buruz ikasitako kanta desordenatu bat berreraiki

3.13. Lehen bertsoetik abiatuz esaldiak osatu

3.14. Bukaera bera duten hitzak bilatu eta idatzi

3.15. Bukaera bereko hitzekin jolastuz bertsoa osatu eta idatzi

3.16. Lehendik memorizatutako poesia edo kanta baten idazketa

3.17. Poesia originalen idazketa

3.18. Komikien behaketa

3.19. Komikien idazketa

4. AZALPENA

4.1. Deskripzio tematikoen fitxategiaren osaketa

4.3. Gelako hiztegiaren osaketa

4.4. Prozesu natural baten aipamena

4.5. Pertsonaia baten biografiaren alderdi nagusien irakurketa/idazketa

4.6. Lan baten dosierraren elaborazioa

4.7. Ideia nagusien identifikazioa

4.8. Desordenatutako testu batetik abiatuz prozesu baten berreraikitzea

5. PRESKRIPZIOA

5.1. Errezeta baten osagaien idazketa

5.2. Produktuaren elaborazio-prozesuaren idazketa

5.3. Esku-lan baten instrukzioen irakurketa

5.4. Sukaldeko errezeta baten irakurketa

5.5. Sukaldeko errezetak izenburuekin edo osagaiekin erlazionatu

5.6. Osagai nagusiaren araberako irizpidearekin sukaldeko errezeten sailkapena

5.7. Jolas baten arauen irakurketa

5.8. Gelako bileran hartutako erabakien idazketa

5.9. Lanak burutzeko instrukzioen irakurketa

2.2.5 Jarduera konstanteak

- a. Sekuentzia didaktikoa
- b. Ikasnorabideak
- c. Horma-irudia
- d. Ipuina
 - Antzezpen kolektiboa (ipuin dramatizatua)
 - Elkarrizketa-jolasak atzamarrekin
 - Ipuinen liburuxka
 - Ipuinaren abestia
 - Ipuinaren laminak
- e. Pertsonaiak
- f. Hiztegia
- g. Gaia aberasten. “Txoko txuria”
- h. Testu motak: igarkizunak, olerkiak, aho-korapiloak, esaera zaharrak...
- i. Abestiak
 - Jolaserako abestia
 - Tradiziozko kanta
- j. Musika klasikoa
- k. Erritmo-eskemak
- l. Egoera komunikatiboak
- m. Problemen ebazpena
- n. Egoera matematikoak
- ñ. Artelanak

a. Sekuentzia didaktikoa

Sekuentzia didaktikoa, helburu bera daukaten jarduera multzo bat aurrera eramateko prozedura dela esan dezakegu. Hezitzailearen laguntzarekin, prozedura zehatz baten proposamena da sekuentzia didaktikoa. Proposamen horretan haurren inplikazioa eta produktuaren lorpen komuna bilatzen da.

Prozeduraren faseak beti errepikatuko dira sekuentzia didaktikoetan:

HASIERA

- Informazioa hartzea eta gordetzea (zer egin behar dugu, norentzat, zertarako...)
- Ideia berriak eta konponbideak lantzea (nola egi dezakegu?)

GARAPENA

- Ideiak gauzatzea

BUKAERA

- Ebaluazioa (zer moduz atera da dena?)
- Ekite prozesuaren aplikazioa

Unitateetan topatuko diren sekuentzia didaktikoak proposamen ireki bat izatea nahi genuke. Hezitzaileari sekuentzia didaktikoa bere taldeari eta bere errealitateari egokitzeko aukera ematen zaio.

b. Ikasnorabideak

Unitatearen ikasnorabidea marrazkien bidez islatuko da lan-koadernoan, ikasleek gaiaren bilakaerari jarrai diezaioten. Ikasnorabideak hainbat funtzio ditu unitatean zehar: hasieran, aurre-ebaluazioa eta sarrerako motibazioa bideratuko ditu; tartean, gaiaren bilakaeraren sekuentzia tematikoak identifikatzen lagunduko du; bukaeran, sintesia eta azken balioespena egiteko modua eskainiko du.

PROZEDURA

Gai berria aurkeztean, aurreiritziak eta aurrezagutzak biltzeko erabiltzea proposatzen da. Modu horretan, gaiari hasiera emateko nondik abiatu (haurren nahian eta interesean oinarrituta) jakiteko.

HEZITZAILEAREN EGINKIZUNA

Hezitzailea, jarduera honetan, entzulea eta dinamizatzailea izango da. Gure zeregin nagusia haurren ideiak jasotzea, biribiltzea eta talderi itzultzea da. Hasieran, ez da erraza izango haurrentzat aurreiritziak ematea. Helburua ez da lehen unetik hori lortzea, baina bai dinamika horretan trebatzea eta haurren denborak eta iritziak errespetatzea.

c. Horma-irudiak

Horma-irudiaren bitartez, gaiari buruzko motibazioa piztea eta sekuentzia tematikoari sarrera ematea bilatzen da.

Bestalde, Toughek, eskola-testuinguruko komunikazio-egoeren analisia egin ondoren, hizkuntza-funtzioak proposatzen ditu. Hizkuntza-funtzio horiek aktibatzeke taldeko elkarrizketa proposatzen dugu. Baliabide nagusia horma-irudia da, baina gelako bizitzan azaltzen diren komunikazio-egoera anitzak ahaztu gabe.

PROZEDURA

Horma-irudia, normalean, txoko batean ipiniko dugu (Harrera-txokoa izan daiteke toki aproposa). Jarduera honen helburua lortzen joateko, hau da, Toughen hizkuntza-funtzioak aktibatzen joateko, haurrek ohitzen joan beharko dute. Hasieran, egokia iruditzen zaigu hurbilpen-saioak talde handian egitea. Harrera-txokoan talde osoarekin elkartzeko unea egokia izan daiteke aurkezpena egiteko. Horma-irudiaren aurkezpenarekin batera, interesgune berriaren aurkezpena dator. Haurren arreta erakartzeko modurik egokiena gonbidapenak egitea da. Lehenengo saiakeretan, talde handiari erreferentzia egingo diogu, baina benetan jardueran trebatzen joateko, talde txikiak eta binakako parte-hartzeek izango dute balioa (haurra-haurra, haurra-nagusia, haurra-haurra-nagusia...). Txoko libreko garaian, horma-irudira inguratzen diren haurrekin egin daitezke mota horretako parte-hartzeak. Hauexek dira lantzen diren funtzioak: partaideak izendatzen joatea, xehetasunen aipamenak egiten hastea...

HEZITZAILEAREN EGINKIZUNA

Hezitzaileak laguntzaile, behatzaile, entzule eta, hainbat mementotan, eredu izan beharko du. Horrek esan nahi du ez duela lanketa automatikoa bilatzen (hizkuntza-funtzioak zerrenda batean apuntatuta izan eta ordenan galderak egitea), baizik eta, sortzen diren egoerak aprobetxatuz, une egokian hizkuntza-funtzioak aktibatzea. Betiere haurren komentarioak eta hausnarketak kontuan izanda. Gida-liburuan azaltzen den gidoia, beraz, era malguan eta komunikazio-tresna bezala barneratuta erabiliko du hezitzaileak, elkarrizketa sortu ondoren, elkarrizketa bideratzeko tresna gisa.

d. Ipuina

Hona hemen, proposamen gisa, antzezpen kolektibotik hezitzailearen kontaketa ipuina lantzeko hiru asteko kronologia bat:

1. astea: Ipuin berria

- Astelehena: antzezpen kolektiboa.
- Asteartea: antzezpen kolektiboa.
- Asteazkena: antzezpen kolektiboa eta atzamar-jolasa.
- Osteguna: laminekin, haurren ipuin-kontaketa.
- Ostirala: ipuineko kanta landu eta atzamar-jolasa egin.

2. astea: Ipuina badakigu

- Astelehena: hiztegia erabiliz, ipuina gogoratu eta abestia kantatu.
- Asteartea: laminekin, haurren ipuin-kontaketa eta hiztegi-jolasa egin.
- Asteazkena: liburuxkarekin haurren ipuin-kontaketa egin.
- Osteguna: binakako antzezpen txikiak eta hiztegi-jolasa egin.
- Ostirala: hezitzailearen kontaketa narratiboa egin.

3. astea: Ipuina gogoratzen

- Astelehena: ipuinaren inguruan landutako jarduerak gogora ekarri.
- Asteartea: hiztegi-txartelak ipuina gogoratzeko erabili eta ipuineko abestia kantatu.
- Asteazkena: hezitzailearen ipuin-kontaketa Liburutegian egin.
- Osteguna: ipuinaren saio berezia prestatu (CD-ROMeko narrazioa kanoia erabiliz, emanaldi bezala aurkeztu).

Antzezpen kolektiboa (ipuin dramatizatua)

Ikusi, “Hirugarren eremua: Komunikazioa eta adierazpena”. Hizkuntza 3. Literatura Antzezpen kolektiboa. Hauek dira puntu nagusiak:

- Haurrak biribil batean edo U batean kokatu, lanean hasteko.
- Ipuina hasi aurretik, isiltasuna lortu; adi egon behar dute.
- Ipuineko pertsonaia bakoitzari bere lekua dagokio. Pertsonaia bakoitzak esandakoa adierazteko irakaslea tokiz aldatzen da.

- Narratzaileak ere bere tokia du pertsonaien artean. Keinu gutxi egiten ditu eta modu neutroagoan hitz egiten du.
- Mimikak, keinuak, ahots-aldaketak eta aurpegiaren jarrerak ipuina ulertzen laguntzen dute.
- Intonazioa eta tonua aldatu, pertsonaiaren arabera.
- Lasai jardun, geldialdiak eginez. Hurrei denbora utzi, esaldiz esaldi errepika dezaten eta, ahal den neurrian, aurreratzen utzi.
- Esaldi luzeak edo zailak zatitu, eta gehiagotan errepikatu.
- Nabarmendu nahi ditugun pasarteak (taldearen arreta erakartzeko balio dutenak) alde aurretik aukeratuta edukiko ditugu. Horiek behin baino gehiagotan errepika daitezke, antzeppen kolektiboan, haurren arreta erakartzeko.
- Lehenengo egunetan, ez erabili irudirik.
- Ipuina antzeztean, ez onartu “ikuslerik”. Haurrak aktore nagusiak dira, ez ikusleak.
- Ipuina antzeztean, haurrenganako hurbiltasuna zaindu: haur guztiei begiratu.

PROZEDURA

Antzeppen kolektiboarekin lotura daukaten jarduera gehienak Harrera-txokoan kokatu behar dira; horrela, loturak sortuko dira espazioaren eta erabileraren artean, talde handian egingo diren ekintzak Harrera-txokoan imitatuz.

Ipuin dramatizatua erritualekin (sarrerako errituala eta bukaerako errituala) biribildu behar da. A-B-A.

A/ Sarrerako errituala

Lehenik eta behin, ipuinaren aurkezpena egitea komeni da. Pertsonaiak aipa daitezke, istorioaren nondik norakoak (ipuinaren mamia kontatu gabe, sarrera emanez, besterik ez). Horrela, hurrei ipuinean kokatzen lagunduko diegu.

Sarreran komeni da jarduera honen arauak gogoratzea:

- Lurrean markatutako marraren gainetik ibili.
- Salto egin behar denean edo mugitu behar dugunean nola egin azaldu.
- Ondoren, aurretik ezaguna den abesti bat denon artean kantatu, edo olerkitxo errezitatu, edo atzamarrekin egindako elkarrizketa labur bat sar dezakegu. Ipuinari hasiera emateko, formula bat erabili.

B/ Ipuin dramatizatua

A/ Bukaerako errituala

Bukaera ere erritualizatzea komeni da: “hau hola bazan, sar dadila kalabazan”, edo “hau egia ala gezurra...” bukatzeko formulak beharrezkoak dira. Nahi izanez gero, ipuineko kanta ere sar daiteke. Baliabide oso interesgarria izan daiteke ipuineko elkarrizketa bat sartzea, horrela, ipuina ere gogoratu egingo baita.

HEZITZAILEAREN EGINKIZUNA

Jarduera honetan, hezitzaileak oso zeregin garrantzitsua dauka. Alde batetik, dinamizatzailea izan behar du (haur guztiak jardueran sartzen saiatuko da). Horretarako,

ondo ikasita izan beharko du gidoia, eta errepikapen guztietan gidoi bera mantendu behar da (ahozko adierazpenetan zein keinuetan). Bestetik, moderatzailea izan behar du, jarduera honetan azpimarratzekoak diren arauak zaintzeko.

Elkarrizketa-jolasak atzamarrekin

PROZEDURA

Haurrak U batean kokatuko dira; kokapen horrekin, ume guztiek hezitzailea ikusten dutela eta, aldi berean, hezitzaileak denak ikusten dituela ziurtatzen da. Eskuak bizkarrean gordetzeko eskatuko diegu; hezitzaileak ere berdin egingo du.

Eskuak ateratzen ditugunean, *ttik-ttik-ttik-ttik* esango dugu, eta keinu bat egingo diegu, errepikatzeko gonbidapena eginez. Adin honetako haurrei asko gustatzen zaizkie mota horretako jolasak. Behin esku bat ateratakoan, esaldi labur hau esango dugu: —*Kaixo, Ttianto naiz*. Gauza bera egin behar dugu beste eskuarekin ere: *ttik-ttik-ttik-ttik*, eta bigarren eskua atera. Esku horri ere esaldi txiki bat izendatuko diogu, beste izen bat: —*Kaixo, Mikel naiz*. Errepikatzeko eskatuko diegu, betiere keinuen bidez eta begiradaren laguntzarekin. Horrela, eskuek elkari muxu emango diote: —*Mua, mua*, eta agurtu egingo dira: —*Agur, Mikel, —Agur, Ttianto*.

Jolas txiki horrekin, haurrak errepikapenaren jolasera ohitzen joango dira, eta beharrezkoa izango zaien aho-hizkuntza barneratzen joango dira modu motibagarri eta ludiko batez.

Ipuin dramatizatuekin lotura daukaten elkarrizketa txikiak atzamar-jolasean egiteko asmatuta daude.

HEZITZAILEAREN EGINKIZUNA

Jarduera honetan, talde-antzerkian bezala, hezitzaileak oso zeregin garrantzitsua dauka. Alde batetik, dinamizatzailea (haur guztiak jardueran sartzen saiatu behar du), eta horretarako, ondo ikasita izan beharko du elkarrizketa. Baina horrez gain, hurrekin batera, sortzaile eta eraikitzaile ere bihurtu beharko luke; elkarrizketa berriak sortuz, ezustean jolastuz...

Elkarrizketa labur horiek edozein unetan erabil daitezke egunean zehar, ipuina labur-labur gogoratzeko, etxera joan aurretik...

Ipuinaren abestia

Urtxintxa proiektuak kanta ugari proposatzen ditu unitate bakoitzean. Hezitzailearen esku gelditzen da zein aukeratuko dituen jarduera espezifiko bezala (prozedura zehatzarekin lantzeko) eta zein gozatzeko. Jarraian prozedura bat azalduko dugu, jarduera espezifiko bezala lantzeko aukeratu diren kantuen bidez lantzeko.

Ipuin bakoitzari kanta bat dagokio. Kanta horiek lagungarri izan daitezke bai antzeppen kolektiboetan, bai ipuin-kontaktetan. Antzeppenaren erritmoa alaitzeko, ipuinaren errepika edo leloa abestu daiteke. Beste une batzuetan, ipuinetik aparte, kanta osoa entzuteko aukera izango dute.

Kantak lantzeko, Harrera-txokoa proposatzen dugu. Han, abesti-bilduma osatzen saiatuko gara, eta, horrela, haurrek zein kantatu nahi duten erabaki ahalko dute.

PROZEDURA

Kanta berri bat aurkeztu baino lehen, letra ikasi ez ezik, kantarekin batera egingo diren keinuak ere zehaztu behar ditugu, koreografia txiki bat osatuz. Lantzeko mementoan ez da komeni CDa erabiltzea, oso erritmo azkarra izan dezake eta. Interesgarriagoa da zatika-zatika errepikapenak eginez ikastea.

Adibide modura, honela aurkez dezake hezitzaileak abestia erritmo egokia emanaz (musikarik gabe):

Marigorringo
Ttantto gorringo

lorenz lore dabil hegan.

MarigorringoTtantto gorringo

hemen gaude ikastolan.

Horrela, haurrekin pare bat aldiz errepikatu ondoren, zati handiagoak kanta daitezke:

Marigorringo
Ttantto gorringo
lorenz lore dabil hegan.

Marigorringo
Ttantto gorringo
hemen gaude ikastolan.

Bukatzeko, dena batera errepikatuko dugu haurrekin:

Marigorringo
Ttantto gorringo
lorenz lore dabil hegan.

Marigorringo
Ttantto gorringo
hemen gaude ikastolan.

Bukaeran, errepikatutako guztia kantatuko dugu, doinu egokia emanaz.

Kanta ikasten den bitartean, mugimenduak ere ikasi behar dituzte. Horrek letra gogoratzen lagunduko die. Behin kanta ezaguna zaienean, oso egokia da CDa erabiltzea.

HEZITZAILEAREN EGINKIZUNA

Jarduera mota honetan hezitzaileak ikasgela gidatu behar du, eta ereduak eskaini behar ditu. Beraz, kanta bat aurkezten denean, hezitzailearentzako ezaguna izan behar du alde zuzenetik. Oso garrantzitsua da buruz ikasita edukitzea.

CDa entzun aurretik:

- Lehenengo, kantaren esaldi bat esango du eta hurrei errepikatzeko eskatu, erritmoaz, baina abestu gabe.
- Ondoren, gauza bera egingo du kantaren doinuarekin; esaldia kantatu eta hurrei errepikatzeko eskatuko die.
- Kanta guztia donuarekin abestuko du.

Prozedura hori eginda, CDa entzuteko eta batera kantatzeko prest daude.

Hezitzaileak haurren parte-hartzea ziurtatu behar du. Haurrak animatu ondoren, dinamikak ez badu funtzionatzen, estrategiak bilatu beharko ditu erakargarria izan dadin. Une horretan behaketa egin behar du.

Ipuinaren laminak

Ipuinaren laminei bi erabilera oso desberdin eman diezazkiekegu.

1/ Haurren ipuin-kontaketa.

2/ Hezitzailearen ipuin-kontaketa.

1/ Haurren ipuin-kontaketa

Haurren ipuin-kontaketa egiteko, antzezpen kolektiboan erabiltzen den testua eta espazioa erabili behar dira.

PROZEDURA

(Ipuin dramatizatua hiru aldiz egin ondoren)

- Haurrak hezitzailearen aurrean kokatu.
- Isiltasuna lortu.
- Haurren arreta erakarri.
- Ipuinaren pertsonaiak eta nondik norakoak gogoratu.

Ipuinaren laminak lehenengo aldiz erakusten zaizkienean, jakin-min handia sortzen dute haurrengan; hori dela eta, haiekin adostu beharko dira jardueraren “arauak”.

Lehenengo lamina erakustean, tartetxo bat utzi, hurrek begira dezaten. Hezitzaileak esango die ipuina kontatzeko laguntza behar duela: “*Gogoratzen duzue ipuina?*”, “*Lagunduko didazue ipuina kontatzen?*”

Hezitzaileak narratzailearen zeregina zein den azalduko du, eta hurrek parte hartzen badute, narratzailearena beraiek egiten badute, hobe. Lehenengo

hilabeteetan, hala ere, ez die eskatuko narratzailearena errepika dezaten. Aurrerago eskatuko die esaldi errazak errepikatzeko.

Pertsonaien arteko elkarrizketak agertzen direnean, exigentzia handiagoa izango da. Haur guztiek parte hartu dezaten lortu nahi da. Ez da nahikoa bakar batzuek parte hartzea, denei eman behar diegu parte hartzeko denbora.

Nahiz eta haurrek esaten dituzten esaldiak hitzez hitzekoak ez izan, oso egokia da onartzea, osatzea eta ipuinean txertatzea.

HEZITZAILEAREN EGINKIZUNA

Laminekin haurren ipuin-kontaketa egitean, komeni da eskuarekin adieraztea zein pertsonaia ari den hizketan. Horrek kontaketa hariari jarraitzen lagunduko die.

- Giro goxoa sortu.
- Denen parte-hartzea bultzatu.
- Moderatzailearen zeregina egin (arauak betetzeko).
- Ipuina kontatzean, atzean gelditzen direnei denbora utzi.
- Ipuina kontatzeko eskatu antzezpen kolektiboan ikasitako esaldiak erabiliz eta laminez baliatuz.
- Arreta mantentzeko estrategiak erabili (tonu-aldaketak, haur bati zuzentzea...).

2/ Hezitzailearen ipuin-kontaketa

Ipuinaren antzezpen kolektiboa, elkarrizketa-jolasak, hiztegi-jolasak... horiek guztiak landu ondoren egin behar da, ipuina beste modu batean entzuteko (unitatearen azken astean). Hezitzailearen kontaketa egiteko, Liburutegia izan daiteke espazio egokia.

PROZEDURA

Jarduera honetan, beste edozein ipuin-kontaketa narratibotan bezalaxe (haurrek ekartzen dituzten ipuinak edo kontatzeko erabiltzen ditugunak), ezinbestekoa da alde aurretik testua irakurtzea eta kontaketa egiteko erabiliko ditugun estrategiak erabakitzea.

Lagungarria izan daiteke hezitzailearen ipuin-kontaketarako elementu bereizgarriak erabiltzea (hauts magikoak, hitz magikoak, txano berezia, alfonbra...). Elementu horiek sarrera moduan lagunduko diote beti hezitzailearen ipuin-kontaketari. Espazio fisiko bera izateak ere funtzio bera beteko du.

Hezitzailea taldearen aurrean kokatuko da, taldeak ondo ikusteko moduan (aulki batean eserita...), eta ahalik eta giro goxoa sortzen saiatuko da.

HEZITZAILEAREN EGINKIZUNA

Ipuina kontatu aurretik:

- Giro afektiboa eta goxoa sortu.
- Hasierarako esaldia prestatu.
- Bukaerarako esaldia prestatu.
- Ahots-aldaketak nola egin pentsatu.
- Suspensea nola sortu pentsatu.

Ipuina kontatzen dugun bitartean:

- Ipuina aurrez ondo ikasita eduki. Ez irakurri inoiz.
- Begiradarekin haur guztien arreta eskatu (denek sentitu behar dute berari bakarrik kontatzen diogula).
- Ipuinaren protagonismoa kontaketa eman eta ez horrenbeste laminei.

Ipuinen liburuxka

PROZEDURA

Ipuinen liburuxkan, bi testu mota daude, helduen ipuin-kontaketa egiteko testu narratiboa (luzea), eta haurren ipuin-kontaketa egiteko testua (laburra). Beraz, ipuinen liburuxkarekin, laminekin bezalaxe, bi erabilera egin daitezke ikastolan eta etxean.

1/ Haurren ipuin-kontaketa

Haurrak ipuin dramatizatua eginez ikasitako testua erabiliko du etxekoei ipuina kontatzean edo gelan baliabide hori (ipuinen liburuxka) erabiltzen denean. (Ikusi, jarduera konstanteetan, haurren ipuin-kontaketa.)

2/ Gurasoen/Hezitzailearen ipuin-kontaketa

Gurasoek ere egin dezakete ipuin-kontaketa testu narratiboa erabiliz.

e. Pertsonaiak

Pertsonaien irudiekin eta izen idatziekin jolasteko proposamenak.

PROZEDURA

Talde handian egiteko proposamena: paper handian, lantzen ari den ipuineko pertsonaia marraztu. Margoak jarri haurren eskura. Pertsonaia bat baino gehiago badira, taldeka egin daiteke lan.

HEZITZAILEAREN EGINKIZUNA

Marrazkiak tamaina handian prestatu; baliabide teknikoak haurren eskura jarri. Bestetik, jardueraren moderatzailea izango da.

f. Hiztegia

Urtxintxa proiektuko unitate guztietan hiztegia topatuko dugu. Komeni da hiztegia haurren eskura jartzea, Harrera-txokoan.

Hiztegiarekin jolas batzuk ikastea proposatzen dugu, ikasi ondoren, haurrek modu autonomoan jolas dezaten.

PROZEDURA

Oso garrantzitsua da hiztegiaren aurkezpena: hiztegi-txartelak azaltzeko modurik egokiena istorio bat kontatzea da. Istorio horretan, aurkeztera goazen txartelen izenak eta irudiak agertuko dira. Istorioa ipuina bera izan daiteke, hiztegi-txartelak kontaktaren ardatza direla.

Hiztegia aurkezteko orduan, kontuan izango ditugu taldearen nortasuna eta errealitate linguistikoa. Hau da, taldeko haurrak erdaldunak badira, txartel kopuru txiki batekin hasi daiteke (4-5 txartel); ondoren, horiei beste batzuk erantsiz joango gara.

Aurkezpena egin ondoren, eta joko berri bat aurkeztu aurretik, hiztegi-txartelak gogora ekartzea komeni da. Prozedura horiek talde handian egin daitezke edo talde txikietan, baina kontuan izan behar dugu denek jaso behar dutela informazioa.

Hiztegiarekin jolasten: NAHASTU-NAHASTU jolasa. “Batidora jolasa”

Lehenengo, hezitzaileak egin behar du jolasa; horrela, eredia eskaintzen du.

HEZITZAILEA: *Nahastu, nahastu, nahastu* esanez, aukeratutako txartelak nahasten ditu.

HAURRAK: *Nahikoa da!*

HEZITZAILEA: *Zer da?*

”HAURRAK: *da.*

Behin baino gehiagotan horrela jolastu ondoren, jolasa bideratzeko eskatuko diogu haur bati, eta dinamika berdinez jokatu dugu.

HAURRA: *Nahastu, nahastu, nahastu* esanez, aukeratutako txartelak nahasten ditu.

HAURRAK: *Nahikoa da!*

HAURRA: *Zer da?*

HAURRAK: ... *da.*

Jolas honen dinamika ulertzen denean, tarte txiki bat utziko dugu beraien kabuz jolas dezaten, eta hurrengo jolasa planteatu dezakegu.

Hiztegiarekin jolasten: NAHASTU, NAHASTU jolasa (talde txikian, binaka)

Aurreko prozedura bera errepikatuko dugu, baina, kasu honetan, talde txikietan. Hiztegiaren inguruan interesa piztu dela ikusten dugunean, haurrengana hurbilduko gara eta binakako jolasa proposatuko diegu. Haur-bikote batekin egiteko prozedura da. Bitartean, gainerako haurrak bere kasa jolasten arituko dira.

Hezitzaileak aurreikus dezake bikote batek baino gehiagok izango dutela jolasteko interesa. Horiei aukera emateko, hiztegiaren fotokopia batzuk egin daitezke; horrela,

talde txikiek ez dute izango batera jolasteko arazorik. Talde osoarekin ere egin daiteke prozedura bera

Komeni da hiztegi horiek euren eskura uztea Harrera-txokoan, libreki jolas dezaten.

Hiztegiarekin jolasten: MEMORIA JOKOA

Lehenengo, hezitzaileak egin behar du jolasa; horrela, eredia eskaintzen du. Memoria-jolasa egiteko, ipuinetako pertsonaiak bezala, beste hiztegi txartel batzuk bikoiztu daitezke, koloretako fotokopiak eginda.

HEZITZAILEA: *Hau txanoa da.*

HEZITZAILEA: *Hau soinekoa da.*

HEZITZAILEA: *Ooo! Ez dira berdinak.*

HEZITZAILEA: *Hau txanoa da.*

HEZITZAILEA: *Hau txanoa da.*

HEZITZAILEA: *Berdinak dira!*

Ondoren, jolasa bideratzeko eskatuko diogu haur bati, eta dinamika beraz jokatuko dugu.

Hiztegiarekin jolasten: KORRU JOLASA

Haurrak korruan kokatuko ditugu, eta jolas horretan erabiliko ditugun hiztegi-txartelak zein diren gogoratuko dugu.

Haurren artean bat aukeratu (zozketa bidez) jolasa egiteko. Haur horrek hiztegi-txartel bat aukeratuko du, eta, eskuetan gordeta daukala, bueltaka hasiko da korruaren inguruan, talde osoak kanta labur bat kantatzen duen bitartean edo ezagutzen duten olerki labur bat errezitatzen duten bitartean. Kanta edo olerkia bukatzen dutenean, bueltaka dabilen haurrak gelditu egin behar du eta hiztegi-jolasa egingo du bere aurrean dagoen haurrarekin.

BUELTAKA DABILEN HAURRA: *Ezetz, asmatu zer daukadan!*

KORRUAN DAGOEN HAURRA: *Zuk daukazuna... etxea da!*

BUELTAKA DABILEN HAURRA: *Ez, ez eta ez. Ez da etxea. / Bai, bai, asmatu duzu.*

Asmatzen duenak txanda hartuko du, eta berdin jokatuko du.

Hiztegiarekin jolasten: ZER FALTA DA?

Haurrak Harrera-txokoan kokatuko dira. Aurkeztuta daukagun hiztegiaren artean, txartel batzuk aukeratuko ditugu (4 edo 5) eta horien izenak banan-banan gogoratuko ditugu, denen artean. Txartelak haurren aurrean kokatu behar dira, denen bistan.

HEZITZAILEA: *Bat, bi eta hiru, itxi begiak, tranparik ez!*

HEZITZAILEA: *Prest zaudete?*

HAURRAK: *Prest gaude.*

HEZITZAILEA: *Ireki begiak. Zer falta da?*

HAURRAK: ... *falta da.*

HEZITZAILEA: *Bai, bai, asmatu duzue. / Ez, ez eta ez. Ez da falta.*

Hasteko, beste jolasetan bezala, hezitzaileak bideratu behar du jolasa. Jolasaren dinamika ulertzen dutenean, haur batek egin dezake, beti hezitzaileak lagunduta.

HAUR BATEK: *Bat, bi eta hiru, itxi begiak!*

HAUR BATEK: *Prest zaudete?*

GAINERAKO HAURRAK: *Prest gaude.*

HAUR BATEK: *Zer falta da?*

HAURRAK: *falta da.*

HAUR BATEK: *Bai, bai, asmatu duzue. / Ez ez eta ez. Ez da falta.*

Hiztegia sailkatzen

Dagoeneko hiztegia sailkatzen hasi gaitezke. Lehenengo, hartu oinarrizko hiztegia (nahikoa da unitate bateko hiztegiarekin, hasteko) eta proposatu unitatean ditugun txartelak sailkatzeko irizpideak.

HEZITZAILEA: *Zer egoten da ikastolan?*

HAURRAK: *Guraizeak egoten dira ikastolan.*

HAURRAK: *Ipuinak egoten dira ikastolan.*

Lehenengo, hezitzaileak egin behar du jolasa eta, ondoren, haur bati pasako dio txanda. Betiere, haurren ondoan egongo da hezitzailea laguntzeko prest.

Interesgarria litzateke haurrak berak ematea sailkatzeko irizpideak, ahal badu, behintzat.

Hiztegiaren bitartez ipuina gogoratu

Ipuineko hiztegia baliabide interesgarria eta erakargarria izango da ipuina gogoratzeko. Ipuinak kontatzeko beharrezkoak diren hiztegi-txartelak sortu dira. Baliabide horren bitartez, alde batetik, hiztegia aberastuko dugu eta, bestetik, ipuina lantzeko beste estrategia bat sortu da.

PROZEDURA

Ipuina kontatzeko bidea zabalduko dugu.

HEZITZAILEA: *Behin bazen neska bat...* (Arroxaliren txartela erakutsi.)

HAURREK: *Arroxali*

HEZITZAILEA:...

Modu horretan ipuin osoa kontatuz joango dira, hezitzailea lehendabizi, eta haurrak ondoren.

HEZITZAILEAREN EGINKIZUNA

Prozeduretan deskribatzen den bezala, hezitzailea izango da, hasieran, eredia emango duena. Baina jarduera ez da horretara mugatuko, haurren parte-hartzea eta

protagonismoa bultzatu behar da. Hiztegi-jokoetan, beste jardueretan bezala, ezinbestekoa da haurren erritmoa eta interesa errespetatzea arrakasta lortzeko. Ez dugu ahaztu behar behaketa egin behar dela uneoro.

g. Gaia aberasten. “Txoko txuria”

Jarduera honekin ohitura-jarrera batzuk landu nahi ditugu. Alde batetik, gai baten inguruan informazio-iturriak zein izan daitezkeen pixkanaka deskubritzen joango gara. Bestetik, gaiarekin loturiko hainbat material interesgarri ekarriko dugu gelara, etxekoan laguntzarekin: liburuak, objektuak, prentsa artikulatuak, panpinak, bideoak...

Nola osatu gaiaren inguruko informazioa? Hainbat ekarpen egin daitezke:

- Lagungarria gerta dakiguke unitate didaktiko bakoitzarekin zerikusia duen bibliografia izatea aldamenean. Hezitzaileak bat edo beste aukeratu behar du proposatutako tituluen artean eta, gero, gelara ekarri eta taldeari aurkeztuko dio. Ekarririkoa testu berria aurkeztu ondoren, liburutegian utziko du umeen eskura. Unitatez unitate liburutegia aberasten saiatu behar dugu, eta beti aurkituko dugu umeen artean bereganatuko duen nobedaderen bat. Gauza bera egin daiteke gaiarekin erlazioa duen beste objekturen batekin: panpina, kanta, bideoa...
- Umeek ekarritakoa ikasgelan eduki daiteke unitatea bukatu arte. Aurkezpena egin ondoren, Txoko txurian utziko dugu.
- Oso interesgarria da gurasoak ere inplikatzeko. Ohitura interesgarriak bultzatu ditzakegu ikastolatik. Esate baterako, txikitatik ikas daiteke non dagoen udal-liburutegia eta nola erabili. Gurasoen laguntzaz libururen bat aukeratu dezakete eta ikastolara ekarri; gainerako umeen aurrean aurkeztuko dute, eta zenbait egunez Txoko txurian utziko dute. Liburuak nola erabili eta nola zaindu irakatsi behar diegu.

h. Hainbat testu: olerkiak, aho-korapiloak, esaera zaharrak

Urtxintza proiektuko unitate guztietan hainbat testu mota eskaintzen dira: olerkiak, aho-korapiloak, esaera zaharrak... Testu mota horiei ere leku bat egin behar zaie gelan; horretarako, Harrera-txokoa proposatzen dugu. Testuak lantzeko prozedura batzuk ere zehaztu ditugu, haurrek interesa azaltzen dutenean martxan jartzeko.

PROZEDURA

Hainbat abestirekin egin den antzera, olerkiak, aho-korapiloak, igarkizunak eta esaera zaharrak ikas ditzakete haurrek, behin eta berriz errepikatuta. Asko lagunduko die olerkiak, aho-korapiloak, igarkizunak eta dena delakoak erritmo batez eta keinuz errepikatzeko. Hezitzaileak, jakina, ondo ikasita izan beharko ditu, kantekin eta ipuinekin egiten duen bezala.

Testu labur horiek ikasteko, kantekin erabilitako prozedurari jarraituko diogu. Behin ikasi ondoren, beste jarduerak batzuk ere proposa daitezke, libreki egiteko.

- Olerkia, aho-korapiloa, esaera zaharra... idatzita eman, eta marrazkia egin dezaten eskatu. Adierazpen plastikoaren txokoa.
- Olerkiaren, aho-korapiloaren, esaera zaharraren eta abarren testua eskura jarri eta “irakurtzeko” aukera eman (testuaren eta marrazkiaren identifikazioa, ez dekodifikazioa). Irudiak irakurtzeko txokoa.

- Testuekin eta marrazkiekin bilduma bat egin. Liburutegi txokoan.
- Igarkizunek badaukate berezitasun bat, asmatzeko direla. Hori dela eta, hezitzailearen esku gelditzen da jolasaren zentzua ematea eta hurrek jarduera horrekin gozatzea.

HEZITZAILEAREN EGINKIZUNA

Plangintza prestatuko du, eta olerkiak, aho-korapiloak, esaera zaharrak... aukeratuko ditu, emandako jarduera-proposamenak, edo beste batzuk, egiteko. Bestetik, haurren behaketa egin beharko du uneoro.

i. Abestiak

Abestiak proposatzearekin batera, ekintza horrek zer helburu duen erabaki behar da. Helburua abestiarekin musikaz gozatzea bada, CDa ipini eta zuzenean entzun daiteke. Baina abestia ikastea nahi bada, ondoren azaltzen den prozedura egin daiteke

PROZEDURA

Kanta berri bat aurkeztu baino lehen, letra ikasi ez ezik, kantarekin batera egingo diren keinuak zehaztuko ditugu, koreografia txiki bat osatuz. Lantzeko unean, ez da komeni CDa erabiltzea, oso erritmo azkarra izan dezake eta. Interesgarriagoa da zatika-zatika errepikapenak eginez ikastea (ipuinaren abestiak lantzeko aukeratu ditugun kantekin egin dugun bezala).

j. Musika klasikoa

Jarduera hauekin, haurrak musika klasikora hurbiltzeko aukera eskaintzen da. Entzuteko, erlaxatzeko, imajinatzeko proposamena da.

PROZEDURA

- *Erlaxatzeko*. Musika entzungo dugu lurrian etzanda, begiak itxita eta arnasa lasai hartuz. Sentitu dutena hitzez adieraztea da helburua: *Gustatu al zaitzue? Zer gustatu zaitzue? Nola sentitu zarete?*
- *Erritmoa margotu*. Lehenik, musika entzutea proposatzen dugu. Ondoren, hezitzailea, erritmoa markatuz, erritmoa “margotzen” saiatuko da argizarizko margoekin, paper handi batean. Azkenik, beste hainbeste egin dezaten proposa diezaiekegu hurrei.

HEZITZAILEAREN EGINKIZUNA

Mota honetako jardueretan, hezitzaileak eginkizun pasiboa izango du orokorrean. Batzuetan, jardueran parte hartuko du motibazioa pizteko, baina hurrei jarraipena egitea da interesgarriena.

Konpositorearen inguruan hainbat jarduera (hezitzailearen laguntzarekin)

- Konpositorearen erretratua lortu, fotokopiatu eta bertan izena idatzi ondoren, gelan propio antolatuko den “konpositoreen txokoan” edo “konpositoreen fitxategian” kokatuko dugu, hurrek ikus ditzaten eta manipulatu.
- Biografia irakurri eta argazkiaren ondoan edo atzealdean jarri. Biografia entzun ondoren, konpositorea nongoa den (zen) landuko dugu, eta horren inguruan jarduera berriak sortu: Non dago bere jaioterrria? Nola joan gintezke hara?... Historian eta

denboran kokatu: nola janzten ziren, garai hartan garrantzizko zer edo zer gertatu zen aztertu (gerraren bat, aurkikuntzaren bat...).

- Hiruhilabete bukaeran, landu ditugun konpositoreen eta obren liburuxka osa dezakegu etxera eramateko. Gurasoak inplikatu (pertsonea gidariaren bidez, edo bestela): landutako obrak eta konpositoreak ezagutzen al dituzten, etxean diskorik al duten, gustatzen al zaien... (3. zehaztapen mailan, hiruhilabete bakoitzaren hasieran, gai bakoitzean lantzen den obraren eta konpositorearen berri ematen da, gurasoei bidaltzeko prestatuta dagoen ikasnorabidean).
- Obraren izenburuari erreparatu. Zenbaitetan izenburuek entzun behar dugunari buruzko informazioa ematen dute.
- Hezitzaileak musikarekiko dituen sententzioak eta sentipenak agertuko dizkie haurrei. Ezin zaie haurrei eskatu beren sentipenen azalpenik ematea inolako eredurik gabe. Izan ere, entzuten ikasi egiten da eta sentipenak adierazten ere bai. Horregatik, irakasleak eredu ematea oso baliagarria da.
- Lehen entzunaldiaren ondoren, haurren sententzioei buruzko elkarrizketa garatuko da. Haurrak jadanik duten informazioarekin prest daude musika entzuteko. Nahi izanez gero, lurrean etzanaraziko ditugu. Elkarrizketan zerbaitek atentzioa eman al dien galdetu...
- Ipuin musikala edo diaporama antolatu. Musikaren mugimenduen sententzioek ematen dituzten ideiak aprobetxatuz, ipuin bat eraiki dezake irakasleak bakarrik, edo haurrekin batera. Asmatutako ipuina kontatzeko, hainbat teknika erabil daitezke: arbelean marraztuz, txotxongiloekin, diaporama bat eraikiz...
- Ipuinaren ondoren, Urtxintxako unitate didaktikoetan egiten den bezala, hainbat jarduera egin daitezke *Ipuina aitzakia* atala landuz:
 - Plastika: horma-irudia, pertsonaien kareta, txotxongiloak...
 - Irakurketa/idazketa: ipuina idatzi, pertsonaien izenekin jolastu...
 - Antzerkia: talde-antzerkia, antzerki kolektiboa gelan, edo beste haurrei eskaintzeko...
 - Musika: musika-tresnekin orkestrazio sinpleak egin, entzumen pertzeptzioa landu audizioaren parteak eta instrumentuak errekonozituz...
- Audizioa egiteko berdin-berdin erabil daitezke Urtxintxa proiektuak proposatutako obra edo irakasleek aukeratutakoa. Garrantzizkoena obra hori irakaslearen gustukoa izatea da. Bestalde, Urtxintxa proiektuan, musika klasikoa bakarrik grabatu bada ere, beste edozein musika ere erabil daitezke, eta komenigarria da, gainera.

k. Erritmo-eskemak

Gorputzaren eta musika-tresnen bidez, oinarrizko erritmoak errepikatzea da erritmo-eskema. Erritmo-eskemak abestiekin, olerkiekin edo horretarako prestatzen diren esaldiekin lan daitezke.

PROZEDURA

Erritmoa aukeratu eta horrekin eskematxoa landu. Lantzeko garaian, gorputzaren bidez egitea komeni da aurrena; ondoren, musika-tresnak erabil daitezke.

Musika-tresnak erabili baino lehen, horien aurkezpena egin behar da, eta erabiltzeko arauak garbi azaldu.

HEZITZAILEAREN EGINKIZUNA

Jardueraren aurkezpena eta jarraipena egin behar du.

I. Egoera komunikatiboak

PROZEDURA

1/ Hitzez adierazi

Gaia aukeratzean, haurren errealitatetik gertu dagoen egoera bat aukeratuko dugu. Egoera hori erreala bada, hobe. Ipuinean azaltzen den gatazka bat izan daiteke, haurren arteko arazo bat edo gaiarekin lotura duena.

Lehenik, haurrek arazoa identifikatu beharko dute. Ondoren, arazo horren inguruko hipotesiak azaldu, egoera beste era batera azalduz (egoera hori gauzatuko ez balitz, zer gertatuko litzateke?). Bukatzeko, konponbideak proposatu, eta ondorioak atera.

2/ Egoerari buruzko elkarrizketa eragin eta dramatizatu

Elkarrizketa egin, jolasetan azaltzen den prozedura eginez. Bi haurren artean, edo talde txikietan antzestu egoera hori.

HEZITZAILEAREN EGINKIZUNA

Dinamizatzailea izango da. Gatazkatsua den egoera bat sortzean, martxan jarriko du deskribatutako prozedura. Moderatzailea ere izango da, prozedura egitean gatazkatsua den egoera bat gainditzea baita helburu nagusia.

m. Problema ebaztea

PROZEDURA

IDEAL prozedura aplikatzeko, jarduera irekiak proposatzen dira, agindu zuzenak saihestuz, haurrek hipotesiak eta estrategiak garatu eta adieraz ditzaten. Haurren artean badira, berez, edozein problemaren aurrean era eraginkor batean ekiten duten haurrak, autonomoki, ekimena eta sormena adieraziz. Baina badira problemen aurrean blokeoak izaten dituztenak ere, problemari aurre egiten ez diotenak hainbat arrazoi dela medio.

Problemek ebazpenean jarrerak garrantzi handia du; ezinbestekoa da jarrera baikorra izatea. Problemari aurre egiteko ohitura sortu behar da, eta horretarako zaindu behar diren gaitasunak izaera afektiboa dute: autokonfiantza, norberaren gaitasunak balioestea, autonomia, ekimena...

Haurrak laguntzeko, problemek ebazpenerako hainbat pauso proposatzen dituen prozedura bat proposatzen dugu, bai irakasleek eta bai haurrek erabiliz barneratu dezaten eta haren pausoak ezagut ditzaten. Urtxintxa proiektuak IDEAL prozedura proposatzen du, irakaslearen eta haurren trebakuntzarako.

Urtxintxa proiektuan, problema bezala ulertzen da desegokia edo desatsegina den edozein egoera. Edozein egoeratan eta eremutan gerta daiteke problema edo arazo bat, ez matematikan bakarrik. Beraz, problema ebaztea egoera desatsegin/desegoki batetik egoera atsegin/egoki batera pasatzea da, horretarako behar diren bideak jorratuz.

IDEAL prozedurak bost azpiprozedura deskribatzen ditu. Garrantzi handikoa da horietan etengabe insistitzea haurrek barnera ditzaten (metakognizioa):

Identifikazioa

Definizioa

Estrategia posibleen aukeraketa

Aritu (Ekin)

Lorpenen errebisioa

Identifikazioa. Ezin konpondu edo aldatu problema bezala identifikatzen ez den egoera bat (ez du zentzurik, bestela). Haurrak egoera horretan problema bat dagoela ikusi behar du. Pauso honetan, autokonfiantza eta ekimena landu behar dira.

Definizioa (definitu eta errepresentatu). Problema martxan jarri. Zergatik sortzen da problema? Zertan dago problema? Haurrek problemaren eragilea definitzen saiatu behar dute. Urtxintxa proiektuan problema gehienak marrazki bidez aurkezten direnez, neurri batean errepresentatuta daude, baina ez definituta.

Estrategia posibleen behaketa eta aukeraketa. Sarriegi hurrei fase hau bukatuta aurkezten zaizkie problemak. Estrategia baten aplikaziorako agindua ematen zaie, aurretik problema identifikatu gabe, definitu gabe, konponbiderako estrategiak behatu eta hautatu gabe. Aurreko pausuk eman eta gero, komeni da, ezagutzen dituen estrategia guztien artean, egoera konpontzeko egokienak zein iritzi dituen aipa ditzan, bat aukera dezan eta aukeraketaren zergatia adieraz dezan.

Aritu (ekin). Ekimena eta ausardia bultzatu behar da pauso honetan. Ahaztu gabe porrota dela arrakastarako lehen pausoa, arrakasta lortzeko beharrezkoa izan daitekeela huts egitea, edo, beste modu batera esanda, “Akatsa, lehen urratsa”.

Lorpenen ebaluazioa. Emaitzak ebaluatzeko gaitasun kritikoa landu behar da pauso honetan. Atzera buelta eman behar da. Hasierako egoera konponduta geratu al da? Iritsi al gara nahi genuen tokira? Erantzuna baiezkoa bada, problema ebatzita dago. Bestela, berriz ekin beharra dago, pausoz pauso akatsa non sortu den jakiteko eta egoera bideratzeko.

Azken bi pausoak loturik doaz, eta gogoan eduki behar da zenbait ikasle aritzean blokeatzen dela porrotaren beldurrez.

HEZITZAILEAREN EGINKIZUNA

Jarduera mota honetan, informazioa jasotzea eta ordenatzea da hezitzailearen eginkizunik garrantzitsuena; IDEAL prozeduran, berriz, aurrera egiteko laguntza ematea.

n. Egoera matematikoak

PROZEDURA

Matematika-arloaren xede nagusia problemak ebazteko gaitasuna garatzea da. Zenbaitetan horretan pentsatzen ez badugu ere, matematikaz inguratuta bizi gara. Egunero egiten ditugun ekintzetan matematika etengabe erabiltzen dugu (ikastolara joateko ordutegia daukagu, ibilbide jakin bat egiten dugu oinez edo edozein garraio erabiliz, lagunaren artean gauzak banatzen ditugu, gure inguruko objektuek era askotako forma geometrikoak dituzte...). Beraz, matematika eskura dugu, eta horixe da, hain zuzen, dugun baliabiderik aberatsena hurrei era esanguratsuan arloaren alderdi bakoitza aurkezteko eta lantzeko.

Nola nahi ere, Urtxintxa proiektuak hainbat proposamen ditu, ARITMETIKA, LOGIKA, GEOMETRIA eta NEURRIA lantzeko.

Aritmetikari dagokionez, zenbaki naturalaren jabetzan laguntzeko, ordena-erlazioak ezarriz zenbaki ordinala lantzen da. Bestalde, kopuru ezberdinen arteko behaketak, konparaketak eta erlazioak —eragiketak barne— landuz, zenbaki kardinalak ezagutzeko joateko proposamenak daude materialetan.

Logika. Egunerokotasunean, gelako antolaketan, objektuen azterketan eta erabileran... horietan guztietan sortzen diren egoerak altxor amaigabe bat dira gaitasun kognitiboan erabilera garatzeko. Gure inguruko objektuak behatuz, haien arteko berdintasunak atzemanek eta ahoz adieraziz, ezberdintasunak atzemanek eta adieraziz, berdinak bilduz eta erlazionatuz eta ezberdinak bereiziz, sailkapenera eta poliki-poliki maila kognitibo altuagoa duten operazioetara iristeko bidea eskaintzen digute. Egoera horien osagarri, beste hainbat proposamen eskaintzen ditu Urtxintzak.

Geometriari eta **neurriari** dagokionez, aurreko disziplinekin egiten den planteamendu bera aurki dezakegu proiektuan.

Hala ere, ukaezina da hizkuntzak eta pentsamenduak lotura estua dutela, eta, gure ustez, hizkuntza lantzen ari garenean ere milaka egoeratan ekintza eta behaketa matematikoak lantzen ari garelako kontzientzia hartzea garrantzitsua da.

Aurreko paragrafoan esandakoa ilustratzen duen adibide garbientakoa TOUGH-en hizkuntza-funtzioen sailkapena dugu. Sailkapen horretako lehen atalean, behatzen duguna edozein gauza dela ere, xehetasunen aipamenetik hasita (atributu matematikoen lehen aipamenak eginez, handi, luze, gorri, ez gorri, lauki, borobil) matematika lantzen ari gara. Behatzen dugu egoera batean dauden pertsonen, bizidunen nahiz objektuen kokapenaz ari garela, espazioa eta espazioarekiko kokapena lantzen ari gara, hau da, topologia (goian, behean, eskuinean, ezkerrean...). Gertakizunen sekuentziak lantzean, neurria (denbora-erlazioak) eta ordena-erlazioak lantzen ditugu (zenbaki ordinalak barne). Eta zer esanik ez beste funtzio hauekin, izenak berak adierazten baitigu zertan ari garen: konparazioak egin (atributu matematikoa lantzea, ordena-erlazioak egitea, erlazioak sortzea eta sailkatzea ahalbidetzen digu), arrazonamendu logikoa...

Beraz, Urtxintxa proiektuak, gida mailan, paper formatuan eta CD-ROMetan eskaintzen dituen proposamen esplizitoez gain, zera proposatzen dugu: bai hizkuntza lantzen ari garenean, bai inguruarekin elkarrekintzan ari garenean, esperimintatuz, konpartituz eta berbalizatuz lantzeko milaka egoera matematiko horiek era bibentzian eta, ondorioz, esnaguratsuan lantzea.

Egoera matematikoak egiteko oinarria funtzionaltasuna da. Eguneroko kontzeptu logikoak, topologikoak, neurriari buruzkoak eta aritmetikoak kontuan hartzea.

ñ. Artelanak

Adierazpen grafiko-piktorikoa gertakarien, emozioen eta lekuen esperientziatik sortzen da Urtxintxa proiektuan, eta ikerketarekin aberasten da. Hainbat teknika eta material (berriak nahiz berreskuratutakoak) ezagutzeko jarduerak proposatzen dira.

Hainbat material erabiliz, bakoitzak duen adierazkortasun plastikoa aztertzeko proposamenak bideratzen dira. Autonomia eta sormena bultzatzen badira ere, besteen

ekoizpenekiko jarrera errespetuzko eta kritiko bat landu nahi da artelanak behatuz eta elkarlaneko jarduerak proposatuz.

Urtxintzan aurkezten diren artelanak hainbat jatorritakoak dira. Artista handi unibertsalak azaltzen dira, bai eta euskaldunak ere; artearen euskal dimentsioari arreta berezia eskaintzen zaio proiektuan.

Bestetik, lan figuratiboak eta ez figuratiboak aurki ditzakegu. Figuratiboetan, hainbat elementuren behaketa proposatzen da batzuetan: edertasuna, kolorea, konposizioa, gaia... Beste batzuetan, horma-irudiak sortzen dira, talde-lanean, artelana eredutzat hartuta eta eraldaketak eginez. Artelan ez figuratiboek badute haurrarentzat abantaila bat: neurri batean, ez daude oso urruti haurrek egin ditzaketeko ekoizpenetatik; haurrek egindako azken produktuak artelan itxura har dezakete. Hezitzailearen laguntzarekin, haurraren ikerketa artistaren lanaren parean jar daiteke, biek adierazpen-arazo beretsuei aurre egiten baitiete.

Urtxintza proiektuan aukerak ematen dira gizakiak bere inguru hurbilean dituen eta naturan azaltzen diren formen dohain estetikoa antzemateko eta horren inguruan hausnartzeko.

Ikuspegi globalizatzaileari erantzunez, artelanak eta plastikako proposamen guztiak testuinguru esanguratsu batean proposatzen dira, unitatearen sekuentzia tematikoan txertatuz. Plastika, helburu bezala tratatzen da batzuetan, beste lan batzuen zerbitzuan besteetan, eta arloak uztarturik askotan (musika eta plastikako erritmoen behaketak e.a.).

Haurrak, artelan unibertsalen eta hemen bertakoen aurrean ipiniko ditugu. Artelan bati behatzean, elkarrizketa eta hausnarketa bultzatu behar dira. Haurren adierazpen-mailan jartzea da jarduera honen helbururik nagusia.

2.6.- Gurasoekiko harremanak

Haur txikien apendizaiaren beren eguneroko bizitzan sustraituta dago, beren esperientzietan eta bizipenetan sustraituta. Eskolan eta eskolatik kanpo egiten duten guztia erlazionaturik dago, eta bi eremu horietan egiten duenak garrantzi handia du bere heziketarako. Gurasoak eta irakasleak kontziente dira bi ekintza hezitzaile horiek osagarriak direla eta hala izan behar dutela. Gurasoen inplikazioa eta partaidetza, beraz, oso garrantzitsua da. Haurraren oso eragin baikorra sortzen dute, eta eskolaren eta familiaren heziketaren arteko jarraipena bermatzen da.

Gurasoekiko erlazioa baikorra izan dadin, lehenik, haurra hezteko eta estimulatzeko era asko daudela kontuan hartu behar da. Gurasoen kolaborazioak ez du esan nahi, derrigorrez, beraien jokabidea edo haurraren erlazionatzeko duten estiloa aldatu nahi dela. Ideia nagusia, zera da: haurrari dagokionez, guztiek ikas dezaketela erlazio horretan, hezitzaileak gurasoengandik eta gurasoek hezitzailearengandik. Aurreiritzietatik aldendu beharra dago.

Era asko daude gurasoen partaidetza antolatzeke eta martxan jartzeko. Garrantzitsuen hori egitea da, eta ez anekdotikoki, era antolatu eta planifikatu batean baizik. Urtxintza proiektuko irakaslearen gidan eta ikasleen lan-koadernoetan, gurasoen partaidetza eta inplikazioa bultzatzeko jarduerak, gutunak eta proposamenak aurki daitezke.

Proposamen horiek baliatzen direnean, lehentasuna du bai haurrek eta bai gurasoek jakiteak beren mailan aporta dezaketena oso baloratua dela, ekarpena nolana izanda

ere. Gauzarik sinpleena konpartitzea baliagarria izango da haurren bizipenarekin lotuta badago (haurrak ez duela jaten, ez duela bainatu nahi edo, hobeto, alderantzizkoa: gaur bainatu dela, primeran bazkaldu duela...). Egoera pertsonal-sozio-ekonomiko-kultural guztietan ez dira berdinak izango gurasoen partaidetza eta erantzuna, baina, garrantzi handia eman behar zaio haien inplikazioa bideratzeari eta errazteari.

Bestalde, arreta berezia eskaini behar zaie euskaraz ez dakiten edota, jakinda ere, alfabetatu gabeak diren gurasoei. Bakoitzak bere moduan (gaztelaniaz, frantsesez, beste hizkuntzetan, edo bere euskaraz) idatziko dituzte gutunak eta oharak, eta hezitzaileak ez dio ortografiari edo idazkerari erreparatuko.

Irakasleak bere testuingurua ondo aztertu beharko du eta, seguru aski, Urtxintxa proiektuko proposamena xede horrekin egokitu/aldatu/berritu egin beharko du. Testuinguru guztiek egin dezakete ekarpen bat eta, zailtasunak zailtasun, irakaslearen abileziaren esku gongo da harreman horri etekina ateratzea, merezi du eta.

2.3 Curriculumaren deskribapena

a) Helburuen ikusmoldea

Urtxintxa proiektuan, HELBURUEK praktika pedagogikorako gida, eta horren ebaluaziorako gida-funtzioa hartzen dute. Hezkuntza-asmoak adierazi nahi dituzte. Heziketa antolatzean, kultura eta giza jarreraren hainbat alderdi hartzen dituzte kontuan, garapen pertsonalerako ezinbestekotzat jotzen direnak.

Helburuetan oinarritzen da edukien eta jardueren hautaketa; oinarri kulturalak definitzen dituzte, eta horretara iristeko behar den prozesu osoaren ildo nagusiak zein diren erakusteko ere balio dute.

b) Helburuen mailakatzea

Urtxintxa proiektuan hezkuntza-asmoak hiru mailatako helburuak erabiliz definitu dira. Orokorrenetatik hasi, eta operatiboenak eta behagarrienak direnetara iritsiz, eta elkarren arteko loturak aztertuz, honako hauek dira helburuak:

- A. Etapako helburu orokorrak.
- B. Eremuetako helburu orokorrak
- C. Eremuetako helburu didaktikoak

Haur Hezkuntzaren edukien trataera ziklikoa da, horregatik, ez dira unitate didaktikoetako helburu didaktikoen lorpen-maila minimoak finkatzen, etapa bukaerarako helburuen lorpenen adierazle batzuk adierazten baizik.

2.3.1 Etapako Helburu Orokorrak

- a) Bere gorputza ezagutzeko, gorputzak ematen dituen aukerak zein diren eta desberdintasunak errespetatzen ikasi.
- b) Familia-, natura- eta gizarte-inguruneari behatzeko, aztertzeke, eta ezagutzeko interesa izateko, inguruko gizarte-jardueretan eta Euskal herriko kultura-jardueretan modu aktiboan eta apurka-apurka parte hartu.
- c) Ohiko jardueretan, pixkanaka, autonomia handiagoa hartzeko, bere buruarekiko konfiantza eta ekimena garatu.
- d) Bere gaitasun emozionalak eta afektiboak garatzeko, bere buruaren irudi positiboa eta benetakoa eratu.
- e) Ingurukoekin harremana izateko eta bizikidetzarako eta gizarte-harremanetarako oinarritzko arauak barnerratzeko, gatazkak modu baketsuan ebazten trebatu.
- f) Euskarari zein beste zenbait hizkuntzatan eta adierazpidetan komunikatzeko gaitasunak garatu.
- g) Trebetasun logiko-matematikoak eta irakurketa-idazketa ikasten hasteko, eta mugimendua, keinuak eta erritmoa lantzen hasteko, inguruan duen mundua ulertu eta interpretatu.

Etapako gaitasunen panela eta hezkuntza-kompetentzia orokorrak

AFEKTIBOAK	GIZARTERATZEKOAK	MOTOREAK	KOMUNIKATIBOAK	KOGNITIBOAK
Ekimena izan Nork bere burua onartu Nork bere burua estimatu Nork bere buruan konfiantza izan Gozatu Arazoei aurre egin Autonomiaz jokatu Sentsibiltatea izan Interesa azaldu Sormena adierazi Baloratu Arreta jarri Proiektatu	Aniztasuna onartu Errespetatu Baloratu Parte hartu Ardura txikiak hartu Elkarlanean aritu Kritikoa izan	Orientatu Lekutu Espazio-denboran antolatu Esperimentatu Erabili Koordinatu Erregulatu Eraiki	Hizkuntza-baliabideak erabili Hizkuntzazkoak ez diren baliabideak erabili Kodetu/deskodetu Zehaztasunez adierazi Arretaz entzun Elkarrizketatu Adierazkortasunez adierazi	Sistematikoki behatu Identifikatu Konparatu Erlazionatu Bereizi Ordenatu Inferitu Sailkatu Hipotesiak formulatu Interpretatu Aztertu Sintetizatu

2.3.2 Gaitasunak eta hezkuntza-kompetentzia orokorrak

Honako hauek dira Euskal Curriculumak proposatzen dituen oinarritzko bost hezkuntza-kompetentzia orokorrak:

- Pentsatzen eta ikasten ikasi
- komunikatzen ikasi
- Elkarrekin bizitzen ikasi
- Norbera izaten ikasi
- Egiten eta ekiten ikasi


Kompetentzia orokor hauek garatuz, bizitzarako oinarriak ezartzen dira. Euskal Curriculumak garrantzi handia eman dio horiek barneratzeari; izan ere, hezkuntzaren helburuekin eta pertsona bat dimentsio guztietan (gizabanakoa, gizartekidea eta izadikidea) garatzearekin estuki lotuta dago, eta transferitzeko, funtzio ugari izateko eta asko irauteko aukera ematen du.



Urtxintxa proiektua gaitasunen garapenean oinarritutako ikuspegitik dator. Gaitasunak jaiotzetik dakartzagun eta hezkuntzaren bitartez garatzen joaten diren ahalmenak bezala definitu izan dira. Baina, Hezkuntza-kompetentzia bihurtzeko, egoera errealean aplikatu behar dira. Kompetentzia izatea, beraz, beharrezkoak diren ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak era bateratuan egoera erreal problematikoetan aktibatzea da.

Hezkuntza-kompetentzia orokorrak hezkuntzako zutabe nagusiak izango dira oinarritzko hezkuntzarako zein bizitzarako. Hezkuntza-kompetentzia orokor hauek testuinguru akademikoetan eta ez-formaletan garatuko dira.

2.3.2.1 Urtxintxako gaitasunen panela eta hezkuntza-kompetentzia orokorrak



2.3.2.2 Oinarrizko hezkuntza-kompetentzia orokorrak

EGITEN ETA EKITEN IKASI

Haurrek berez daukaten esperimentatzeko joera, sortzeko, ekiteko, galderak egiteko, jolasteko... horiek guztiak errespetatzea eta bermatzea da haur hezkuntzaren betebeharra. Horri begira antolatu eta bideratuko ditu zereginak eta espazioak.

Bestalde, zenbait ekintza gauzatzeko orduan, hezitzailearen laguntzaz, pixkanaka eta era ordenatuan gauzatuko dira ekite-prozesuaren faseak (esate baterako, *zirkoa egingo dugu* jarduera: *iragarri egingo dugu, ingurukoak gonbidatuko ditugu...*).

- Informazioa hartzea eta gordetzea: *Zer egin behar dugu, noiz, zer egiten da zirkotan?....*
- Ideia berriak eta konponbideak lantzea: *Guk nola egin dezakegu....? Ideiak elkartrukatu...*
- Ideiak gauzatzea: *Egin, entseatu...*
- Ebaluazioa eta aplikazioa: *Zer moduz doa dena? Nola irten da? Zer zailtasun izan ditugu? Zertarako balio du ikasi dugunak?*

Egiten eta ekiten ikasi hezkuntza-kompetentzia orokorra, Urtxintxa proiektuan proposatzen dugun esku-hartze estiloarekin lotuta dago, hau da, haurrak aukera izatearekin esploratzeko, manipulatzeko, esperimendatzeko, jolasteko eta horretaz guztiaz hausnartzeko.

KOMUNIKATZEN IKASI

Haurrak komunikatzeko duen beharrari erantzuteko, estrategiak lortzen joatea eta horren inguruan oinarritzko hausnarketak egitea.

- Ahozko hizkuntza
- Hizkuntza idatzia
- Beste hizkuntza batzuk
- Gizarte komunikabideen baliabideak
- IKT
- Kontzientzia sozio-komunikatiboak

IKASTEN ETA PENTSATZEN IKASI

Jasotzen den informazioa interpretatzea, behatzea, horretaz pentsatzen hastea, ondorioak ateratzea eta ideia berriak sortzea. Arazoei konponbidea bilatzeko lehen urratsak ematea.

- Informazioa interpretatu
- Informazioa sortu
- Informazioa ebaluatu
- Erabakiak hartu
- Arazoak konpondu
- Baliabide kognitiboak erabili

NORBERA IZATEN IKASI

Ziurtasun afektiboa lortzea, gorpuztasuna ezagutzen eta kontrolatzen joatea, eta poliki-poliki autonomia lortzen joatea (arazoei aurre egin, egoera berrietara moldatzeko ikasi...).

- Gorpuztasuna
- Norberaren kontrola eta oreka emozionala
- Norbere buruaren estimua
- Autonomia
- Sentsibilitate estetikoa
- Integrazio pertsonala

ELKARREKIN BIZITZEN IKASI

Taldean aritzeko, jolasteko... oinarrizko arauak errespetatzea eta modu positiboan diferentziak bizitzea.

- Pertsonen arteko harremanak
- Gatazkak konpondu
- Parte-hartze demokratikoa
- Elkarrekintza talde-lana
- Aniztasuna

2.3.2.3 Zehar-lerroaren trataera Urtxintxan eta hezkuntza-kompetentzia orokorrak

Urtxintxa proiektua sortu zenetik, zehar-lerroen bitartez gizarte-mailako hainbat gai orokor, balio, sentimendu eta trebetasun lantzen genituen. Gaur egun Euskal Curriculicumaren ildotik *Norbera izaten ikasi*, *Elkarrekin bizitzen ikasi* oinarrizko kompetentzia orokorrak sakonago jasotzen dituzte. Horiek eremu guztietan lantzekoak dira, era integratuan eta sistematikoan.

Zehar lerroak: Osasunerako Hezkuntza, Giza eskubidea eta Bake Hezkuntza, Ingurugiro Hezkuntza, Hezkidetzak, Kontsumo Hezkuntza, Bide Hezkuntza

Balioak: errespetua, elkartasuna, egizaletasuna, justizia...

Sentimenduak: beldurra, poza, inbidia, bazterketa...

Trebetasun sozialak: oinarrizkoak, komunikaziorakoak, asertiboak izateko trebetasunak, enpatia indartzeko trebetasunak...

Proiektuan garrantzi handia eman zaie garapen pertsonalari laguntzen dioten trebetasunei, eta adin honetan haurrek bizi dituzten emozioak eta sentimenduak lantzeari. Horren ondorioz, jardueretan daude integratuta, eta ipuinetan, elkarriketetan, egoera komunikatiboetan... Azken horiek, egoera komunikatiboak, dira zehar-lerroen eta hainbat balioen lanketarako zuzenean pentsaturikoak. Unitate bakoitzeko lankoadernoan, haurrek behatu, interpretatu, eztabaidatu... beharko duten arazodun egoera batekin egingo dute topo. Irakaslearen laguntzaz, aukera izango dute arazoa identifikatzeko, irtenbideak proposatzeko, egoeran gertatzen dena edo bertatik ikas daitekeena beste egoera, toki eta harremanetara orokortzeko, eta pixkanaka horretan trebatuko dira. Haurrentzat zentzua duten egoerak diseinatu dira, eta haurren errealitatean gertatzen diren edo gerta daitezkeen egoerak islatzen dira. Unitate didaktiko guztietan daude eta esplizituki adierazten dira.

2.3.2.4 Euskal Dimentsioaren trataera

Zehar-lerroekin eta balioekin egindako planteamendu berari jarraituz, Urtxintxa proiektuan euskal dimentsioarekin zerikusia duten edukiak sistematikoki lantzen eta esplizituki adierazten dira. Unitateen sekuentzietan zehar, eta testuingurura ekarrita, euskal marka edo dimentsioa duten hainbat elementu aurki daitezke: tradiziozko abestiak, olerkiak, esaera zaharrak, euskal artistek eginiko hainbat lan plastiko (pintura,

eskultura), euskalkietan jasotako abestiak eta olerkiak, egungo literaturaren adierazle batzuk, musika (haur-kantak eta klasikoak), festak, folklorea, mitologia...

2.3.3 Eremuetako helburu orokorrak

NORBERAREN EZAGUERA ETA AUTONOMIA PERTSONALA

1. Haurrak ingurukoengandik bestelakoa dela ikustea, eta norbere buruaren irudi benetakoa eta positiboa eratzea, autoestimuko eta autonomia pertsonaleko sentimenduak gara ditzan.
2. Gorputza kontrolatzen aurrera egitea, zentzumen-pertzepzioa garatzeko, eta tonua, oreka eta mugimenduaren koordinazioa inguruko ezaugarrietara egokitzeko.
3. Bere gorputza eta gorputzaren zenbait funtzio ezagutzea eta adieraztea, ekintzarako eta adierazpenerako dituen aukerak eta mugak aurki ditzan.
4. Beharrak, sentimenduak, emozioak edo lehentasunak identifikatzea, horiek adierazteko, menderatzeko eta ingurukoei jakinarazteko gero eta gaitasun handiagoa izan dezan; eta besteenak identifikatzea eta errespetatzea, arian-arian.
5. Ongizate emozionalari eta fisikoari loturiko ohiturak eta jarrerak barneratzen aurrera egitea, bere segurtasun pertsonala sendotzeko eta eguneroko egoerez gozatzeko.
6. Eguneroko bizitzako arazoak konpontzeko ohiko jarduerak eta lan errazak gero eta modu autonomoagoan egitea, norbere buruarekiko konfiantza eta ekimen-gaitasuna areagotzeko.
7. Estrategiak garatzea, afektu, jolas, elikadura, mugimendu, azterketa, higiene, osasun eta segurtasuneko oinarrizko beharrak gero eta modu autonomoagoan bete ditzan; eta izandako lorpenekin pozik dagoela adieraztea.
8. Errespetuzko, laguntzako eta elkarlanerako jarrerak eta ohiturak garatzea, bere jokabidea besteen beharretara eta eskakizunetara egokitzeko; eta mendetasun-edo nagusitasun-jarrerarik ez izatea.
9. Eginkizun errazak gauzatzeko edo arazoak konpontzeko, norberaren ekintzaren plangintza egitea eta ekintzak sekuentziatzea; frustrazio txikiak onartzea, aurkezten zaizkion zailtasunak gainditzera daraman jarrera adieraztea, eta besteengan beharrezko lankidetzatza bilatzea.

BIZITZA INGURUKOEKIN

1. Ingurune fisikoa, naturala eta soziala modu aktiboan aztertzea eta esploratzea, eta ingurune horiek ezagutzeko interesa erakustea, ingurune horietako kide diren sentipena garatzeko eta haietara nolabaiteko segurtasunez eta autonomiaz moldatzeko.
2. Portaera sozialeko oinarrizko arauak arian-arian barneratzea, eta beren jokabidea arau horietara egokitzea, gero eta modu orekatuagoan eta hobean.

3. Beren esperientziaren hurbileko hainbat gizarte-talde, haien zenbait ezaugarri, kultura-ekoizpen, balio eta bizimodu identifikatzea, eta horiek ezagutzera hurbiltzea, konfiantza-, errespetu- eta estimazio-jarrerak sortze aldera.
4. Ingurune fisikoa ikertzea eta bertako zenbait elementuren ezaugarriak identifikatzea, haietan jarduteko eta eraldaketak sortzeko gaitasuna garatze aldera.
5. Elementuak eta bildumatasunak identifikatzea eta taldekatze-, sailkatze-, ordenatze- eta kuantifikatze-harremanak ezartzea, pentsamendu logiko-matematikoa garatzeko eta horren adierazpideak ikasten hasteko.
6. Naturako animaliak, landareak, elementuak eta fenomenoak aztertzea eta ezagutzea, eta haiei buruzko saiakuntzak egitea eta hitz egitea, ingurune naturalaren gaineko interesa erakusteko eta jakin-mina eta errespetua garatzeko.
7. Ingurune naturaleko oinarritzko osagaiak eta haien zenbait harreman, aldaketa eta eraldaketa ezagutzea eta aintzat hartzea, haiek babesteko zaintza, errespetua eta erantzukizuna garatzeko.
8. Inguruko jai, tradizio eta ohituren berri izatea eta haietan parte hartzea, haietaz gozatzeko eta aintzat hartzeko, nortasun-ezaugarri baitira.

HIZKUNTZAK: KOMUNIKAZIOA ETA ADIERAZPENA


1. Hizkuntza horiez guztiez jabetzea pixkanaka, beharrak, lehenetsunak, sentimenduak, esperientziak eta errealitatearen errepresentazioak adierazteko.
2. Gorputz-, plastika-, musika- eta teknologia-hizkuntzekin saiakuntzak egitea, haiekiko interesa erakustea eta erabiltzea, hartara, bai egoerak, bizipenak, beharrak eta inguruko elementuak adierazteko, bai eragin estetikoak eragiteko eta gozatzeko ere.
3. Euskara komunikatzeko, irudikatzeko, ikasteko eta gozatzeko tresna gisa erabiltzea, ideiak eta sentimenduak adierazteko asmoz.
4. Arian-arian, ahozko hizkera norberaren jokabidea eta bizikidetzara arautzeko erabiltzea, eta horretarako garrantzitsua dela ohartzea.
5. Beste hauren eta pertsona helduen mezuak ulertzea era askotariko hizkuntza-testuinguruetan; eta harreman horiek zuzentzen dituzten arauak ezagutzea, komunikazio-asmoak egoki interpretatzeko.
6. Komunikazioaren aldeko jarrera erakustea, bai hizkuntza ofizialetan, bai atzerriko hizkuntzetan, bestelako errealitate eta kultura batzuk ezagutzeko.
7. Beste kultura-tradizio batzuetako zenbait literatura-testu ulertzea, ozen irakurtzea, kontatzea eta berregitea, haiekiko interesa izateko, balioesteko eta haietaz gozatzeko.
8. Plastikako, ikus-entzunezko, teknologiko, antzerkiko, musikako eta gorputzaren inguruko ekoizpenetan modu sortzailean parte hartzea, hainbat teknika erabiliz, komunikazio-aukerak zabaltzeko eta kultura-egitatea ulertzen hasteko.
9. Hizkuntza idatziaren gizarteko erabilerak ezagutzen hastea, hizkuntza idatziaren funtzionamendua aztertzeko, eta komunikatzeko, informatzeko eta gozatzeko tresna gisa balioesteko.

10. Atzerriko hizkuntza bat ahoz erabiltzen hastea komunikatzeko helburuarekin, ikasgelako ohiko egoeretan parte hartzeko.
11. Teknologiako tresnak erabiltzen hastea, eta tresna horiek komunikatzeko duten gaitasuna aintzat hartzea, arian-arian informazio- eta ikaskuntza-iturri gisa erabiltzeko.

2.3.4. Eremuetako helburu didaktikoak

Sarrerako atalean aipatu diren ezaugarriak era operatibo batean islatzeko, gelako azken jarduerarainoko bidea berreraiki da, curriculum berraztertuz, eduki berriak txertatuz eta helburu orokorretatik abiatuz. Horretarako, hiru mailatako helburuak birdefinitu dira: Etapako Helburu Orokorrak, Eremuetako Helburu Orokorrak eta Helburu didaktikoak.

Jarduera bakoitzean, analisi pedagogikoan lantzen diren helburu didaktikoen erreferentzia adierazten da, dagokion identifikazio-zenbakiarekin.



Helburu didaktikoen zerrenda

I. eremua	NORBERAREN EZAGUERA ETA AUTONOMIA PERTSONALA
I.1	Nortasun pertsonalaren eta bere ahalmen eta mugen onarpena eta balioespen positiboa eraikitzeko, gorputzaren ezaugarriak eta nolakotasunak, nahiz bere osotasunean, nahiz zatika, IDENTIFIKATU.
I.2	Besteen nortasuna eta ezaugarriak onartzeko eta bereizkeria saihestuz errespetuzko jarrerak garatzeko, gorputzaren eta nortasunaren ezaugarri bereizgarriak eta besteekiko dituen berdintasunak eta desberdintasunak IDENTIFIKATU.
I.3	Nork bere sexuarekiko irudi positiboa eraikitzeko eta aniztasuna balioesteko, nortasun sexuala definitzen duten ezaugarri indibidualak BEREIZI..
I.4	Behar horiek berehala edo berandu betetzetik sortzen diren sententzio atseginak eta desatseginak balioesteko, giza gorputzaren oinarriko beharrak adierazi, erregulatu eta KONTROLATU.

I.5	Pertsona helduen eta lagunen maitasun erakuspenen aurrean balioespen eta jarrera positiboa barneratzeke, sentimenduak, emozioak, bizipenak, lehentasunak, interesak... ADIERAZI eta pixkanaka ERREGULATU.
I.6	Gorputzaren bidez adieraztearen atsegina eta interesa azaltzeko eta jolas dinamikak berak sortzen dituen errepresentazioetan parte hartzeko ekimena garatzeko, sentimenduak, emozioak eta beharrak adierazi eta gorputzak komunikatzeko dituen aukerak ESPERIMENTATU.
I.7	Eskura dituen zereginak eta jokabideak burutzeko gaitasun eta ahalmen pertsonaletan konfiantza garatzeko, gorputzaren sentrazio eta pertzepzio exterozeptiboak (zentzumenak eta beren funtzioak) gorputzaren eta kanpoko errealitatearen azterketan ERABILI.
I.8	Jarduera motrizetan segurtasuna eta konfiantza garatuz autoestimazioa indartzeko, gorputzaren kontrola (jarduera, mugimendua, arnasketa, atsedena, saiakuntza) eraiki, eta bere ahalbide eta muga motrizak ESPERIMENTATU.
I.9	Objektuen, espazioaren eta denboraren erabileraren inguruan, lagunartean ezartzen dituzten arauak errespetatzeko, norberaren gorputza, objektuak eta besteak abiapuntutzat hartuta, elkarrekintza soziala bultzatzen duten testuinguru espazialean LEKUTU eta ANTOLATU.
I.10	Gainditze jarrera adierazteko eta jarduera fisikoa eta arrisku kontrolatua atsegin izateko, oinarritzko trebetasun motrizak (ibilera, lasterketa, jauzia, jaurtiketa...) erabili eta mugimendua KOORDINATU (koordinazio estatikoa eta dinamikoa).
I.11	Mugimenduen zehaztapenaren bidez eskuratzen dituen aukerak balioesteko, eguneroko bizitzan eta adierazpen grafikoarekin zerikusia duten ekintzetan, zatikako mugimendua (ikusmenekoa eta motrizak) KOORDINATU.
I.12	Sortzen diren arazo txikiei aurre egiten ikasteko, gorputz jardueretan eta jolasetan, eta oro har eguneroko bizitzan, AUTONOMIA eta EKIMENA ADIERAZI.
I.13	Jolasaz eta mugimenduaz gozatzeko eta gure kultura-ondarea balioesteko, jolas motriz, herrikoi eta tradizioaletan parte hartuz, esperimendu eta ERABILI.
I.14	Jarduerak, bestearen, ekintzaren eta egoeraren ezaugarrietara egokitzeke, sentrazio eta pertzepzio propiozeptiboak (giharre-tonua, jarreraren kontrola, mugimenduen bereizketa, oreka) KONTROLATU.
I.15	Ekintza eta trebetasun berriak ikasteko interesa garatzeko, lehendabizi nozio topologikoak, erritmikoak eta denborazkoak bereganatuz, denboran eta espazioan ORIENTATU.
I.16	Ekintza motrizen ahalbideak balioesteko, gorputzarekin jolastu behar den egoeretan eta eguneroko bizitzan norberaren lateralitatearen aurkikuntza garatu eta pixkanaka ERAIKI.

II. eremua	BIZITZA INGURUKO EKIN
II.1	Ingurune garbien, hondatu gabeen eta kutsatu gabeen aldeko jarrera barneratzeko eta garbitasunean eta kontserbazioan laguntzeko, bere inguruko espazioak (ikastola, etxea, kalea...) eta jarduerak identifikatu eta horietan AUTONOMOKI ORIENTATU eta JOKATU.
II.2	Espazioen erabilera egokia errespetatzeko eta balioesteko, inguruko espazioetako ezaugarriak eta elementu osatzaileak, hala nola bere funtzioak, ERLAZIONATU.
II.3	Inguruko gauzekiko errespetua eta jakin-mina garatzeko eta elkarbanatzeko jarrera baikorra azaltzeko, bere inguruko objektu naturalak edo artifizialak, hala nola bere ageriko nolakotasun fisikoak, funtzioak eta eguneroko bizitzarako erabilerak, IDENTIFIKATU.
II.4	Elkarbizitzan parte hartzeko interesa, erantzukizun txikiak bereganatzeko eta betetzeko, eta afektua, ekimena eta parte hartzea garatzeko, bere inguruko (etxea, familia, eskola, herria...) giza taldeetako PARTAIDE (KIDE) SENTITU eta norberaren lekua ezagutu eta BALORATU.
II.5	Norberaren eskubideen eta iritzien defentsa egiteko eta besteak errespetatzeko, bere harreman taldeen jokabiderako jarraibideak eta elkarbizitzarako oinarritzko arauak BARNERATU eta ERABILI.
II.6	Komunitateari bakoitzak egiten dion ekarpena balioesteko, inguruko pertsonak egiten dituzten lanen, hala nola produktu batzuen ekoizpen-prozesua, lantokien kokapena, tresneria eta abarren ezaugarriak BEREIZI eta ERLAZIONATU.
II.7	Istripu arriskuen balioespen egokia egiteko, inguruko espazioetan eta bakoitzaren esparruan ematen diren jardueretan segurtasun, osasun eta higiene neurriak ezagutu eta ERABILI.
II.8	Komunitateko gizarte antolaketan parte hartzeko interesa suspertzeko, inguruko giza antolaketak eta eskaintzen dituzten zerbitzuak, horien kokapena, funtzioak eta inplikaturik dauden pertsonak IDENTIFIKATU eta BEREIZI.
II.9	Bere inguruko giza taldeetako kide sentitzeko eta kultura-adierazpen horiek barneratzeko eta balioesteko, bakoitzaren inguruko eta Euskal Herriko ohiturak, istorio txikiak, folklorea eta festak IDENTIFIKATU eta haietan PARTE HARTU.
II.10	Inguruko aniztasuna balioesteko, bakoitzaren inguruko eta Euskal Herriko inguru natural eta sozialeko paisaiak BEREIZI.

II.11	Bakoitzak gizakiari eskaintzen dizkion onurak eta kalteak balioesteko, hainbat bizitoki motak (landakoa, hirikoa, itsasaldekoa, basokoa...) osatzen dituzten espazioak, bizidunak eta elementuak BEREIZI eta SAILKATU.
II.12	Animaliekiko eta landareekiko jakin-mina, errespetua eta ardura garatzeko, inguru naturala gordetzea oinarritzko jarrera gisa hartuta, izaki bizidunak eta bere garapenean dituzten aldaketak, hala nola bizi diren inguruak eta betetzen dituzten funtzioak IDENTIFIKATU eta BEREIZI.
II.13	Paisaiarengan eta izaki bizidunengan duten eragina balioesteko, fenomeno atmosferikoak IDENTIFIKATU eta hainbat egoerarekin ERLAZIONATU.
II.14	Egin beharrekoak garaiz burutzeak eta denboraren antolaketak dakartzaten onurak balioesteko, eguneroko eta urtean zeharreko jardueri, dagokien denbora, hala nola denboraren forma sozial batzuk IDENTIFIKATU eta ERLAZIONATU.
II.15	Gizakiok inguru naturalaren aldaketan dugun eragina eta berreskurapenerako eta kontserbaziorako beharra balioesteko, ingurunea osatzen duten elementu guztien (animaliak, landareak, paisaia eta pertsonak) arteko HARREMANAK (elkardependentzia, baliagarritasuna, oreka) IDENTIFIKATU.
	MATEMATIKA
II.16	Objektuak ERLAZIONATU eta BEREIZI, berdintzen eta desberdintzen dituzten ezaugarriak identifikatuz eta aipatuz.
II.17	Objektuak SAILKATU (emandako irizpide baten arabera, emandako ezaugarri bat ez betetzearen arabera, emandako bi irizpideren arabera, <i>ez</i> eta <i>eta</i> loturak erabiliz, irizpide egokia aukeratuz).
II.18	Objektuen arteko erlazioetan zehaztasunaren garrantziaz jabetzeko, lotura logikoak (<i>ez</i> , <i>eta</i> , <i>edo</i> , <i>ala</i>) eta zenbatzaileak (<i>bat</i> , <i>baten bat</i> , <i>batzuk</i> , <i>denak</i> , <i>guztiak</i>) dituzten mezuak egoki INTERPRETATU.
II.19	Egunerokotasunean objektuak nahiz beste elementuak egoki sailkatzeko beharra balioesteko, gauza multzo batean, eta objektu guztien ezaugarri komuna INFERITU.
II.20	Bizitza errealean objektuen arteko erlazioak duten garrantzia balioesteko, gauza multzo bat ORDENATU (serie bat osatuz) emandako erregelari jarraituz.
II.21	Egunerokotasunean kopuruaren praktikotasuna balioesteko, gauza multzoak (bat/bat erlazioaren bidez) KONPARATU, eta gehiago, gutxiago ala hainbat dagoen ERABAKI.
II.22	Jakin-mina eta arreta garatzeko, tamaina eta kopurua kontzeptuak BEREIZI elementuak kontatuz (<i>handiagok ez duela nahitaez gehiago esan nahi BEHARAZIZ</i>).

II.23	Zenbakien beharraz jabetu eta horien erabilgarritasuna balioesteko, gauza multzo baten kopurua KALKULATU elementuak kontatuz, eta kopuru bat emanda hainbeste elementu BILDU.
II.24	Zenbakien segida ERREZITATU (behetik gora eta goitik behera, batetik hasita nahiz edozein zenbakitatik).
II.25	Erabilgarritasunez jabetuz, zifren forma (begiz) eta izena (belarriz) identifikatu, dagozkion kopuruekin ERLAZIONATU eta zenbakiak grafia egokiz IDATZI.
II.26	Ordenatzearen erabilgarritasunaz jabetzeko, zerrenda batean zenbaki ordinal batek adierazten duen posizioa IDENTIFIKATU eta AIPATU.
II.27	Eguneroko bizitzan sortzen diren arazo txikiei ekimenez aurre egiteko, bilketa, gehitze eta gutxitze egoerei dagozkien problema (ahozko azalpena) errazak EBATZI (batuketa, kenketa nahiz kontaketa erabiliz).
II.28	Eguneroko jolasetan eta arazoetan zenbakiak eta eragiketak zein probetxugarriak diren ohartzeko eta balioesteko, lehen hamar zenbakien deskonposatzea (batuketa nahiz kenketa eran) BURUTU, eta GOGORATU zatien eta guztiaren artean dagoen erlazioa adieraziz.
II.29	Errealitatean hainbat erabaki hartzeko neurrien konparazioak duen baliagarritasuna balioesteko, magnitudeen balioak KONPARATU eta ORDENATU <i>zein den zein baino....</i> adieraziz.
II.30	Zehaztasuna balioesteko, objektuen, espazioaren eta materiaren magnitudeak NEURTU eta, horretarako, unitate estandarrekin eta gorputz-atalen arabera ERABILI. ESPERIMENTATU eta ERABILI.
II.31	Autonomia eta ekimena garatzeko, magnitudeei (luzera, pisua, kapazitatea, denbora) dagokien oinarritzko hiztegia duten mezuak egoki INTERPRETATU.
II.32	Inguruan ditugun objektuen ezagutzan aurreratu eta adierazpenean zehaztasuna balioesteko, forma ezagunenak IDENTIFIKATU eta IZENDATU (laukia, hirukia, borobila..), hala nola bolumenen edo irudi lauen barrukoa eta kanpokoa BEREIZI.
II.33	Norberaren autonomian eta estiman aurreratzeko, hala nola adierazpenean zehaztasuna balioesteko, espazioan objektuek norberarekiko eta elkarrekiko gordetzen duten posizioa ADIERAZI, eta espazioaren adierazpenari (goian, behean, aurrean, atzean, alde batean, bestean) dagozkion mezuak egoki INTERPRETATU.
II.34	Errealitatearen irudi bidezko adierazpenaren erabilgarritasuna balioesteko, planoan emandako bide bat IDENTIFIKATU, KOPIATU eta DESKRIBATU.

II.35	Sormena eta ekimena garatzeko, irudi lauak DESKONPOSATU eta KONPOSATU, berriak sortzeko.
-------	--

III.eremua	HIZKUNTZAK: KOMUNIKAZIOA ETA ADIERAZPENA
III.1	Hizkuntza sentimenduak, ideiak, interesak eta informazioa ezagutzeko tresnatzat hartzeko eta balioesteko, ahozko eta idatzizko testuak (pertsonek arteko harremanetan, literaturan, ikaskuntzan eta komunikabideetan) BALIATU.
III.2	Besteen sentimenduak eta adierazpenak ulertzeko eta egoki interpretatzeko, ipuinen eta azalpenen gaia eta ideia nagusiak SINTETIZATU.
III.3	Jasotako informazioa era egokian erabiltzeak duen onura balioesteko, entzundako eta irakurritako informazioa ORDENATU.
III.4	Norberaren beharrak asetzeko eta gozatzeko, entzundakoa eta irakurritakoa ERABILI.
III.5	Besteen ekoizpenekiko errespetua eta interesa garatzeko, entzundako edo irakurritako mezu sinpleak BEHATU eta AZTERTU.
III.6	Komunikazio egoki bat balioesteko, komunikazio-egoeren ezaugarriak (komunikazio-helburua, hartzailea, espazio/denborazko berezitasunak) IDENTIFIKATU.
III.7	Norberaren hizkuntza-produkzioak hobetzeko eta aberasteko interesa eta ahalegina garatzeko, oinarrizko hizkuntzaren osagaiak eta egiturak (testu sinplea, esaldiak, hitzak, silabak, fonemak eta grafiak) BEHATU eta AZTERTU.
III.8	Nork bere gaitasunak balioesteko eta interesa pizteko, ahozko eta idatzizko hizkuntzak ERLAZIONATU.
III.9	Jakin-mina eta ekimena garatzeko, kode fonikoa eta grafikoa ERLAZIONATU (KODETU-DESKODETU).
III.10	Autonomia eta inizatiba garatzeko, kontsulta- eta informazio-baliabide sinpleak (gelako fitxategiak, gelako liburutegia) ERABILI.
III.11	Komunikazioa era egokian gauzatzen den balioesteko, ahozko eta idatzizko testuak PLANIFIKATU.

III.12	Sormena eta ekimena garatzeko eta gozatzeko, ahozko eta idatzizko testuak EKOITZI.
III.13	Hizkuntzaren erabilera zuzena eta aberatsa balioesteko, oinarrizko hiztegia eta hizkuntza-egiturak GOGORATU eta ERABILI.
III.14	Ahozkoak ez diren baliabideak balioetsi, mezuen esanahia indartzeko eta gozatzeko, HIZKUNTZAKOAK EZ DIREN BALIABIDEAK ERABILI (gorputz-adierazpena, irudia, hitzezkoak ez diren hotsak eta musika).
III.15	Kultura-adierazpenekiko sentsibiltatea, gozamina, arreta eta interesa garatzeko, tradiziozkoak nahiz tradiziozkoak ez diren testu poetikoak (kantak, bertsoak, olerkiak, igarkizunak) ARRETAZ ENTZUN, GOGORATU eta ADIERAZI.
III.16	Elkarrizketetan eta taldeko solasaldietan entzuteko eta parte hartzeko jarrera eta besteekiko errespetua garatzeko, talde-bizitza eta talde-lana nahiz norberaren beharrak eta nahiak bideratzeko, ELKARRIZKETAN ARITU.
	PLASTIKA
III.17	Nork bere ekoizpenetan atsegina, autonomia eta interesa garatzeko, sentipenak, ideiak, pentsamenduak... adierazteko eta komunikatzeko plastikak eskaintzen dituen aukerak eta baliabideak ESPERIMENTATU eta ERABILI.
III.18	Autonomia eta sormena garatzeko, objektuen forma, ehundura eta kolorea, gorputz-ekintzetatik abiatuz (ukimena, ikusmena, gorputz-adierazpena) ATZEMAN eta plastika-baliabideak (lerroa, puntua, zetaka) bai libreki, bai era gidatuan ERABILI.
III.19	Sormena eta ekimena garatzeko, objektuen forma eta imajina plastikoki adierazteko egin behar diren mugimenduak BEHATU eta KOORDINATU.
III.20	Elkarlanean, partaidetzan eta besteen ekoizpenekiko balioespen eta kritikotasun baikorren aurreratzeko, hainbat material erabiliz proiektu komunak ERAIKI.
III.21	Sormena eta orijinaltasuna garatzeko, hala nola arduratzeak eta materiala zuzen erabiltzeak duen garrantzia balioesteko, hainbat material MANIPULATU, bakoitzak duen adierazkortasun plastikoaz ohartu eta modu orijinalean ERABILI.
III.22	Beste teknikekiko interesa pizteko eta horiek balioesteko, argazkiz, telebistaz, bideoz... sortutako imajinak BEHATU eta plastikoki ERABILI.
III.23	Besteen ekoizpenekiko errespetu- eta kritikotasun-jarrera garatzeko eta gozatzeko, artelanak behatu eta plastikoki AZTERTU, eta zenbait lan egiteko era sortzailean eredutzat ERABILI.

III.24	Sentsibilitatea garatzeko, naturan azaltzen diren formekin gizakiak inguru hurbilean sorturiko objektuek duten dohain estetikoak ANTZEMAN eta horren inguruan HAUSNARTU.
III.25	Sormena, arreta, eta gozamina garatzeko, musikak eta plastikak bere baitan duten erritmoa aztertu eta hainbat materialen bidez (bi-hiru dimentsiotan) plastikoki ADIERAZI.
	MUSIKA
III.26	Besteen ekoizpenekiko interesa eta errespetua garatzeko, hala nola gozatzeko eta sentsibilitatea garatzeko, besteen ekoizpenak entzumenaren bidez BEHATU (soinua, doinua, erritmoa, harmonia, forma) eta inpresioak ADIERAZI.
III.27	Arretan eta sentsibilitatean aurreratzeko, hala nola gozatzeko, soinuaren nolakotasunak (intentsitatea, iraupena, ozentasuna, altuera) BEREIZI.
III.28	Kantuarekin, dantzarekin eta musika-tresnen hotsekin gozatzeko, gorputzaren, objektu soinudunen eta musika-tresnen hots-berezitasunak ANTZEMAN.
III.29	Nork bere buruaren estiman aurreratzeko, gure gorputzaren hots-ahalbideak eta inguruko hotsak IDENTIFIKATU, BEREIZI eta SAILKATU.
III.30	Musikak eta gorputzak adierazpenerako eskaintzen dizkiguten aukerak balioesteko eta gozatzeko, mugimendua-hotsa eta hitza-hotsa KOORDINATU.
III.31	Sormenean aurreratzeko eta gozatzeko, gorputza (kantua, dantza), objektu soinudunak eta musika-tresnekin soinuak, abestiak eta erritmo sinpleak EKOITZI.
III.32	Euskal kultur-giroko folklorea eta beste musika-adierazpenekiko sentsibilitatean eta interesean aurreratzeko, gure kulturako abestiak, jolasak, doinuak, musika-tresnak eta dantzak ENTZUN, ABESTU, GOGORATU eta gorputzaren bidez ADIERAZI (dantza).
III.33	Musikaren kode sinpleekiko jakin-mina eta arreta garatzeko, erritmo-eskemak INTERPRETATU, eta musika-tresna sinpleen bidez eta gorputzaren baliabideen bidez EKOITZI.

3. zehaztapen-maila

1 - "Ikastolara goaz" (lehenengo hilabetea - irailetik urrira)

Sarrera: EGOKITZAPENA

Eskolako lehenengo egunak ikasturteko gogorrenak izango dira seguru aski. Gehiago edo gutxiago, ume guztiei kostatuko zaie ikastolako erritmora egokitzea. Ezinezkoa izango litzateke ikasturteari hasiera ematea egokitzapenaldian gaintitu beharreko zenbait oztopori aurre egin gabe. Egokitzapen hori ikasturtearen abiapuntua da eta gure planifikazioa zeharo baldintzatuko du.

Egokitzapena planifikatuta baldin badago, ziurtasuna emango digu. Bestela ere, badaude hainbat alderdi hasierako aste horietan gure kontrolatik kanpo geratzen direnak. Planifikazio mailan ideiak argi izatea, behintzat, mesedegarria eta lagungarria da.

Egokitzapenari uko egitea, beraz, pentsaezina da. Hortik pasatu beharra dago nahitaez; egokitzapenaldiko gatazkak ondo konpontzeak, gainera, ikasturtearen arrakasta bermatuko du. Hasierako aste horietan, ikasturte osoaren oinarriak finkatu behar ditugu.

Egokitzapenaren kudeaketa hezitzaileari (hezitzaile taldeari) dagokio, betiere kontuan izanda egokitzapen prozesu horren partaideak nor diren: umeak, familiak eta hezitzaileak.

Planifikatu beharreko gaiak, besteak beste, honako hauek dira:

- Gurasoen partaidetza zehaztu. Horretarako, komeni da egokitzapenaldiko plangintzaren berri gurasoei aurrez ematea. Uda baino lehen, ekainean, memento egokia izan daiteke horretarako.
- Egokitzapenaldiko egutegia zehaztu.
- Hasierako egun horietan, elkarrizketak erraztu eta programatu, familiak ezagutzeko eta haien urduritasuna baretzeko.
- Eguneko sekuentzia planifikatu eta bete, umeek sekuentzia hori barnera dezaten. Horrek segurtasuna ematen die.
- Espazioa antolatu.

Hezitzaileak umeen konfiantza bereganatu beharko du, eta baita gurasoena ere.

Hezitzailearen helburuak, lehenengo aste horietan, hauek dira:

- 1. Haur bakoitzaren estimua bereganatzea** emango dion ziurtasun eta konfiantzaren bitartez.
- 2. Haurrak gelan lasai eta gustura sentitzea.**

Gela ondo antolatzeak helburu horiek betetzen lagunduko digu. Espazio aproposak honako ezaugarri hauek ditu: lasaia izatea, erakargarria, esploraziora gonbidatzen duena eta babesa eskaintzen duena. Ziurtasun fisikoa eta emozionala eskaintzen duen giroa sortzen saiatu beharko dugu.

Ondorioz, aipatu berri ditugun arrazoiengatik, txokoena iruditzen zaigu espazioaren antolaketarik egokiena, eta, bereziki, txoko librean eredu.

Egoera berriari aurre egiteko prozesua ez da bera izango ume bakoitzarentzat. Haurrek espaziora eta pertsona berriengana moldatzeko denbora beharko dute, baina haur guztiek ez dute denbora berdina beharko (batzuek beste batzuek baino denbora gehiago beharko dute). Hori kontuan izan beharko dugu edozein jarduera edo ekintza prestatzean. Egokitzapena ondo burutzeko, behar beste denbora eskaini beharko diogu haur bakoitzari.

Haurrak, pixkanaka, lasaiago sentituko dira, eguneroko sekuentzia finkatzen dugun neurrian. Sekuentzia horretan, une ezberdinak bereizi behar ditugu, jolas libre, biribilean jesarrita egoteko momentuak, edo zerbait jateko uneak.

Egokitzapenean garatu nahi diren gaitasunak

- **Gozatu, norberaren buruan eta, ondorioz, inguruan daudenengan konfiantza izan** (ziurtasun afektiboa).
- **Orientatu, espazioa-denbora antolatu, esperimentatu.**
- Gelako dinamikan **parte hartu.**
- **Sistematikoki behatu, identifikatu, konparatu, arazoei aurre egin... JARDUERETAN (AUTONOMIAZ) PARTE HARTU.**

Egokitzapenean behatzekoak:

- Gelako sarrera (negarrez, lasai, parte hartu gabe...).
- Nola mugitzen den espazioan (ez da mugitzen, urduri azaltzen da, lasai eta pozik dago...).
- Harremana materialekin.
- Espazioaren erabilpena.
- Harremana gelakideekin.
- Harremana nagusiekin (gurasoekin sartzean, hezitzailearekin gelan, gainerako hezitzaile edo ikastolako pertsonekin...)
- Gelako irteera (negarrez, lasai, parte hartu gabe...)

Informazio hori guztia oso baliotsua da haurren egoera ezagutzeko eta, era berean, hezitzailearen edozein esku-hartze izan aurretik planifikazio egokia egiteko.

Egokitzapena zaintzeak esan nahi du, beraz: gurasoei, haurrei, baita hezitzaileari berari ere, segurtasuna eta konfiantza ematen dien giroa sortzea. Harmoniaz eta lasaitasunez ikastolan haurra hastea lortzen badugu, egokitzapenaren helburu nagusia beteko dugu.

OHARRA: Ondoren azaltzen diren jarduerak aukera emango diete hezitzaileei egokitzapenean zehar egunerokoa antolatzen. Kontuan eduki beharko dira tokian tokiko berezitasunak (espazioa, haur kopurua, taldearen egoera...).

HASIERAKOAK

1. Pertsonaia gidaria: aurkezpena

PROZEDURA

Ttantto panpinatxoak kutxa batetik aterako dugu.

Komeni da Ttanttori buruzko **istoriotxo bat** kontatzea sarrera gisa (Ttantto lotan dagoela eta ezagutzeko esnatu egingo dugula; hemendik aurrera gurekin egongo dela; oso bihurria dela, eta, horregatik, batzuetan, ezkutatu egiten dela...).

Ttanttok egingo dizkigu jardueren sarrerak, kantatuko dizkigu abesti berriak, kontatuko dizkigu olerkitxoak eta ipuinak, irakatsiko dizkigu jolas-kantak...

Ttanttoren eginkizuna

Ttantto pertsonaiari eman nahi diogu protagonismoa eguneroko zereginetan. Ttantto pertsonaia gure zereginaren gidaria izatea nahi badugu, eguneroko eduki beharko du betebeharren bat edo agerpenen bat; beraz, haurren laguna izango da:

- Jarduerak aurkeztean.
- Txoko baterako arreta bideratzeko orduan.
- Arauak azaltzean.
- ...

Haurrei babes afektiboa emango dien pertsonaia izatea eta gelako eguneroko harremanetan parte garrantzitsua bihurtzea da Ttantto pertsonaiaren eginkizunik nagusia.


Helburu didaktikoak:
I.5-III.1 (H)

Etengabeko ebaluazioa:
NORTASUNA, ULERMENA

Gaitasun motak:
AFEKTIBOAK

Jarduera mota:
MOTIBAZIOA

Taldekatzea:



Materia:
TTANTTOREN PANPINA
(TXOTXONGILOA)

Jarduera hau egiteko espazioa:
HARRERA TXOKOA.

2. Ttanttoren abestia

Marigorringo
Ttantto gorringo
lozez lore dabil hegan.
Ttantto gorringo
noiz ikusiko
hemen gaude ikastolan.

Zein polita!
Zein bitxia!
Nahiz izan txiki-txikia.
Marigorringo
Ttantto gorringo,
guretzat lagun handia.

Prozedura: Ikusi jarduera konstanteak. Abestiak.



Helburu didaktikoak:
III.1 (H), III.15 (H), III.32 (MUS)

Etengabeko ebaluazioa:
NORTASUNA, ADIERAZPENA,
ULERMENA

Gaitasun motak:
AFEKTIBOAK, KOMUNIKATIBOAK

Jarduera mota:
MOTIBAZIOA

Taldekatzea:

Materia:
CDa

Jarduera hau egiteko espazioa:
HARRERA TXOKOA.

3. Horma-irudia: Ikastola

Hurrengo unitateetan erabiliko dugun espazio berean (harrera txokoan) kokatuko dugu horma-irudia. Lehenengo proposamen honetan, ez dugu jarduera gidatuko, baina ipinita utziko dugu, eta haurrak hurbiltzen badira, edota interesa azaltzen badute, elkarriketa txikiak egin daitezke.

PROZEDURA: Ikusi jarduera konstanteak. Horma-irudia.

Helburu didaktikoak: I.5-III.16
Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA, ADIERAZPENA, ULERMENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, ARAKETA
Taldekatzea: LIBREA
Materiala: HORMA-IRUDIA
Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA.

4. Tradiziozko kanta

HAURRAK IKAS ZAZUE

Haurrak ikas zazue euskaraz mintzatzen, ongi pilotan eta oneski dantzatzen. Airetun txikitun, airetun aire...


Gure kantu zaharrak kontserba ditzagun, aire politagorik ez da sortu inun. Airetun txikitun, airetun aire...

Haur guztiak gela barruan daudenean, taldea elkartzeko erabil daitezke mota honetako jarduerak.

PROZEDURA

Ttanttok deialdia egin dezake.

Hezitzailea bere tokitik (harrera txokoan hartuko duen tokitik) Ttanttorekin batera hasiko da taldea biltzen. "Airetun txikitun" esatean, besoak altxatu, trikietan dantzatzen den gisan. Haurrei behar duten denbora uztea eta denak hurbildu arte lasaitasunez itzarotea da hezitzailearen zeregin nagusia.

Helburu didaktikoak: II.9-III.15 (H), III.32 (MUS)
Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: AFEKTIBOAK, KOMUNIKATIBOAK, MOTOREAK
Jarduera mota: MOTIBAZIOA, ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea:

Materiala: CDa
Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA.

Helburu didaktikoak: I.13- III.13 (H), III.15 (H), II.32 (MAT), II.33 (MAT), III.32 (MUS)
Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA, ULERMENA
Gaitasun motak: AFEKTIBOAK, KOGNITIBOAK
Jarduera mota: ARAKETA, ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: LIBREA
Materiala: CDa, UZTAILAK
Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA.

5. Tradiziozko kanta: Barrura-kanpora

Begira begira

Begira, begira
uztai biribila.
Zertarako, zertarako?
Denok jolasteko.
Barrura, lup-lup.
Kanpora, lup-lup.

PROZEDURA

Ikusi jarduera konstanteak. Abestiak.

Uztaiak lurrean eta haurrak horien inguruan zutik ipinita, kankak agintzen duena egin, abestiaren letrari eta erritmoari jarraituz. Korroan mugitu uztaien inguruan. Kankak agintzen duenean, barrura edo kanpora salto egin.

Egokitze prozesuaren hasiera honetan, kankak lantzeko prozedura dinamikoa eta nahiko librea izatea komeni dela iruditzen zaigu.

Harrera txokoaren inguruan egin daitezke, baina ahaztu gabe espazioa, gelakideak eta hezitzailea berriak garelara eta elkar ezagutzen joan behar dugula poliki poliki. Haurrek jarduera egiteko behar duten denbora errespetatu behar da.

6. Olerkia**PROZEDURA**

Ikusi jarduera konstanteak. Olerkiak.

Tin-tan, tin-tan,
haurtxoak ikastolan.
Tin-tan, tin-tan
pozik gabiltza dantzan.
Tin-tan, tin-tan,
haurtxoak ikastolan.

Olerki hau edo antzeko kanta edo olerkitxoak (haur guztiak gela barruan daudenean) erabil daitezke taldea elkartzeko.

Helburu didaktikoak:
III.1 (H), III.15 (H)
Etengabeko ebaluazioa:
NORTASUNA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak:
KOMUNIKATIBOAK

Jarduera mota:
MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea:



Materiala:
OLERKIA

Jarduera hau egiteko espazioa:
HARRERA TXOKOA.

7. Ttanttoren marrazkia margotu etxera eramateko**PROZEDURA**

Jarduera hau adierazpen plastikoaren txokoa egon daiteke prest. Egokia litzakete, bat-batean gidatu beharrean, mentoia libreki aukeratzea. Ez da komeni, beraz, jarduera haur guztiek batera egitea. Gerta daiteke, haur batzuk jarduerarekiko interesarik ez azaltzea, hori ere errespetatu egingo dugu.

Ez da ahaztu behar haurrak egoera berrira egokitzen ari direla.

Ttanttoren marrazkia bukatzean marrazki librea egin nahi badute, paper zurian egin dezakete. Komeni da marrazki librea, bukatzean, komunean jartzea (marraztutakoa partekatzea, izena jartzea).

Helburu didaktikoak: III.17 (PLAS)

Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak: AFEKTIBOAK, KOMUNIKATIBOAK

Jarduera mota: MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA, ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzea: LIBREA

Materiala: MARGOAK, TTANTTOREN MARRAZKIA, PAPERAK

Jarduera hau egiteko espazioa: ESPRESIO PLASTIKOAREN TXOKOA.

8. Ipuina: "Arroxali" ipuina hezitzaileak kontatzea

(Laminekin edo laminarik gabe)


PROZEDURA

Ipuina modu gozoan eta atseginean kontatzea komeni da.

Hezitzailearen ipuin kontaketa egiteko, aukeratuta daukagun espazioa edo elementua (mantatxo bat, kapela, hauts magikoak...) erabil-tzea proposatzen dugu.

Egokitzapen prozesuan, oso garrantzitsua iruditzen zaigu ipuinari zentzu atsegina ematea, barru-barrukoa.

Ipuina hasi baino lehen girotzeko eta haurren artean jakin-mina sor-tzeko, oso baliagarriak izan daitezke ipuin kontaketa pausoak (ikusitarduera konstanteak - ipuin kontaketa).



ARROXALI

	Behin batean, Arroxali mendian bakar-bakarrik bizi zen. Jose Anton bere laguna kalean bizi zen. Egun batean, biak elkartu ziren.
	Kaixo, Jose Anton. Nora zoaz?
	Kaixo, Arroxali. Ikastolara noa.
	Ikastolara! Zer egiten duzue ikastolan?
	Ikastolan jolastu, abestu eta marrazkiak egiten ditugu.
	A! Nik ere ikastolara joan nahi dut! Agur, Jose Anton!
	Agur, Arroxali!
	Eta egun hartan, denak lotan zeudenean, Arroxali ikastola ikustera joan zen.
	<i>Mendi-mendiko Arroxali triste dago bakar-bakarrik... (abestuz)</i>
	Ikastola! Jostailuak! Autoa: bruum, bruum..., panpina: loo..., loo..., baloia: poing-poing..., margoak: urdina, gorria..., ipuinak: Txanogorritxo... Ikastola polita da!
	O! Hau logura!
	Hurrengo goizean, haurrak ikastolara iritsi zirenean...
	Non daude margoak?

	Non daude ipuinak? Begira, andereño!!!
	Ui, ui, ui! Nork egin du hau?
	Bitartean Arroxali esnatu zen eta beldurrez negarrez hasi zen.
	<i>(Negar hotsa)</i>
	Nor zara zu?
	Ni Arroxali naiz.
	Ni Mikel naiz.
	Eta ni Amaia naiz.
	Eta ni Jon naiz.
	Eta ni andereñoa naiz. Arroxali, etorri nahi al duzu ikastolara?
	BAI!!! Askok gustatzen zait ikastola.
	Eta ordutik aurrera, egunero poz-pez joaten zen Arroxali ikastolara bere lagunekin.

9. Jolaserako abestia: *A la kinkirriñera*

A la kinkirriñera,
a la xamurrera,
(Ana) plaza berriko
jira hadi
beste aldera.

PROZEDURA

Korroan eskutik helduta, musikaren erritmoan saltoka bueltak emanez, haur guztien izenak esango ditugu txandaka. Haur bakoitzak bere izena entzuten duenean, beste aldera jira egingo du, eta korroaren kanpo aldera begira ipiniko da. Haur guztiak kanpora begira ipintzen direnean, izen bat esan ordez, "*Denok plaza berriko*" kantatuko dugu, eta denok bira egingo dugu korroaren barrualdera.

Helburu didaktikoak:
I.13-III.15 (H)-III.32 (MUS)

Etengabeko ebaluazioa:
ADIERAZPENA, NORTASUNA

Gaitasun motak:
KOMUNIKATIBOAK, MOTOREAK

Jarduera mota:
MOTIBAZIOA, ESPERIMENTAZIOA,
APLIKAZIOA

Taldekatzea:



Materiala:
CDa

Jarduera hau egiteko espazioa:
HARRERA TXOKOA.

10. Lotan nago

PROZEDURA

Gela iluntzen saiatuko gara. Irakasleak linterna bat izango du, itzalita lehendabizi. Haurrak, Arroxali bezala etzango dira, lurrean lotan ba-leude bezala. *Rin eta rin* entzutean, linterna piztu eta denok esnatuko gara.

*Lotan nago, begiak itxita
rin eta rin ezin lorik egin.*

Linterna piztean, "*esnatu, eguna da*" esango dugu. Bakoitzaren aurpegia seinalatu eta izena esango dugu.


Helburu didaktikoak: I.15-III.14 (H), III.32 (MUS)

Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA, ULERMENA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak: AFEKTIBOAK, KOMUNIKATIBOAK, MOTOREAK

Jarduera mota: MOTIBAZIOA, ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea:



Materiala: CDa, LINTERNA

Jarduera hau egiteko espazioa: GELAKO ESPAZIO LIBREAN.

IPUINA AITZAKIA

11. Ipuinaren abestia

Mendi-mendiko Arroxali triste dago bakar-bakarrik.

Kale-kaleko Joxe Anton ikastolatik pozik dator.

PROZEDURA

Ikusi jarduera konstanteak. Ipuinaren abestia.


Helburu didaktikoak: III.15 (H), III.32 (MUS)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, NORTASUNA

Gaitasun motak: AFEKTIBOAK, KOMUNIKATIBOAK

Jarduera mota: MOTIBAZIOA

Taldekatzea:



Materiala: CDa

Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA.

12. Elkarrizketa-jolasak atzamarrekin

PROZEDURA


Ikusi jarduera konstanteak. Elkarrizketa-jolasa atzamarrekin.

Helburu didaktikoak: III.1 (H), III.12 (H)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, NORTASUNA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, AFEKTIBOAK, GIZARTERATZEKOAK

Jarduera mota: MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea:  (BOLONDRESA)

Materiala: ELAKARRIZKETEN GIDOIA

Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA.

<i>Irakaslea haur guztien laguntzaz</i>	<i>Bitartean, Arroxali esnatu zen eta beldurtuta negarrez hasi zen.</i>
Arroxali	<i>(Negar hotsa)</i>
Haurrak	Nor zara zu?
Arroxali	Ni Arroxali naiz.
Haurra 1	Ni Mikel naiz.
Haurra 2	Eta ni Amaia naiz.
Haurra 3	Eta ni Jon naiz.
Haur guztiak	Ongi etorri, Arroxali!

<i>Irakaslea haur guztien laguntzaz</i>	<i>Behin batean, Arroxali mendian bakar-bakarrik bizi zen. Jose Anton bere laguna kalean bizi zen. Egun batean, biak elkartu ziren.</i>
Arroxali	Kaixo, Jose Anton. Nora zoaz?
Jose Anton	Kaixo, Arroxali. Ikastolara noa.
Arroxali	Ikastolara! Zer egiten duzue ikastolan?
Jose Anton	Jolastu, abestu, margotu (egiten dugu).
Arroxali	A! Nik ere joan nahi dut. Agur, Jose Anton.
Jose Anton	Agur, Arroxali.

13. Gure pertsonaiak

PROZEDURA

Arroxaliren irudiarekin (gorputz osokoa hobe) hezitzaileak, horma-irudi handi bat egingo du. Perfila moztuta politagoa gera daiteke. Bere izena jarri, eta gelan ipintzeko margotuko dugu hurrek lagunduta.

Helburu didaktikoak: I.9, I.12, III.8 (H), III.17 (PLAS)
Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA
Gaitasun motak: AFEKTIBOAK, MOTOREAK, KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: ESPERIMANTAZIOA
Taldekatzea: LIBREA
Materiala: MARGOAK, MARRAZKIAK, PAPERAK
Jarduera hau egiteko espazioa: ADIERAZPEN PLASTIKOAREN TXOKOA.

14. Arroxali eta Jose Anttonen marrazkiak margotu

PROZEDURA

Jarduera hau espresio plastikoko txokoan kokatuko dugu, eta ipuina kontatzean margotzeko aukera daukatela adieraziko diegu, nahi dutenean libreki margo dezaketela.

Jarduera bukatzean, marrazki librea egin nahi badute, pa-per zurian egin dezakete. Komeni da, marrazki librea bukatzean komunean ipintzea (marraztutakoa partekatzea, izena jartzea).


Helburu didaktikoak: III.21 (PLAS)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: AFEKTIBOAK, MOTOREAK, KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: MOTIBAZIOA, ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzeta: LIBREA
Materiala: MARGOAK, MARRAZKIAK, PAPERAK
Jarduera hau egiteko espazioa: ADIERAZPEN PLASTIKOAREN TXOKOA.

15. Arroxali eta Jose Anttonen txotxongiloak - Elkarrizketa-jolasa atzamarrekin

PROZEDURA

Atzamar jolasa egiteko, txotxongiloak erabiliko ditugu, eta, ondoren, etxera eramateko aukera emango diegu.

Ikusi jarduera konstanteak. Elkarrizketa-jolasa atzamarrekin.

Helburu didaktikoak: III.1 (H), III.15 (H), III.13 (H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: AFEKTIBOAK, KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzeta: 
Materiala: TXOTXONGILOAK

IKASTOLAKO/GELAKO ESPAZIOAK ETA OBJEKTUAK

Helburu didaktikoak: II.1-II.7, III.4
Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA, ADIERAZPENA, ULERMENA
Gaitasun motak: AFEKTIBOAK, GIZARTERATZEKOAK, MOTOREAK
Jarduera mota: ARAKETA, ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzeta: LIBREA
Materiala: —
Jarduera hau egiteko espazioa: GELATIK KOMUNERA.

16. Komuneko buelta

Aurretik esan dugun bezala, hurrek eta hezitzaileak espazio ezezagunera egokitu beharko dute.

PROZEDURA

Hezitzaileak hurrak gonbidatuz, gelako espazioak ezagutuko dituzte pixkana-pixkana (komuna ezagutzeko, adibidez, ura edatera gonbidatu lehenengo eta pisa egitera ondoren). Komuna bezala, gelako bazter guztiak ezagutu behar dituzte era berean.

Lehenengo eta behin, beharrezkoak dituzten espazioak eta txokoak ezagutzeko gonbiteak antolatzeta eta hurrekin horietan mugitzea eta esperimentatzeko tartea komeni da.

Poliki-poliki, komunaren erabilera eta segurtasun eta higiene neurriak adieraztea komeni da. Hurrek hori guztia ezagutu behar dute, eta eskura eduki beharko dituzte papera, edalontziak, eskuapiak... erabiltzeko.

Komunera joan nahi dutenean, egoki adierazten ere jakin beharko dute; horretarako, eredia eman beharko zaie.

Hizkuntza egokia eman beharko diegu, komunera joateko bezalaxe, ura edateko, mukiak kentzeko... edozein behar adierazteko, horrela, poliki-poliki erabiltzen hasiko dira.

17. Berokiak eta motxilak gordetzeko tokia ezagutu

PROZEDURA

Espazio horietan bere kasa ibiltzeko, erabileraren berri eman beharko zaie, komuneko espazioarekin egin dugun bezalaxe.

Bestetik, hizkuntzaren bidez bete beharko da egoera, egoki adieraz ditzaten sortzen zaizkien beharrak (komuneko buelta bezala).

Haurrek janzteko mementoan autonomia lor dezaten, garrantzizkoa da, poliki-poliki nork bere burua janzteko eta eranzteko lehen urratsak ematea. Garrantzizkoa da berokia eranztea, esekitokian zintzilikatzea eta mantala (behar dutenean) janzten ikastea eta jarduera hori eguneroko ohitura bilakatzea.

Hezitzailearen zeregina memento horietan haurrei beharrezko denbora guztia uztea eta **parte-hartzeko garaian ez aurreratzea** da.

Bakoitzaren esekitokian izena azaltzea komeni da.

Helburu didaktikoak: II.1-II.7, III.4

Etengabeko ebaluazioa:
NORTASUNA, ADIERAZPENA, ULERMENA

Gaitasun motak:
AFEKTIBOAK, GIZARTERATZEKOAK, MOTOREAK

Jarduera mota: ARAKETA, ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzea: LIBREA

Materiala: —

18. Gelako txokoak; Ttanttoren bila

Txokoak egoki erabiltzen trebatzeko eta espazio bakoitzean topa ditzaketen materialak ezagutu eta horiekin esperimentatzeko aukera eman behar diegu.

- **Harrera txokoaren** erabilera eta espazioaren berri hasiera-hasieratik eman behar zaie. Hantxe elkartuko da taldea hainbat jarduera egiteko eta hantxe elkartuko dira haurrak gelatik patiora edo gelatik etxera joan behar duten bakoitzean.

PROZEDURA

Egunero txoko berri bat aurkezteko, Ttantto marigoringoaren laguntza izan dezakegu. Egunero eman diezaikegu txoko bati protagonismoa Ttanttoren bidez. "Ttantto ez dago bere kutxan. Non gorde ote da Ttantto?" Behin Ttantto topatutakoan, hantxe bertan egin daiteke proposamena edo esperimentatzeko denbora eman.

- **Eraikuntzen txokoa**
- **Adierazpen plastikoa**

Helburu didaktikoak: II.3, II.7, III.4

Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA, ULERMENA

Gaitasun motak:
AFEKTIBOAK, GIZARTERATZEKOAK, MOTOREAK

Jarduera mota: ARAKETA, ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzea: LIBREA

Materiala: TTANTTOREN PANPINA

- **Liburutegi txokoa**
- **Jolas sinbiotikoa**

Ikusi gela txokoetan banatuta.

19. Jolastokia

PROZEDURA

Ezagutu egin behar dute lehenengo, eta gainerako espazio guztiei ematen diegun trataera bera eman beharko diogu jolastokiari ere; hau da, hizkuntzaren bidez bete behar da eta esperimentaziorako tartea eman. Kontuan izan beharko dugu, ikastola handia bada, komeni dela lasai-lasai egitea lehenengo kontaktu hori.

Horretarako, jolastokia hutsik dagoen memento batean joan gaitzke eta tartetxo batean horretaz disfrutatu.

Tokia haurrek bereganatzea izango litzateke helburu nagusia, eta horretarako beharrezkoa den denbora eskaini behar zaie.

Jolastokian ere jolas-kantaren bat proposa daiteke, taldea elkartzeko.


Helburu didaktikoak:
II.1, II.3, II.7, III.4

Etengabeko ebaluazioa:
NORTASUNA, ADIERAZPENA, ULERMENA

Gaitasun motak:
AFEKTIBOAK, GIZARTERATZEKOAK,
MOTOREAK

Jarduera mota:
ARAKETA, ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzea:



Materiala: —

Jarduera hau egiteko espazioa:
GELATIK JOLASTOKIRA.

20. Jangela

PROZEDURA

Ezagutu egin behar da jangela eta hezitzailearekin batera bisitatu. Modu berean ezagutu behar dira jangelan egongo diren begiraleak, sukaldariak eta gainerako pertsona guztiak. Horri garrantzi berezia eman nahi diogu, oso memento garrantzitsua baita haurren eguneroko bizitzan. Interesgarria litzateke jangelan zer edo zer jatea, goizeko hamaiketako, adibidez; horrela, tokiak daukan zereginarekin lotuko da.

OHARRA:

Poliki-poliki egin behar dira ibilbide txiki horiek. Lehenengo, gela barrukoak (txokoak, komuna, arropa gordetzeko tokia...), hori baita erreferentzia gisa ezagutzen duten espazioa. Ondoren, ziur sentitzen direnean, ikastolako gainerako espazioetan barrena ibili behar dute.

Ez dugu ahaztu behar haur guztiek ez dutela erritmo berdina; beraz, topa gaitzke jarrera desberdinekin. Jarrera horiek ulertzen jakin behar dugu. Gelatik atera nahi ez badute, honako hau izango da gure buruari egin beharreko galdera: Zergatik ote da?

Gakoa haurren erritmoa errespetatzea da, eta parte-hartzea planteatzean alde aurretik planifikatuta eta arrazoituta eduki beharko da: Zergatik parte-hartze hori? Eta, zer lortu nahi den (helburua) pentsatu beharko dugu.


Helburu didaktikoak:
II.1, II.7, III.4

Etengabeko ebaluazioa:
NORTASUNA, ADIERAZPENA, ULERMENA

Gaitasun motak:
AFEKTIBOAK, GIZARTERATZEKOAK

Jarduera mota:
ARAKETA, ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzea:



Materiala: —

Jarduera hau egiteko espazioa:
GELATIK JANGELARA.

Taldeak, gelako txokoak, jolastokia, jangela, etab. ezagutzen dituzten bitartean, proposa diezazkiekegu taldeka egiteko jolas batzuk ere.

21. Jolaserako kanta: Non, non eta non?

PROZEDURA

Espazioan zehar mugitzen diren neurrian (adibidez, gelako haurren bat komunera joatean) erabil dezakegu jolas-kanta hau espazioak poliki-poliki barneratzeko.

- Non, non eta non, non dago Gotzon?
- Komun-komunean, pixa egiten, hor dago Gotzon.
- Non, non eta non, non dago...?
- Hemen, ikastolan, marrazkia egiten, hor dago...


Helburu didaktikoak:
II.3, III.13 (H), III.32 (MUS)

Etengabeko ebaluazioa:
ULERMENA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak:
AFEKTIBOAK, KOMUNIKATIBOAK, MOTOREAK

Jarduera mota:
MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea:



Materiala: —

Jarduera hau egiteko espazioa:
GELAN ZECHAR.

22. Hiztegiaren aurkezpena

PROZEDURA

Oso garrantzitsua da **hiztegiaren aurkezpena**: hiztegi txartelak azaltzeko modurik egokiena istorio bat kontatzea da. Istorio horretan, aurkeztera goazen txartelen izenak eta irudiak agertu behar dute. Istorioa ipuina bera izan daiteke, eta hiztegi txartelak kontaketa-aren ardatza.

Hiztegia aurkezteko orduan, kontuan izango dugu taldearen nortasuna eta hizkuntza-egoera; hau da, taldeko haurrak erdaldunak badira, txartel kopuru txikiarekin hasia (4-5 txartel) komeniko da.

Ondoren, beste une batean, horiek eta berri batzuk sartzen hasiko gara.


Helburu didaktikoak:
III.1 (H), III.4 (H), III.13 (H)

Etengabeko ebaluazioa:
ULERMENA

Gaitasun motak:
AFEKTIBOAK, KOGNITIBOAK,
KOMUNIKATIBOAK

Jarduera mota:
MOTIBAZIOA

Taldekatzea:



Materiala:
HIZTEGI TXARTELAK

Jarduera hau egiteko espazioa:
HARRERA TXOKOA.

23. Jolas kanta: Soka gaisetik

Tip-tip-tip
oinutsik nabil,
tip-tip,
gela barrutik,
tip-tip
soka gaisetik,
tip-tip.

Tip-tip-tip,
botak urruti,
tip-tip.
Tip-tip-tip,
aurrera segi,
aurrera beti!
Tip-tip-tip
oinutsik nabil...

Helburu didaktikoak: I.10, I.15, III.13 (H), 33 (MAT)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA

Gaitasun motak: AFEKTIBOAK, MOTOREAK, KOGNITIBOAK

Jarduera mota: MOTIBAZIOA, ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzea: LIBREA

Materiala: CDa

Jarduera hau egiteko espazioa: GELAKO ESPAZIO LIBREA.

PROZEDURA

Lurrean soka luze bat biribilean jarriko dugu, eta haren gaisetik ibiliko gara oinutsik, musikaren erritmoan.

24. Jolas kanta: Oihanaren puxika

Gorantz doa, beherantz dator
Oihanaren puxika
geldi-geldi, goxo-goxo
jarraitzen du musikak.

Agur, igo zaitez zerura,
itzuli, gero, eskura,
ibil zaitez airean
laino guztien modura.

Helburu didaktikoak: I.13, I.14, III.30 (MUS)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA

Gaitasun motak: AFEKTIBOAK, MOTOREAK

Jarduera mota: MOTIBAZIOA, ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzea: LIBREA

Materiala: CDa

Jarduera hau egiteko espazioa: GELAKO ESPAZIO LIBREA.

PROZEDURA

Haur bakoitzari puxika bat banatu, eta, musikarekin batera, gora botako dugu eta berriro hartu.

IKASTOLAKO/GELAKO PERTSONAK

25. Argazki albuma - Gurasoentzako gutuna

Helburu didaktikoak: I.5

Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak: AFEKTIBOAK

Jarduera mota: MOTIBAZIOA, INFORMAZIOA

Taldekatzea: LIBREA

Materiala: GURASOENTZAKO GUTUNA

Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA.

PROZEDURA

Lehenik eta behin, haurrekin gaiaz hitz egingo dugu, eta nolako argazki albuma egin beraiekin adostean, etxekoekin harremanetan jarriko gara.

Etxekoei, haurren eta inguruko argazki bat bidaltzeko eska diezaiekegu, horrela, argazki guztiekin gela-koen argazki albuma osa dezakegu.

Kaixo, guraso maiteak:

Dakizuenez, gelan lagun berri asko egiten ari gara. Gainera, gela berria eta ikastolako txoko asko ezagutzen ari gara.

Oraingo honetan, denen artean argazki albuma egitea erabaki dugu. Horretarako, zuen laguntza behar dugu.

Zuen haurrarekin batera aukeratu argazki pare bat, eta bidali ikastolara.

Ikusiko duzue, polit-polita egingo dugu!!

Mila esker eta mila muxu.

Ttattoo marigorringoa

26. Marrazki librea argazki albumaren orriak egiteko

PROZEDURA

Adierazpen plastikoko txokoan egindako marrazkiak erabil ditzakegu argazkiak itsasteko eta gure albuma osatzeko.

Egokiena da haur bakoitzak etxetik ekarritako argazkiak itsastea, berak egindako marrazkian.

Behin denak itsatsita daudela, denak elkartzea eta albumari azken itxura ematea besterik ez da geratuko.

Helburu didaktikoak: III.17 (PLAS)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: AFEKTIBOAK, KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: MOTIBAZIOA, ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: LIBREA
Materiala: PAPERA, MARGOAK
Jarduera hau egiteko espazioa: ADIERAZPEN PLASTIKOAREN TXOKOA.

27. Jolas kanta: Norberaren burua



PROZEDURA

Biribilean daudela aprobeztatuz egingo dugu jarduera hau.

Zu, zu, zu, nor zara zu?

Ni, ni, ni ... naiz.

Neska (mutil) alaia eta euskalduna naiz.

Helburu didaktikoak: III.13 (H), 32 (MUS)
Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: AFEKTIBOAK, KOMUNIKAZIOZKOAK
Jarduera mota: MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzea:
 
Materiala: CDa
Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA.


28. Jolasa

PROZEDURA


Korroan, haur bat erdian jar dadila begiak zapi batez estalita, eta laguna ukituz, nor den asmatu behar du.

- Zu (Ander) zara.
- Ez naiz (Ander), edo
- Bai, (Ander) naiz.

Helburu didaktikoak: I.7, I.13
Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA, ULERMENA
Gaitasun motak: AFEKTIBOAK, MOTOREAK, KOGNITIBOAK
Jarduera mota: MOTIBAZIOA, ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzea: 

Materiala: —
Jarduera hau egiteko espazioa: PATIOA, GELAKO ESPAZIO LIBREA...

Helburu didaktikoak:
II.3 (I), II.6 (I), III.1 (H), III.15 (H)
Etengabeko ebaluazioa:
ULERMENA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: AFEKTIBOAK,
KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK
Jarduera mota:
MOTIBAZIOA, ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea:

Materiala:
IGARKIZUNAK
Jarduera hau egiteko espazioa:
HARRERA TXOKOA.

29. Igarkizunak

Handia naiz eta txintxo,
ni ere ikastolara noa,
haurtxoak ditut nik maite,
orain nirekin zaudete.
Nor da? (hezitzailea)

PO-PO-PO autobusean,
haurrak datoz nire
atzean,
eskuak ditut bolantean,
begiak jarrita bidean.
Nor da?
(autobuseko gidaria)

PO-PO-PO autobusean,
haurrak datoz jolasean,
ikastolarako bidean,
nik zaintzen ditut
goizean. Nor da?
(autobuseko zaintzailea)

PROZEDURA

Ikusi jarduera konstanteak. Igarkizunak.

30. Entzunaldia

Bazkaltzetik bueltan, harrera txokoan elkartu ondoren, Johan PACHEBELEN hiru biolin eta biolontxelorako idatzitako kanonaren zati hau entzuteko une egokia izan daiteke.

Helburu didaktikoak: I.8, III.26 (MUS)
Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: AFEKTIBOAK, MOTOREAK, KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: LIBREA
Materiala: CDa
Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA.

PROZEDURA

Lurrean etzanda, begiak itxita, musika entzungo dugu.

Saiatu arnasa sudurretik hartzen eta ahotik poliki-poliki botatzen. Musika eta gure arnasaren soinua entzungo ditugu.

Pchelbel, Johann
Kanona

31. Horma-irudia egingo dugu

PROZEDURA

Horma-irudi handia egin dezakegu denon artean, gure hatzak erabiliz. Erabaki papera non eta nola zabaldu, eta margotzera!

Helburu didaktikoak: I.9, I.11, III.19 (PLAS), III.20 (PLAS), III.21 (PLAS)
Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: AFEKTIBOAK, GIZARTERATZEKOAK, MOTOREAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: LIBREA
Materiala: PAPER HANDIAK, ATZAMARREKIN MARGOTZEKO PINTURA
Jarduera hau egiteko espazioa: ADIERAZPEN PLASTIKOAREN TXOKOA.

SINTESIA

32. Pertsonaia gidariaren gutuna


PROZEDURA

Ikastolara gutun bat iritsi da; gure Ttantto lagunak bidali du. Kome- ni da irakasleak gutun-azal batean sartzea eta, ahal dela, seilu eta guzti, taldean gutun-azalaren ezaugarriei behatzeko.

Gutuna irakurtzean, garrantzitsua da gure adierazpenarekin jolastea, horrela, haurren arreta ziurtatuko dugu.

Gutuna, unitatean zehar egindako jardueren sekuentziekin bete beharko luke hezitzaileak, haurrek egiten dituzten ekarpenekin. Jardu- ra honen bidez unitatean zehar egindakoa gogoratzeko eta ordenatze- ko, ariketa egingo dugu.

Gutuna irakurri ondoren, harrera txokoan gutunen espazioan kokatu- ko dugu, ahal den neurrian, beraien bistaren altuera berean.

Helburu didaktikoak: III.1 (H), III.3 (H), II.9
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: AFEKTIBOAK, KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK
Jarduera mota: MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzea:

Materiala: TTANTTOREN GUTUNA
Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA.

Helbidea:
Ikastola: ...
Haur Hezkuntza: ... gela
Herria:

Igorlea:
TTANTTO marigorringoa
Basobeltz basoa, 14. zuhaitza
Euskal Herria

Basobeltzen, (e)ko irailean

Kaixo, lagunak:

Zer moduz ibili zarete lehenengo egun hauetan?

Gauza asko egin dituzue? Ea denon artean gogoratzen ditugun.

Hasieran,

Ondoren,

Gero,

Bukatzeko,

Gauza pila-pila, eta onena lagun berri asko.

Oso-osu gustura egon naiz zuekin, hemendik aurrera zuekin jolastuko dut askotan, OK?

Mila miloi muxu.

Ttattoo marigoringoa

2- “Nire etxea horrelakoa da” BIZITOKIA (Urriko lau asteak)

HASIERAKOAK

1. Ttanttoren agerpena: Ikasnorabideak

PROZEDURA

Aurreko gaian proposatzen genuen bezala, Ttantto panpinak protagonismoa izango du ekintza berrien aurrean. Kasu honetan ere, bere kutxatik atera eta ahoz aurreratuko dizkigu (hitz egingo balu bezala) gaian zehar ikusiko ditugun hainbat gauza.

Ttantto	<i>-Zer moduz zaudete?</i>
Ttantto	<i>-Ikastola gustatu zaizue? Hemendik aurrera, beste jolas, abesti, ipuin eta gauza berri batzuk ikasiko ditugu.</i>
Ttantto	<i>-Oraingoan, zuek non bizi zareten jakitea gustatuko litzaidake. Eta animaliak? Non bizi dira animaliak? Eta landareak?... Lagunduko al didazue hori guztia bilatzen? -Eta zuek zer gehiago ikasi edo bilatu nahi duzue?</i>

Helburu didaktikoak:
AURKEZPENA

Etengabeko ebaluazioa:
ULERMENA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak:
AFEKTIBOAK, KOGNITIBOAK,
KOMUNIKATIBOAK

Jarduera mota:
MOTIBAZIOA, ARAKETA

Taldekatzea:



Materiala:
TTANTTO PANPINA

Jarduera hau egiteko espazioa:
HARRERA TXOKOA.

2. Sagu txiki sagu maite

PROZEDURA

Sagu txiki, sagu maite
zulotxoan gorde zaitez.
Zapik ikusten bazaitu
kris-kras jan egingo zaitu.
Ez nau jango!
Jango zaitu!

Jolasa eta abestia koordinatzeko aukera proposa ematen digu aspaldiko haur jolas honek.

Haurrak korroan eserita daudela, musikaren erritmoan **sagua** korroaren kanpoaldean bueltaka ibiliz hasten da jolasa. Abestia bukatu aurretik, haur baten atzean jostailu edo zapi bat utziko du. Abestia bukatzen denean, ume guztiek atzera begiratuko dute, jostailua nork duen jakiteko. Jostailua duen haurra, **katua** alegia, korrika joango da sagua harrapatzera, hau bere eserlekuan eseri baino lehen. **Haurrek jolasaren arauak onartzen hasi behar dute, oinarrizko arau batzuetara egokitzen.**



Helburu didaktikoak: I.13, II.5 (I), III.15 (H), III.30 (MUS), III.32 (MUS)

Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA, ULERMENA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak: AFEKTIBOAK, GIUZARTERATZEKOAK

Jarduera mota: MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea:



Materiala: CDa

Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA.

3. Horma-irudia

PROZEDURA

Jarduera honen helburua lortzeko (hizkuntza-funtzioak lantzea), haurrek ohitu egin behar dute pixkana-pixkana. Hori dela eta, funtsezkoa iruditzen zaigu haurren denbora errespetatzea, hasieran, hurbilpen saioak talde handian egitea da onena (betiere kontuan izanda, jarduera honen helburua ez dela galderen zerrenda bati erantzutea).

Ikusi jarduera konstanteak: Horma-irudia.

HEZITZAILEAREN EGINKIZUNA

Haurren arreta erakartzeko, **gonbidapenak egitea** da modurik egokiena.

Lehenengo saiakera honetan, talde handiari erreferentzia egingo diogu, baina benetan jardueran trebatzen joateko, **talde txikiak eta bakarkako parte-hartzeek izango dute balioa**. Haurrak bere iniziatibaz horma-irudira hurbiltzen diren mementoak aprobeztatu behar dira.




Helburu didaktikoak: I.5, III.16

Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA, ADIERAZPENA, ULERMENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK, AFEKTIBOAK

JARDUERA MOTA: ARAKETA, MOTIBAZIOA

Taldekatzea:



edo LIBRE

Materiala: HORMA-IRUDIA

Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA.

4. Tradiziozko abestia

Horma-irudiarekin lotura egin dezakegu kanta hau planteatzean, eta, horrela, horma-irudiaren aurrean, inguruan gaudela kanta dezakegu.

Ikusten duzu goizean,
argia hasten denean,
menditto baten gainean:
etxe ttipitto bat,
aitzin txuri bat,

lau haitzondoren erdian,
txakur txuri bat atean,
iturriño bat aldean.
Han bizi naiz ni bakean.

PROZEDURA

Ikusi jarduera konstanteak: Abestiak.


Helburu didaktikoak:
II.9 (I), III.15 (H), 32 (MUS)

Etengabeko ebaluazioa:
ADIERAZPENA, NORTASUNA

Gaitasun motak:
KOMUNIKATIBOA, AFECTIBOA

Jarduera mota:
MOTIBAZIOA, ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzea:



Materiala:
CDa

Jarduera hau egiteko espazioa:
HARRERA TXOKOA.

5. Antzeppen kolektiboa (ipuin dramatizatua): HIRU TXERRIKUMEAK


Helburu didaktikoak:
I.6, III.1 (H), III.12 (H), III.13

Etengabeko ebaluazioa:
ULERMENA, ADIERAZPENA, NORTASUNA

Gaitasun motak:
AFECTIBOAK, KOMUNIKATIBOAK, MOTOREAK

Jarduera mota:
MOTIBAZIOA, ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea:



Materiala: —

Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA.

Ipuinaren antzeppen kolektiboan sartu aurretik, ipuinaren sarrera egitea komeni da; hau da, ipuinean azalduko diren pertsonaiak izendatzea komeni da, antzeppen kolektiboan dauden arauak azaltzea...

Lehenengo saiakera hauetan, normala da taldea zer egin ez dakiela egotea. Lasai hartu behar dugu jarrera hori, eta ahalik eta modu motibagarrienean jarduera egiten saiatu.

Ikusi jarduera konstanteak: ANTZEPPEN KOLEKTIBOA ipuin dramatizatua.

HIRU TXERRIKUMEAK

	Behin batean, hiru txerrikumeek etxeak egin nahi zituzten. Amari agur esan eta joan egin ziren.
Abestuz	<i>Kurrinka kurrin-kurrin, etxe bat nahi dut egin... (abestia)</i>
	Txikienak esan zuen:
	Nik lastoz egingo dut nire etxea. Polita izango da. Rixti, raxta, rixti, raxta. Hau etxe polita!!!!
	Bigarrenak esan zuen:
	Nik egurrez egingo dut nire etxea. Handia izango da. Tok, tok, tok. Hau etxe handia!!!

3. zehaztapen-maila

	Eta hirugarrenak esan zuen:
	Ba nik harriz egingo dut nire etxea. Oso sendoa izango da. Klink, klonk, klink, klonk! Uff! Hau etxe sendoa!!!
	Baina basoko otsoak txerrikumeak ikusi/usaindu zituen eta...
	Mmm! Hau gosea!!! Txerrikumeak jango ditut! Beraien etxera joango naiz.
	Eta otsoa beraien etxera joan zen.
	Tan, tan, taaan...! Txerritxo, zabaldu atea!
	Ez, ez eta ez.
	Putz eta putz etxea botako dut! Fuum, fuummm!
	Aaaa! Anaiatxo lagundu!!
	Sartu, sartu.
	Baina otsoa berehala etorri zen.
	Tan, tan, taaan...! Txerritxo, zabaldu atea!
	Ez, ez eta ez.
	Putz eta putz, etxea botako dut! Fuum, fuummm!
	Aaaa! Anaiatxo, lagundu!!
	Sartu, sartu.
	Baina otsoa berehala etorri zen.
	Tan, tan, taaan...! Txerritxo, zabaldu atea!
	Ez, ez eta ez.
	Putz eta putz, etxea botako dut! Fuum, fuummm!
	Ezin dut bota. Fuum, fuummm! Ezin dut bota.
	Aja!!! Tximiniatik sartuko naiz!
	Eta otsoa lapiko bero-bero batera erori zen.
	Banoaaa! Fiumm! Blaust!
	Ai, ai, ai! Nire ipurdia! Ipurdia erre zait! (bis)
	Ja, ja, ja!! Ezin gaituzu jan! Ezin gaituzu jan!
	Eta otsoak, ipurdia erreta, korrika ihes egin zuen.
	<i>Hala bazan ez bazan, sar...</i>

Ipuin dramatizatuaren ondoren, haurrentzat ezaguna den kanta edo olerki batekin bukatuko dugu. Ondoren, txoko libreak.

IPUINA AITZAKIA

6. Ipuinaren abestia

Kurrinka kurrin-kurrin,
etxe bat nahi dut egin,
Lasto bat eta lasto bi,
otsoa basotik dabil.

Kurrinka kurrin-kurrin,
etxe bat nahi dut egin,
egur bat eta egur bi,
otsoa basotik dabil.

Kurrinka kurrin-kurrin,
etxe bat nahi dut egin,
harri bat eta harri bi,
otsoa basotik dabil.

*Otsoa etorri da, baina
ezin du jan, alajaina!
Etxea puskatu nahi, baina
haren ipurdiko mina!*

PROZEDURA

Ikusi jarduera konstanteak: Abestiak.


Helburu didaktikoak:
III.15 (H), III.52 (MUS)

Etengabeko ebaluazioa:
NORTASUNA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak:
AFEKTIBOAK, KOMUNIKATIBOAK

Jarduera mota:
MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea:



Materiala:
CDa

Jarduera hau egiteko espazioa:
HARRERA TXOKOA.

7. Ipuinaren elkarrizketa egiteko jolasa

PROZEDURA


Ikusi jarduera konstanteak: Elkarrizketa-jolasak atzamarrekin.

Helburu didaktikoak:
III.1, III.12 (H)

Etengabeko ebaluazioa:
NORTASUNA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK,
AFEKTIBOAK, GIZARTERATZEKOAK

Jarduera mota: APLIKAZIOA, MOTIBAZIOA

Taldekatzea:  (BOLONDRESAK)

Materiala: ELKARRIZKETEN GIDOIA

Jarduera hau egiteko espazioa:
HARRERA TXOKOA.

1)

Irakaslea haur guztien laguntzaz	Baina basoko otsoak txerrikumeak ikusi/usaindu zituen, eta beraien etxera joan zen.
Otsoa	TAN, TAN, TAN, txerritxo, zabaldu atea!
Txerrikumea	Ez, ez eta ez!
Otsoa	Putz eta putz, etxea botako dut. Fiuuu, fiuuu.
Txerrikumea	Aaaa! Anaiatxo, lagundu!

2)

Irakaslea haur guztien laguntzaz	Eta otsoa lapiko bero-bero batera erori zen.
Otsoa	Banoaaa! Fiumm! Blaust!
Otsoa	Ai, ai, ai! Nire ipurdia! Ipurdia erre zait! (bis)
Txerrikumeak	Ja, ja, ja !! Ezin gaituzu jan! Ezin gaituzu jan!

8. Gure pertsonaiak

PROZEDURA

Gela apaindu, eta, ahozko eta idatzizko hizkuntza erlazionatzeko, txerrikumeen irudiarekin horma-irudi bat egingo dugu. *Txerrikumeak* izena jarriko diogu eta gelan ipiniko dugu, Arroxalirenaren ondoan. Pertsonaia marraz dezaten, haurren eskura jarriko dugu.

HEZITZAILEAREN EGINKIZUNA

Batetik, txerrikumeen horma-irudia prestatzea eta adierazpen plastikoaren txokoan kokatzea. Margoak eta haurrek beharko dituzten materialak beraien eskura ipintzea.

Bestetik, txoko horretan zein besteetan gertatzen ari denari behatzea eta, beharrezkoa denean, jarduera moderatzea.

(Garbi dagoenez, ez da beharrezkoa haur guztiek jarduera honen prozeduran parte hartzea, baina komeniko litzateke bukatu ondoren talde handian aurkezpena egitea).

Helburu didaktikoak: III.8 (H), III.17 (PLAS), I.9, I.12
Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA
Gaitasun motak: AFEKTIBOAK, MOTOREAK, GIZARTERATZEKOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: LIBREA
Materiala: MARGOAK, MARRAZKIAK
Jarduera hau egiteko espazioa: ADIERAZPEN PLASTIKOA TXOKOA.

9. Hiru txerrikumeak eta otsoaren marrazkiak margotu

PROZEDURA

Ipuina kontatzean edo elkarrizketa jolasa egitean, margotzeko aukera gogoratuko diegu, nahi dutenean libreki margo dezaten.

Jarduera bukatzean, marrazki librea egin nahi badute, paper zurian egin dezakete. Komeni da, marrazki librea bukatzean, komunean jartzea (marraztutakoa partekatzea, hitza jartzea).

HEZITZAILEAREN EGINKIZUNA

Txerrikumeen marrazkiak prestatzea eta adierazpen plastikoaren txokoan kokatzea. Margoak, paper zuriak eta haurrek beharko duten materiala beraien eskura jartzea.

Helburu didaktikoak: III.17 (PLAS), III.21 (PLAS)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZOENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: AFEKTIBOAK, MOTOREAK, KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: LIBREA
Materiala: PERTSONAIEN MARRAZKIAK, MARGOAK...
Jarduera hau egiteko espazioa: ADIERAZPEN PLASTIKOA TXOKOA.

10. Etxera joan aurretik kantatzeko abestia

Etxera joan aurretik kantatzeko.

Bagoaz ta bagoaz,
bagoaz etxera,
goseak gaude eta
goazen bazkaltzera.
Arratsaldean berriz
etorriko gara
lan pixka bat egin eta
asko jolastera.

Doinua: *Maritxu nora zoaz*

PROZEDURA

Ikusi jarduera konstanteak: Abestiak.


Helburu didaktikoak:
I.15, II.14 (I), III.15 (H), III.32 (MUS)

Etengabeko ebaluazioa:
NORTASUNA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak:
AFEKTIBOAK, KOMUNIKATIBOAK,
KOGNITIBOAK

Jarduera mota:
MOTIBAZIOA

Taldekatzea:



Materiala: CDa

Jarduera hau egiteko espazioa:
HARRERA TXOKOA.

11. Haurren ipuin kontaketa laminekin

PROZEDURA

Ikusi jarduera konstanteak: Ipuinaren laminak, haurren ipuin kontaketa.


Helburu didaktikoak: I.13, I.15-II.4 (I), III.1 (H), III.13 (H)

Etengabeko ebaluazioa:
NORTASUNA, ADIERAZPENA, ULERMENA

Gaitasun motak: AFEKTIBOAK,
GIZARTERATZEKOAK, KOMUNIKATIBOAK

Jarduera mota: MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea:



Materiala: IPUINAREN LAMINAK

Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA.

12. Hiztegiaren aurkezpena

PROZEDURA

Ikusi jarduera konstanteak: Hiztegia: hiztegiaren aurkezpena.

Ipuineko pertsonaiekin eta ipuinarekin bat datozen hiztegi txartelek ipuinaren pasarte batzuk gogora ditzake hezitzaileak. Modu horretan, ondoren egingo diren hiztegi jolasetan agertuko diren hitzak aurreratuko zaizkie.

Hiztegi txartelak irudia eta izenarekin manipulatu ditugu.


Helburu didaktikoak: III.13 (H), III.16 (MAT)

Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOGNITIBOAK, KOMUNIKATIBOAK

Jarduera mota: INFORMAZIOA

Taldekatzea:



Materiala: AUKERATUTAKO HIZTEGI TXARTELAK

Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA.

Adibidez:

AMA, AITA, HIRU TXERRIKUMEAK txartelekin

- Behin batean, hiru txerrikumeek etxeak egin nahi zituzten.

Amari agur esan eta joan egin ziren.

OTSOA, ATEA

- Tan, tan, taaan...!

Txerrixo, zabaldu atea!

TXERRIKUMEA, LASTOA, EGURRA

- Nik lastoz egingo dut nire etxea.

Polita izango da.

Rixti, raxta, rixti, raxta.

Hau etxe polita!!!!

- Nik egurrez egingo dut nire etxea.

Handia izango da.

Tok, tok, tok.

Hau etxe handia!!!

13. Hiztegiarekin jolasten

PROZEDURA

Hiztegiaren aurkezpena egin ondoren, haurren eskura jarriko ditugu hiztegi txartelak.

HEZITZAILEAREN EGINKIZUNA

Aurkeztutako txartelekin haurren artean bideratu gabeko jolasak agertzen badira, horiei behatzea eta kontuan izatea da egokiena. Horrela, hezitzaileak aurrerago hiztegiarekin proposamenak egiten dituenean, haurren jolasetatik abia daiteke.

Helburu didaktikoak: I.12, III.10 (H), III.13 (H)

Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA, ADIERAZPENA, ULERMENA

Gaitasun motak: AFEKTIBOAK, KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK

Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea: LIBREA

Materiala: AUKERATUTAKO HIZTEGI TXARTELAK

Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA.

14. Memoria jokoa

Ezagutzen ditugun bi ipuinetako pertsonaien txartelekin memoria jolasa.

PROZEDURA

Ikusi jarduera konstanteak: Hiztegia, memoria jokoa.

Helburu didaktikoak: III.8 (H), III.10, III.33 (MAT)

Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA

Gaitasun motak: KOGNITIBOAK, KOMUNIKATIBOAK

Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea:



Materiala: HIZTEGI TXARTELAK

Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA.

15. Txerrikumeak eta otsoaren jolasa

PROZEDURA

Jolastokian, txerrikumearen eta otsoaren jolasa egin dezakegu. Hezitzaileak otsoarena egin dezake umeren bat animatzen ez bada, eta ipuinean azaltzen zen elkarrizketa bera erabiliz, harrapaketetan jolastuko dugu.

HEZITZAILEA: TAN, TAN, TAN. Txerritxo, zabaldu atea!
HAURRAK: Ez, ez eta ez!

HEZITZAILEA: Putz eta putz, etxea botako dut. Fiuuu, fiuuu.
HAURRAK: Aaaa! Anaiatxo, lagundu!

Harrapatzen dugun haurra izango da otsoa (betiere, nahi badu).

HEZITZAILEAREN EGINKIZUNA

Hasieran, jolasaren eredia ematea; ondoren, behaketa egitea da eginkizunik nagusiena.

Helburu didaktikoak: 1.6, 1.8, 1.10, 1.12
Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: AFEKTIBOAK
Jarduera mota: MOTIBAZIOA, ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: LIBREA
Materiala: —
Jarduera hau egiteko espazioa: JOLASTOKIA.

16. Txerrikumeak eta otsoa jolasa TXOTXONGILOEKIN


PROZEDURA

Ikusi jarduera konstanteak: elkarrizketa jolasak atzamarrekin.

HEZITZAILEAREN EGINKIZUNA

Batetik, pertsonaien txotxongiloen kartulinak inprimatu eta plastifikatu ondoren, liburutegi txokoan utzi, haurrak libreki jolas dezaten.

Bestetik, txotxongiloen kopia bat presta daiteke haur bakoitzarentzat, haur guztiek etxera eraman dezaten.


Helburu didaktikoak: III.10 (H), III.13 (H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOGNITIBOAK, KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA
Taldekatzea:  LIBREA
Materiala: PERTSONAIEN TXONTXONGILOAK
Jarduera hau egiteko espazioa: LIBURUTEGI TXOKOA, LIBREKI ERABILTZEKO.

NON BIZA DA...? BIZITOKIAK

17. Ttanttoren agerpena: Bizitokiak

PROZEDURA

Ttantto esnatu aurretik, hipotesiak egin ditzakegu hurrekin Ttanttoren bizitokiaren inguruan.

Helburu didaktikoak: AURKEZPENA
Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA, ULERMENA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: AFEKTIBOAK, KOMUNIKATIBOAK, GIZARTERATZEKOAK
Jarduera mota: MOTIBAZIOA
Taldekatzea: 
Materiala: TTANTTO PAMPINA
Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA.

Ondoren, Ttanttto esnatuko dugu bere kanta kantatuz, bere kutxatik aterako dugu eta galdetuko diogu, non bizi den.

Ondorengo egunetan, haurrak bizidunak non bizi diren deskubritzen jardungo dute, Ttanttoren eta gure laguntzaz.

- Hezitzailea: Entzun, entzun denok Ttanttok dioena.

- Ttanttto: Gu, marigorringoak, basoan, parkeetan, mendietan... bizi gara.

Oso bihurriak gara eta asko gustatzen zaigu jolastea, korrika egitea, saltoka ibiltzea, hegan egitea...

Gure etxeak belarrekina egiten ditugu eta polit-politak izaten dira.

Baina basoan, parkean edo mendian bizi diren animaliak ez dira bizi etxe berdinetan, ez, ez.

Ipuineko txerrikumeek ere etxe desberdinak egin zituzten.

Zuek adi bazaudete, era askotako etxeak topatuko dituzue.

Animo!! Kontatuko didazue zer deskubritu duzuen.

Orain lotara noa berriro, oso-osoa nekatuta nago.

uuuuuuuuuuuuuuuuuuuuu!!!! AGURRRRR

18. Elkarrizketa Ttanttoren agerpenari buruz

PROZEDURA

Ttanttoren bizitokia jakin aurretik egin dugun bezala, bizidun desberdinen bizitokien inguruan, haur talde batekin (interesa mantentzen dutenei), hipotesiak egiten jarrai dezakegu.

- Landareak nolakoak dira eta non bizi dira?
- Arrainak nolakoak dira eta non bizi dira?
- Umeak nolakoak dira eta non bizi dira?
- Nagusiak nolakoak dira eta non bizi dira?
- ...

HEZITZAILEAREN EGINKIZUNA

Batetik, hezitzaileak haurren interesari buruzko oso informazio baliagarria atera dezake jarduera honetatik. Hortik abia daiteke hurrengo proposamenak egiteko orduan.

Bestetik, hezitzaileak moderatu egin beharko du elkarrizketa. Interesgarria da haur guztien parte hartzea, eta horretarako ere hezitzaileak erne egon beharko du.

Helburu didaktikoak:
III.16 (H)

Etengabeko ebaluazioa:
NORTASUNA, ULERMENA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak: AFEKTIBOAK,
GIZARTERATZEKOAK, KOMUNIKATIBOAK

Jarduera mota:
ARAKETA

Taldekatzea:



Materiala: —

Jarduera hau egiteko espazioa:
HARRERA TXOKOA.

19. Elkarrizketa umeen bizitokiari buruz

PROZEDURA

Ttanttoren etxeari buruz hitz egin dugu: orain Ttanttok jakin nahi du nolakoa den gure etxea.

Gelako haurren artean etxe eredu batzuk azal daitezke. Batzuek tximinia izango dute, beste batzuek igogailua.

Gehienen etxeko atarian zenbakia ipinita egongo da.

Pisuetan bizi direnek ez diote igogailuan botoi berdinari emango etxera igotzeko.


Etxeko forma geometrikoa ere alda daiteke etxearen arabera...

Hezitzaileak laguntza eman behar die haurrei: bere etxeari buruzko informazioa eman behar die, gero, haurrek azalpena egin dezaten.

HEZITZAILEAREN PAPERA

Jasotako informazio guztia ordenatzea eta kontzeptu matematikoei izena jartzea. (Zenbaki kardinalak, ordinalak, forma geometrikoak...)

Elkarrizketa moderatzea eta denen parte-hartzea bilatzea. Bukatzeko, behaketa egingo du.



20. Jolas kanta: Tximiniatik gora, kea dariola

Hain urrun etxe pospola,
ola,ola,
tximiniatik gora kea dariola,
ola, ola.


Gaintxoan zuhaitza
zelai erdian,
erreka pospola
etxe atarian.
Eta tralara, eta tralara,
etxe txiki-txiki-txikia ola.

Jarduera hau egiteko espazioa: Harrera txokoa.

PROZEDURA

Abestia antzeztu: Mugi gaitzen behetik gora eta alboetara kea bagina bezala.

Antzezpena egiteko, kanta ikastea izan daiteke aukera bat (ikus jarduera konstanteak: Lantzeko abestiak), baina ez da derrigorrezkoa.



21. "Txoko txuria": Animalien bizitokiak

Hezitzailearen jarduera

PROZEDURA

Ttanttoren bizitokiari buruzko informazioa lortu dugu, hurrekin animalien bizitokiaren inguruan hipotesiak egitean, komeni da materiala haurren eskura jartzea.

Ikusi jarduera konstanteak: Azalpen testua. Gaia aberasten.


Helburu didaktikoak:
II.9 (I), III.1 (H), III.10 (H)

Etengabeko ebaluazioa:
ULERMENA, NORTASUNA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK,
KOGNITIBOAK

Jarduera mota:
MOTIBAZIOA, INFORMAZIOA

Taldekatzea:



Materiala:
IPUINAK, LIBURUAK, ALDIZKARIAK

Jarduera hau egiteko espazioa:
TXOKO TXURIA.

22. Gure bizitokiaren argazkia

PROZEDURA

Gurasoei gutuntxo bat idatziko diegu eta etxeko argazki pare bat bidaltzeko eskatuko.

Material horrekin albuma osatuko dugu.


Helburu didaktikoak:
II.4, III.1 (H), III.8 (H)

Etengabeko ebaluazioa:
NORTASUNA, ADIERAZPENA, ULERMENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK,
AFEKTIBOAK

Jarduera mota:
MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea:



Materiala:
GURASOEI BIDALTZEKO GUTUNA

Jarduera hau egiteko espazioa:
HARRERA TXOKOA.

Kaixo, guraso maiteak:

Zer moduz zabiltzate?

Aurrekoan, argazki albuma oso polita gelditu zitzaigun, ezta? Zuei esker!! Elkarlana garrantzitsua baita; horrela segi!

Oraingo honetan, gure etxeen albuma egitea erabaki dugu denen artean.

Animatzen zarete?

Aukeratu zuen etxeko (kanpoko eta barruko) argazki bat eta bidali ikastolara.

Ikusiko duzue, oraingoan ere ederki geldituko zaigu!!

Mila esker eta mila muxu.

Ttantto marigorringoa

(Aukera bat besterik ez da argazki albuma; beste zerbait ere egin daiteke, hurrekin adostutakoaren arabera)

23. Marrazki librea, etxeen albumaren orriak egiteko


PROZEDURA

Adierazpen plastikoko txokoan egindako marrazkiak erabili ditzakegu argazkiak itsasteko eta gure albuma osatzeko, argazkien albumarekin egin genuen bezala.

Egokiena da haur bakoitzak etxetik ekarritako argazkiak itsastea berak egindako marrazkian.

Behin denak itsatsita daudela, denak elkartzea eta albumari azken itxura ematea besterik ez da faltako, gainera, oraingo albumean, zenbakia jarriko diegu orriei; horrela, zenbat orri dauzkan jakingo dugu.

Helburu didaktikoak: III.17 (PLAS)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: AFEKTIBOAK, KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: MOTIBAZIOA, ESOERIMENTAZIOA
Taldekatzeta: LIBREA
Materiala: PAPERA, MARGOAK
Jarduera hau egiteko espazioa: ADIERAZPEN PLASTIKOAREN TXOKOA.

Helburu didaktikoak: III.1 (H), III.15 (H)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK
Jarduera mota: MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzeta: LIBREA 
Materiala: —
Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA.

24. Olerkia: Etxe txiki polita

Etxe txiki polita,
tximinia txuria,
haren gainean dago
beti eguzkia,
aurrean eserita
amatxo maitia
eta kantari beti
leihoan txoria.

Ikusi jarduera konstanteak: Olerkiak.


25. Igarkizuna

Definizioetik hitza asmatzera:

Gauero goxo-goxo, *gosaria prestatu,*
lo hartu aurretik, *zu jantzi lehenik,*
ipuintxo polit bat *ez dut sinesten nire izena*
kontatzen dizut nik. *esaten ez dakizunik.*
Goizean lehenengo, *Nor naiz?*
altxa naiz ohetik, *(ama/aita)*

PROZEDURA

(Igarkizuna edozein material berri aurkezteko estrategia gisa planteatu daiteke. Estrategia "jolas" horrekin ohituta daudenean, azaltzen diren aukerak planteatu daitezke.)

Helburu didaktikoak: II.4 (I), III.1 (H), III.5 (H), III.15 (H)
Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA, ULERMENA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: AFEKTIBOAK, KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzeta:  LIBREA
Materiala: —
Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA.

Hitzetik definiziora:

Hiztegian, *aita*, *ama*, *aitona* eta *amona* txartelak ditugu. Banatu hurrei txartelak, eta lagundu igar-kizuna osatzen. Ea besteek asmatzen duten. Asmatzen dutenean, txartela erakutsi guztiei.

Gure etxean bizi da, gizona da eta asko maite nau.
(aita edo aitona, neba...)

Zahar samarra da, emakumezkoa da eta nire familiakoa. Nor da?

26. Entzunaldia

Musika hau Tomaso Albinoniren *Biolina, hari eta organorako* adagioaren ataltxo bat da.

Albinoni, Tomaso. Konpositore italiarra (Venezia, 1671-1750). Sonata eta kontzertuen egilea.

PROZEDURA


Lurrean etzanda eta begiak goxo-goxo itxita, ar-nasa lasai-lasai hartuz, musika entzungo dugu.

Sentitu dutena hitzez adieraztea da helburua.

Gustatu al zaizue? Zer gustatu zaizue? Nola sentitu zarete?

Ikusi jarduera konstanteak: Musika klasikoa.

Helburu didaktikoak: I.8, III.26 (MUS)
Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA
Gaitasun motak: AKEKTIBOAK, KOMUNIKATIBOAK, MOTOREAK
Jarduera mota: MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea: LIBREA 

Materiala: CDa
Jarduera hau egiteko espazioa: GELAKO ESPAZIO LIBREA.
Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA.

27. Irteerak egiteko taldea prestatu, arauak eta ohiturak landu


Parkera goaz, bizitokiak ikusiko ditugu

PROZEDURA

Gela barruan egin dugun bezalaxe egingo dugu, baina gelatik kanpora poliki-poliki ateraz, eta horrek helburu batzuk izango ditu. Hori egiteko, taldeko partaide guztiek ere kontuan izan behar dute taldearen egoera (denek arazorik gabe parte hartzea).

Irten aurretik komenigarria da arau batzuk eztabaidatzea eta zergatia argitzea: gelatik taldean irtetea nola jokatu; adin honetan ilaran joateko zailtasunak izan ditzakete; beraz, soka erabil dezakegu, korrika egin gabe... garrantzitsuak dira segurtasun neurri hauek, taldeak kontrolpean egon behar du gelatik irteten garenean.

Irten aurretik adieraz diezaikegu kanpoan topa dezakeguna. Etxeak badaude, dendaren baten aurretik pasa behar badugu... Informazio horrekin, kokapen minimoa egingo dugu, eta horrek hurrei ziurtasuna emango die.

Helburu didaktikoak: II.1 (I), II.5 (I), II.12 (I)
Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA, ULERMENA
Gaitasun motak: AFEKTIBOAK, GIZARTERATZEKOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, INFORMAZIOA
Taldekatzea: 

Materiala: —
Jarduera hau aurkezteko espazioa: HARRERA TXOKOA.

28. Irteera egin ondoren marrazkia egitea

PROZEDURA

Egindako irteeratik bueltan, bizi izandakoa adierazteko aukera ematea da helburua.

Marrazkia egin aurretik, zer ikusi dugun, zer nolako diferentziak ikusi ditugun bizitokien artean, zenbat bizitoki...

Irteera aprobeatza daiteke hainbat material jasotzeko ere, ondorengo egunetan etxeak eraikitzeko erabil daitezkeenak.

Marrazkia egiteko, beraien eskura egongo dira papera eta margoak.

Paperak ez du folio tamainakoa zergatik izan, interesgarria da paper tamaina handiagoan marraztea; horrela, taldeko marrazki bat egingo genuke.

Marrazkia bukatzean, oso egokia izango litzateke komunean jartzea eta bertan dagoena hitzez adieraztea.

Helburu didaktikoak: II.3 (I), II.5 (I), III.14 (H), III.20 (PLAS)
Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA, ADIERAZPENA, PROBLEMAK EBAZTEA
Gaitasun motak: KOGNITIBOAK, MOTOREAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA, ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: LIBREA
Materiala: TAMAINA HANDIKO PAPERAK, MARGOAK, ARKATZAK...
Jarduera hau egiteko espazioa: ADIERAZPEN PLASTIKOA TXOKOA.

BIZITOKIAK ERAIKITZEN HAINBAT MATERIALEKIN

29. Hezitzailearen ipuin kontaketa

PROZEDURA

Ikusi jarduera konstanteak: Ipuina, hezitzailearen ipuin kontaketa.

Helburu didaktikoak:
II.9 (I), III.1 (H)
Etengabeko ebaluazioa:
NORTASUNA, ULERMENA

Gaitasun motak:
AFEKTIBOAK

Jarduera mota:
MOTIBAZIOA

Taldekatzea:



Materiala: —

Jarduera hau egiteko espazioa:
LIBURUTEGIA TXOKOA.

30. Ukimena erabiliz materialak ezagutu

Ikusi ditugu hainbat bizitoki. Denak ez daude material berdinarekin eginda. Txerrikumeek ere material desberdinak erabili zituzten bizitokiak eraikitzeko.

Helburu didaktikoak: I.7, I.12, II.11 (I)
Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA, PROBLEMAK EBAZTEA
Gaitasun motak: GIZARTERATZEKOAK, KOGNITIBOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, ARAKETA
Taldekatzea: LIBREA
Materiala: LASTOA, BELARRA, BUZTINA...
Jarduera hau egiteko espazioa: ADIERAZPEN PLASTIKOA TXOKOA.

PROZEDURA

Etxeak eraikitzeke ikusitako material desberdinak gogoratuko ditugu. Material horiek (lastoa edo belarra, buztina, harria, egurra eta irteeran topatu ditugunak) gelara eramango ditugu. Horiekin batera, beste batzuk ere ipin daitezke.

Manipulatzeko aukera emango diegu eta kontuan izango ditugu haurren komentarioak eta hausnarketak (hausnarketak idatzita jaso baditzakegu, hobe).

Eraikuntzaren bat egingo balitz, interesgarria litzateke horren prozesua eta emaitza argazkietan jasotzea. Material horrekin erakusketa txiki bat antola daiteke, gurasoekin partekatuzko.

31. Artelana: Vicent Van Gogh (*Nire logela*)

Vincent Van Gogh, *Nire gela*

Artelanari behatu eta gela nolakoa den deskribatu.

PROZEDURA

Autorea nor den komentatu, biografia jar daiteke horman, horrela, autoreen biografiak bilduko genituzke pixkana-pixkana.

Van Gogh, Vicent. Pintore brabantarra (Groot Zundert, Brabant, 1853 - Auvers-sur-Oise, 1890). Bizitza laburra eta atsekabetua izan zuen. Gaur egun, garai guztietako pintorerik handienetakotzat jotzen da. Bere ezaugarri nagusia kolorearen erabilera da. Fauvismoaren eta espresionismoaren eragin handia izan zuen.

Helburu didaktikoak: II.2 (I)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOGNITIBOAK
Jarduera mota: MOTIBAZIOA, ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: LIBREA
Materiala: ARTELANAREN LAMINA
Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA.

SINTESIA

32. Ttanttoren laguntzaz, unitate didaktikoan zehar egindakoa gogoratu

- Ipuina, pertsonaiak. Txotxongiloen bitartez ipuina gogoratu, eta etxera eramateko banatu.
- Bizitokiak eta materiala: GURE BIZITOKIEN ALBUMA eta BIZITOKIAK ERAIKITZEKO MATERIALEI EGINDAKO ARGAZKIEN ERAKUSKETA.
- Kantak
- ...

3- “Mendia zoragarria da udazkenean” UDAZKENA (Azaroko lau asteak)

HASIERAKOAK

1. Ttanttoren agerpena: Ikasnorabideak

PROZEDURA

Ttantto panpina ez dago bere kutxan, gutun bat (gutun-azalarekin) utzi du.

Kaixo, laguntxoak:

Zer moduz zaudete? Ni oso pozik nago. Ikusi dut asko gustatu zaizuela bizitoki desberdinak ezagutzea eta, gainera, gero eta gusturago zaude-tela ikastolan.

Non ote nagoen galdetuko duzue, ezta?

Nire familia ikustera joan naiz parkera. Bisita bat egitera joan naiz. Gainera parkeak, basoak eta mendiak zoragarriak jartzen dira udazkenean, oso irteera polita izango da.

Zuei gustatzen al zaizue udazkena? Seguru baietz!!

Udazkenean kolore oso politak ikusten dira baso eta parkeetan, gainera basoan fruitu gozoak topa daitezke, gauza pila ikus daitezke udazkenean.

Guri, mendiko animalia eta landareei gustatzen zaigu zuek bezalako haurtxoak gu ikustera etortzea, baina batzuetan ez, batzuetan haserretu egiten gara. Eta ba al dakizue zergatik? Begira, kalekume lotsagabe batzuek, mendira etortzen direnean, guztia zikintzen baitute: “gusanitos” poltsak lurrera bota, ogitartekoa biltzeko papera ere bai, edari latak handik, txupatxus paperak hemendik, dena zerri eginda uzten dute gure bizileku maitea. Baina lasai, nik badakit zuek neska-mutil jatorrak zaretela eta gure etxea zainduko duzuela.

Beraz, gonbidatuta zaudete bisitatxo bat egitera, ea aurkitzen nauzuen! Ikusi arte...

Helburu didaktikoak:
AURKEZPENA

Etengabeko ebaluazioa:
ULERMENA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak: AFEKTIBOAK,
KOGNITIBOAK, KOMUNIKATIBOAK

Jarduera mota:
MOTIBAZIOA, ARAKETA

Taldekatzea:



Materiala:
TTANTTOREN GUTUNA

Jarduera hau egiteko espazioa:
HARRERA TXOKOA.

Ttantto marigorringoa

2. Elkarrizketa

PROZEDURA

Ttanttok aurkeztu duen egoeraren inguruan, elkarrizketa bat sortzea da honen helburua.

- Zergatik haserretu ziren Ttantto eta mendiko animaliak haurrekin?
- Zer egin dezakegu mendia ez zikintzeko?
- Zuek mendira joaten zaretenean, horrelakoak egiten dituzue?

JARDUERAREN PLANIFIKAZIOA

Honako hauek dira elkarrizketa planifikatzeko orduan kontuan izan beharreko oinarrizko elementuak:

1. Haur guzien parte-hartzea lortu.
2. Elkarrizketa egiteko espazioa: eroso eta komunikazioa bultzatzen duena izan behar da. HARRE-RA TXOKOA
3. Jarduera aurrera eramateko denbora aurreikusi.
4. Galderen tipologia ondo pentsatu.
 - Galdera irekiak, baina haurren hizkuntza-kompetentzietara egokituta.
 - Pentsarazten duten galderak.

HEZITZAILEAK BERE ESKU-HARTZEAREN ERREBISIOA EGINGO DU

Haurren interesak

- Haurren esperientzien kontaketa bultzatu duzu jardueraren bitartez?
- Haurren interesak lehenetsi dituzu?

Erronka kognitiboak

- Galderak errebotatzen dituzu ala erantzuna ematen duzu?
- Hipotesiak eta arrazonamenduak egiteko eta iritziak emateko aukera eskaintzen duzu?
- Jardueraren amaieran, azaldutako ideiak laburbiltzen eta borobiltzen dituzu?


Ikusi jarduera konstanteak: Egoera komunikatiboak.

3. Tradiziozko kanta: *Ikusi mendizaleak*

Ikusi mendizaleak baso eta zelaiak, mendi tontor gainera igo behar dugu. Ez nekea ezta bide txarra, gora, gora, Euskal Herria! Gu euskaldunak gara Euskal Herrikoak.

Hemen mendi tontorrean euskaldunen artean, begiak zabaldurik, bihotza erreta. Hain ederra hain polita da ta gora-gora Euskal Herria! Gu euskaldunak gara Euskal Herrikoak.

Helburu didaktikoak: II.1, III.1 (H), III.16 (H)
Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOGNITIBOAK, KOMUNIKATIBOAK, GIZARTERATZEKOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA
Taldekatzea: LIBREA
Materiala: —
Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA.

Helburu didaktikoak: II.9 (I), III.15 (H), III.32 (MUS)
Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, MOTOREAK
Jarduera mota: MOTIBAZIOA, ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea:

Materiala: CDa
Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA.

PROZEDURA

Ikusi jarduera konstanteak: Abestiak.

Kanta ikasi ondoren, haurrak kalejiran jar ditzakegu elkarri eskutik helduta, CD-a entzuten dugun bitartean.

(Abestiak balio dezake sarrera moduan horma-irudia aurkezteko).




4. Horma-irudia

PROZEDURA

Jarduera honen helburua lortzeko (hizkuntza-funtzioak lantzea, alegia), hurrek ohitu egin beharko dute pixkana. Hori dela eta, funtsezkoa iruditzen zaigu hurrek behar duten denbora errespetatzea, eta, horretarako, egokia iruditzen zaigu hasieran hurbilpen saioak talde handian egitea (betiere kontuan izanda, jarduera honen helburua ez dela galderen zerrenda bati erantzutea).

Ikusi jarduera konstanteak: Horma-irudia.

Helburu didaktikoak: I.5, II.1 (I), II.2 (I), III.16 (H)
Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA, ULERMENA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK, AFEKTIBOAK
Jarduera mota: ARAKETA, MOTIBAZIOA



Taldekatzea:   

Materiala: HORMA-IRUDIA
Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA.

5. Jolasteko abestia

Zubiri-zubiri,
 nongori-nongori,
 nongo alkate zara zu?
 Frantziako errege jaunaren
 seme-alabak gara gu.
 Zubi hontatik pasatzen dena
 hemen geldituko dela,
 hemen geldituko dela.
 Zer nahi duzu, txokolatea ala marrubia?
 Mendia ala itsasoa?

Helburu didaktikoak: I.13, II.5 (I), III.15 (H), III.32 (MUS)
Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, AFEKTIBOAK, MOTOREAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA

Taldekatzea:   LIBREA

Materiala: CDa
Jarduera hau egiteko espazioa: JOLASTOKIA.


PROZEDURA

Bi hurrek beren besoekin zuba egingo dute. Haur bat lorea izango da eta bestea marrubia. Baina gelako gainerako hurrek ez dute jakin behar bakoitza zer den. Haur guztiak, ilaran jarrita kantatuz, zubipetik pasatu behar dute. Abestia bukatzean zubipean dagoen haurra harrapatu egingo dute zuba osatzen dutenek, eta zer nahiago duen galdetuko diote isil-isilik:

Lorea ala marrubia? Aukeratzen duen elementuaren arabera, zubiko haur baten edo bestearen atzean kokatuko da. Guztiek aukeratzen dutenean, "sokatira" egingo dute, ea zein taldek irabazi duen jakiteko. Talde bakoitzean zenbat haur dauden ere kontatu daiteke, eta kopuru handiena duen taldeak irabaziko luke.

6. Antzezen kolektiboa (ipuin dramatizatua), TXANOGORRITXO

Helburu didaktikoak: I.6, III.1 (H), III.12 (H), III.13 (H)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: AFEKTIBOAK, KOMUNIKATIBOAK, MOTOREAK
Jarduera mota: MOTIBAZIOA, ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzeta: 

Materiala: —
Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA.

PROZEDURA

Ipuinaren antzezen kolektiboa sartu aurretik, ipuinaren sarrera egitea komeni da, hau da, ipuinean azalduko diren pertsonaiak izendatzea, antzezen kolektiboa dauden arauak gogoratzea...

Ikusi jarduera konstanteak: Antzezen kolektiboa (ipuin dramatizatua).

TXANOGORRITXO

	Behin batean, Txanogorritxo eta bere ama etxean zeuden. Bere amak esan zion:
	Txanogorritxo, zatoz hona!
	Bai, ama, banoa!
	Eraman (ezazu) otarre hau amonaren etxera.
	Baina kontuz otsoarekin!
	Bai, ama. Agur! (Kontuz ibiliko naiz)
	Eta Txanogorritxo basora joan zen amonaren etxera. Basoan egurgilea zegoen.
	<i>Txanogorritxo kantari doa... (abestia)</i>
	Kaixo, Txanogorritxo.
	Kaixo, egurgile.
	Nora zoaz?
	Amonaren etxera noa.
	Kontuz otsoarekin. (Basoan dabil)
	Bai, agur! (Kontuz ibiliko naiz)
	Eta Txanogorritxok oinez bere bideari jarraitu zion.
	<i>Txanogorritxo kantari doa... (abestia)</i>
	Kaixo, Txanogorritxo.
	Kaixo, otsoa.
	Nora zoaz?
	Amonaren etxera noa.
	Eta non bizi da (zure amona)?

	Han aurrean, basoan.
	Agur, Txanogorritxo.
	Agur, otsoa.
	Ja, ja, ja, jaaa! (Ni lehenago iritsiko naiz)
	Eta otsoa amonaren etxera joan zen korrika.
	Tan, tan, tan!
	Nor da?
	Txanogorritxo naiz.
	Sartu, sartu barrura!
	GRRR...! Ñam, ñam, ñam...!
	Otsoak amona jan zuen, eta haren kamisoia jantzi eta ohera sartu zen. Handik pixka batera Txanogorritxo iritsi zen.
	<i>Txanogorritxo kantari doa... (abestia)</i>
	Tan, tan, tan!
	Nor da?
	Txanogorritxo naiz.
	Sartu, sartu barrura!
	Amona, zein belarri handiak dituzun!
	Zuri hobeto entzuteko dira!
	Amona, zein begi handiak dituzun!
	Zu hobeto ikusteko dira!
<i>Beldurrez</i>	Amona, zein hortz haaaandiak dituzuuun!!!!
	Zu hobeto jateko diraaaa!! GRRR...!
	Lagundu, lagundu!!
	Egurgileak oihuak entzun zituen eta korrika etorri zen.
<i>Eskua belarri atzean ipinita hobeto entzuteko</i>	Zer gertatzen da? (Zer dira garrasi horiek?) A! Otsoa! Banoa korrika!
	Otso gaiztoa. Tori, tori eta tori!
	Guraizeak! (guraizeak behar ditut) Ris, ras, ris, ras! Amona kanpora.
	Eskerrik asko, egurgile. Eskerrik asko laguntzeagatik.
	Eta hirurek otarreko merienda jan zuten poz-pezik.
	<i>Hala bazan eta ez bazan, sar...</i>

IPUINA AITZAKIA

7. Ipuinaren abestia

Txanogorritxo kantari doa,
tipi-tipi-tap pausoa (bis).
Ilun-iluna dago basoa,
badator otso gaiztoa.
Handiak dira zure begiak,
handiak bi belarriak.

Handiak dira eta zorrotzak
ahoa dituzun hortzak.
Zu hobeto txikitzeko dira,
ez egon niri begira!
Baina ipuina ez da amaitu;
zeuk nahi al duzu jarraitu?

Helburu didaktikoak: III.15 (H), III.20 (MUS), III.32 (MUS)

Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak: AFEKTIBOAK, KOMUNIKATIBOAK

Jarduera mota: MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea:  LIBREA

Materiala: CDa

Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA.

PROZEDURA

Ikusi jarduera konstanteak: Ipuinaren abestia.

Abesti hau ibiliz (tipi-tipi-tap) eta antzetzuz kanta dezakegu.

8. Ipuinaren elkarrizketa jolasa atzamarrekin

PROZEDURA


Ikusi jarduera konstanteak: Elkarrizketa-jolasak atzamarrekin.

Helburu didaktikoak: III.1 (H), III.12 (H)

Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, AFEKTIBOAK, GIZARTERATZEKOAK

Jarduera mota: MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea: 

Materiala: ELKARRIZKETAREN GIDOIA

Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA.

<i>Irakaslea haur guztien laguntzaz</i>	<i>Eta Txanogorritxo basora joan zen amonaren etxera. Basoan egurgilea zegoen.</i>
Egurgilea	Kaixo, Txanogorritxo.
Txanogorritxo	Kaixo, egurgilea.
Egurgilea	Nora zoaz, Txanogorritxo?

Txanogorritxo	Amonaren etxera noa.
Egurgilea	Kontuz otsoarekin. Basoan dabil.
Txanogorritxo	Bai, kontuz ibiliko naiz.
Egurgilea	Agur!
Txanogorritxo	Agur!

1- Egurgilea/Txanogorritxo (marrazkien arabera, Txanogorritxo eta ama: aldatu)

<i>Irakaslea haur guztien laguntzaz</i>	<i>Txanogorritxok bideari jarraitu zion, eta otsoa ikusi zuen.</i>
Otsoa	Kaixo, Txanogorritxo.
Txanogorritxo	Kaixo, otsoa.
Otsoa	Nora zoaz, Txanogorritxo?
Txanogorritxo	Amonaren etxera noa.
Otsoa	Eta non bizi da (zure amona)?
Txanogorritxo	Han aurrean, basoan.
Otsoa	Agur, Txanogorritxo.
Txanogorritxo	Agur, otsoa.
Otsoa	Ja, ja, ja, ja! Ni lehenago iritsiko naiz.

Ikasturte hasierarako luzeegia bada, "Non bizi da zure amona? Han aurrean, basoan" zatia ken daiteke.

<i>Irakaslea haur guztien laguntzaz</i>	<i>Otsoak amona jan zuen, haren kamisoia jantzi eta ohera sartu zen. Handik pixka batera Txanogorritxo iritsi zen.</i>
Txanogorritxo	Tan, tan, tan!
Otsoa	Nor da?
Txanogorritxo	Txanogorritxo naiz.
Otsoa	Sartu, sartu barrura.
Txanogorritxo	Amona, zein belarri handiak dituzun!
Otsoa	Zu hobeto entzuteko dira!

Txanogorritxo	Amona, zein begi handiak dituzun!
Otsoa	Zu hobeto ikusteko dira!
Txanogorritxo	Amona, zein hortz haaaandiak dituzun!
Otsoa	Zu hobeto jateko dira! GRRRR!!!!
Txanogorritxo	LAGUNDU, LAGUNDU!!

9. Gure pertsonaiak

PROZEDURA

Txanogorritxoren irudiarekin, gorputz osoa hobe, horma-irudi handi bat egin. Profiletik moztuta politagoa gera daiteke. Izena idatzi eta biak horman itsatsi, besteekin batera. Nahi izanez gero, otsoarekin ere egin daiteke.

Horma-irudia adierazpen plastikoaren txokoan kokatu, hurrek margotzeko aukera izan dezaten.

HEZITZAILEAREN EGINKIZUNA

Txanogorritxoren horma-irudia egiteko, paper zurian Txanogorritxoren irudia proiektatzea, eta hori haurren aurrean eginez gero, haurren erreakzioei behatzea.

Adierazpen plastikoaren txokoan ipini, hurrek margo dezaten. Beharrezkoak diren materialak erabiltzeko moduan kokatu (altuera egokian, bere kasa erabil ditzaten), eta beste jarduera guztietan beza-la, behaketa lana egitea, txoko honetan zein besteetan.

Helburu didaktikoak: I.9, I.12, III.8 (H), III.17 (PLAS)
Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: AFEKTIBOAK, KOMUNIKATIBOAK, MOTOREAK, KOGNITIBOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzeta: LIBREA
Materiala: ORDENAGAILUA, PROIEKTOREA, PAPERA, MARGOAK
Jarduera hau egiteko espazioa: ADIERAZPEN PLASTIKOA TXOKOA.

10. Txanogorritxori txanoa apaindu

PROZEDURA

Osagarri modura, kapa (txanoa) margotu beharrean, zetazko papera edo *pinotxo* paper gorria erabiliz, gaineratik "jantz" diezaiokegu; horretarako, bolatxoak egin ditzakegu zetazko paper gorriarekin hurrek lagunduta, eta, gero, txanoan itsatsi.

(**Garbia denez**, ez da beharrezkoa haur guztiek jarduera honen prozeduran parte hartzea, baina komeni da bukatu ondoren talde handian aurkezpena egitea)

Helburu didaktikoak: I.9, I.11, I.12, III.17 (PLAS)
Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: MOTOREAK, GIZARTERATZEKOAK, AFEKTIBOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzeta: LIBREA
Materiala: ZETAZKO PAPER GORRIA, KOLA
Jarduera hau egiteko espazioa: ADIERAZPEN PLASTIKOA TXOKOA.



11. Abestia: *Gorri-gorriak*

Gorri-gorriak
basoan marrubiak.
Gorriak, gorriak dira gereziak.
Gorri-gorriak odol tanta lodiak.
Gorriak, gorriak teilatu berriak.

PROZEDURA

Ikusi jarduera konstanteak: Abestiak.

Helburu didaktikoak: III.15 (H), III.32 (MUS)
Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: AFEKTIBOAK, KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzeta:   LIBREA

Materiala: CDa
Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA.

12. Hiztegiaren aurkezpena

PROZEDURA


Ipuineko pertsonaiekin eta ipuinarekin bat datozen hiztegi txar-telekin, hezitzaileak ipuinaren pasarte batzuk gogora ditzake. Modu horretan, haurrei aurreratuko dizkiegu ondoren egingo diren hiztegi jolasetan agertuko diren hitzak.

Hiztegi txartelak irudiarekin eta izenarekin manipulatu ditugu.

HIZTEGIA eta PERTSONAIEN TXARTELAK

MENDIA	INURRIA
GAILURRA	AMONA
ERREKA	EGURGILEA
ZUHAITZA	ARTZAINA
HOSTOA	BASOZAINA
TXORIA	BASOA
HABIA	KATAGORRIA
TXIMELETA	TXANOGORRITXO eta OTSOA

Ikusi jarduera konstanteak: Hiztegia: Hiztegiaren aurkezpena.

Helburu didaktikoak: III.13 (H), III.16 (MAT)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOGNITIBOAK, KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: INFORMAZIOA
Taldekatzeta: 

Materiala: AUKERATUTAKO HIZTEGI TXARTELAK
Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA.

13. Hiztegiarekin jolasten

PROZEDURA

Hiztegiaren aurkezpena egin ondoren, haurren eskura jarriko ditugu hiztegi txartelak.

HEZITZAILEAREN EGINKIZUNA

Aurkeztutako txartelekin haurren artean bideratu gabeko jolasak agertzen badira, horiei behatzea eta kontuan izatea da egokiena. Horrela, hezitzaileak ge-roago hiztegiarekin proposamenak egiten dituenean, haurren jolasetatik abia daiteke.

Helburu didaktikoak: I.12, III.10 (H), III.13 (H)
Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA, ADIERAZPENA, ULERMENA
Gaitasun motak: AFEKTIBOAK, KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzeta: LIBREA
Materiala: AUKERATUTAKO HIZTEGI TXARTELAK
Jarduera hau egiteko espazioa: LIBURUTEGIA TXOKOA.

14. Memoria joko: pertsonaien irudiekin jolasten

PROZEDURA


Aurreko gaietan azaldu diren pertsonaiekin memoria joko egitea proposatzen dugu.

Ikusi jarduera konstanteak: Hiztegia: Memoria jolasa.

HEZITZAILEAREN EGINKIZUNA

Jarduera proposatu eta jolasa bideratu talde handian. Beste jardueretan bezala, hezitzaileari behaketa lana egitea dagokio.

Helburu didaktikoak: III.8 (H), III.13 (H), III.33 (MAT)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, GIZARTERATZEKOAK, KOGNITIBOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea:  LIBREA

Materiala: PERTSONAIEN HIZTEGI TXARTELAK
Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA.

15. Txanogorritxo eta otsoaren jolasa TXOTXONGILOEKIN

PROZEDURA


Ikusi jarduera konstanteak: elkarrizketa-jolasak atzamarrekin.

HEZITZAILEAREN EGINKIZUNA

Batetik, pertsonaien txotxongiloak izeneko kartulinak inprimatu eta plastifikatu ondoren, liburutegi txokoan utzi, haurrek libreki jolas dezaten.

Bestetik, txotxongiloen kopia bat presta daiteke haur bakoitzarentzat, etxera eraman dezaten.

Helburu didaktikoak: III.10 (H), III.13 (H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOGNITIBOAK, KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA

Taldekatzea:  LIBREA


Materiala: PERTSONAIEN TXOTXONGILOAK
Jarduera hau egiteko espazioa: LIBURUTEGI TXOKOA, LIBREKI ERABILTZEKO.

16. Haurren ipuin kontaketa laminekin

PROZEDURA

Ikusi jarduera konstanteak: Ipuinaren laminak, haurren ipuin kontaketa.

Helburu didaktikoak: I.13, I.15, II.4 (I), III.1(H), III.13 (H)
Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA, ADIERAZPENA, ULERMENA
Gaitasun motak: AFEKTIBOAK, GIZARTERATZEKOAK, KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea: 

Materiala: IPUINAREN LAMINAK
Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA.

17. Igarkizuna


Basoan egun osoa,
umeei kentzen diet loa,
Txanogorritxo eta amona
jateko daukat gogoa,
hori bikote gozoa,
horregatik deitzen didate
lotsa gabeko ...oa.

(otsoa)

PROZEDURA

Goiko igarkizun honekin has gaitezke gure haurrak "bertsolaritzan trebatzen". Bereziki kontuan hartu behar dugu OA bukaera, poliki-poliki kontura daitezen erritmo bat dagoela eta "ondo geratzeko" azkeneko bertsoak OA-z bukatu behar duela.

Horretarako, igarkizuna errezitatzean, indar handiagoa emango diegu OSOA, LOA, GOGOIA eta GOZOA hitzei. Modu horretan, eta kontuan izanda ipuinari buruzko hainbat jardura egin ditugula (alegia, ipuina eta pertsonaiak ezagutzen dituztela), erraza egingo zaie OTSOA hitza asmatzea.

Helburu didaktikoak: II.4 (I), III.1 (H), III.5 (H), III.15 (H)
Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA, ULERMENA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: AFEKTIBOAK, KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK
Jardura mota: ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea:  LIBREA
Materiala: —
Jardura hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA.

BASOKO BIZIDUNAK

18. Elkarrizketa. Non dago Ttantto?


PROZEDURA

Ttanttoren kutxan begiratu dugu, hurrekin batera. Kutxa zabaldu aurretik, Ttantto barruan ote dagoen edo ez galdetuko diegu hurrei, eta, horrela, hipotesiak egiten ipiniko ditugu haurrak.

Gogoratu, kutxa zabaldu genuen azkeneko aldian, Ttantto ez zegoela bere tokian.

- *Nora joan zen Ttantto?* galdetu eta erantzunak entzun. Denak ez dira gogoratuko basora joan zela, baina batzuk seguru baietz.
- *Zertara joan zen basora?*
- *Nor dira Ttanttoren lagunak?* galdetu eta erantzunak jaso. Batzuk egokiak izango dira eta beste batzuk ez. Egokiak izan edo ez, denak entzungo ditugu eta arrazoitu ere bai.

Zuhaitzetan bizi diren urtxintxak,
erreketan bizi diren arrainak,
habietan bizi diren yxoriak,
inurriak, tximeletak...

Helburu didaktikoak: III.16 (H), II.4 (I), II.10 (I), II.11 (I)
Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA, ULERMENA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: AFEKTIBOAK, GIZARTERATZEKOAK, KOMUNIKATIBOAK
Jardura mota: ARAKETA, INFORMAZIOA
Taldekatzea: 
Materiala: —
Jardura hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA.

Batetik, elkarrizketaren bitartez, Ttanttok bere gutunean aipatzen zuena gogoratuko dugu. Bestetik, Txanogorritxo eta otsoa ere basoan bizi direla gogoratuko dugu.

19. Gaia aberasten: Basoa eta bertako bizidunak. OTSOA

Hezitzailearen jarduera

PROZEDURA

Basoari eta bertako bizidunei buruzko informazioa lortu dugu. Haurrekin lortutako dokumentazioa partekatu.

Ikusi jarduera konstanteak: Azalpen testua. Gaia aberasten.


Helburu didaktikoak:
II.9 (I), III.1 (H), III.10 (H)

Etengabeko ebaluazioa:
ULERMENA, NORTASUNA, GAITASUNAK

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK,
KOGNITIBOAK

Jarduera mota:
ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea:



Materiala:
IBURUAK, ALDIZKARIAK...

Jarduera hau egiteko espazioa:
TXOKO TXURIA.

20. Gaia aberasten. Gurasoei gutuna

PROZEDURA

Oso interesgarria da gurasoak inplikatzeko. Ohitura interesgarriak bultzatu ditzakegu ikastolatik. Txikitatik ikasi behar dute hurrek udal liburutegia non dagoen eta nola erabili behar duten.

Gurasoekin liburutegira joateko proposatuko diegu. Haien laguntzaz, bertako zenbait liburu hartuko dituzte ikastolara ekartzeko. Liburu horiek gainerako haurrei aurkeztuko zaizkie, eta zenbait egunez izango ditugu ipuinen txokoan.

Liburuak nola erabili eta nola zaindu irakatsi behar diegu.

Kaixo, familia:

Zuen seme-alabekin basoa eta mendia aztertzen ari gara oraingo honetan. Badaukagu Txanogorritxoren ipuina eta ikastolako beste liburu polit batzuk ere bai, baina gustatuko litzaiguke gehiago izatea.

Udazkenean, parkeak, mendiak eta basoak oso politak egoten dira.

Zuen etxetik gertu dagoen liburutegian, seguru ipuin edo album zoragarriak badaudela aipatutako hori ikusteko.

Zer iruditzen zaizue zuen seme-alabarekin horrelako bat aukeratzea eta ikastolara ekartzea?

Bai?

Gaia bukatzean, berriz ere liburutegira bueltatu beharko duzue zuen txikiarekin. Ados?

Ondo pasa liburutegian eta asko disfrutatu!!

Ah!! Mila esker eta mila muxu.

Mundialak zarete!!


Helburu didaktikoak:
II.4, III.1 (H), III.8 (H)

Etengabeko ebaluazioa:
NORTASUNA, ADIERAZPENA, ULERMENA

Gaitasun motak:
KOMUNIKATIBOAK, AFEKTIBOAK

Jarduera mota:
MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea:



Materiala:
GURASOEI BIDALTZEKO GUTUNA

Jarduera hau egiteko espazioa:
HARRERA TXOKOA.

Ttantto marigorringoa

21. Abestia: Katagorria-urtxintxa

Katagorri gorria,
basotik etorria,
saltoka-saltoka
adaxka berrira.

PROZEDURA

Abestia aitzakia, katagorriari buruzko hainbat informazio lortu nahi dugu.

Lehenik eta behin, abestia kantatu eta ahal den neurrian dramati-zatu egingo dugu, eta, ondoren, elkarrizketa planteatuko dugu.

*Nola bizi da katagorria (urtxintxa)? Non?
Zer jaten du? Gustukoak al ditu udazkeneko fruituak?
(intxaurrak, pinu-haziak...)
Ikusi al duzue inoiz urtxintzarik?
Trebea al da? Nola ibiltzen da zuhaitzetan?
Egingo al dugu guk ere urtxintxarena?*

Helburu didaktikoak:
I.13, II.12 (I), III.15 (H), III.32 (MUS)

Etengabeko ebaluazioa:
NORTASUNA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak:
AFEKTIBOAK, KOMUNIKATIBOAK

Jarduera mota:
MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea:



Materiala: CDa

Jarduera hau egiteko espazioa:
HARRERA TXOKOA.

22. Hiztegia gogoratzen

Helburu didaktikoak: III.13 (H), III.16 (MAT)

Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOGNITIBOAK, KOMUNIKATIBOAK

Jarduera mota: INFORMAZIOA, ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzea:



Materiala: AUKERATUTAKO HIZTEGI TXARTELAK

Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA.

ERREKA, TXORIA, HABIA, TXIMELETA, BASOA, INURRIA, KATAGORRIA, ZUHAITZA, HOSTOA

Lodiz idatzita dauden bizidun hauek guztiak basoan edo mendian bizi direlako aukeratu ditugu.

PROZEDURA

Txartelak hartu eta istoriotxo bat kontatzen hasi. Basoan bi-zi diren animaliak txoriak, tximeletak, inurriak, katagorriak (urtxintxak) pozik daude udazkenean. Udazkenean, zuhaitzeko hostoei kolorea aldatzen zaie, dena gorri-ka jartzen da udazkenean...

Behin txartelak gogoratutakoan, Harrera txokoan utziko ditugu.

23. Udazkeneko marrazkia/Marrazki librea

PROZEDURA

Harrera txokoa hurrei gogoratuko diegu grafikoki adierazteko aukera daukatela.

Jarduera hau egiteko, hurrei askatasun guztia emango diegu, bai mementoa erabakitzeko eta baita erabiliko duen teknika aukeratzeko ere.

Garrantzi handikoa da adierazpen plastikoa txokoa materialerik ondo hornituta egotea (tenpera, pintzelak, margoak, arkatzak...).

Jarduera horretan parte hartzen duten haurren produkzio lanak jaso eta, saioaren amaieran, komunen jartzea komeni da.


Helburu didaktikoak: III.17 (PLAS), III.18 (PLAS)
Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: AFEKTIBOAK, KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: LIBREA
Materiala: TENPERAK, PINTZELAK, PAPERAK...
Jarduera hau egiteko espazioa: ADIERAZPEN PLASTIKOA TXOKOA.

24. Hiztegi-jokoa: NAHASTU-NAHASTU

PROZEDURA

Ikusi jarduera konstanteak: NAHASTU-NAHASTU jolasa.

Jolasa egin ondoren, haurren eskura utziko ditugu hiztegi-txartelak, haurrek txoko libreko mementoetan jolas dezaten.

Helburu didaktikoak: II.4 (I), III.8 (H), III.16 (H)
Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA, ULERMENA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: AFEKTIBOAK, GIZARTERATZEKOAK, MOTOREAK, KOGNITIBOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzea: 
Materiala: HIZTEGI TXARTELAK
Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA.


25. Jolas-kanta: Hanka puntetan

Hanka puntetan
txori-mutil saltari,
hanka puntetan
zozo hegalari.
Itzulika, aurretik saltoka.
Itzulika, atzetik saltoka.
Txin, txin, txiribintxin.
Txirula-mirula kantari.

PROZEDURA

Hanka puntetan jarriko gara korroan, besoak zabalik ditugula, hegazti bat bagina bezala. Musikaren erritmoari jarraituz eta kantatuz, ibiltzen hasiko gara. "Itzulika" esatean, salto batez atzera begira jarriko gara, eta bigarren "itzulika"n, berriz ere, aurrera begira jarriko gara, ibiltzen jarraitzeko.


Helburu didaktikoak: I.6, III.14 (H), III.15 (H), III.30 (MUS)
Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, MOTOREAK
Jarduera mota: MOTIBAZIOA, ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzea:  LIBREA

Materiala: CDa

Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA.

26. Erritmoa




PROZEDURA

Gorputzaren atalak eta musika-tresnak erabiliz, erritmo eskema hau markatu. Isilunea markatu. Isilunea daukagu hori markatzeko, besoak gora altxatuz adieraz dezakegu.

Lehenengoetan, gorputz-atalekin egin daiteke, geroago musika-tresnak aurkeztuko dizkiegu.

Ikusi jarduera konstanteak: Erritmo-eskemak.

Helburu didaktikoak: I.15, III.28 (MUS), III.33 (MUS)
Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA, ULERMENA
Gaitasun motak: MOTOREAK, KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: ARAKETA, ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: 

Materiala: —

Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA.

BASOKO EDO MENDIKO JANGARRIAK (fruituak, perretxikoak, fruitu lehorrak...)

27. Zer jango dute Ttanttok eta berarekin batera bizi diren basoko edo mendiko bizidunek? Elkarrizketa

PROZEDURA

Honetarako, Ttanttoren kutxa erabiliko dugu berriro ere. Ttanto kutxara itzuli da, eta intxaurrak eta sagar bat ekarri ditu.

Lehenik eta behin, elkarrizketa guztietan bezala, haurren ezagueretatik abiatuko gara, elkarrizketarekin hasteko.

- Begira zer ekarri duen Ttanttok.
- Zer da? Intxaurrak eta sagarra.
- Zergatik ekarriko zuen?
- Ttanttori galdetuko diogu?

Haurren bati eskatu ahal diogu Ttanttori galderak egitea.

Ondoren, Ttanttoren laguntzaz, mendian edo basoan har daitezkeen fruituak izendatuko ditugu.

Haurren erantzunak arbelean apunta ditzakegu, eta zerrenda osatu. Batzuetan, zentzurik ez daukaten edo ezinezkoak diren gauzak aipatuko dituzte, horiek ere jaso eta horretaz hausnarketa egin haurrekin batera.


Helburu didaktikoak:
II.4 (I), II.10 (I), II.11 (I), III.16 (H)

Etengabeko ebaluazioa:
NORTASUNA, ULERMENA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak:
AFEKTIBOAK, GIZARTERATZEKOAK,
KOMUNIKATIBOAK

Jarduera mota:
ARAKETA, INFORMAZIOA

Taldekatzea:



Materiala:
INTXAURRAK, SAGARRA,
TTANTTO ETA BERE KUTXA

Jarduera hau egiteko espazioa:
HARRERA TXOKOA.

28. Mendiko edo basoko fruituen behaketa

Interesgarria litzateke irteeratxo bat egitea eta udazkeneko fruitu batzuk zuzenean ikustea eta erostea.

Mendira, basora edo merkatura joateko zailtasunekin topa gaitzkeenez, gelara fruituak ekartzeari proposa dezakegu, horretarako, berriro ere, gurasoen elkarlana eskatuko dugu.


Helburu didaktikoak: II.11 (I), II (12), III.16 (MAT), III.17 (MAT)

Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA, ULERMENA, PROBLEMAK EBAZTEA

Gaitasun motak: KOGNITIBOAK

Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, ARAKETA

Taldekatzea:



Materiala: —

Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA.

29. Mendiko edo basoko fruituak. Familiarentzako gutuna

PROZEDURA

Kaixo, familia:

Gogoratzen duzue zer ikertzen ari garen?

Bai, horixe!! Basoa edo mendia udazkenean. Oso liburu interesgarriak bidali dituzue, baina oraingoan udazkeneko fruituak sailkatu eta dastatu nahi ditugu eta, horretarako, liburuekin ez da nahikoa.

Seguru zuei garai honetako jangarriren bat bururatzen zaizuela; horrela, bada, ekartzea nahi genuke.

(intxaurrek, gaztainak, sagarrak, pikuak, perretxikoak, urrak, mahatsa...)

Zer egingo dugu honekin?

Bada... erakusketa ipini nahi dugu eta dastatu ere bai...

Animatu, eta jarraitu gurekin lanean! Zuek ere etxean gauza pila ikertuko zenuten gaiari buruz ezta? Horrela segi!!

Mila milioi muxu.

Ttattoo marigorringoa


Helburu didaktikoak:
II.4, III.1 (H), III.8 (H)

Etengabeko ebaluazioa:
NORTASUNA, ADIERAZPENA, ULERMENA

Gaitasun motak:
KOMUNIKATIBOAK, AFEKTIBOAK

Jarduera mota:
MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea:



Materiala:
GURASOEI BIDALTZEKO GUTUNA

LORTUTAKO FRUITUEKIN JARDUERA POSIBLEAK:

(1) Basoko edo mendiko jangarrien bilduma

PROZEDURA

Erakusketa ipin dezakegu etxetik ekartzen dituzten jangarri guztiekin. Horretarako, mahai bat jar dezakegu paper zuriarekin estalita.

Mahaia gauzez nola betetzen den ikusteko, argazkiak atera ditzakegu, horrela prozesuaren erreportajea izango dugu.

Helburu didaktikoak:
II.1 (I), II.5 (I), II.12 (I)

Etengabeko ebaluazioa:
NORTASUNA, ULERMENA

Gaitasun motak:
AFEKTIBOAK, GIZARTERATZEKOAK

Jarduera mota:
ESPERIMENTAZIOA, INFORMAZIOA

Taldekatzea:

Materiala:
KALERA IRTETEKO SOKATXOA

Jarduera hau egiteko espazioa:
HARRERA TXOKOA.

(2) Jangarrien sailkapena

Fruituen erakusketa egiteko, espazioa prestatuko dugu. Ahal bada, gainerako txokoen funtzionamendua oztopatuko ez duena.

PROZEDURA

Haurrekin batera sailkapenak egiteko irizpideak komenta daitezke eta, horien arabera, fruituak ordenatu.

Adibidez:

Oskola dutenak eta ez dutenak.
Handiak direnak.
Txikiak direnak.
Kolorez...

Interesgarriena da haurrei sailkapena egiteko irizpidea uztea eta denen artean akordio batera iristea.

HEZITZAILEAREN EGINKIZUNA

Batetik, sailkapena egiteko espazioa aurreikusita eta antolatuta izan. Bestetik, jardueraren moderatzailea izatea eta, beharrezkoa bada, laguntzailea erabakiak hartzeko mementoan.

Haurren behaketa egitea ere garrantzitsua da, nolako komentarioak egiten dituzten, akordioetara iristeko zailtasunak edo erraztasunak dituzten, interesak...


Helburu didaktikoak:
II.4 (I), III.16 (MAT), III.17 (MAT)

Etengabeko ebaluazioa:
ULERMENA, PROBLEMAK EBAZTEA

Gaitasun motak:
AFEKTIBOAK, KOMUNIKATIBOAK,
KOGNITIBOAK

Jarduera mota:
APLIKAZIOA

Taldekatzea:



Materiala:
LORTUTAKO MENDIKO FRUITUAK

(3) Udazkeneko fruituekin, azoka egin

Fruituen erakusketa egitekoan bezala, espazioa prestatuko dugu. Ahal bada, gainerako txokoen funtzionamendua oztopatuko ez duena.

PROZEDURA

Beste aukera bat da azoka-denda txiki bat egitea, eta horretan erosketen jolas sinbolikoa egitea.

(4) Janari bat prestatzea eta jatea

PROZEDURA

Paterak (plastikozkoak) gelara eraman eta lortutako fruituekin janari bat prestatu.

Hori eginez gero, denen artean dastatzeko jar dezakegu.


Helburu didaktikoak: II.4 (I), III.16 (MAT), III.17 (MAT)

Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA

Gaitasun motak: DENAK

Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzea:



Materiala: LORTUTAKO MENDIKO FRUITUAK

Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA.

30. Hezitzailearen ipuin kontaketa

PROZEDURA

Ikusi jarduera konstanteak: Ipuina: Hezitzailearen ipuin kontaketa (8. or.).

Helburu didaktikoak:
II.4 (I), III.1 (H)

Etengabeko ebaluazioa:
NORTASUNA

Gaitasun motak:
AFEKTIBOAK, KOGNITIBOAK

Jarduera mota:
MOTIBAZIOA

Taldekatzea:



Materiala: —

Jarduera hau egiteko espazioa:
LIBURUTEGIA TXOKOA.

31. Olerkia

Mendi, muino, tontorrak,
gure herriko bazterrak,
txoritxo txioak,
haur txikien algarak.

Goazen, goazen, laguna,
argitu da eguna.
Mendirik mendi zabal dezagun
gure alaitasuna.



Helburu didaktikoak: II.14, III.15 (H), III.33 (MUS)

Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak: AFEKTIBOAK, KOGNITIBOAK

Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea:

Materiala: —

Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA.

PROZEDURA

Olerkia, erritmo eskema errazarekin lotuta.

Ikusi jarduera konstanteak: Olerkiak.

32. Mendiko edo basoko koloreak (behaketa)

PROZEDURA

Ttanttoren laguntzaz elkarriketa bat proposatzen dugu, haurren arreta erakartzeko, mendian, basoan edo gure patio-ko zuhaitzetan eta inguruetan dauden koloreen inguruan.

Egokiena da, jangarriekin egin genuen bezala, parkera ateratzea eta bertan ikustea.

Erabil daitezke izendatutako koloreak entzunaldian proposatzen den jardueran margotzeko.


Helburu didaktikoak: III.18 (PLAS), III.19 (PLAS)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA

Gaitasun motak: AFEKTIBOAK, KOGNITIBOAK

Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzea:



Materiala: —

Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA.

33. Entzunaldia: Vivaldi


Lau urtaroak kontzertutik *Udazkena* atalaren bigarren alegroa aukeratu dugu, oraingo honetan, gure entzunaldirako.

PROZEDURA

Lehenik, musika entzutea proposatzen dizuegu. Ondoren, erritmoa "margotzen" saiatuko dira haurrak argizarizko margoekin paper handi batean; horretarako, hezitzaileak erritmoa markatuko du. Gero, konbidatu haurrak beste hainbeste egitera. (Udazkeneko koloreak erabil daitezke).

Ikusi jarduera konstanteak: Musika klasikoa.

Helburu didaktikoak: I.8, III.25 (PLAS), III.26 (MUS)
Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: AKEKTIBOAK, KOMUNIKATIBOAK, MOTOREAK
Jarduera mota: MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea: LIBREA 

Materiala: CDa

Jarduera hau egiteko espazioa: ADIERAZPEN PLASTIKOA TXOKOA.

34. Artelana: Alexander CALDERen eredia

PROZEDURA

Kometa edo errotatxoa

Haurrekin erreprodukzioa egin dezakegu, egiten dituzten marrazkiekin eta ekarritako jangarri bitxiekin, gela apaintzeko antzeko zerbait bat osa dezakegu. Haurrek materialak bilatu behar dituzte eta hezitzaileok muntaia egin

beharko genuke. Animo, polita geldu daiteke eta!!

Haizearekin mugitzen diren elementuak.

Helburu didaktikoak: II.2 (I), III.23 (PLAS)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOGNITIBOAK
Jarduera mota: MOTIBAZIOA, ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: LIBREA
Materiala: ARTELANAKO LAMINA
Jarduera hau egiteko espazioa: ADIERAZPEN PLASTIKOA TXOKOA.

SINTESIA

35. Unitatean zehar egindakoa gogoratu

- Ipuina, pertsonaiak
- Mendiko bizidunak
- Mendiko edo basoko jangarriak

Sintesiaren azken produktua: Mendiko edo basoko erakusketa edota dastatzeko askaria izan daiteke.

4- "Gabonak, Gabonak, hau zoriona!" Gabonak (Abenduan zehar, oporrak bitartean)

HASIERAKOAK

1. Non dago Ttantto?

PROZEDURA

Ttantto panpina horma-irudiaren atzean gordeko dugu.

Aurreko gaietan proposatzen genuen bezala, Ttantto panpinak protagonismoa hartuko du gai berriaren aurrean.

Kasu honetan, ez digu gutunik idatzi. Horma-irudiaz baliatuko da gaian zehar ikusiko duguna haurrei azaltzeko.

HEZITZAILEAREN EGINKIZUNA

Jarduera honetan, motibazioa da hezitzailearen zeregin garrantzitsuena. Hezitzaileak utz dezake Ttanttoren kutxa zabalik gelaren erdian; horrela, haurrak galdezka hasiko dira berehala.

Konturatzen ez badira, hezitzaileak galdetu beharko die Ttantto non ote dagoen.

Topatzean, hezitzaileak galdetuko die haurrei zergatik gordeko zen Ttantto horma-irudiaren atzean, eta, horrela, sarrera emango dio horma-irudiaren inguruko elkarrizketari.

Helburu didaktikoak:
AURKEZPENA

Etengabeko ebaluazioa:
ULERMENA, ADIERAZPENA, NORTASUNA

Gaitasun motak:
AFEKTIBOAK, KOGNITIBOAK, KOMUNIKATIBOAK

Jarduera mota:
MOTIBAZIOA, ARAKETA

Taldekatzea:



Materiaia:
TTANTTO PANPINA

Jarduera hau egiteko espazioa:
HARRERA TXOKOA.

2. Gaiaren aurkezpena. Horma-irudia

PROZEDURA

Hizkuntza-funtzioak lantzeaz gain, horma-irudiak gaiaren sarrera egiteko aukera emango du. Ttantto ondoan daukagula, gaian azalduko diren elementu berriak aipatuko ditugu:

- Zer ikusten duzue horma-irudian?
- Gabonak al dira? Negua laster etorriko da, ezta?

- Zein dator opariekin etxeetara Gabonetan? (Galderen bitartez, saia gaitzke azaltzen, hurrek lagunduta, Olentzerori gutuna idazten zaiola eta zertarako idazten zaion).
- Ipuin berria entzungo dugu, Gabonetan gertatutako istorioa.




Aurkezpenarekin bukatzean, horma-irudiari beti ematen diogun trataera emango diogu.

Ikusi jarduera konstanteak horma-irudia.

HEZITZAILEAREN EGINKIZUNA

Jarduera honetan, motibatzailea eta moderatzailea izango da hezitzailea. Saiatu beharko du denen parte-hartzea lortzen ere, hurrei behar duten denbora ematen eta, era berean, hurren gaitasunari eta jarrerari behatzen.

Helburu didaktikoak: I.5, II.4 (I), II.14 (I), III.16 (H)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK, GIZARTERATZEKOAK
Jarduera mota: ARAKETA, MOTIBAZIOA

Taldekatzea:   

Materiala: HORMA-IRUDIA, TTANTTO PAMPINA
Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA.

3. Jolasteko abestia



Kanika txiki bat dabil
saltoka eskutik eskura.
Nork ote du? Nork ote du?
Nork ote du nire kanika?
Kanika, kanika!!

PROZEDURA

Haurrak lurrean eserita korroan jarriko dira, eta erdian haur bat, puxtari bat eskuan duela. Gainerako hurrek, eskuak elkartuta jarriko dituzte aurre-aurrean, eta erdian dagoen haurrak besteen esku tartetik pasako ditu, kontu handiz, bere eskuak; halako batean, inork sumatu gabe, puxtaria emango dio haur bati. Abestia bukatzen denean, kanika noren eskuan geratu den asmatu behar dute hurrek. Kanika eskuan duena izango da hurrengo txandan erdian jarriko dena.

Hurrek jolasa ikas dezaten, egokia litzateke hasieran erdian jarriko dena irakaslea izatea.

Helburu didaktikoak: I.13, II.5 (I), III.15 (H), III.20 (MUS), III.32 (MUS)
Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA, ULERMENA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: AFEKTIBOAK, GIUZARTERATZEKOAK
Jarduera mota: MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea:  

Materiala: CDa
Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA.

4. Antzezen kolektiboa (ipuin dramatizatua)

Ipuinaren antzezen kolektiboa sartu aurretik, komeni da ipuinaren sarrera egitea; hau da, ipuinean azalduko diren pertsonaiak izendatzea, antzezen kolektiboa dauden arauak azaltzea...

Lehenengo saiakera hauetan, normala da taldea galdu samar egotea. Lasai hartu behar dugu eta ahalik eta modu motibagarienean egin jarduera.

Ikusi jarduera konstanteak: Antzezen kolektiboa. Ipuin dramatizatua.

AMETSAK AIREAN


Helburu didaktikoak:
I.6, III.1 (H), III.12 (H), III.13

Etengabeko ebaluazioa:
ULERMENA, ADIERAZPENA, NORTASUNA

Gaitasun motak: AFEKTIBOAK, KOMUNIKATIBOAK, MOTOREAK

Jarduera mota: MOTIBAZIOA, ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea:



Materiala: —

Jarduera hau egiteko espazioa:
HARRERA TXOKOA.

	Gabon gaua hurbil zela eta, Prudentzi postaria poz-pozik esnatu zen.
	Goazen, Pintto! Olentzerori haurren eskutitzak eraman behar dizkiogu eta!
	Au-au, au-au!
	Postaria ikastolara joan zen haurren eskutitzak jasotzera.
	Olentzerori eskutitza idatzi al diozue? Gutunak jasotzera etorri naiz.
	Horixe bai! Atzo lagundu zigun maisuak.
	Eta zintzo portatu al zarete?
	Bai!!!
	Bat-batean, haize-bolada batek gelako leihoak ireki zituen eta haurren lanak hegan hasi ziren.
	Baina nora joango zara eguraldi honekin, Prudentzi?
	Olentzerorengana joan behar da, eta joan egingo naiz.
	Baina lekutan dago Olentzeroren txabola!
	Ez kezkatu, iritsiko naiz.
	Gainera, aurten Pinttok lagunduko dit.
	Prudentzi postaria eta Pintto zakurra mendirantz abiatu ziren Olentzerorengana.
<i>Abestuz</i>	<i>Olentzero, buru handia, entendimentuz...</i>
	Hau da hau eguraldi petrala! Ez dut piperrik ere ikusten. Non dago Olentzeroren txabola, Pintto?

3. zehaztapen-maila

	Au-au, au-au!
	Elurrak bidea estali digu. Arranopola! Eta haizeak eskutitzak eraman dizkigu!
	Pintto, harrapa itzazu! Harrapatu!
	Prudentzi oso kezkatuta zegoen. Haizeak eskutitz guztiak eraman zituen.
	Pintto, zer egin dezakegu? Nork lagunduko digu?
	Au-au, au-au!
	Baina zertan ari zara? Nora naramazu?
	Prudentzik Pinttori jarraitzea erabaki zuen. Elurretan luze eta nekez ibili ondoren, hartzaren etxera iritsi ziren.
	Hartza, lagunduko al didazu gutun horiek biltzen?
	Ez, hori ezinezkoa da. Ez al dakizu hartzok neguan lo egin behar dugula?
	Bada, egia da. Barkatu esnatzeagatik. Beste bat arte! Agur!
	Orduan, Pinttok berriro praketatik tira egin zion eta zikoinaren habiara eraman zuen.
	Zikoina, lagunduko al didazu gutun horiek biltzen?
	Hara! Zikoinak ezin digu lagundu, Afrikara joan da!
	Berriro ere Pintto Prudentziren praketatik tiraka hasi zen eta, oraingoan, Urtxintxen etxera eraman zuen.
	Urtxintxa, lagunduko al didazu gutun horiek biltzen?
	Nola ez ba! Haurrak ezin dira Olentzeroren oparirik gabe gelditu. Guk bilduko ditugu gutun guztiak.
	Urtxintxei eskerrak eman ondoren, haiek Olentzeroren txabolarako bidea erakutsi zieten. Gora eta gora igo ondoren, Olentzeroren txabola iritsi ziren.
	Lortu duzue! Honaino iritsi zarete. Zorionak!
	Kosta zaigu, bai, galduta ibili gara! Baina hemen dituzu haurren eskutitz guztiak.
	Eskerrak! Ez nituen haurrak oparirik gabe utzi nahi.
	Olentzerok eskutitzak irakurri zituen eta astoaren saskiak opariz bete zituen. Ondoren, hirurok herrira jaitsi ziren.

	Begira, begira nor etorri den! Olentzero da! Baita Prudentzi eta Pintto ere! Zenbat opari ekarri dituzten....! Hau poza!
	Opariak denentzat ekarri ditut, baina fardel handi hau Prudentzirentzat da.
	Niretzat? Zein ondo! Badakit, badakit zer den! Mila esker, Olentzero! Eta zuek ba al dakizue zer dagoen nire opari-fardelaren barruan?
	<i>Hala bazan ez bazan, sar dadila kalabazan...</i>

5. Antzezpen kolektiboaren eta ipuinaren abestia

Olentzero buru handia,
entendimentuz jantzia,
bart arratsean edan omen du
hamar arro(a)ko zahagia.
Ai, urde tripa handia!
Tralalarala, tralalarala. (bis)

Horra, horra, gure Olentzero,
pipa hortzetan du(e)la
eserita dago.
Kapoiak ere ba(d)itu
arrautzatxoekin,
bihar meriendatzeko
botila ardo(a)re)kin. (bis)


Helburu didaktikoak:
II.9 (I), III.15 (H), 32 (MUS)

Etengabeko ebaluazioa:
ADIERAZPENA, NORTASUNA

Gaitasun motak:
KOMUNIKATIBOA, AFEKTIBOA

Jarduera mota:
MOTIBAZIOA, ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzea:



Materiala: CDa

Jarduera hau egiteko espazioa:
HARRERA TXOKOA.

PROZEDURA

Ikusi jarduera konstanteak: Abestiak.

6. Eguraldia behatzen

PROZEDURA

Eguraldiaren aldaketei behatzea proposatzen du-
gu oraingo honetan. Ipuinean gertatzen den bezala,
gure herrian edo hirian ere, eguraldia gaiztotu egiten
da batzuetan edo hobetu besteetan.

Gaiarekin dihardugun bitartean, horren jarraipena
egitea proposatzen dizuegu. Horretarako, abenduko
egutegia erabiliko dugu eta horren gainean ikastolan
erabiltzen dituzuen eguraldiaren ikurrak itsatsiko ditugu.

Jarduera egiteko, arduradun bat edo bi izenda daitezke egunero. Horrela, denek izango dute parte hartzeko aukera. Eguraldiaren ikurrak lot daitezke esaldi egokiekkin, ahoz zein idatzita.

Jarduera honek aukera emango digu eguraldiaren inguruko hainbat elkarrizketa izateko.

Gaiaren bukaeran, horren irakurketa egingo dugu, eta ondorioak aterako ditugu.



Helburu didaktikoak: I.12, I.15, II.4 (I), II.13 (I), II.14 (I),
III.13 (H), II.21 (MAT), II.26 (MAT), II.27 (MAT)

Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK

Jarduera mota: ARAKETA, ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea:





Materiala: ABENDUKO EGUTEGIA, EGURALDIAREN IKURRAK

Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA.

IPUINA AITZAKIA

Helburu didaktikoak: III.15 (H), III.32 (MUS)
Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: AFEKTIBOAK, KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea: 

Materiala: CDa
Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA.

7. Tradiziozko abestia

Elurra teilatuan, zakua lepuan
 ibili beharko dugu aurtengo neguan.
 Rau!
 Rau, rau, rau, rakataplau!
 Hau duk umorea!
 utzi alde batera euskaldun jendea.
 Rau, rau, rau, rakataplau.
 Hau duk humorea!
 Utzi alde batera euskaldun jendea.

PROZEDURA


Ikusi jarduera konstanteak: Abestiak.

8. Ipuinaren elkarrizketa-jolasa

PROZEDURA

Ikusi jarduera konstanteak: Elkarrizketa-jolasak atzamarrekin.

Helburu didaktikoak: III.1 (H), III.12 (H)
Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, AFEKTIBOAK, GIZARTERATZEKOAK
Jarduera mota: MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea: 

Materiala: ELKARRIZKETAREN GIDOIA
Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA.

1)

<i>Irakaslea haur guztien laguntzaz</i>	Postaria ikastolara joan zen hauren eskutitzak jasotzera.
Prudentzi	Olentzerori eskutitza idatzi al diozue? Gutunak jasotzera etorri naiz.
Haurrak	Horixe bai!. Atzo lagundu zigun maisuak.
Prudentzi	Eta zintzo portatu al zarete?
Haurrak	Bai!!!

2)

<i>Irakaslea haur guztien laguntzaz</i>	Prudentzik Pinttori jarraitzea erabaki zuen. Elurretan luze eta nekez ibili ondoren, hartzaren etxera iritsi ziren.
Prudentzi	Hartza, lagunduko al didazu gutun horiek biltzen?
Hartza	Ez, hori ezinezkoa da. Ez al dakizu hartzok neguan lo egin behar dugula?
Prudentzi	Bada, egia da. Barkatu esnatzeagatik.
Prudentzi	Beste bat arte! Agur!

9. Gure pertsonaiak

PROZEDURA

Gela apaindu eta ahozko eta idatzizko hizkuntza erlazionatzeko, horma-irudi bat egingo dugu Olentzeroren eta txakurraren irudiekin. Pertsonaia marraz dezaten, haurren eskurajarroa jarriko dugu.

HEZITZAILEAREN EGINKIZUNA

Batetik, postariaren eta txakurraren horma-irudia prestatzea eta adierazpen plastikoaren txokoa kokatzea. Margoak eta hurrek beharko dituzten materialak beraien eskura jartzea.

Bestetik, txoko horretan zein besteetan gertatzen ari denari behatzea eta, beharrezkoa denean, jarduera moderatzea.

(Garbi dagoenez, ez da beharrezkoa haur guztiek jarduera honen prozeduran parte hartzea, baina komeni da bukatu ondoren talde handian aurkezpena egitea).

Helburu didaktikoak: III.8 (H), III.17 (PLAS), I.9, I.12
Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA
Gaitasun motak: AFEKTIBOAK, MOTOREAK, GIZARTERATZEKOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: LIBREA
Materiala: MARGOAK, MARRAZKIAK
Jarduera hau egiteko espazioa: ADIERAZPEN PLASTIKOA TXOKOA.

10. Olerkia

Kanpoan hotz,
 barruan bero,
 kalean hotz,
 etxean bero,
 elurretan hotz,
 sutondoan bero.
 Hemen dago
 gure Olentzero!

PROZEDURA

Ikusi jarduera konstanteak: Olerkiak.

Helburu didaktikoak:
 III.1 (H), III.15 (H)
Etengabeko ebaluazioa:
 NORTASUNA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak:
 KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota:
 MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzea:



Materiala: OLERKIA
Jarduera hau egiteko espazioa:
 HARRERA TXOKOA.

11. Haurren ipuin kontaketa, laminekin

PROZEDURA

Ikusi jarduera konstanteak: Ipuinaren laminak, haurren ipuin kontaketa.

Helburu didaktikoak: I.13, I.15, II.4 (I), III.1 (H), III.13 (H)

Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA, ADIERAZPENA, ULERMENA

Gaitasun motak: AFEKTIBOAK, GIZARTERATZEKOAK, KOMUNIKATIBOAK

Jarduera mota: MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea:



Materiala: IPUINAREN LAMINAK

Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA.

12. Gabonetako marrazkia (librea)

PROZEDURA

Harrera txokoan haurrei gogoratuko diegu grafikoki adierazteko aukera daukatela.

Jarduera hau egiteko, haurrei askatasun guztia emango diegu, bai erabakitzeke mementoan bai erabiliko duen teknika aukeratzeko unean.

Oso garrantzitsua da, adierazpen plastikoa txokoa material ez ondo hornituta egotea (tenpera, pintzelak, margoak, arkatzak...).

Jarduera horretan parte hartzen duten haurren produkzioak jaso eta saioaren amaieran komunean jartzea komeni da.

Helburu didaktikoak: III.17 (PLAS), III.18 (PLAS)
Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: AFEKTIBOAK, KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: LIBREA
Materiala: TENPERAK, PINTZELAK, PAPERA...
Jarduera hau egiteko espazioa: ADIERAZPEN PLASTIKOA TXOKOA.

13. Hiztegiaren aurkezpena

PROZEDURA

Ikusi jarduera konstanteak: Hiztegiaren aurkezpena.

Helburu didaktikoak: III.13 (H), II.16 (MAT)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOGNITIBOAK, KOMUNIKATIBOAK

Jarduera mota: INFORMAZIOA

Taldekatzea:



Materiala: AUKERATUTAKO HIZTEGI TXARTELAK

Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA.

14. Zenbat egun falta dira Olentzero etortzeko?

PROZEDURA

Haurrekin batera jakin nahi dugu zenbat egun falta diren Olentzero etortzeko. Horretarako, sistema adostu beharko dugu.

- Zenbat egun falta dira Olentzero etortzeko?

Adibidez: Egutegia hartuko dugu eta egunero-egunero X bat jarriko dugu, horrela, abenduaren 24a iristeko gero eta egun gutxiago falta direla ikusiko dugu. Zenbat "lo" falta dira? (Zenbatu)


Abenduaren 24a biribil batean sartuko dugu haurrek ongi bereiz dezaten.

HEZITZAILEAREN EGINKIZUNA

Haurren ekarpenak kontuan izatea, eta, ahal bada, haurrek proposatutako sistema erabiltzea, Olentzero etortzeko falta diren egunak kontatzeko.

Horretarako, oso garrantzitsua da haurrei behar duten denbora uztea.

Helburu didaktikoak: I.15, II.14 (I), II.23 (MAT)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, PROBLEMAK EBAZTEA
Gaitasun motak: AFEKTIBOAK, KOGNITIBOAK
Jarduera mota: MOTIBAZIOA, ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzea: 

Materiala: ABENDUKO EGUTEGIA
Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA.


15. Hiztegi-jolasa: memoria-jokoa

Memoria jolasa egin ezagutzen ditugun ipuinetako hiru pertsonairen txarteekin.

PROZEDURA

Ikusi jarduera konstanteak: Hiztegia, Memoria-jokoa.

Helburu didaktikoak: III.8 (H), III.10, II.33 (MAT)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA
Gaitasun motak: KOGNITIBOAK, KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea: 

Materiala: HIZTEGI TXARTELAK
Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA.

16. Olentzero izaten jolastu

PROZEDURA

Abenduaren 24a da. Olentzerok opariak ekartzeko gaua. Denok lo gaude (haur guztiak lurtean etzanda, gelako espazio guztia betez), Olentzeroren papera egiten duen haurra izan ezik. Olentzero gure gelara sartu da eta guztioi opari bana utziko digu. (Olentzerok kontu handiz ibili beharko du inor ukitu eta esnatu gabe). Goiza iritsi da, eta hau poza jostailuak ikustean! (Olentzerok haurren bat nabarmenki ukitu edo zapaltzen badu, haur hori izango da hurrengo Olentzeroa).

*Helburu didaktikoak: I.6, I.8, I.10, I.12
Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: AFEKTIBOAK
Jarduera mota: MOTIBAZIOA, ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzeta: LIBREA
Materiala: —
Jarduera hau egiteko espazioa: JOLASTOKIA EDO GELAKO ESPAZIO LIBREA.*

17. Igarkizuna: Olentzero

Definiziotik kontzeptura

*Txapel zabala buruan,
pipa piztuta ahoan,
nik baino tripa handiagorik
ez dauka inork ikastolan,
txintxo bazabiltza, emango dizut
oparia Gabonetan.
(Olentzero)*

*Olentzerorekin bizi naiz eta opariak eramaten laguntzen diot. Nor naiz?
Olentzerok buru gainean narama eta beltza naiz. Zer naiz?
Olentzerok ahoan sartzen nau eta kea botatzen dut. Zer naiz?*

PROZEDURA

Kontzeptutik definiziora

Ttanttoren bitartez, haurren arreta erakarriko dugu. Igarkizunak asmatzen, formula bat erabiliz.

- Ezetz asmatu, ezetz asmatu...


*Helburu didaktikoak: II.4 (I), III.1 (H), III.5 (H), III.15 (H)
Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA, ULERMENA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: AFEKTIBOAK, KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzeta: LIBREA
Materiala: —
Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA.*

18. Egingo al dugu Olentzero bat?

Mailako (edo zikloko) gela guztien artean egin daiteke lan hau. Guztien artean, Olentzero handi bat egin dezakegu kantatzera irteteko. *Nola antolatuko dugu? Zertaz arduratuko da gela bakoitza?*

Burua era askotara egin daiteke:

Globoa (puxika) eta egunkari papera kolatuz (*maché* papera). Modu berean egin ditzakegu begiak eta sudurra ere, edota zetazko paperarekin. Burua bukatzeko, tenperaz margo dezakegu. Ilea artilearekin egin daiteke edota espartzua rekin.

*Helburu didaktikoak: III.20 (PLAS), III.21 (PLAS)
Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: AFEKTIBOAK, KOMUNIKATIBOAK, GIZARTERATZEKOAK
Jarduera mota: MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzeta:  (BESTE TALDEKOEKIN BATERA)
Materiala: GLOBOA, EGUNKARI PAPER, ZETAZKO PAPER, TENPERA... OLENTZEROREN ARROPAK*

Oihalez. Maindire puska baten barruan egunkari papera edo goma-espuma bildu, buruaren forma emanaz. Ondoren, atzetik lotu edo josi. Errotuladorez margo ditzakegu ondoren begia, sudurra eta ahoa. Ilea artilez egin, eta jarri txapela buruan.

Gorputza egiteko, galtzak behealdean josi eta egunkari paperez bete. Era berean beteko ditugu artilezko galtzerdi zaharrak, alkandora eta eskularruak. Ondoren, elementu guztiak jostorratzez edo katekorratzez elkartu, abarkak jantzi eta pipa ahoan sartu, ahaztu gabe. Tente edukitzeko, aulkiren batean lotu beharko dugu (makila bat beharrezkoa izan daiteke). Azkenik, brusa luzea edo txalekoa jantzi, sokak ikus ez daitezzen. Euskarria bi oholez edo bi ohol eta xafla batez egin dezakegu.

Kantatzera irten. Gabonetako abestiak entseatu ondoren, adierazi gurasoei hurrak baserritarrez edo arrantzalez (herriko ohituraren arabera) jantzita etor daitezela (idazki bat presta daiteke guztion artean), eta kalera irten gaitezke abestera, Olentzero bizkarrean hartuta.

19. Olerkia

Gabonak, gau-on,
denontzako zorion.
Olentzero, salda bero,
zer duzu niretzat gero?

PROZEDURA

Iritsi da Olentzero laugarren solairura eta etxe horretako neska-mutilek, bere lana eskertzeko-edo, olerkitxo hau jarri diote mahai gainean idatzita, eta ez olerkia bakarrik, ardo goxo pixka bat eta intxaurrak eta menbriloa ere bai, indarberritu dadin.

Geuk ere ikasiko dugu olerkitxo hau eta, nahi badugu, Gabon gauean Olentzerori idatzita utziko diogu, gure ongietorria emateko.

Ikusi, jarduera konstanteak: Olerkiak.

Helburu didaktikoak:
III.1 (H), III.15 (H)

Etengabeko ebaluazioa:
NORTASUNA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak:
KOMUNIKATIBOAK

Jarduera mota:
MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea:



Materiala: OLERKIA

Jarduera hau egiteko espazioa:
HARRERA TXOKOA.

GELA APAINTZEN

20. Hezitzailearen ipuin kontaketa. Ipuina gogoratzen

PROZEDURA

Ikusi jarduera konstanteak: Ipuina: Hezitzailearen ipuin kontaketa.

Helburu didaktikoak: II.4 (I), III.1 (H)

Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA

Gaitasun motak:
AFEKTIBOAK, KOGNITIBOAK

Jarduera mota: MOTIBAZIOA

Taldekatzea:



Materiala: —

Jarduera hau egiteko espazioa:
LIBURUTEGIA TXOKOA.

21. Elkarrizketa: Etxea apaindu

PROZEDURA

Haurrekin elkarrizketa egingo dugu etxean jarri dituzten apaingarrien inguruan.

- *Nola apaintzen duzue zuen etxea Gabonetan?*
- *Nork apaintzen du?*
- *Jartzen al duzue zuhaitzik?*
- *Eta estalperik (jaiotzarik)?*
- *Zer jartzen duzue zuhaitzean?*
- *Eta estalpean?*
- *Eta hormetan?*
- *Eta sarrerako atean?*


Helburu didaktikoak: III.16 (H), II.4 (I), II.10 (I), II.11 (I)

Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA, ULERMENA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak: AFEKTIBOAK, GIZARTERATZEKOAK, KOMUNIKATIBOAK

Jarduera mota: ARAKETA, INFORMAZIOA

Taldekatzea:



Materiala: —

Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA.

22. Gabonetako kanta: Kukurruku-kukurruku

Oilarrak kanta-kantari
kukurrukukurruku,
kalejiran dabilta
kukurrukukurruku,
Egua(be)rrri gaua ospatzen
kukurruku, kukurruku,
Jesus jaio da Belenen
kukurrukukurruku.

PROZEDURA

Gabonetako abesti hau abesteko, "kukurruku" esaten dugun bakoitzean, eskua buru gainean gandorra balitz bezala jarriko dute hurrek.

Ikusi jarduera konstanteak: Abestiak.


Helburu didaktikoak: III.15 (H), III.32 (MUS)

Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak: AFEKTIBOAK, KOMUNIKATIBOAK

Jarduera mota: MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea:



Materiala: CDa

Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA.

23. Elkarrizketa: Ikasgela apaintzen

PROZEDURA

Eta ikasgela ere apainduko bagenu?

Lehenik, haurren proposamenak entzun eta ahal direnak bideratu. Gerta daiteke etxean soberan dauden apaingarriak edukitzea. Hala balitz, horiek ere ekar ditzakete hurrek.

Helburu didaktikoak: III.16 (H), II.4 (I), II.10 (I), II.11 (I)

Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA, ULERMENA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak: AFEKTIBOAK, GIZARTERATZEKOAK, KOMUNIKATIBOAK

Jarduera mota: ARAKETA, INFORMAZIOA

Taldekatzea: LIBREA

Materiala: —

Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA, ELKARRIZKETA EGITEKO. ADIERAZPEN PLASTIKOKO TXOKOA, APAINGARRIA EGITEKO.

Leihoak apain ditzakegu, paper zuri tolestuetan guraizeekin ebakiak eginez. Zuhaitz bat biltzeko, papera mozt dezakegu eta, ondoren, margotu; gero, zilarrezko paperean bolatxo eta kanpaitxoak marraztu, hurrek puntzoiarekin moztu eta zuhaitza apaindu. Azpian, opariak jar ditzakegu, bai bolu-mendunak bai bolumenikgabeak. Bolumena emateko, edozein kaxa hartu (sardinatxoena, zainzuriena, zapata txikien kaxa...) eta bildu egin dezakegu.


Zilar koloreko paperean, bi triangelu ekilatero marraz ditzakegu eta, puntzoiak zulatu ondoren, bata bestearen gainean alderantziz itsatsita, izarrak egin ditzakegu.

24. Artelana: "Hammaneteko motiboa"

PROZEDURA

Hemen duzuen maisu-lan hau Paul Kleerena da. *Hammamet-eko motiboa* du izenburua. Berez ez du Gabonekin zerikusirik, baina biltzeko papera dekoratzeko aitzakia on bat izan daitekeela pentsatu dugu.

Behatu. Zer kolore erabiltzen ditu? Nolako irudiak egiten ditu?

Helburu didaktikoak: III.23 (PLAS)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOA
Jarduera mota: MOTIBAZIOA
Taldekatzea:

Materiala:
 ARTELANEKO LAMINA
Jarduera hau egiteko espazioa:
 HARRERA TXOKOA.

25. Papera margotu, opariak biltzeko

Guk ere, Olentzerok bezala, opariak bilduko ditugu Gabonetan. Horretarako, enbalatzeko(biltzeko) papera apainduko dugu, Paul Klee-k egiten duen antzera.

Jarduera hau egiteko espazioa: Adierazpen plastikoaren txokoa.

Helburu didaktikoak: III.17 (PLAS), III.18 (PLAS)
Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: AFEKTIBOAK, KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: LIBREA
Materiala: TENPERAK, PINTZELAK, ENBALATZEKO PAPER...

PROZEDURA

Ikusitako ereduari edo libreki sortzen dutenari jarraituz, enbalatzeko paper handian margotzea da helburua. Jarduera hau egiteko, nahi duten guztiek har dezakete parte; beraz, paper zatiek handiak izan beharko dute.

Paperean eta mahaiaren artean, egiturak lortzeko, oihal pusketak (zakuak, sareak...), kartoiak... jar ditzakegu. Papera gogortzeko eta distira emateko, kola zuria edo berniza eman gainean. Hurrek papera etxera eraman dezakete, bai koadro moduan, bai opari txikiren bat biltzeko paper moduan, edota ikastolan bertan kaxa batzuk bil ditzakegu gure margo-lanarekin, Olentzeroren zakuan edo zuhaizpean jartzeko.

Adierazpen plastikoaren txokoa utziko ditugu materialak prestatuta, eta, jardueraren helburua eta eman beharreko pausoak azaldu ondoren, libreki utziko diegu prozedura bere kasa egin dezaten.

OLENTZEROREN GUTUNA PRESTATU

26. Olentzeroren gutuna prestatu

Abenduaren 24a hurbiltzen ari da. Egutegian garbi ikusten da gero eta egun gutxiago falta direla. Egun horretan, Olentzero etorriko da opariekin. Guk ere opariak aukeratu beharko ditugu eta Olentzerori gutuntxo batean adierazi beharko dizkiogu.

PROZEDURA

Garai honetan, supermerkatuetan eta etxeetan, jostailuen iragarki asko daude aldizkari itxuran.

Horiek erabil daitezke opariak aukeratzeko.


Haurren eskura jarriko ditugu, eta jostailu bat aukeratzeko eskatuko diegu. Aukeratuta daukateanean, moztu eta gutunean itsatsi beharko dute. Aukeratutako jostailuaren azpian, sinadura moduan jar dezakete euren izena.

Behin gutuna eginda dugunean, karta-azalean sartu eta Olentzero idatzi beharko dute, atzeko aldean, berriz ere, euren izena eta ikastolarena (idazteko orduan askatasuna emango diegu, eta ez dugu, inolaz ere, jarduera gidatuko).

Garrantzitsua da azaltzea zergatik idatzi behar dugun izena eta ikastolaren izena, hau da, identifikazioaren funtzionalitatea.

HEZITZAILERAEN EGINKIZUNA

Jarduera hau egiteko, denei prestatuko dizkiegu gonbidapenak, baina ez ahaztu ez daukatela zergatik denak batera egin beharrik. Hezitzaileak behar den denbora utzi behar die haurrei.



SINTESIA

27. Sintesiaren azken produktua: Olentzeroren gutuna prestatu eta postariari/Mari-domingiri... ematea. Ikastola bakoitzaren ohiturari jarraitu.

Unitatean zehar egindakoa gogoratu.

- Horma-irudia: Gabonak
- Gela apaindu
- Olentzerorentzako gutuna...
- Gabon kantak
- ...

- Etxekoekin www.Olentzero.net ikusi.

Familiakoentzako informazioa

Jarduera honekin, Olentzerori buruzko informazioa non lor dezaketen adierazi nahi diegu gurasoei. Gabonetan, haurrek denbora asko pasatzen dute etxean, eta, batzuetan, denbora horretan zer egin ez dakitela egoten dira hainbat familia.

Hona hemen Gabonetarako aukera batzuk:

1/ Liburutegira joan eta bertan antolatzen diren ekintzetan parte hartu haurrekin batera.

2/ www.Olentzero.net web gunea kontsultatu, eta interesgarriak iruditzen zaizkizun hainbat elementu etxeko txikiekin partekatu.

3/ Asko disfrutatu eta etxeko giroaz gozatu.

4/ Zuri bururatzen zaizun guztia, betiere zure etxeko txikiekin denbora partekatzea bada.

GABON KANTAK

• Trakatan

Trakatan, trakatan,
hiru errege,
trakatan, trakatan,
Belenera,
Belenen jaio den
Jesus haurtxoa
trakatan, trakatan,
agurtzera.

Meltxorrek, tratakan,
zaldia beltza,
Gaxparrek, trakatan,
zaldi gorri.
Trakatan, trakatan,
Baltasar zaharrak
zaldia, trakatan,
zuri-zuri.

Erritmoa

TRA - KA - TAN

TRA - KA - TAN

Zaldiek beren hankez ateratzen duten soinua guk hankekin lurra kolpatuz errepika dezakegu.

Ikusi jarduera konstanteak: Abestiak.

• Mendi aldetik datoz, artzainak, artzainak

Mendi aldetik datoz,
artzainak, artzainak,
bildots bana harturik
bizkar gainean.
Gabon gauean kanta,
kanta aleluia, kanta aleluia,
aleluia,
Gabon gauean kanta,
kanta aleluia,
gauean.

Haur txiki bat jaio da
Belenen, Belenen,
guztion jainkoa da,
poztu gaitezen!
Gabon gauean kanta...

Ikusi jarduera konstanteak: Abestiak.

- **Dingilindron gaur gabon**

Dringilindron gaur Gabon,
Dringilindron, gaur Gabon,
sabela betea daukat eta
besteak hor konpon!

Mazkelo bete aza egosi,
hori, zuri ta gorriak,
berehala iruntzi
neutsazan.

Hiru hortzeko tresnatxo
batez,
morokil-ore bailitzan,
ezti-lapiko handizko bati
barua huts-huts e(g)in
neutsan.

Ikusi jarduera konstanteak: Abestiak.

OSAGARRIA

- **Estalpea edo zuhaitza jarri**

Gabonak nahikoa gai korapilotsua dela deritzogu proposamen bat egiteko. Batetik, erlijio kutsu handiko ospakizunak direlako, eta gure geletan sineskera bateko baino gehiagoko haurrak edota gehienena ez bezalako erlijioakoak ditugulako. Zalantzarik gabe, guztiak errespetatu behar ditugulakoan gaude. Beraz, irakasleak erabaki beharko du nola jokatu, badu eta bere inguruko haurren edota ikastetxeak gai honekiko duen jarreraren berri.

Bestetik, bakoitza den bezalako izanda ere, badago errealitate ukaezin bat: mendebaldeko gizartean gure hainbat eta hainbat ohiturak kristautasunaren kutsua dute. Horren ondorioz, zaila zaie gure haurrei, adinean aurrera doazen heinean, informaziorik eta erreferentziarik gabe hainbat festa, ospakizun, artelan, musika, etab.-en jatorria eta zergatia ulertzea. Horregatik, inor doktrinatu gabe, ikastetxeak kontrakoa onartu ez badu behintzat, pentsatzen dugu ezin uka diezazkiekegula haurrei informazio eta erreferentzia batzuk.

Esanak esan, komeni da gure herrietako kaleetan eta beste hainbat tokitan haurrek ikusiko dituzten estalpe, desfile, aingeru eta izar horien gainean elkarrizketa eragitea, nahi bada, ipuin baten moduan.

Bestalde, plastilina erabiliz Gabonetako irudiak eraiki daitezke: izarrak, estalpeko astoa, idia, artzaina...

5 - “Hotzez dar-dar” Negua (Urtarrileko 3-4 aste, oporretatik bueltan)

Sarrera

Unitatearen barruan egin daitezkeen sekuentzia didaktikoak

- Gelako eguraldi-mapa
- Plubiometroa
- Haizea neurtzeko tresna

Eguraldia behatzeko zenbait tresna nola garatu azaltzen da. Horietako bat aukeratu daiteke, edota hirurak. Hezitzailearen eta haurren interesaren arabera erabaki beharko da.

Sekuentzia didaktikoaren ebaluazioa

- Abiapuntua (nondik hasi ginen eta zergatik)
- Sekuentziaren garapenean erabilitako baliabide materialek, jarduerak, lan taldeek eta abar ondo funtzionatu duten, ala aldaketak egin beharra dagoen hurrengo saio baterako.
- Sekuentziaren garapenean izan diren harremanak (haurren artean, hezitzailearekin...) eta jarrera behatu.

HEZITZAILEAREN EGINKIZUNA

Behaketa-lana eta datuak jaso. Bestetik, unitatean zehar egindako hainbat prozedura jolas edota esanguratsuak diren momentuak modu grafikoan jasotzea proposatzen dugu. Horrela, amaieran, argazki-bilduma osatzeko materiala izango dugu.

HASIERAKOAK

1. Ttanttoren agertzea (txotxongiloak)

PROZEDURA

Hezitzaileak eskuak bizkar atzean gordeko ditu, batean Ttanttoren txotxongiloa duela. Kantuaren lehen zatia bukatzen denean, esku bat aterako du, "hemen zenbat behatz dira" esaten duenean

Hiru aldiz errepikatu ondoren, Ttanttoren txotxongiloa aterako du.

Gaia aurkezten den bitartean Ttanttoren txotxongiloari protagonismoa ematea proposazen dugu jarduera honetan. Ttanttoren agerpena egiteko, jolasteko kantua erabiliko dugu.

ASMA ZAK, ASMA ZAN

Asma zak, asma zan:

Donostiako plazan

hiru atso omen dira

Hemen zenbat behatz dira?

Asma zak, asma zan:

lurretako plazan

hiru atso omen dira.

Hementxe zenbat hatz dira?

Asma zak, asma zan:

Baionako plazan

hiru atso omen dira.

Hemen zenbat eri dira?

HEZITZAILEAREN EGINKIZUNA

Jarduera honetan hezitzaileak izango du protagonismoa eta pisua jolasean. Jolasaren bukaeran Ttantto agertuko da.

2. Elkarrizketa: Oporrak

JARDUERAREN PLANIFIKAZIOA

Honako hauek dira elkarrizketa planifikatzeko orduan kontuan izan behar ditugun oinarritzko elementuak:

1. Haur guzien parte-hartzea lortzea
2. Elkarrizketa egiteko espazioa: eroso eta komunikazioa errazten duena izan behar da. HARRERA TXOKOA
3. Jarduera aurrera eramateko denbora aurreikusi.
4. Galderen tipologia ondo pentsatu.
 - Galdera irekiak, baina haurren hizkuntza-kompetentzietara egokituta
 - Pentsarazten duten galderak


Helburu didaktikoak:
AURKEZPENA

Etengabeko ebaluazioa:
ULERMENA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak:
AFEKTIBOAK, KOGNITIBOAK,
KOMUNIKATIBOAK

Jarduera mota:
MOTIBAZIOA, ARAKETA

Taldekatzea:



Materiala:
2. CDa, 2. ABESTIA

Jarduera hau egiteko espazioa:
HARRERA TXOKOA


Helburu didaktikoak:
I.5, III.1, III.12, III.13

Etengabeko ebaluazioa:
NORTASUNA, ULERMENA,
ADIERAZPENA

Gaitasun motak:
KOMUNIKATIBOAK,
GIZARTERATZEKOAK, KOGNITIBOAK

Jarduera mota:
MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea:



Materiala: —

HEZITZAILEAK BERE ESKU-HARTZEAREN ERREBISIOA EGINGO DU

Haurren interesak

- Haurren esperientzien kontaketa bultzatu duzu jardueraren bitartez?
- Haurren interesak lehenetsi dituzu?

Erronka kognitiboak

- Galderak errebotatzen dituzu ala erantzuna ematen duzu?
- Hipotesiak eta arrazonamenduak egiteko eta iritziak emateko aukera eskaintzen duzu?
- Jardueraren amaieran, azaldutako ideiak laburbiltzen eta borobiltzen dituzu?

Ikus jarduera konstanteak: Horma-irudia.

3. Ikasnorabideak

PROZEDURA

Beste gai bat aurkeztean, haurren aurreiritziak eta aurrezagutzak bilduko ditugu. Modu horretan jakingo dugu nondik abiatu behar dugun gaiari hasiera emateko, eta haurren nahietan eta interesetan oinarritu ahal izango dugu.

Hau hotza sentitzen dudana, haurtxoak! Negua iritsi da eta! Zuen herrian hotzik egiten al du? Jantzi al dituzue berokiak eta bufandak? Ikusi nolako bufanda dotorea egin didan aitona!

1. Txori txiki eta zuhaitz txintxo baten ipuina kontatuko dizue hezitzaileak. Eta ez ipuina bakarrik, neguko kantak, olerkiak eta jolasteko igarkizunak eta denborapasak ere egingo ditugu.
2. Neguko eguraldia nolakoa izaten den ikusiko dugu: euria, elurra, kaz-kabarra... Eta gainera, zientzialariak bezala ibiliko gara!
3. Eta guk, zer egiten dugu neguan hotzari aurre egiteko?
4. Eta nola egoten da natura neguan? Zer egiten dute animaliek? Eta landareek?
5. Eta, beti bezala, negua dela eta, egin nahi duzuen guztia.

GELAKO PROPOSAMENAK

(Proposamen hauek ez dira nahitaez ikasnorabidea aurkezterakoan sartu behar, unitatean zehar noiznahi baizik).

Ikus jarduera konstanteak: Ikasnorabideak.

HEZITZAILEAREN EGINKIZUNA

Hezitzailea entzulea eta dinamizatzaileria izango da jarduera honetan. Gure zeregin nagusia haurren ideiak jasotzea, biribiltzea eta taldeari itzultzea izango da.

Hasiera batean ez da erraza izango haurrengandik aurreiritziak jasotzea. Helburua ez da lehen momentutik hori lortzea, baina bai dinamika horretan trebatzea eta haurren denbora eta iritziak errespetatzea.

Helburu didaktikoak:
AURKEZPENA

Etengabeko ebaluazioa:
ULERMENA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak:
AFEKTIBOAK, KOGNITIBOAK,
KOMUNIKATIBOAK

Jarduera mota:
MOTIBAZIOA, ARAKETA

Taldekatzea:



Materiala:
1. FITXA

Jarduera hau egiteko espazioa:
HARRERA TXOKOA

4. Horma-irudia


JARDUERAREN PLANIFIKAZIOA (Oporretako elkarriketan bezala)

PROZEDURA

Jakina da, hizkuntzaren ezagutza-mailaren eta heldutasunaren arabera, haur guztiek ezin izango dutela inola ere maila berean erantzun, hala ere, besteen erantzunak entzunez, eta hezitzailearen laguntzaz, aurrerapausoak eman daitezke. Bestetik, eta ebaluazioari begira, funtzio-sailkapen honek haur bakoitzaren egoerari buruzko pistak eman diezazkiguke. Izan ere, atal bakoitzaren barruan errazenetik zailenerako ordenan (printzipioz) azaltzen zaizkigu funtzioak.

Ttantto ikusten al duzue? Non dago? (Jostailu-dendako erakusleihoan)

Ikus jarduera konstanteak: Horma-irudia.

Helburu didaktikoak: I.5, II.4 (I)-14 (I), III.16 (H)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK, GIZARTERATZEKOAK
Jarduera mota: ARAKETA, MOTIBAZIOA
Taldekatzea: 
Materiala: HORMA-IRUDIA

5. Tradiziozko kantua

ELURRA TEILATUAN

Elurra teilatuan, zakua lepuan
ibili beharko dugu aurtengo neguan.

Rau!

Rau, rau, rau, rakataplau.

Hau duk umorea!

utzi alde batera euskaldun jendea.

Rau, rau, rau, rakataplau.


Hau duk umorea!

utzi alde batera euskaldun jendea.

PROZEDURA

Ikus jarduera konstanteak: Abestiak.

Kanta ikasi ondoren, haurrak elkarri eskutik helduta kalejiran jar ditzakegu, CDa entzuten dugun bitartean.


Helburu didaktikoak: II.9, III.15 (H), III.32 (MUS)
Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: AFEKTIBOAK, KOMUNIKATIBOAK, MOTOREAK
Jarduera mota: MOTIBAZIOA, ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: 
Materiala: 2 CDa, 3. KANTUA
Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

6. Antzezen kolektiboa (ipuin dramatizatua): *Izei txikia*

PROZEDURA

Ipuinaren antzezen kolektiboan sartu aurretik, ipuinaren sarrera bat egitea komeni da. Hau da, ipuinean azalduko diren pertsonaiak izendatu, antzezen kolektiboan dauden arauak gogoratu...

Ikus jarduera konstanteak: Antzezen kolektiboa (ipuin dramatizatua).



IZEI TXIKIA

	Behin batean, udazkena zela, txoriak Afrikara joateko prestatzen ari ziren.
	Txio-txio-txio. Hotza dator. (Hotza egiten hasiko da) Goazen Afrikara epel-epel egotera! (Goazen epelera!)
Abestia kantatu	Txio-txio-txio. Ni ezin naiz joan. Hegoa hautsia dut. Agur lagunak! Ñiiiiiii!
	Negua etorri zen. Eta hotza. Txoritxoa bakarrik zegoen, eta zuhaitz batengana joan zen aterpe bila.
	Txio-txio-txio. Aizu, Lizar, zurekin bizi al naiteke?
	Ez, ez eta ez. Alde hemendik!
	Ados, ados! Agur, Lizar! Ñi-ñiiii!
	Txoritxoa gaztainondoarengana joan zen. (Txoritxoa gaztainondoari hurbildu zitzaion)
	Txio-txio-txio. Aizu, Gaztainondo, zurekin bizi al naiteke?
	Ez, ez eta ez. Hemen hontza bizi da. Alde hemendik!
	Ados, ados! Agur, Gaztainondo! Ñi-ñiiii!
	Txoritxoa pagoarengana joan zen. (Txoritxoa pagoari hurbildu zitzaion)

3. zehaztapen-maila


	Txio-txio-txio. Aizu, Pago, zurekin bizi al naiteke?
	Ez, ez eta ez. Hostoak zikinduko dizkidazu. Alde hemendik!
	Ados, ados. Agur, Pago! Ñi-ñiiii!
	Txoritxoa triste zegoen, eta hotzez. Azkenean erdi hilik, izei batengana joan zen. (Izei bati hurbildu zitzaion)
(Negarrez)	Txio-txio-txio. Aizu, Izei, zurekin bizi al naiteke?
	Bai, noski. Etorri nire hostoen azpira. Epel-epel egongo zara.
	Eskerrik asko, Izei. Eskerrik asko!
Abestia	Txoritxoak negua izeiaren hosto artean pasa zuen. Udazkenerako, txoritxoa sendaturik zegoen.
Pozik, hegoak probatuz	Txio-txio-txio. Begira! Hegan egin dezaket! (bis) / (sendaturik nago) Mila esker, Izei, laguntzeagatik. Agur, Izei, lagunengana noa. Datorren urtean bueltatuko naiz.
	Agur, txoritxo. Udaberrian bueltatu.
	Baina haizeak den-dena ikusi zuen eta...
	Fiuu! Fiuu! Zuhaitz gaizto horiek ikusiko dute! Hostoak kenduko dizkiet!
Fiu, fiu eginez mugituz	Lizarra, fiuuu!
	Ai ene! Nire hostoak! Hau hotza! Hostoak galdu ditut.
Fiu, fiu eginez mugituz	Gaztainondoa, fiuuu!
	Ai ene! Nire hostoak! Hau hotza! Hostoak galdu ditut.
Fiu, fiu eginez mugituz	Pagoa, fiuu!
	Ai ene! Nire hostoak! Hau hotza! Hostoak galdu ditut.
	Ala zuhaitz gaiztoak! Negua hotzez pasatuko duzue.
Negarrez	Ñi-ñiiii...! Hau hotza!

	Ondoren, haizea izeiarengana joan zen. (Izeiari hurbildu zitzaion)
Fiu, fiu eginez mugituz	Fiuu! Zuk txoritxoari lagundu diozulako ez dizut historik kenduko.
	Eskerrik asko, haizea.
	Eta, harrezkero, zuhaitz gehienek hostoak galtzen dituzte neguan. Eta txoritxoa urtero itzultzen da izeiarengana.
	<i>Hala bazan ez bazan</i>

IPUINA AITZAKIA

7. Ipuinaren abestia

Helburu didaktikoak: III.30 (H)- III.50 (MUS), III.32 (MUS)
Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: AFEKTIBOAK, KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea:  LIBREA

Materiala: 2 CDa, 5. ABESTIA
Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

IZEI TXIKIA

Udazken batean
gaixotu zen txoriñoa,
ezin hegan egin,
hautsirik zeukan hegoa.

Negua zetorren:
mendi gailurra txuritzen,
txoria dardarka
salto-saltoka zebilen.

Hostoen artean
bero pixka bat behar zuen.
"Ospa" esan zion
oihuka gaiztainondoak.

Ezetz eta ezetz
lizarrak eta pagoak.
Alferrik zebilen
bihotz gaiztoko basoan.

Txoria zebilen
zuhaitzetik zuhaitzera
eta iritsi zen
izeitxo eder batera.

Izeitxoak baietz:
"zatoz hona bizitzera,
poliki-poliki
laster sendatuko zera".

Eta txoriñoa
ongi sendatu zenean,
izeia agurtu
eta joan zen airean.

Hori entzutean
poztu egin zen haizea.
Erabaki on bat
hartu zuen bat-batean:

Izeiak neguan
ez du historik galduko,
basoko txoriak
babesten dituelako.

Bihotz txarrekoak
zigortu egin zituen.
Negua biluzik
igaro beharko zuten. (bis)

PROZEDURA


Ikusi jarduera konstanteak: Ipuinaren abestia.

8. Ipuinaren elkarrizketa-jolasa atzamarrekin

Aukera bat baino gehiago proposatzen dugu txotxon-giloekin elkarrizketak egiteko.

PROZEDURA

Ikusi jarduera konstanteak: Elkarrizketa-jolasak atzamarrekin.

Helburu didaktikoak: III.1 (H), III.12 (H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, AFEKTIBOAK, GIZARTERATZEKOAK
Jarduera mota: MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzea:  BOLONDRESA
Materiala: 8. FITXA
Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

(1)

<i>Hezitzailea haur guztien laguntzarekin</i>	<i>Negua etorri zen. Eta hotza. Txoritxoak bakarrik zegoen eta zuhaitz batengana joan zen aterpe bila.</i>
Txoritxoak	Txio-txio-txio. Aizu, Lizar. Zurekin bizi al naiteke?
Lizarra	Ez, ez, eta ez. Alde hemendik!
Txoritxoak	Ados, ados. Agur, Lizar.

(2)

<i>Hezitzailea haur guztien laguntzarekin</i>	<i>Txoritxoak gaztainondoarengana joan zen.</i>
Txoritxoak	Txio-txio-txio. Aizu Gaztainondo. Zurekin bizi al naiteke?
Gaztainondoa	Ez, ez eta ez. Hemen hontza bizi da. Alde hemendik!
Txoritxoak	Ados, ados. Agur, Gaztainondo.

(3)

Hezitzailea haur guztien laguntzarekin	Txoritxoa pagoarengana joan zen.
Txoritxoa	Txio-txio-txio. Aizu, Pago. Zurekin bizi al naiteke?
Pagoa	Ez, ez eta ez. Hostoak zikinduko dizkidazu. Alde hemendik!
Txoritxoa	Ados, ados. Agur, Pago.

9. Elkarrizketak: Zehar-lerroa, elkartasuna

PROZEDURA

*Gustatu al zaizue ipuina?
Zer izan da gehien gustatu zaizuena?
Zuzena iruditu al zaizue lizarrak, pagoak eta beste zuhaitzek txoriari egin diotena?
Zergatik?
Eta izei txikiak egin duena?
Eta haizeak zuhaitzei egin diena?
Zuek inoiz eskatzen al dituzue mesedeak?
Noiz? Nori? Eta egiten al dizkizute?
Zer iruditzen zaizue besteei laguntzea?
Zuek noiz laguntzen diezue besteei?*


Helburu didaktikoak:
I.5, III.1, III.12, III.13

Etengabeko ebaluazioa:
NORTASUNA, ULERMENA,
ADIERAZPENA

Gaitasun motak:
KOMUNIKATIBOAK,
GIZARTERATZEKOAK, KOGNITIBOAK

Jarduera mota:
MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea:



Materiala: —

Jarduera hau egiteko espazioa:
HARRERA TXOKOA

10. Hiztegiaren aurkezpena (ipuina gogoratu hiztegiaren bitartez)

PROZEDURA

Ipuineko hiztegi-txartelekin hezitzaileak ipuinaren pasarte batzuk gogoratu ditzake. Horrela, ondoren egingo diren hiztegi-jolasetan agertuko diren hitzak aurreratuko dizkiegu.

Hiztegi-txartelak (irudiak eta izenak) manipulatu ditugu.

ELURRA, NEGUA, IZEIA, HOSTOA, ZUHAITZA, ADARRA


Helburu didaktikoak:
III.13 (H), II.16 (MAT)

Etengabeko ebaluazioa:
ULERMENA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak:
KOGNITIBOAK, KOMUNIKATIBOAK

Jarduera mota:
INFORMAZIOA

Taldekatzea:



Materiala:
AUKERATUTAKO HIZTEGI TXARTELAK

Jarduera hau egiteko espazioa:
HARRERA TXOKOA

11. Memoria-jokoa

PROZEDURA

Dagoeneko bost ipuinetako pertsonaiak ezagutu ditugu. Memoria-jokoan bakoitzeko bi txartel ditugu manipulatzeko, gelako hormetan ere jarrita ditugu, eta has gaitzke horien artean konparazioak egiten. *Zein da gehien gustatu zaigun pertsonaia? Zergatik?*

Pertsonaia baten ezaugarriren bat irudika dezake hezitzaileak, hurrek nor ote den asma dezaten. Pertsonaien izenak ere aldera ditzakegu, bakoitzean zenbat hitz (eta hitz-tarte) dauden behatuz.

Izei txikia ipuina itzuliz, Zenbat pertsonaia dira? (bi).

Zer jarriko ote du txartel honetan? (izeia eta txoria)

Zein da lehenengo letra? (l) Nork du bere izenean letra hori? Non? Hasieran?

Dagoeneko, baditugu sei bikote. Hartu bi, adibidez "Txanogorritxo" eta "Izeia eta txoria", eta jarri bakoitzaren azpian dagokion izena.

Zein izen dira berdinak? (Txanogorritxo eta Txanogorritxo, eta "Izeia eta Txoria" eta "Izeia eta Txoria")

Froga egin beste bikoteekin ere. Beste bi bikote hartu eta letraz azpira jarri. Ea memoria-jokoa izen idatziekin egiteko gai diren talde handian, denon artean.

Ikusi jarduera konstanteak: memoria-jokoa.

Helburu didaktikoak: III.8 (H), III.10, II.33 (MAT)

Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA

Gaitasun motak: KOGNITIBOAK, KOMUNIKATIBOAK

Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea:



Materiaia: HIZTEGI TXARTELA

Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

12. Gure pertsonaiak

PROZEDURA

Izeiaren adar batean kokatuko dugu txoria goxo-goxo eta pozik. Izen idatzia azpian kokatu eta gela apainduko dugu gure pertsonaiekin.

Asmatuko al diogu denon artean izen bat txori txikiari? Idatziko al dugu bere izena, beti gogoan izan dezagun?

HEZITZAILEAREN EGINKIZUNA

Izeia prestatu taldeka margotzeko moduan. Animatuz gero, izeia egiten ere parte hartu eta erabakiak har ditzakete.

Bestetik, prozeduraren behatzaile- eta moderatzaile-lana egingo du.

Helburu didaktikoak: I.12, III.8 (H), III.17 (PLAS)

Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK

Jarduera mota: APLIKAZIOA, ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzea:



LIBREA

Materiaia: PAPERA, MARGOAK

Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

13. Olerkia

TXANTXANGORRI



Txantxangorri, txantxapeta
ene etxeko leihoan;
leioa ireki dut eta
ez da ihesi joan.
Txantxangorri, txantxapeta
dator ene eskura;
mokoka hasi eta
egiten dit azkura.

J. K. Igerabide, *Haur korapiloak* (Pamiela)

PROZEDURA

Olerkia kontatzean antzezpenarekin lagundu dezakegu. Aurrez keinuak pentsatu eta beti modu berean kontatu beharko da.

Ikusi jarduera konstanteak: Olerkiak, aho-korapiloak, esaera zaharrak.

Helburu didaktikoak: II.14, III.15 (H), III.33 (MUS)
Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: AFECTIBOAK, KOGNITIBOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea:  
Materiala: —
Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

14. Olerkiari marrazkia egin

PROZEDURA

Fitxaren alde batean "Txantxangorria" olerkia idatzita ikusiko dugu, eta, beste aldean, espazio bat nahi duten marrazkia egin dezaten. Musika jar dezakegu jarduera egiteko.

Unitatean zehar, edota hiruhilabete zehar, lantzen diren olerkiekin bildumatxo bat egin daiteke, etxera eramateko.

HEZITZAILEAREN EGINKIZUNA

Jarduera hasi aurretik, olerkia gogoratu (eta keinuak ere bai) eta, besterik gabe, haurrak behatu.

Hurrek libreki aukera dezakete jarduera hau egiteko unea. Hezitzailearen zeregina horren jarraipena egitea izango da.

Helburu didaktikoak: III.1 (H), III.17 (PLAS), III.21 (PLAS)
Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, AFECTIBOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: LIBREA
Materiala: 2. FITXA
Jarduera hau egiteko espazioa: ADIERAZPEN TXOKOA

15. Animalien eta gauza bitxien bilduma. "Txoko txuria"

PROZEDURA

Negurekin eta animaliekin lotura duten liburuak edo albumak eraman daitezke gelara. Ondoren, gelako liburutegian kokatuko ditugu, hurrek librek kontsulta ditzaten.

Oso garrantzitsua da liburuak erabiltzeko bete behar diren arauak goratzea, eta, are garrantzitsuagoa, arau horiek haur taldearekin negoziatzea.

HEZITZAILEAREN EGINKIZUNA

Jarduera honetan hezitzaileak eramango ditu gelara ipuinak, albumak edo aldizkariak (hezitzailearen esku dago aukeraketa egitea).

Txoko txuriaren jarraipena ere egin beharko du.

Jardueran haur taldeak hartzen duen jarrera behatu, eta sor daitezkeen gatazkak kudeatuko ditu.

Helburu didaktikoak:
II.3 (I), II.4 (I), III.8 (H), III.10 (H)

Etengabeko ebaluazioa:
NORTASUNA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak:
KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK,
GIZARTERATZEKOAK

Jarduera mota:
MOTIBAZIOA, ARAKETA,
ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzea:



Materiala:
ANIMALIEI BURUZKO ALBUMAK,
KATALOGOAK, ALDIZKARIAK...

Jarduera hau egiteko espazioa:
TXOKO TXURIA

NEGUKO EGURALDIA

16. Eguraldiari buruzko elkarrizketa

PROZEDURA

Honako hauek dira elkarrizketa planifikatzeko orduan kontuan izan beharko ditugun oinarritzko elementuak:

1. Haur guztien parte-hartzea lortzea.
2. Elkarrizketa egiteko espazioa: eroso eta komunikazioa errazten duena izan behar du. HARRERA TXOKOA
3. Jarduera aurrera eramateko denbora aurreikusi.
4. Galderen tipologia ondo pentsatu.

Galdera irekiak egin, baina haurren hizkuntza-kompetentzietara egokituta.

Pentsarazten duten galderak.

HEZITZAILEAK BERE ESKU-HARTZEAREN ERREBISIOA EGINGO DU

Haurren interesak

- Haurren esperientzien kontaketa bultzatu duzu jardueraren bitartez?
- Haurren interesak lehenetsi dituzu?

Erronka kognitiboak

- Galderak errebotatzen dituzu edo erantzuna ematen duzu?
- Hipotesiak eta arrazonamenduak egiteko, eta iritziak emateko aukera eskaintzen duzu?
- Jardueraren amaieran azaldutako ideiak laburbiltzen eta borobiltzen dituzu?

Ikus jarduera konstanteak: Horma-irudia.

Helburu didaktikoak:
I.5, III.1, III.12, III.13

Etengabeko ebaluazioa:
NORTASUNA, ULERMENA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak:
KOMUNIKATIBOAK, GIZARTERATZEKOAK,
KOGNITIBOAK

Jarduera mota:
MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea:



Materiala: —

Jarduera hau egiteko espazioa:
HARRERA TXOKOA

17. Igarkizunak

Zerutik nator mara-mara
zuria, hotza eta ederra,
mendian txuri gailurra,
nire izena da ...rra.
(elurra)

Zerutik danborraren hotsa
dardarrez nago, hau lotsa!
tximistak zirt-zart
hodeiak ilun
badator ekaitza.
Zerk ateratzen du soinua?
(trumoiak)

Tantaka-tantaka goitik behera
jaisten naiz hodei artetik
mugi mutiko/neskato ta zoaz etxera
bestela bustiko zaitut nik.
(euria)

Ez naiz euria
ez naiz elurra
eta jaisten naiz zerutik
ez naiz harria
baina gogorra
ez da ni bezalakorik.
(kazkabarra, txingorra)

PROZEDURA

Hitzetik definiziora. Haurrak igarkizunak asmatzen jarriko ditugu, hiztegi-txartelak banatuz, belarri-ra izen bat esanez, edo beraiek hitz bat hautatuz.


Helburu didaktikoak:
II.13 (I), III.1 (H), III.15 (H)

Etengabeko ebaluazioa:
ULERMENA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak:
KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK

Jarduera mota:
MOTIBAZIOA,
ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzea:



Materiala:
IGARKIZUNAK

Jarduera hau egiteko espazioa:
HARRERA TXOKOA

18. Eguraldia behatu: euria

PROZEDURA

Jarduera hau egiteko egun euritsua aukeratuko dugu. Helburua euriari buruzko aurre-kontzeptuak edo burutapenak biltzea izango da. Era berean, argazkiak aterako ditugu eta, ahal den neurrian, haurren ekarpenak transkribatu.

Taldea kudeatzeko gomendioa: talde osoarekin batera egiteko zailtasunak egon daitezke. Animatzen direnekin bakarrik egitea litzateke egokiena eta, ondoren, talde osoarekin konpartitu.

Ateratako argazkiak ordenagailuan ikus daitezke talde handian, eta talde txikian egindako hausnartzeak talde handiarekin konpartitu.



Helburu didaktikoak: I.12, I.9, II.13 (I), III.1 (H)-3 (H)

Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA,
PROBLEMEN EBAZPENA

Gaitasun motak: AFEKTIBOAK, GIZARTERATZEKOAK,
KOGNITIBOAK, KOMUNIKATIBOAK, PSIKOMOTOREAK

Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea:

Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA,
KALEA, HARRERA TXOKOA

Sekuentzia didaktikoa: GU ZIENTZIALARI

1. Eguraldi-mapak

PROZEDURA

Hasiera: Eguraldiaren inguruko elkarrizketa

Beti eguraldi bera egiten al du? Ez, noski! Batzuetan eguzkia, besteetan euria, gutxitan elurra, eta tarteka-marteka kazkabarra.

Pentsatu lo bat egin ondoren, mendira joan nahi dugula. Garrantzitsua al da nolako eguraldia egingo duen jakitea? Zergatik? Nola jakin dezakegu nolako eguraldia egingo duen?

Ikusten al duzue telebistan eta egunkarietan eguraldiaren iragarpena? Ba al dakizue zientzialari batzuk egunero behatzen dutela zerua eta nolako eguraldia egingo duen asmatzen saiatzen direla?

Garapena

Haurrei eskatuko diegu mozteko etxean egunkari bateko eguraldiaren orria, eta ikastolara ekartze-ko. Denon artean aztertuko ditugu eguraldi-mapak.

Komeni da fenomeno atmosferikoak adierazteko erabiltzen diren ikur konbentzionalak aztertzea (dekodetu), aurrerago proposatzen dugun egutegian gure ikurak adosteko (kodetu) lagungarri izango baitira.

Amaiera

Gure gelarako eguraldi-mapa egin.

Jasotako eguraldi-mapak erabiliko ditugu, eredu bezala, gure eguraldi-mapa egiteko.

Oharra:

Sekuentziako argazkiak atera, gaiari buruzko argazki-bilduma egiteko.

2. Plubiometroa

Hasiera

Euria egiten duenean busti egiten gara: euri asko egiten badu asko bustiko gara. Zer gertatuko litzateke euritan edalontzi bat jarriko bagenu?

Euria ari duen egun batean, plastikozko edalontziak kalera atera, tarte bat utzi eta pixka bat bete direnean, nola dauden ikusiko dugu. Horren inguruko burutazioekin eta hipotesiak eginez, elkarrizketarekin jarraituko dugu.

Garapena

Zientzialariek toki jakin batean zenbat euri egin duen jakiteko, "plubiometroa" erabiltzen dute. Guk ere egin dezakegu gure "plubiometroa", eta gure herrian, ikastola inguruan, zenbat euri egin duen jakingo dugu. Horrela, hobeto beteko dugu gure eguraldiaren egutegia.

Taldeak egingo ditugu.

Amaiera: Gure plubiometroa

(Prozesu hau orri batean kopia dezakegu, laburtuta eta instrukzio-testu modura, eta eguraldiaren txokoa itsatsi gure egutegiarekin eta beste eguraldi-mapekin batera, unitateak irauten duen bitartean, edo denbora luzeagoan).

1. Moztu plastikozko botila bat (15 cm inguruko altuera). Jarri koloretako zelo bat goiko ertzean, ez mozteko.
2. Idatzi zenbakiak (1, 2, 3...), behetik hasi eta zentimetro inguruko tartearekin, urarekin ezabatzen ez den errotulagailu batekin.
3. Bilatu plubiometroa jartzeko toki aproposa (euria jaso behar du; haizetik babestuta egon, edo lotuta, eror ez dadin).
4. Egunero, arratsaldean etxera joan aurretik, behatu eta kopurua (biribilduz) apuntatu egutegian.

Oharra:

Sekuentziako argazkiak atera. Gaiari buruzko argazki-bilduma egiteko.

3. Haizerik ba al dabil?

Hasiera: Elkarrizketa

Zer gertatzen zaigu ilean haizea dagoenean?

Haizerik dabilen jakitea oso erraza da eta gu, eskulantxo baten bidez, moldatuko gara. Horretarako, makilatxo batzuk beharko ditugu. Nola lortuko ditugu?

Ondoren, plastikozko poltsekin eraikiko dugu gure "haize-orratza".

Garapena

Taldeak egingo ditugu. Koloretako zakar-poltzak egokiak izan daitezke. A-4 neurriko plastikozko laukiak moztu, plastikoa horizontalki hartu eta guraizeekin tirak moztu, flekoak edo xingolak balira bezala, baina kontuz, alde batean ez baitugu guztiz moztu behar. Moztu gabe geratu den ertza makilan ondo bildu, gainerik koloretako zinta eransgarri batekin lotu, eta gelako leiho ondoan jar dezakegu. Haizea dabilenean, xingola mugitu egingo dira, eta ez dabilenean gure haize-orratza geldirik egongo da. Haurrek tresna bana egiten badute, etxeko leihoan jartzeko eta behatzeko esango diegu. Ikastolara etortzen direnean, behatutakoari buruzko datuak apuntatuko ditugu erregistrorako egutegian.

Amaiera: Talde bakoitzarentzat tresna bana sortzea

Oharra:

Sekuentziako argazkiak atera. Gaiari buruzko argazki-bilduma egiteko.

19. Egutegia**PROZEDURA**

Unitateak dirauen bitartean egutegi batean eguneroko eguraldia erregistratuko dugu. Unitatea amaituta ere egutegia osatzen jarraitu nahi badute, utzi egingo diegu.

Egutegia aurkeztu: hilabete osokoa egin (nahiz eta ez bete) eta 1etik 31ra bitarteko serie ordenatua, zenbakiak seinalatuz irakurriko du hezitzaileak. Ondoren, haurrei seriea irakurtzeko eskatu.

Fenomeno atmosferikoak adierazteko erabiliko ditugun ikurrak talde handian adostu eta kartulina batean marraztu, aldamenen esanahia idatzita dutela. Hori ikur konbentzionalen panela izango da. Ondoren, bakoitzetik dozena bat kopia edo atera, beharren arabera, egutegian itsasteko.

Haizeari dagokionez, galdera jar daiteke "Haizea?" Hosto batzuk haizeak mugitzen dituela marraztu, eta **bai** ala **ez** idatzi alboan. Euria-ri dagokion ikurraren ondoan "plubiometroan" neurtutako kopurua adieraz daiteke.

Egun batzuk pasa ondoren (astea, hamabostaldia...) sintesi txiki bat egin dezakegu.

Zenbat egunetan egin du euria? Eta eguzkia?

Eta haizea? Eta elurra? Eta kazkabarra?

Laburpen horrekin arbelean laukitxo bat osa dezakegu, neguko eguraldia nolakoa izaten ari den ikusteko.


Helburu didaktikoak:
II.13 (I), III.9 (H), II.20 (MAT), II.24 (MAT)

Etengabeko ebaluazioa:
ADIERAZPENA

Gaitasun motak:
KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK

Jarduera mota:
ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea:



Materiala:
EGUTEGIA,
FENOMENO ATMOSFERIKOAK
ADIERAZTEKO IKURRAK

Jarduera hau egiteko espazioa:
HARRERA TXOKOA
(eguraldirako erreserbatutako tokiaren inguruan)

20. Ardurak eta izenak

PROZEDURA

Gabonetako oporretatik bueltan, egokia izan daiteke berriz ere arreta berezia eskaintzea gelakideen izenei. Batetik, denen izenekin gogoratzen garen frogatzeak eta, bestetik, *Gu zientzialari* atalean egin beharreko behaketa eta erregistroak taldeka antolatzeak aitzakia egokia eman diezaguke horretarako. Egutegian erregistratu nahi dugun atal bakoitzaren ardura 4-5 laguneko talde bati emango diogu, edo bestela, aste-ko arduren panela osatuko dugu, egun bakoitzean behaketa guztiak nork egingo dituzten adieraziz. Taldekatzea egingo da kontuan hartuta haur kopurua, behaketako egun kopurua, eta behatu nahi diren fenomeno atmosferikoen kopurua.

Horren guztiaren ildotik gelakoen izenen konparazioak egin ditzakegu:

Zein dira izen luzeak?

Zein dira motzak?

Zein letrarekin hasten da bakoitza?



Zeinek dute hasieran letra bera?

Zeinek dute bukaeran letra bera?

Nola antolatuko ditugu arduradunen taldeak?

Izenekin sailkapenak egin daitezke hainbat irizpideren arabera: luzea-motza, letra bera-desberdina... Talde txikitari beraien izenak konparatzen jar ditzakegu.

Helburu didaktikoak: I.12, II.4 (I)-13 (I), III.8 (H)-9 (H)
Etengabeko ebaluazioa: NOTASUNA, ULERMENA
Gaitasun motak: GIZARTERATZEKOAK, KOGNITIBOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzea:  

Materiala:
GELAKOEN IZENEN TXARTELAK

Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

21. Olerkia



Elurra mara-mara,
teilatu-ertzak biribil.
Elurra mara-mara,
lurra maindoretan bil.
Elurra mara-mara,
amandre zuria pasiran dabil.

J. K. Igerabide

PROZEDURA

Ikusi jarduera konstanteak: Olerkiak.

Helburu didaktikoak: I.15, III.7 (H),-9/ (H)-15 (H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: MOTIBAZIOA, ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzea:  

Materiala:
OLERKIA

Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

22. Elurrezko panpina

Neguan, batzuetan, elurra egiten du. Zein polita den elurra!

Eta nahikoa egiten badu, elurrezko panpinak egin ohi ditugu. Apaindu egiten ditugu, azenarioarekin sudurra egiten diogu, bufanda zaharren bat, kapela zaharren bat edo antzekorik badugu (kapela ezean balde bat...), jarri egiten diogu, patatekin begiak egin ditzakegu, harri txikitxoekin hortzak, eta tomate salsa eskura izanez gero, masailak gorritzen dizkiogu. Erratz zahar bat edukiz gero...

Eta hainbeste lan egin ondoren, eskuak hotz-hotz geratzen zaizkigu.

Elurrik egingo balu, kanpora aterako gara panpina egitera. Bestela, enbalatzeko paper zuria edo kartulina zuria erabil dezakegu. Kortxo zuria ere egokia izan daiteke. Horrela, panpina gela barruan jarriko genuke izei txikiaren ondoan. Haurrek argizariz margo dezakete eta zenbait elementu itsatsi (botoiak, azenario formako txarolezko paper zatia, kapela...).

(Badago Eusko Jaurlaritzak argitara emandako bideo bat, *Elurrezko gizona*, oso istorio goxoa kontatzen duena, eta adin hauetatik aurrera ikus daitekeena.)

Oharra:

Sekuentziako argazkiak atera. Gaiari buruzko argazki-bilduma egiteko.

Helburu didaktikoak:
II.13 (I), III.20 (PLAS), III.21 (PLAS), III.24 (PLAS)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, MOTOREAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzea: LIBREA
Materiala: —
Jarduera hau egiteko espazioa:
KALEA, ADIERAZPEN TXOKOA

23. Igarkizunak

Egurra nahi dut jateko,
gela epeldu ta argitzeko,
neguko egun hotz horietan
nik zaitut zu berotuko.
(Tximiniako sua)

Ile edo hariz egina,
txuri, gorri edo urdina,
leporako lagun atsegina,
gozatzeko negu gordina.
(Bufanda)
Mikel Mendizabal

Neguko janari ederra,
ezta ez odolki, ez piperra,
bete ezkeru platera
botako duzu puzkerra.
(Babarruna)

PROZEDURA

Ikus jarduera konstanteak: Igarkizunak.

Helburu didaktikoak:
II.3 (H), III.1 (H)-3 (H)-5 (H)13 (H)-15 (H)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOGNITIBOAK, KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzea: LIBREA
Materiala: IGARKIZUNAK
Jarduera hau egiteko espazioa:
HARRERA TXOKOA

24. Egoera komunikatiboa

PROZEDURA

Talde handian edo txikian egiteko aukera ematen du jarduera honetik, prozedura elkarrizketa bezala planteatuta. Egoera analizatuz joan gaitzke binetaz bineta.

HEZITZAILEAREN EGINKIZUNA

Haurrak esku artean daukaten egoeraren inguruan, elkarrizketa sortzea eta loturak egitea, egunerokotasunarekin aukera badago.

Moderatzailea ere izango da, eta, beti bezala, haurren arteko interakzioaren behaketa egingo du.


Helburu didaktikoak:
II.4 (I)-5 (I)-7 (I), III.2 (H)-16 (H)

Etengabeko ebaluazioa:
ADIERAZPENA, NORTASUNA

Gaitasun motak:
KOGNITIBOAK, KOMUNIKATIBOAK,
GIZARTERATZEKOAK

Jarduera mota:
APLIKAZIOA

Taldekatzea:



Materia:
EGOERA KOMUNIKATIBOA,
3. FITXA

Jarduera hau egiteko espazioa:
HARRERA TXOKOA

25. Abestia: Bero-bero

IGURTZIRIK BI ESQUAK

Igurtzirik bi eskuak
igurtzirik belarriak
bero-bero-bero jarri naiz
jolastera noa orain.

Goiko mendian elurra
zuritzen ari da lurra
zuri-zuriak gailurrak
gorri-gorriak sudurrak.

PROZEDURA

Kanta hau abesten dugun bitartean, eskuak eta belarriak igurtziko ditugu, besoak igurtziko ditugu. Gailurra besoekin adierazi eta azkenik sudurra, eskua zabalik dugula, igurtziko dugu.

Helburu didaktikoak:
I.5-6, II.9 (I9), III.15 (H), III.32 (MUS)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, NORTASUNA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, AFEKTIBOAK

Jarduera mota: MOTIBAZIOA, ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzea: LIBREA

Materia: 2. CDa, 6. ABESTIA

Jarduera hau egiteko espazioa:
HARRERA TXOKOA

26. Abestia: Atxis!

PROZEDURA

*Nonbait, gurasoei kasurik egin gabe, Aizpea putzuz putzu
ibili da eta busti-busti eta hoztuta joan da etxera.*

Helburu didaktikoak:
I.5-6, II.9 (I9), III.15 (H), III.32 (MUS)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, NORTASUNA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, AFEKTIBOAK

Jarduera mota: MOTIBAZIOA, ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzea: LIBREA

Materia: 2. CDa, 7. ABESTIA

Jarduera hau egiteko espazioa:
HARRERA TXOKOA

JOLASEAN NENBILEN

Jolasean nenbilen,
euritan busti nintzen,
bi zapatak etxera
blai-blai-blai eraman nituen.
ATXISS! ATXISS! Hau katarroa!

Batzuetan, neguan bustitzen garenean, doministiku egiten dugu, gaixotu egiten gara. Eta, orduan, sendagilearengana joan behar izaten dugu.

Egingo al dugu denok doministiku? Atxiss!

27. Neguko jantziak

Berdin janzten al gara hotz egiten duenean eta bero egiten duenean? Zer janzten dugu udan, oporretan, hondartzara joateko eta igerilekura joateko? Eta elurra egiten duenean?

Fitxa. Begira gure laguntxo Aizpeari; arazotxo bat dauka. Ama lane-ra joan da eta bakarrik dago etxean. Amak eta aitak beti esaten omen diote jantzi aurretik eguraldiari begiratu behar zaiola. Zein da, zuen ustetan, Aizpearen arazoa? Zergatik pentsatzen duzue hori dela arazoa? Lagunduko al diozue konpontzen?

Fitxan azaltzen diren jantziak izendatzeko baliatuko dugu une hau. Konponbideak bi erataraz adieraz daitezke: euritarako balio dutenak inuratu, edota jantziak marra batez eskuratu Aizpeari.

Helburu didaktikoak:
I.12, II.13 (I), II.16 (MAT)

Etengabeko ebaluazioa:
PROBLEMEN EBAZPENA

Gaitasun motak:
KOGNITIBOAK

Jarduera mota:
MOTIBAZIOA

Taldekatzea:



Materiala:
4. FITXA

Jarduera hau egiteko espazioa:
ADIERAZPEN TXOKOA

28. Mukiak kentzen

Zehar-lerroa: osasuna

Askotan, katarroa harrapatzen dugunean, sudur-zuloak mukiz betetzen zaizkigu, eta ezin izaten dugu arnasa ondo hartu. Horregatik, oso garrantzitsua da mukiak kentzea.

Handiak gara, eta ikasiko dugu bakarrik zintz egiten.

Proba egingo al dugu denok, komuneko paper pixka batekin? (Aurretik papera hartu)

Hartu arnasa. Bota airea sudurretik, indarra eginez. (Indar asko eta indar gutxi egiten dutenak izango ditugu, beraz, zuzendu bi muturretan dabilzanak).

Neska-mutil handiak zarete; badakizue orain mukiak ondo kentzen. Hemendik aurrera, bakarrik egingo al duzue?

Mukiak jateko al dira? Etxean platerean jartzen al dizkigute?

Helburu didaktikoak: I.4-8-12, II.7 (I)

Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA

Gaitasun motak: MOTOREAK

Jarduera mota: APLIKAZIOA

Taldekatzea:



Materiala: KOMUNEKO PAPERA

Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

29. Hiztegi-jolasa: Zer falta da?

PROZEDURA

Hiztegiaren sailkatze-prozeduran hasi gaitzke. Lehenengo ekintza honako hau izan liteke: oinarritzko hiztegia hartu (nahikoa da unitate bateko hiztegiarekin hastea) eta bertan ditugun txartelak sailkatzeko hainbat irizpide proposatu.

HEZITZAILEA: *Zein egoten da ikastolan?*

HAURRAK: *Guraizeak egoten dira ikastolan.*

HAURRAK: *Ipuinak egoten dira ikastolan.*

Lehenengo, hezitzaileak gidatuko du jolasa eta, ondoren, haur bati pasatuko dio txanda, betiere, haren ondoan egonda laguntzeko prest.


Ahal balitz, interesgarria litzateke haurrek ematea sailkapenerako irizpideak.

HEZITZAILEAREN EGINKIZUNA

Prozeduretan deskribatzen den bezala, hasieran hezitzaileak emango du eredia, baina jarduera ez da horretara mugatu behar; haurren parte-hartzea eta protagonismoa bilatu behar du.

Hiztegi-jokoetan, beste jardueretan bezala, haurren erritmoa eta interesa errespetatzea ezinbestekoa da arrakasta lortzeko.

Ahaztu gabe, esandakoaz gainera, behatzeko eta datuak jasotzeko eginkizuna du hezitzaileak.



30. Olerkia: Dar-dar


Dar-dar, dar-dar,
hotzez dar-dar.
Gero-gero
zopa bero.

Peru Peru,
goian zero,
udazkena joan da eta
etorri Jaun Negu!

PROZEDURA

Olerkia idatzita aurkez diezaiekegu, bai arbelean, bai paperean, eta guztion artean irakurri.

Ikusi jarduera konstanteak: Olerkiak.



31. Artelana

PROZEDURA

Begira Ascensio Martiarena euskal margolariak nola margotu zuen mendia neguan.

Zein da gehien ikusten dugun kolorea? Zer kolore du zeruak? (Urdin-grisaxka). Nola margotzen du elurra? (Mantxak eginez). Nola daude zuhaitzak? Ba al dute historik? Zer ikus daiteke atzeko aldean? (Herria). Inoiz ikusi al duzue zuen herria elurpean? Gustatu al zitzaizuen?... Egingo al dugu geuk ere neguaren horma-irudia edo koadroa?


Martiarena, Ascensio. Margolari gipuzkoarra (Donostia 1884-1966). Euskal Herria oso gogoko zuen eta hori oso argi utzi zuen bere margolanetan; euskal emakumearen erretratuak, paisaiak... Paisaiak inpresionistak dira, baina kolore askotakoak. Zuloagaren eragina nabari zaio, marrazki sakonak egiten baitzituen.

Helburu didaktikoak:
III.16 (H), III.23 (PLAS)

Etengabeko ebaluazioa:
ULERMENA

Gaitasun motak:
KOGNITIBOA, KOMUNIKATIBOA

Jarduera mota:
MOTIBAZIOA

Taldekatzea:


Materiala:
5. FITXA

Jarduera hau egiteko espazioa:
HARRERA TXOKOA

32. Horma-irudia egingo dugu: Negua

PROZEDURA

Ikusi eta ikasi dugu nolakoa den negua, nolako eguraldia egiten duen....

Ascensio Martiarenak egindako pintura ere ikusi dugu. Orain, horma-irudi dotore bat egin dezakegu negua nolakoa den azaltzeko. Nola egin dezakegu?

Gai honek hondo iluna erabiltzeko aukera eskaintzen digu (kartulina beltza, urdin iluna...) eta, argizari edo tenpera zuria erabiliz, efektu polita lortzen da.

Hondo argia (zuria, urdin argia...) erabiliz gero, zuria eta beltzaren nahasketak aproposak dira zeruaren grisak lortzeko.

Papera oso handia bada, pintzelak edo argizariak erabili beharrean, tenperatan bustitako belakiez egin dezakegu hondo. Haurrek ondo pentsatuta egin ditzatela mugimenduak.

Hondoa margotu ondoren, hainbat elementu margotuz osa dezakegu gure lantxoa: zuhaitzak, mendia, etxeak... Elementu naturalak ere erabil daitezke: historik gabeko adaxkak, enbor-azal txikiak, go-roldio eta iratze zatiak, irina, kotoia... Aurretik elurrezko panpinarik egin ez badugu, une egokia izan daiteke horrelako bat margotzeko edo eransteko. Horretarako ere hainbat elementuz balia gaitzke: kotoia, irina, tenpera edo argizari zuria, paper normala, zetazko papera...



Haurren kokapena, gauzak egiteko txandak, besteekiko eta materialarekiko errespetua... ongi zaindu behar dira.

Helburu didaktikoak: II.10 (I), III.21 (PLAS), III.24 (PLAS), III.29 (PLAS)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, NORTASUNA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK, GIZARTERATZEKOAK, MOTOREAK

Jarduera mota: APLIKAZIOA

Taldekatzea:  

Materiala:
PAPERA, MARGOAK...


Jarduera hau egiteko espazioa:
ADIERAZPEN PLASTIKOKO TXOKOA

33. Entzunaldia: Vivaldi, *Lau urtaroak: negua*

PROZEDURA

Martiarenaren margolana behatzean, edo eta horma-irudia egiten hasi aurretik, edo ondoren, Vivaldiren Neguaren atal hau entzun dezakegu.

Beste une batean, eska dakieke isiltasunean entzuteko, eta begiak itxita. Ondoren, zer iruditu zaien galdetu.



SINTESIA

34. Argazkien bilduma

PROZEDURA

Unitatean zehar egin ditugun argazkiekin bilduma bat egin dezakegu etxera eramateko. Horretarako, pauso hauek jarraituko ditugu:

- Egindako argazkiak inprimatu, eta haurren artean banatu.
- Haur bakoitzak argazki bat itsatsiko du bere fitxan (6. fitxa).
- Hezitzaileak fitxa guztiak bildu, eta azala jarriko die.

6- "Hau da nire gorputza" (Otsailean zehar, inauteriak arte)

Sarrera

Unitatearen barruan egin daitezkeen sekuentzia didaktikoak

- Jantzien txokoa
- *Collagea*
- Inauterietako festa prestatu

Gorputza lantzeko hiru sekuentzia didaktiko proposatzen ditugu. Horietako bat aukeratu daiteke edota hirurak. Hezitzailearen eta haurren interesaren arabera erabaki beharko da.

Sekuentzia didaktikoaren ebaluazioa

- Abiapuntua (nondik hasi ginen eta zergatik)
- Sekuentziaren garapenean erabilitako baliabide materialek, jarduerak, lan taldeek ea... ondo funtzionatu dute, ala aldaketak egin beharra dago hurrengo saio baterako.
- Sekuentziaren garapenean emandako harremanak (haurren artean, hezitzailearekin...) eta jarrera behatu.

HEZITZAILEAREN EGINKIZUNA

Behaketa-lana egin eta datuak jasoko ditu. Bestetik, unitatean zehar egindako hainbat prozedura, jolas edota memento esanguratsuak modu grafikoan jasotzea proposatzen dugu. Modu horretan, bukaeran, argazki-bilduma osatzeko materiala izango dugu.

HASIERAKOAK


1. Ttanttoren agerpena (txotxongiloa)

PROZEDURA

Taldearen arreta erakartzeko, Ttanttoren abestia eta txotxongiloa erabiltzea proposatzen dizuegu.

Behin taldea gurekin harrera txokoa dagoeanean, ikasnorabidea aztertzen has gaitezke.

Helburu didaktikoak: AURKEZPENA
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: AFEKTIBOAK, KOGNITIBOAK, KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: MOTIBAZIOA, ARAKETA

Taldekatzea: 

Materiala: 2. CDa, 1. ABESTIA
Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

2. Ikasnorabidea

PROZEDURA


Gai berria aurkezterakoan, aurreiritziak eta aurrezagutzak biltzeko erabiltzea proposatzen da. Modu horretan, gaiari hasiera emateko nondik abiatu behar dugun jakingo dugu, haurren nahietan eta interesean oinarrituz.

Kaixo, haurtxoak! Zer moduz ibili zarete zientzialari bezala? Ondo, e? Pozten naiz! Ba, datozen egun hauetan, zuen gorputzari buruz hitz egiteko asmoa dugu. Oso garrantzizkoa baita gure gorputza, eta ongi zaindu beharrekoa, gainera! Ea bada:

1. *Hasteko, dotorea eta harroa zen ehunzango bati zer gertatu zitzaion entzungo dugu ipuin batean; besteak beste, gorputzarekin zerikusia duten kantuak, olerkiak, igarkizunak eta denbora-pasak ikasiko ditugu.*
2. *Jantzien txokoa antolatuko dugu gure gelan. Jolasteko eta mozorrotzeko aukera izango dugu. Ederki pasatuko dugu*
3. *Arropak janzten eta eranzten ikasiko dugu*
4. *Gainera, inauteriak ospatuko ditugu. Mozorroa eta festa prestatu dezakegu.*
5. *Azkenik, gelan beste proposamenik sortzen bazaizue, horiek ere martxan jartzen saiatuko gara*
6. *Zer edo zer gehiago bururatzen al zaizue gorputzari buruz ikasteko? Ikasi nahi duzuen guztia adierazi, horrek erraztuko baitizue ikasteko bidea.*

Ea bada, inauterietan bezain ondo pasatzen duzuen!

Helburu didaktikoak: AURKEZPENA
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: AFEKTIBOAK, KOGNITIBOAK, KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: MOTIBAZIOA, ARAKETA

Taldekatzea: 

Materiala: 1. FITXA
Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

HEZITZAILEAREN EGINKIZUNA

Hezitzailea, jarduera honetan, entzule eta dinamizatzailer izango da. Bere zeregin nagusia haurren ideiak jasotzea, biribiltzea eta taldeari bueltatzea izango da.

Hasiera batean, haurrei ez zaie erraza egingo aurreiritziak botatzea. Helburua ez da lehen momentutik hori lortzea, baina bai dinamika horretan trebatzea eta haurrek behar duten denbora eta agertzen dituzten iritziak errespetatzea.

3. Horma-irudia

JARDUERA PLANIFIKATU

Elkarrizketa planifikatzeko orduan, oinarrizko elementu hauek izan beharko ditugu kontuan:

1. Haur guzien parte-hartzea lortzea
2. Elkarrizketa egiteko lekua; eroso eta komunikazio bultzatzen duena izan beharko luke: HARRERA TXOKOA
3. Jarduera aurrera eramateko denbora aurreikusi.
4. Ondo pentsatu galderek zer tipologia eduki behar duten:
 - Galdera irekiak egin, baina haurren hizkuntz konpetentzietara egokituta
 - Pentsarazten duten galderak egin


Helburu didaktikoak:
I.5, II.4 (I)-14 (I), III.16 (H)

Etengabeko ebaluazioa:
ULERMENA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK, GIZARTERATZEKOAK

Jarduera mota: ARAKETA, MOTIBAZIOA

Taldekatzea:



Materiala: HORMA-IRUDIAK, TTANTTO PANPINA

Jarduera hau egiteko espazioa:
HARRERA TXOKOA

HEZITZAILEAK BERE ESKU-HARTZEAREN ERREBISIOA EGINGO DU

Haurren interesak

- Haurrak beren esperientziak kontatzera bultzatu dituzu jardueraren bitartez?
- Haurren interesak lehenetsi dituzu?

Erronka kognitiboak

- Sortzen diren galderak ikasleek erantzun ditzaten ahalegintzen zara edo erantzuna ematen duzu?
- Hipotesiak aurkezteko, arrazonamenduak egiteko, iritziak emateko aukera eskaintzen duzu?
- Azaldu diren ideiak laburbiltzen eta biribiltzen dituzu jardueraren amaieran?

Ikus jarduera konstanteak: Horma-irudia.

4. Tradiziozko kantua

AMA BEGIRA ZAZU

Ama begira zazu
Leihotik plazara
Ni bezalakorikan
Plazan ba ote da?

Begiak erne ditut
Bi zangoak arin,
Hoinbertze dohainekin,
Ez nauke mutxurdin.

Lai, lai, lai
Plazan ba ote da? (bis)

Lai, lai, lai
ez nauke mutxurdin. (bis)

PROZEDURA

Ikus jarduera konstanteak: Abestiak.


Helburu didaktikoak:
II.9(I), III.15(H), III.32(MUS)

Etengabeko ebaluazioa:
ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK

Jarduera mota: MOTIBAZIOA,
ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzea:



Materiala: 2.CDa, 10. ABESTIA

Jarduera hau egiteko espazioa:
HARRERA TXOKOA

5. Jolaserako kantua

Korru, korru, korruan,
jolasean ta kantuan.
Korru, korru, korruan,
orain dira bai kontuak.

Hanka puntaz ukituaz,
behatz puntaz kolpatuaz.

Korru, korru, korruan...

Belaun gainaz ukituaz,
ukondoaz kolpatuaz.

Korru, korru, korruan...

Belarriaz ukituaz,
sudur puntaz kolpatuaz.

Korru, korru, korruan...

Ipurdiaz ukituaz,
txilinbuelak orain.

PROZEDURA

Korroan jarriko gara. Kantaren lehen zatian, eskutik helduta bueltak emango ditugu. Ondoren, gorputz-atalak aipatzen direnean, eskuak askatu eta dagokion gorputz-atala seinalatuko dugu.

Bukaeran denek lurrean eserita bukatuko dugu.

Helburu didaktikoak:
I.13, III.15(H), III.32(MUS)

Etengabeko ebaluazioa:
ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK,
MOTORRAK

Jarduera mota: MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA,
ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzea: LIBREA

Materiala: 2. CDa, 11. ABESTIA


Jarduera hau egiteko espazioa:
HARRERA TXOKOA

6. Antzezen kolektiboa (ipuin dramatizatua): *Ehunzango Kaskarina*

PROZEDURA

Ipuinaren antzezen kolektiboa egiten hasi aurretik, ipuinaren sarrera bat egitea komeni da. Hau da, ipuinean zein pertsonaia azalduko diren izendatu, antzezen kolektiboak zein arau dituen gogorazi...

Ikus Jarduera konstanteak: Antzezen kolektiboa (ipuin dramatizatua).



EHUNZANGO KASKARINA

	Behin batean, bazen Pinpox ehunzangoa. Oso harroputza zen. Eguna ispiluari begira pasatzen zuen. Jantzi asko zeuzkan.
	Kapela gorria jantziko dut. Ez, urdina.
	Oinetako berdeak jantziko ditut. Ez, botak.
	Zein ederra naizen! Paseatzera noa.
	Baina Pinpox harroputzak ez zuen kalean inor agurtzen.
	Zein ederra naizen! Tipi-tapa, tipi-tapa.
	Agur, Pinpox.
	...
	Ehunzango harroputza!
	Beste animaliak pixka bat haserre zeuden, eta horrela abesten zuten:
	<i>Tip-tipi-tap Ehunzangoa, Tip- tipi- tap, Begira hor doa.</i>
	Gainera, Pinpox pixka bat gaiztoa zen. Goiz batean Marigoringori esan zion:
	Aizu, Marigoringo zikina. Noiz garbitu behar dituzu ttanto beltz horiek?
	Utzi bakean!! Nire ttantoak politak dira. Utikan!!!

	Beste batean, zizareari esan zion:
	Aizu, zizare. Zein itsusia zaren! (Sar zaitetz lur azpian.)
	Utzi bakean!!! Ni ez naiz itsusia.
	Baina Maitagarrik den-dena ikusi zuen eta.....
	Pinpox zigortu egingo dut. Pinpox, etorri hona!
	Bai, Maitagarri. Zer nahi duzu?
	Harroputz hutsa zara. Zigortu egingo zaitut.
	Ez, mesedez, ez zigortu.
	Bai, bai (harroputz bat zarelako). <i>Ziu, flu, ufala!</i> <i>Zure etxea eta gauzak</i> <i>Zurrunbilo, zurrunbilo,</i> <i>Haizeak eraman ditzala!</i> <i>Fiuuuu, fiuuuu!</i>
	Eta fiuuu! Pinpoxen etxea oso-osorik eraman zuen haizeak.
	Ai ama! Nire etxea. Non dago nire etxea?
	Nire jantziak. Non daude nire jantziak? Zer jantziko dut bihar? Ñiiii...
	Pinpox negarrez ari zela ikusita, beste animaliak errukitu egin ziren.
	Uhunzango gaixoa. Ez al duzu etxerik?
	Ez, haizeak dena eraman du.
	Guk lagunduko dizugu. Maitagarriari deituko diogu.
	Eta animaliek Maitagarri deitu zioten.
	Maitagarri, etorri!
	Zer gertatzen da?
	Begira Pinpox gaixoa. Etxerik ez du. (Eta negarrez ari da). Lagundu, mesedez!
	Beno, beno. Lagunduko diot. <i>Ziu, fiu, ufala!</i> <i>Zure etxea eta gauzak</i> <i>Zurrunbilo-zurrunbilo</i> <i>Haizeak ekar ditzala!</i>

	<i>Fiuuu, fiuuu...!</i>
	Eta haize bolada batek ekarri zuen berriro ehunzangoaren etxea. Eta Pinpoxek ez zion gehiago inori burlarik egin.
	Hala bazan ez bazan, sar dadila kalabazan....

IPUINA AITZAKIA

7. Ipuinaren abestia

Harroputz kakaputza
Pinpox ehunzangoa,
denei burla eginez
begira, hor doa.
Lotsaturik utzi du
marigorringoa
eta beldurturikan
zizare gajoa.

*Tip-tipi-tap, ehunzangoa
tip-tipi-tap, begira hor doa!*

Haize zurrunbiloa
badatorrela bai,
Pinpox etxerik gabe
geratu dela, ai!
Gure ehunzangoa
ez dago, ez, lasai
zikin eta goserik
ez baitu bizi nahi.

*Tip-tipi-tap, ehunzangoa
tip-tipi-tap, begira hor doa!*

Denek deitu diote
Maitagarriari,
zigor bat emateko
Pinpox gaiztoari.
Maitagarriak esan
dio haizeari
etxea eramateko
ehunzangoari.

*Tip-tipi-tap, ehunzangoa
tip-tipi-tap, begira hor doa!*

Beste animaliek
hartu dute pena,
hori da Pinpoxekin
gertatu zaiena.
Eta orain bera da
denetan onena,
zigorra barkatuta
konpondu da dena.

*Tip-tipi-tap, ehunzangoa
tip-tipi-tap, begira hor doa!*

Helburu didaktikoak:
III.15 (H)- III.30 (MUS), III.32(MUS)

Etengabeko ebaluazioa:
NORTASUNA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak: AFEKTIBOAK,
KOMUNIKATIBOAK

Jarduera mota: MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea:



LIBREA

Materiala: 2. CDa, 12. ABESTIA

Jarduera hau egiteko espazioa:
HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Ikusi Jarduera konstanteak: Ipuinaren abestia.

8. Ipuinaren elkarrizketa-jolasa hatzamarrekin

PROZEDURA

Fitxa-liburuko txotxongiloak erabiliz, elkarrizketa txikiak bideratuko ditugu.

Behin batean bazen Pinpox ehunzangoa. Oso harroputza zen. Eguna ispiluari begira pasatzen zuen. Jantzi asko zeuzkan.

Kapela gorria jantziko dut. Ez, urdina.

Oinetako berdeak jantziko ditut. Ez, botak.

Zein ederra naizen!
Paseatzera noa.

Helburu didaktikoak:
I.13, II.14(I), III.1(H)-12(H)

Etengabeko ebaluazioa:
NORTASUNA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK,
GIZARTERATZEKOAK, MOTORRAK

Jarduera mota: MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea: LIBREA

Materiala: 11. FITXA

Jarduera hau egiteko espazioa:
ADIERAZPEN TXOKOA

9. Gure pertsonaiak

PROZEDURA

Pinpoxen irudiarekin horma-irudi handi bat egingo dugu, eta Pinpoxen izena aldamenean jarri. Margotze-lanetan hurrek lagun dezakete, talde txikitan antolatuz. Pixka bat animatzen bagara, Pinpoxentzako gorbata eta txanoak ere egin ditzakegu, horman Pinpoxen marrazkia zintzilikatzen dugunean, jantziak zertxobait aldatu ahal izateko. Gorbatak eta txanoak itsasteko, belkro pusketa bat ipiniko dugu elementuen atzealdean edo dagokien lekuan.


Era berean, jolas bat ere egin daiteke. Kortxo baten gainean Pinpoxen gorputzaren marrazki bat itsatsi, eta ume bati begiak estali. Ume horrek, besteen aginduei jarraituz, Pinpoxi gorbata eta txanoa bere lekuan ipini beharko dizkio.

Helburu didaktikoak:
I.9, III.8(H), III.20(PLAS)

Etengabeko ebaluazioa:
ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK,
MOTORRAK

Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea:  LIBREA

Materiala: PAPER HANDIA, MARGOAK, BELKROA ...

Jarduera hau egiteko espazioa:
ADIERAZPEN TXOKOA


JANTZIAK

10. Jantziei buruzko elkarrizketa

JARDUERA PLANIFIKATU

Elkarrizketa planifikatzeko orduan, oinarrizko elementu hauek izan beharko ditugu kontuan:

1. Haur guzien parte-hartzea lortzea.
2. Elkarrizketa egiteko lekua: eroso eta komunikazioa errazten duena izan behar du. HARRERA TXOKOA
3. Jarduera aurrera eramateko zenbat denbora beharko den aurreikusi.
4. Ondo pentsatu galderek zer tipologia eduki behar duten:
 - Galdera irekiak egin, baina haurren hizkuntza-kompetentzietara egokituta.
 - Pentsarazten duten galderak egin.



HEZITZAILEAK BERE ESKU-HARTZEAREN ERREBISIOA EGINGO DU

Haurren interesak

- Haurrak beren esperientziak kontatzera bultzatu dituzu jardueraren bitartez?
- Haurren interesak lehenetsi dituzu?

Erronka kognitiboak

- Sortzen diren galderak ikasleek erantzun ditzaten ahalegintzen zara, ala erantzuna ematen duzu?
- Hipotesiak aurkezteko, arrazonamenduak egiteko, iritziak emateko aukera eskaintzen duzu?
- Azaldu diren ideiak laburbiltzen eta biribiltzen dituzu jardueraren amaieran?

Sekuentzia didaktikoa

1. JANTZIEN TXOKOA

PROZEDURA

Hasiera. Elkarrizketa sortu gorputzaren eta jantzien inguruan: Zer daramagu jantzita?

Aurreko unitatean ikusi genuen bezala, jantziak aldatu egiten ditugu eguraldiaren arabera: ez gara berdin jantzten euria eta hotza egiten duenean edo eguzkia eta beroa dagoen egunetan. Ipuineko Pinpox gogora ekarri dezakegu.

Gure gorputzari atalez atal begiratu diezaiokegu (burua, enborra, hankak, oinak...), eta azter dezakegu atal bakoitzean zer daramagun jantzita.

Jantziak janzen eta kentzen jolastea ere asko gustatzen zaigu, horregatik, jantzien txokoa munta dezakegu gelan.

Garapena

Gelan izan ditzakegun arropak bildu (halakorik baldin badaukagu), eta haur taldearekin jantzien txokoa non kokatu erabaki.

Bestetik, etxekoei laguntza eskatzea proposatuko diegu, eta horretarako, taldetxoak egingo ditugu eta ardurak banatuko dizkiegu.

Denen artean oharra idazteko mezua eraikiko dugu. Hezitzaileak idazkari-lana egingo du, mezua idatzi, eta txukun prestatuko du etxera eraman dezaten.

-Taldea batek kapelak eskatuko ditu etxean.

-Beste talde batek lepoko zaharrak edo eguzkiko betaurrekoak.

-Beste batek arropa...

Egun pare batez gauzak biltzen joango gara, eta ondoren sailkatzeko momentua etorriko da.

Txoko guztietan bezala, honetan ere arauak jarri eta errespetatu beharko ditugu.

Arauak ere denen artean adostuko ditugu. Nahi bada, oharren zerrenda idatzi eta txokoa jarriko dugu.

Amaiera

Jantzien txokoa antolatuta daukagunean, jolastera!!

Oharra:

Txoko honetan oso argazki politikak atera ditzakegu, eta horiek oroigarri politikak izan daitezke, eta erabilgarriak ere bai, jantzien txokoa zer egin genuen gogoratzeko.

11. Jantzien txokoa jolasten

PROZEDURA

Pinpox bezala, apain-apain jarriko gara ispiluaren aurrean, eta daukagun arrokekin, ipuinaren pasarte bat antzestu dezakegu. (Horretarako, ipuinaren elkarrizketa txikiak, txontxongiloekin jolasteko erabili ditugunak, aprobetxa ditzakegu).

Horren ondoren, txokoa libreki erabiltzeko tartea utziko diegu haurrei.

HEZITZAILEAREN EGINKIZUNA

Txokoa egin daitekeen jarduera honen aurkezle eta eredu izango da hezitzailea. Bestetik, behaketaz eta txokoaren kudeaketaz arduratuko da.

Helburu didaktikoak:
I.4-12, II.3 (I)-4 (I), II.17 (MAT), II.19 (MAT)

Etengabeko ebaluazioa:
ADIERAZPENA, PROBLEMEN EBAZPENA

Gaitasun motak: MOTORRAK, KOGNITIBOAK,
GIZARTERATZEKOAK

Jarduera mota: MOTIBAZIOA,
ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea: LIBREA

Materia: JANTZIEN TXOKOAN DAGOEN
MATERIALA

Jarduera hau egiteko espazioa:
JANTZIEN TXOKOA

12. Jantzien koloreak behatu

PROZEDURA

Koloreen behaketa egiteko, ez dugu beti ilustrazioetara edo kolore grafikoetara jo beharrik. Nahikoa dugu egunero soinean daramatzagun objektuek eta inguruan dauzkagunek izaten dituzten koloreak behatzea. Jantziek kolore ugari izaten dituzte, era askotara konbinatuak. Beraz, jantzietatik abiatuta ekingo diogu koloreen behaketari.

Koloreen izendatzeari berari garrantzia emateaz gain, jantzien kolore-aniztasunari begiratuko diogu: *"Begira Mainerrek zenbat kolore ekarri dituen gaur!", "Begira zer kolore dauzkadan nik!"*

Zintzilik dauden jantziei begiratu eta horietako bakoitza bere jabearen izenarekin lotu. *"Txamarra marroi hau Anderrena da... zein polita! Gainera, ez dauka kolore bakarra, eta begira zer kolore daukan poltsikoen ertzetan! Hara beste hau!... Norena da?"*

Jantziak multzokatu eta konbinazioak egin, lurrean, mahai gainean edota esekitokietan, baina multzoak eginez betiere.

Bakoitzak adieraz dezala gelan ditugun koloretatik zein gustatzen zaion gehien (argizariak, plastikodekorrak...).

Helburu didaktikoak:
II.3(I), III.13(H)

Etengabeko ebaluazioa:
ULERMENA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK,
KOGNITIBOAK

Jarduera mota: MOTIBAZIOA,
ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea: LIBREA

Materiala: HAURREN ARROPAK

Jarduera hau egiteko espazioa:
HARRERA TXOKOA

JANTZIAK

13. Gorputzak ukitu

KORROAN ALAI-ALAI

Apatx egin eta lurrean eseri naiz. (bis)
Besoak gora-gora, zutik jarri orain.

*Ai! Trula, trulalai,
korruan alai-alai.
Ai! Trula, trulalai,
korruan alai-alai.*

Hau da nire eskua, txikia benetan;
hau da beste eskua, txikia benetan;
hau da zure eskua, txikia benetan.

Ai! Trula, trulalai...

Helburu didaktikoak:
I.1, III.14 (H), III.15 (H), II.23 (MAT), III.30 (MUS),
III.32 (MUS)

Etengabeko ebaluazioa:
ADIERAZPENA, NORTASUNA

Gaitasun motak: AFEKTIBOAK,
GIZARTERATZEKOAK, KOGNITIBOAK, KOMUNI-
KATIBOAK, MOTORRAK

Jarduera mota: ARAKETA, MOTIBAZIOA,
ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzea: LIBREA

Materiala: 2. CDa, 13. ABESTIA

Jarduera hau egiteko espazioa:
HARRERA TXOKOA

Hau da nire belarria, polita benetan;
hau da beste belarria, polita benetan;
hau da zure belarria, polita benetan

Ai! Trula, trulalai...

Hau da nire ukondoa, gogorra benetan;
hau da beste ukondoa, gogorra benetan;
hau da zure ukondoa, gogorra benetan.

Ai! Trula, trulalai...

Orain hemen nire hanka, luzea benetan;
Orain hemen beste hanka, luzea benetan;
Horra hor zure hanka, luzea benetan.

Ai! Trula, trulalai...

PROZEDURA

Abestiak dirauen bitartean, eta letrari jarraituz, aldian-aldian aipatzen dituen gorputz-atalak ukitu-ko ditugu, lehenik gureak, eta aldamenekoarenak ondoren, pertzepzio eragingarriak izateko, ikasleek beren gorputza ezagutzeko eta elkarren arteko diferentziak barneratzeko, eta beren irudia osatzen laguntzeko. Irakasleak gidatuta egingo da behaketa hau, hasieran, behintzat, ukitzen dugun atalaren nolakotasunak esan ahal izateko.

Abestia bukatu ondoren, ikasleak binaka jarriko ditugu, eta pixkanaka-pixkanaka gorputz-atalak aipatuko ditugu eta zenbait deskribapen ere egingo ditugu:

*Ukitu zuen lagunaren belarria, ukitu begiak ere, baina kanpotik noski, lagunak begiak itxiak ditue-
nean, begiak barrutik ukitzen baditugu mina har dezakegu eta. Bi lagunak ileak ukitzerakoan desber-
dintasunik aurkitzen al dugu? Gure gorputzaren zein lekutan sentitzen dugu gehiago lagunaren
eskua?...*

14. Gorputzaren atalak identifikatu

PROZEDURA

Gorputzaren osotasunaren barruan atalak deskubritzeko, hona hemen lelo bat:

*Seinala, seinala ezazu
zure hatz bizkorrarekin
zure...*

Hezitzaileok gorputzaren atalak aipatuko ditugu, eta haurrek hatzarekin seinalatuko dituzte. Ondoren, hezitzailea ikasleekin batera jolastuko da, hitza ikasleren bati eskainiz. Pixkanaka-pixka-
naka, guztiek izendatuko dituzte gorputz-atalak.

Helburu didaktikoak:
I.1, II.3 (I), III.13 (H)

Etengabeko ebaluazioa:
ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOGNITIBOA,
KOMUNIKATIBOAK, AFEKTIBOAK

Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea: LIBREA

Materiala: —

Jarduera hau egiteko espazioa:
HARRERA TXOKOA

15. Hiztegi-jokoak

Gorputzaren atalak izendatu eta bakoitzaren izen idatziarekin lotu. Unitate honetan, irudidun hiztegia erabil dezakegu idatzia- ren eta marrazkiaren arteko loturak egiteko. Txartel gutxi batzuekin hasi, eta pixkanaka kopurua igotzen joango gara egu- nak pasatu ahala.

Ikusi jarduera konstanteak: hiztegia.

PROZEDURA


Ohi bezala, hiztegia hainbat irizpideren arabera sailka dezake- gu: gorputz-atalak direnak eta ez direnak, jantziak direnak eta ez direnak, buruan daudenak eta ez daudenak... Haur taldeak hiztegia sailkatzeko irizpideak proposatzen baditu, horiek hobetsiko ditugu.

Bestetik, hezitzaileak zenbatzaileak erabiliko ditu, eta haurrak aginduei jarraituko zaizkie:

*Ekar ezazue uztai barrura, buruan aurki dezakegun atal **baten** irudia.*

*Ekar itzazue... buruan aurki ditzakegun atal **batzuen** irudiak.*

*Ekar itzazu hiztegiak buruko ataltzat jotzen dituen **guztiak**.*



16. Olerkia: 'Goian daukat burua'

PROZEDURA

Gorputz-adierazpenaren erritmoa kontrolatzen hasteko, memorizatze-gaitasuna hobetzeko, eta hizkuntzaren ludikotasu- nean sakontzeko... olerki bat errezitatzen saiatuko gara, eta gorputzaren bidez adierazten.

Goian daukat burua,
erdian bularra,
alboetan besoak,
esku eta atzamarrak,
sabelaren erdian,
zilborra kaxkarra,
atzeko ipurditik
bota dut puzkarra.

Haurren lan-koadernoan, gorputz-atalak banatuak dituen fitxa bat aurkituko dugu. Ikasleei fitxa honekin zer egin dezaketen pentsatzeko aukera emango diegu (erantzun bat baino gehiago onartuko dugu): guraizez moztu eta orrialde batean itsatsi, puntzoiez zulatu eta zatiak elkarren artean itsatsi... Erantzun posible hauek jasotzeko, honelako galderak egin ditzakegu:


Zer ikusten da marrazki honetan?

Zenbat zati ikusten dira?

Zein da zati bakoitzaren izena?

Zer egin genezake honekin?...

Gorputz-atalak: burua, enborra, besoak, hankak...



17. Gure gorputzaren silueta egin

PROZEDURA

Gure gorputza marrazkien bitartez irudikatzen hasteko, diapositiben proiektoreak ematen duen argiaz baliatuko gara: haur bat argiaren eta hormaren artean kokatuko dugu, eta horman, alde zuzenetik itsatsitako paper batean, haren silueta marraztuko dugu. Beste era batera ere egin daiteke: lurrean ikasle bat etzango dugu paper handi baten gainean, eta arkatzez, errotulagailuz, argizariz... markatuko dugu silueta. Jolastokian ere egin genezake, haurra lurrean etzanda eta klarionaz silueta marraztuz.

Helburu didaktikoak: III.17 (PLAS), III.19 (PLAS)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, MOTORRAK
Jarduera mota: MOTIBAZIOA, ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzeta: LIBREA

Materiala: PROIEKTOREA, PAPER HANDIA, ERROTULAGAILU LODIA, MARGOAK

Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

18. Artelana: Joan Miró, 'Goizeko izarra'

PROZEDURA

Pintura hau, kolore aldetik, ez da Miróren estiloaren adierazgarriarik onena, baina gorputzak haur txikien modura marraztu dituelako aukeratu dugu. Dena den, Miróren beste lan batzuk erraz eskura ditzakezue, nahi izanez gero; oso egokiak dira adin hauetako hurrek beha ditzaten, elkarrizketa interesgarriak sor baitaitezke. Beste laminarik lortzen baduzue, plastifikatu eta gelan ipini.

Zer marraztu du Joan Mirók koadro honetan? Zenbat urte uste duzue izango zituela Mirók marrazki hau egin zuenean? Nola deituko genioke hondoko koloreari? Zein gorputz-atal marraztu ditu Mirók eta zein zati ez ditu marraztu?

Irakasleak koadro errealista bat eraman dezake gelara, Miróren marrazkiarekin konpara dezaten.

19. Igarkizunak

PROZEDURA

Luze luzea duzu, aurpegi erdian,
bi zulo txiki ditu, puntaren azpian,
kandelak pizten dira haien sukaldean.
Zer da?
(Sudurra)

Busti-bustia dago, eta ez da ura;
Oso berritsua da eta zu ez zara;
Hura kenduz gero isilduko zara.
Zer da?
(Mihia)

Euskara maila apalagoa dutenez ere erraz asma genitzake igarkizunak:

Bi ditugu aurpegian;
kolore desberdinetakoak izan daitezke.
Horien bitartez ikusten dut,
zuek neska-mutil politikak zaretela.


Ikasleak igarkizunak egitera animatzeko, hiztegi-txartelak bana ditzakegu haien artean; txartel bakoitzean azaltzen denari buruz zerbait esan behar dute ikasleek, eta besteon artean asmatu behar dugu zer marrazki dagoen txartelean. Ariketa hau, hala ere, irakasleak egin dezake lehenik: txartel batean azaltzen dena deskribatu, eta haurrak saia daitezela asmatzen. Deskribapen horiek entzunda, ikasleak errazago animatuko dira berea egitera.

Helburu didaktikoak:
I.1, III.1 (H)-2 (H)-3 (H)-13 (H)-15 (H)

Etengabeko ebaluazioa:
ULERMENA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOGNITIBOAK,
KOMUNIKATIBOAK

Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea:  LIBREA

Materiala: —

Jarduera hau egiteko espazioa:
HARRERA TXOKOA

20. Hiztegi-jokoak

PROZEDURA


Unitate honetan ageri diren hiztegi-txartelak erabiliko ditugu jolas hau egiteko. Txartelak haurren artean banatu eta bakoitzari bat emango diogu. Haur bakoitzak bere txarteleko irudia erakutsiko digu guztioi, banan banan eta txandaka. Denok saiatu behar dugu erakusten zaizkigun objektuak memorizatzen, eta gogoan hartzen zer irudi duen haur bakoitzak.

Helburu didaktikoak:
I.9, III.13(H), III.16(MAT)

Etengabeko ebaluazioa:
ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOGNITIBOAK,
KOMUNIKATIBOAK, MOTORRAK

Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzea:  LIBREA

Materiala: HIZTEGI TXARTELAK

Jarduera hau egiteko espazioa:
HARRERA TXOKOA

SEKUENTZIA DIDAKTIKOA

2. COLLAGEA

PROZEDURA

Hasiera: Gure gorputza ispiluan behatu

Pinpox askotan jartzen omen zen ispilu aurrean bere gorputzari begira. Guk ere berdin egingo dugu: ispiluan begiratu eta nolakoak garen esaten saiatuko gara.

Ispilu aurrean mugimenduak egitera animatuko ditugu haurrak; ispiluak gure mugimenduak erakusten dizkigula deskubrituko dute eta gorputz-adierazpenerako aukera asko sortzen direla.

Garapena

Aldizkariak gelara eraman eta pertsonen argazkiak moztuko ditugu. Argazki hauekin, collage bat egin dezakegu paper handi batean. Lana egiten ari garen bitartean, mozten ditugun horien ezau-garri fisikoak deskriba ditzakegu.

Amaiera

Moztutako gorputz-atalekin adierazpen plastiko bat osatuko dugu denen artean.

21. Gure gorputzeko itzalarekin jolasten (itzal txinatarrek)

PROZEDURA

Siluetak egiteko egin dugun bezala, proiektorea erabili dezakegu hemen ere. Gela ilundu eta izara zuri bat hartuta, itzalekin jolas egin dezakegu txinatarren modura.

Izararen atzean dagoen haurrak mugimenduak egin ditzake eta izararen beste aldean daudenek asmatu egin behar dute zer egiten ari den.


Bestetik, itzalak egiteko, hainbat tresnarekin esperimenta dezakegu: liburu bat, arkatza, gauza txikiak... kanta bat antzestu.

HEZITZAILEAREN EGINKIZUNA

Lehenik eta behin, haurrentzako ekintza erakargarria egitea izango da gure eginkizuna. Gerta daiteke ikasleren bat beldurtzea, hortaz, hobe da, badaezpada, gela ez gutziz iluntzea.

Hezitzaileak eredia emango du, eta taldea motibatuko du esperimentazioak egiteko.

Bukatzeko, hainbat galdera proposatuko ditu haurrak pentsatzen jartzeko.



Zergatik ez da ikusten izararen beste aldean dagoen haurraren aurpegia?

Zergatik ez dira besoak nabaritzen gorputzari itsatsita daudenean?

Bi ume badaude bata bestearen atzean (izararen atzeko aldean), zergatik ikusten da bakarra?

Helburua ez da hurrek erantzun zientifikoak ematea, horren inguruan teoriak eraikitzea baizik.

22. Dutxa antzeztu

Zehar lerroa: osasuna, higieena

XALALA! RIKI-RIKI!

Xalala!
Riki-riki!
Xalala!
Riki-ri!
dutxan dardaraka
ur hotzarekin.

Hartu esponja eta xaboitu,
burua busti,
igurtziz garbitu
txilbor eta titi.
Jirabira ipurdia
mugitu beti,
bi oinetan bukaera
ez dago gaizki.

Helburu didaktikoak: II.4-6, II.7 (I), III.14 (H); II.30 (MUS), II.32 (MUS)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, NORTASUNA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, GIZARTERATZEKOAK, AFEKTIBOAK

Jarduera mota: MOTIBAZIOA, ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzea: LIBREA

Materiala: 2. CDa, 14. ABESTIA

Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Gorputz mimikaz adieraziko dugu garbitzen ari garela. Hezitzaileak keinuak egingo ditu hasieran, eta hurrek keinu horiek zer adierazi nahi duten asmatuko dute: dutxatu, belarriak, hortzak, azazkalak garbitu... Ondoren, antzezen horiek egitera animatuko ditugu haurrak. Abestiak aukera aproposa eskaintzen digu horretarako.

Adin hauetan haur askok beldurra izaten diote burua garbitzeari. Pentsatzekoa da gurasoek gai hau lantzen dutela, baina bainuontzian baino lasaiago egongo dira gela barruan; aukera aprobeitza deza-kegu horretaz hitz egiteko eta argibideak emateko: xaboia begietan sar ez dadin, burua atzera botatzea dela onena; burua garbitzea beharrezkoa dela; burura noizbehinka bisitari desatseginak etortzen direla (zorriak)...

23. Gure aurpegia

PROZEDURA

Zehar lerroa: desberdinak gara

Gure argazkiak hartu eta aurpegiak beha ditzakegu; aldizkarietatik ere atera ditzakegu jendearen argazkiak. Aurpegietan arraza desberdinen berezitasunak aurki ditzakegu: ekialdekoen begiak, zenbait afrikarren sudurra...

Helburu didaktikoak: I.1-6, III.17 (PLAS), III.22 (PLAS)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, MOTORRAK

Jarduera mota: INFORMAZIOA, ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzea: LIBREA

Materiala: ARGAZKIAK, ALDIZKARIAK, ALBUMAK...

Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

Maskarak ere margo ditzakegu, pertsonaia baten eta bestearen ezaugarriak bilduz. Gure aurpegiaren itxura aldatzera ere jolas gaitzke, keinuak eginez, begiak itxuraldatuz, sudurra altxatuz...

Haurrei gogorarazi behar zaie aurpegiaren itxurak ez duela zerikusirik pertsonaren izaerarekin. Alegia, aurpegi itsusia duen jendea txintxoia izan daitekeela eta aurpegi polita duena ez horrenbeste. Badugu adibide bat: Olentzero. Ez du aurpegi polita, ez da oso garbia, ikatzez zikindua dauka, baina gurekin eta euskal haur eta heldu guztiarekin oso ongi portatzen da.

GAIA ABERASTEN

Aurpegiz desberdina den jendearen bilduma egin dezakegu (arraza desberdinak).

Gai honen inguruko liburuak eta aldizkariak ere bilatuko ditugu.

24. Gure enborra

PROZEDURA

Gure enborra non dagoen adierazi ondoren, enborraren mugimenduak behatuko ditugu: aurrera, atzera, alboetara; enborra nola mugitzen den arnasa sakon hartzen dugunean... Azkenik, enborra zein beste gorputz-atari lotuta dagoen aztertuko dugu: goian, lepoa du; azpian, hankak; alboetan, besoak. Bihotza sentitzen ere saia gaitzke, eskuak eta belarriak lagunaren enborrera gerturatuz.

Helburu didaktikoak: 1.1
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOGNITIBOAK, MOTORRAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: LIBREA
Materiala: —
Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

25. Gure eskuak ezagutu eta eskuen marka egin

PROZEDURA

Oraingoan eskuen funtzioak ezagutzeko aukera eskaini nahi diegu ikasleei. Hasteko, eskuekin zer gauza egiten ditugun adieraziko dugu:

ESAN, ESAN AMA

*Esan, esan ama,
jakin, jakin nahi dut,
jakin zertarako
ditudan eskuak.*

Musikak sortzeko,
hori baita kontua.
A! Bai! A! Bai!

Gauzak ukitzeko,
hori baita kontua.
A! Bai! A! Bai!

Esan, esan ama...

Esan, esan ama...

Laztan egiteko,
Hori baita kontua.
A! Bai! A! Bai!

Helburu didaktikoak: .1-11, II.3(I)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOGNITIBOAK, MOTORRAK, KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: MOTIBAZIOA, ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: LIBREA
Materiala: 2. CDa, 15. ABESTIA
Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

Ondoren, zenbait mugimendu egingo ditugu eskuekin: gogor itxi, gogor ireki, hatzak binaka ukitu, hatzekin elkar laztandu...

26. 'Lehenengotxo hori'

Lehenengotxo hori,
punta behatz hori,
beste guztien artean
lodia da hori.

Bigarrentxo hori,
punta behatz hori,
beste guztien artean
bizkorra da hori.

Hirugarrentxo hori,
punta behatz hori,
beste guztien artean
luzea da hori.

Laugarrentxo hori,
punta behatz hori,
beste guztien artean
alferra da hori.

Bosgarrentxo hori,
punta behatz hori,
beste guztien artean,
txikia da hori.

Lalara, lalara...

Helburu didaktikoak:
I.1-11, II.24 (MAT), II.25 (MAT), II.26 (MAT),
III.17 (PLAS), III.19 (PLAS), III.21 (PLAS),
III.20 (MUS), III.22 (MUS)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK,
KOGNITIBOAK, MOTORRAK

Jarduera mota: MOTIBAZIOA,
ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzea:



LIBREA

Materiala: 2. CDa 16. ABESTIA, 3. FITXA

Jarduera hau egiteko espazioa:
HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Plastikan erabiltzeko moduko beste teknika bat deskubritzeko aukera emango digu jolas honek; izan ere, eskuen marka jarriko dugu ikasleen lan-koadernoan. Hainbat eratako markak egin daitezke eskuekin (besteak beste, esku baten marka beste eskukoaren gainean jar daiteke. Horretarako, ikaslearen eskua tenperatan busti beharko dugu alde zurretik. Zenbaki ordinalak landuko ditugu abesti honen bitartez (lehenengoa, bigarrena, hirugarrena...).

Aurretik hatzekin jolasteko beste olerki txiki bat aipatu genuen. Memento ona izan daiteke hura gogoratzeko:

Honek arrautza ekarri...

Bi eskuen artean zenbat hatz ditugun konta dezakegu, zenbakien segida errezitatzeko aitzakia bezala.

27. Gorputza era librean marraztu

PROZEDURA

Gorputzaren inguruko azterketa egin dugu unitate honetan, eta nahiko motibazio izan dute hurrek beren adierazpen librea estimulatzen.

Paper zuriaren gainean, talde txikian jarrita, gorputzaren marrazkiak egiten jarriko ditugu haurrak (haurra eta bere lagunak, haurra eta senideak). Beste une batean, ariketa bera bakarka egitea proposatzen dugu, bakoitzaren ekoizpenari behatzeko.

Helburu didaktikoak:
III.17 (PLAS)

Etengabeko ebaluazioa:
ADIERAZPENA, NORTASUNA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK,
MOTORRAK, KOGNITIBOAK

Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzea:





LIBREA

Materiala: PAPER A ETA MARGOAK

Jarduera hau egiteko espazioa:
ADIERAZPEN TXOKOA

28. Binakako elkarrizketatxoak: IPUINA GOGORATUZ

Helburu didaktikoak: I.6, III.12 (H)-13 (H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: AFEKTIBOAK, KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA

Taldekatzea:  

Materiala: 5. FITXA
Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

Txontxongiloekin elkarrizketa-jolasa egiteko bi aukera proposatzen ditugu.

PROZEDURA

Ikusi jarduera konstanteak: elkarrizketa-jolasa.

(1)

Irakaslea, haur guztien laguntzarekin	Baina Maitagarrik den-dena ikusi zuen eta...
Maitagarri:	Pinpox, etorri hona!
Pinpox:	Bai, Maitagarri. Zer nahi duzu?
Maitagarri :	Harroputz hutsa zara eta zigortu egingo zaitut.
Pinpox:	Ez, mesedez.
Maitagarri :	Bai,bai eta bai! <i>Ziu, flu, ufala!</i> <i>Zure etxea eta gauzak</i> <i>Zurrunbilo, zurrunbilo,</i> <i>Haizeak eraman ditzala!</i> <i>Fiuuuu, fiuuuu!</i>
Pinpox:	Ai ama...! Nire etxea! Ñiiii... Ai ene...! Nire jantziak! Ñiiii...

(2)

Irakaslea, haur guztien laguntzarekin	Eta animaliek Pinpox negarrez ikusi zutenean, Maitagarri deitu zioten.
Animaliak:	Maitagarri! Maitagarri! Etorri!
Pinpox:	Zer gertatzen da hemen?
Animaliak:	Begira Pinpox, negarrez ari da. Etxerik ez du. Lagundu, mesedez!

Pinpox:	Beno, beno, lagunduko diot. <i>Ziu, flu, ufala!</i> <i>Zure etxea eta gauzak</i> <i>Zurrunbilo, zurrunbilo,</i> <i>Haizeak ekar ditzala!</i> <i>Fiuuuu, fiuuuu!</i>
Animaliak:	Eskerrik asko, Maitagarri.

29. Abestia

TXIKI, TXIKI, TXIKIA

Txiki txiki txikia
ikusten naiz kalean.

Handitzen, handitzen,
hasi naiz handitzen,
txikia izanik
asko maite zaitut, nik.

Bi begi ikusteko,
bi belarri entzuteko.

Handitzen,
handitzen...

Sudurra usaintzeko,
ahoa dastatzeko.

Handitzen,
handitzen...

Eskuak ukitzeko,
bi oinak ibiltzeko.

Handitzen,
handitzen...

Burua pentsatzeko,
bihotza maitatzeko.


Handitzen,
handitzen...

Helburu didaktikoak: I.1, III.32(MUS)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, NORTASUNA

Gaitasun motak: AFEKTIBOAK, KOMUNIKATIBOAK,
KOGNITIBOAK

Jarduera mota: MOTIBAZIOA, ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzea: 

Materiala: 2. CDa, 17. ABESTIA

Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Abesti hau gorputzaren beste atal batzuen funtzioak zein diren ezagutzen hasteko motibagarria izan daiteke: hortzak, mihia, betileak, zakila, alua, ipurdia.

Sexu-organoen aipamena ere egin beharra dago, bai ikuspuntu fisiologikoari dagokionez, bai eta afektibotasunaren eta plazeraren ikuspuntuari dagokionez ere.

30. Gorputz-atalekin soinuak sortzen

PROZEDURA

Gorputz-atalekin soinuak egiten saiatuko gara, hainbat eratako soinuak deskubritzeko: eskuekin txalo egin, eskuak igurtzi, bularra jo, besoak igurtzi, zurrungak egin, ezpainak kliskatu, ahotik ponpatu, masailak lehertu, oinek lurra jo.... Ea zenbat soinu deskubritzen ditugun. Haurrek soinuak egiten dituztenean, zer gorputz-atalekin egin dituzten esan beharko dute.

Deskubritu ditugun soinu horietakoren batekin erritmo bati jarraitzera animatuko ditugu; irakasleak, eta, ahal dela haurrek ere bai, erritmo batzuk definitu eta horiek imitatzen saiatuko gara, baina era librean, betiere.

Helburu didaktikoak: III.28 (MUS), III.29 (MUS)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, MOTORRAK
Jarduera mota: MOTIBAZIOA, ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: LIBREA
Materiala: —
Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

31. Entzunaldiak: musikaren erritmoak

PROZEDURA


Txaikovski-ren *Intxaur-hauskailua* baletaren atal bat aurkituko duzue musika CDan.

Txaikovski Errusian jaio zen, 1840. urtean. Hainbat musika-lan konposatu zituen: opera, baleta, obertura, poema sinfonikoak, sinfoniak, kontzertuak... Melodia errazeko lanak dira, gehienak bere herriko folklorea oinarrituak. Errusiar musikarien artean ezagunena da.

Hainbat erritmotako musikaren laguntzaz, haurrak libreki mugitzera gonbidatuko ditugu. Sentimenduak, emozioak eta beharrak adierazi eta komunika ditzatela nahi dugu, eta gorputzak dituen mugimendu- eta espresio-aukerak bila ditzatela.

Ondoren, **mugitu-gelditu** sekuentziei ekingo diegu: haurrek musikaren erritmoan dantzatuko dute eta, musika gelditzen denean, geldi-geldi geratu behar dira.

Saioa bukatzeko, musika geldituko dugu, edo musika oso lasai bat ipiniko dugu (aurreko unitatera-ko prestatutakoren bat, adibidez). Lurrean etzango gara, begiak itxiko ditugu, atsedena hartuko dugu eta arnasketa kontrolatuko dugu lasai eta sakon arnasa hartuz.

Helburu didaktikoak: I.5-6-7-8-14, III.26 (MUS)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, MOTORRAK, KOGNITIBOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea:  LIBREA
Materiala: 2. CDa, 18. ABESTIA
Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

3. INAUTERIAK: FESTA PRESTATZEN

Hasiera: Oneida eta Amerinen ipuina kontatu motibazioa pizteko

1. Hezitzailearen ipuin kontaketa: *Bi indiar txiki inauterietan*

Jarduera hau egiteko espazioa: LIBURUTEGIA

PROZEDURA

Jarduera honetan, beste edozein ipuin kontatzerakoan bezalaxe, ezinbestekoa da aldez aurretik testua irakurtzea eta kontaketa egiteko zer estrategia erabiliko dugun erabakitzea.

Ipuina kontatzeko, lagungarria izan daiteke elementu bereizgarriak erabiltzea (hauts magikoak, hitz magikoak, txano berezia, alfonbra...). Horrela, elementu horrek sarrera moduan lagunduko dio beti hezitzailearen kontakizunari. Espazio fisiko bera izateak ere funtzio berbera beteko du.

Hezitzailea taldearen aurrean jarriko da, denek ondo ikusteko moduan (aulki batean eserita...), eta ahalik eta giro goxoa sortzen saiatuko da.

HEZITZAILEAREN EGINKIZUNA

Ipuina kontatu aurretik:

- Giro afektiboa eta goxoa sortu.
- Hasierarako esaldia prestatu.
- Bukaerarako esaldia prestatu.
- Ahots-aldaketak nola egin pentsatu.
- Suspentsea nola sortu pentsatu.

2. Ipuinaren abestia

Materiala: 2. CDa, 19. ABESTIA

Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

Oneida indiar politik
lagun handi bat zuen.
Begi beltz-beltzak zituen:
Amerin mutila zen.
Oihanean bizi ziren
ibai baten ondoan.
Ez zekiten non zegoen
kaioen itsasoa.
PATZUN TZUNPATZUN
PATZUN TZUNPATZUN

Itsasontzi euskaldun bat
gerturatu zitzaien.
Gaueko izar guztiak
argitu zitzaizkien.
Euskal Herrira begira
arraunkada bizian
Inauteriko jaietan
denak zeuden herrian.
PATZUN TZUNPATZUN
PATZUN TZUNPATZUN.

Koloreetako ontzian
itsasora joan ziren.
Enbatarekin batera
gaua heldu zitzaien.
Amerin eta Oneida
oihuka hasi ziren.
Itsas olatu artean
biak galduta zeuden.
PATZUN TZUNPATZUN
PATZUN TZUNPATZUN

Margo bitxiz apainduz
lumak jantziz buruan
oihuka ibili ziren
dantzan eta kantuan.
Negarrez itzuli ziren
gurasoen ibaira.
Urte bat igaro eta
berriz Euskal Herrira!
PATZUN TZUNPATZUN
PATZUN TZUNPATZUN

Garapena: Mozorroa egin

3. Indiarren buruko zinta apaindu

Materiala: 6. FITXA

Jarduera hau egiteko espazioa: ADIERAZPEN TXOKOA

PROZEDURA

Indiarren jantzietan eta irudietan motibo geometriko askotarikoak ikus ditzakegu. Proiektuan egin beharreko eskulanak apaintzeko eta hurren grafomotrizitatea lantzeko aproposak izan daitezke. Gainera, motibo horiek irudiak errepikatuz edota txandakatuz sortzen dituzte; behean ageri denari, adibidez, mendia-biribila... dei diezaiokegu. Gaztelu forma ere landu dezakegu, marra bertikalak eta horizontalak txandakatu, puntuak eta biribilak... Hezitzaileak motibo bat baino gehiago proposa dezake, esate baterako, txalupa, indiarren etxea edo buruko zinta dekoratzeko. Hurrek aukeratuko dute zer motibo nahi duten, eta arbelean trazatzen saia daitezke.

Fitxan azaltzen diren bi erdiak ondo margotu ondoren, biak elkartu eta gure inauterian hurrek buruan jartzeko zinta egingo dugu. Agian norbaiti txiki samar geratuko zaio; hala bada, kartulina zati batez luza daiteke atzealdetik. Edozein kasutan, egokia litzateke kartulina batean itsastea, hau-tsi ez dadin.

Atzealdean nork bere izena idatz dezala eskatuko diegu. Hezitzaileak ere idatzi beharko du, noski, nahasketarik sor ez dadin.

4. Indiarren aizkora

Materiala: 7. FITXA

Jarduera hau egiteko espazioa: ADIERAZPEN TXOKOA

PROZEDURA

Lan-koadernoan aizkoraren profila paperean dugunez, kartoi gogor samarrean itsastea komeni da (kartoizko kaxa batean, adibidez). 40 zentimetro inguruko makila beharko dugu, eta soka ere bai, makila eta aizkora lotzeko. Apaintzeko, koloretako zinta eransgarriak edo artilezko hariak erabil ditzakegu.

5. Indiarren txalupa

Jarduera hau egiteko espazioa: TOKI ZABAL BAT

PROZEDURA

Gure konpartsa osatzeko, oso erraz eraiki dezakegu indiarren kanoa bat. Har itzazue kartoizko bi kaxa gutxienez (50 x 50 x 30 cm-koak, gutxi gorabehera) eta hondoa eta tapa kendu. Bata bestearren jarraian jarri, eta zinta eransgarri zabal batekin elkartu. Kartulina sendo samar batez, edota kartoiez, kanoaren aurreko eta atzeko muturrak eraiki eta itsatsi kaxen alde bietara. Ondoren, ertzak apaindu, ahal dela irudi geometrikoekin. Indiarren txalupa leku batetik bestera eraman ahal izateko, lotu soka bana (125 cm ingurukoak) kaxen alde banatan, hurrek bizkarretik zintzilik eraman dezaten.

6. Gure mozorroa

Jarduera hau egiteko lekua: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Dagoeneko aurreratu samarra dugu mozorroa, baina azken erabakiak hartu behar dira. Mozorroa oso ezaguna eta erraza denez, gurasoei oharrik ez bidaltzea proposatzen dugu, beraiek adieraz diezaietela ahoz (norbaitek zailtasunak dituela ikusiz gero, bidali oharra). Haurrekin hitz egin gelan zer eta nola egin behar duten. Aurpegia, adibidez, etxean ez margotzeko esan, gelan margotuko dutelako. Fleko edo parpailekin zer egin behar den adierazi, beraiek gurasoei esan diezaieten. Buruko zinta eta lumak ikastolan jar ditzakegu, beraz, ez ditugu etxera eraman behar. Aizkora ere badugu.

Errepikarazi haurrei etxean zer esan behar duten.

Lan honen gainean egotea komeni da, eta egunero galdetzea: ea etxean esan duten, josten ari diren...

Danborrak ere eska ditzakegu, ekartzen dituzten heinean, poli-poliki girotzen joan daitezten.

7. Iritzi bateratzea

Materiala: 2. CDko ABESTIAK; 8., 9. 10. FITXAK

Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Ia osatu dugu mozorroa, baditugu etxea, aizkora, txalupa... Abesti batzuk ere ikasi ditugu eta horiekin dantzatzen ere bai.

Nola egingo dugu gure agerraldia? Zer abestuko dugu? Zer dantzatuko dugu? Txalupa barruan irtengo al gara? Ilaran joango al gara? Zaldiak txoko batean jarriko al ditugu Mak Mikelen kantua dantzatzeko? Gurasoak gonbidatuko al ditugu? Erakutsi al diezue Jon Braunen abestia kantatzen eta dantzatzen?

Gidoi txiki bat antolatu eta atalez atal arbelean idatzi.

Hona hemen gidoi posible bat eztabaidarako:

1. Desfilea

Inauterietan abestia (2. CDa, 23. abestia)

2. Etxafero suziri

Abestu eta suziriak imitatu (2. CDa, 24. abestia)

3. Indiarrak gara

Aurkezpen-testu txiki bat edo antzerkitxo bat.

4. Indiarren festa

Txutxupetan (2. CDa, 25. abestia)

Jon Braun (gurasoekin batera) (2. CDa, 26. abestia)

Mak Mikel (2. CDa, 27. abestia)

Dunba-dun danborrak (8. fitxa)

5. Hamaietakoa / askaria

Lan-koadernoko fitxak ere ikusi, irakurri, eta falta diren datuak osatzen hasi beharko dugu (haurren izena, eguna, ordua...).

Lan-koadernoan hiru fitxa prestatu ditugu gurasoei egitarauaren berri emateko (8., 9. eta 10. fitxak). 2. musika CDan egitarauarekin zerikusia izan dezaketen abestiak jarri ditugu segidan, ero-soagoa gerta dakizuen.

8. Hamaiketakoa edo askaria

Jarduera hau egiteko lekua: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

*Festa bukatzeko egingo al dugu hamaiketakoa edo askaria?
Zer gustatuko litzaizueke?
Zer ekarriko du bakoitzak?*

Proposatzen dituzten jakien eta edarien zerrenda arbelean idatzi. Ondoren, bakoitzak zer ekarri behar duen galdetu eta antolatu. Egitarauaren fitxa batean hutsune txiki bat badago, zer ekarri behar duten idazteko. Beraiek beren modura idatz dezakete. Komeni da irakasleak ere idatz dezala ikasle bakoitzak zer ekarri behar duen, ezustekorik nahi ez badugu.

9. Festarako mozorrotzen

Jarduera hau egiteko lekua: GELA

PROZEDURA

Ikastolan jantzea ikaragarritzko istilua izan daitekeenez, eskatu hurrei galtza eta jertse flekodu-nak jantzita etor daitezela etxetik. Gero lumak eta buruko zintak jantzi, eta gerrian bakoitzari soka puska bat jarri gerriko modura, edo oihal puska bat. Gerrikitik zintzilik, aizkora.

10. Aurpegia margotzen

Jarduera hau egiteko lekua: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Jantzi ditugu gure mozorroak eta, orain, benetako indiarrek bezala, kolorez margotuko dugu aurpegia. Ondoren, gure burua ispiluan ikusiko dugu.

Festarako, irakasleak margotzea izango da egokiena, agian, baina jarduera hau unitatean zehar beste memento batzuetan ere egin daiteke. Ez litzateke txarra izango norberak bere aurpegia margotzea, ezta lagunartean elkarri margotzea ere. Ez ahaztu aurretik kremaren bat ematea; errazago garbituko dugu gero aurpegia eta azala babestuko dugu.

Amaiera: Inauteri festa

Oharra:

Inauteri festa nork bere errealitatera egokitu beharko du. Hemen proposatzen duguna aukera bat baino ez da.

Animo eta ondo pasa!

INAUTERI FESTARAKO KANTAK ETA IGARKIZUNAK

32. Igarkizunak

PROZEDURA

Definiziotik hitza asmatzera

Buru gainean lumak
baina ez naiz txoria,
bizkarra, arku eta
geziez hornia,
margo ugariekin
berriz, aurpegia,
inauteri garaian
uzten dut mendia,
kale erdian topa
nahi nuke zaldia.
(Indiarra)

Mikel Mendizabal

Hitzetik abiatu eta definizioa asmatzera

Haurrak igarkizunak asmatzera animatuko ditugu.

Indiarrek dituzte eta txoriek ere bai. Zer dira? (Lumak)
Haren barruan sartu eta errekan ibil gaitzke. (Kanoa, txalupa)
Festa handi bat da, eta denok mozorrotzen gara. (Inauteriak)

Helburu didaktikoak:
III.1 (H)-5 (H)-11 (H)-12 (H)-13 (H)

Etengabeko ebaluazioa:
ULERMENA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK,
KOGNITIBOAK, AFEKTIBOAK

Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA,
APLIKAZIOA

Taldekatzea: LIBREA

Materiala: —

Jarduera hau egiteko espazioa:
HARRERA TXOKOA

33. Inauteri jaietan

PROZEDURA

Inauteri jaietan festak hasi dira,
arin-arin, fandango eta kalejirak.
Goizez musikak eta gauzez suziriak
kantuan eta dantzan herritar guztiak.
Goizez musikak eta gauzez suziriak,
kantuan eta dantzan herritar guztiak.

Abesti honekin dantza egingo dugu. Zangoen eta besoen mugimenduak koordinatzen saiatuko gara. Biko neurrian eginiko kanta da, beraz, *bat-bi, bat-bi*, ibiliko gara. Besoak gora eta behera mugituko ditugu ibilian goazela.

Abesti hau festa egunean sarrera egiteko erabil daiteke.

Helburu didaktikoak:
II.9 (I), III.15 (H), III.32 (MUS)

Etengabeko ebaluazioa:
ULERMENA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK,
AFEKTIBOAK, MOTOREAK

Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzea: LIBREA

Materiala: 2. CDa, 23. ABESTIA

Jarduera hau egiteko espazioa:
HARRERA TXOKOA

34. Suziriak

ETXAFFERO ZUZIRI

Etxafero, suziri, suziri, etxafero,
su eman diogu eta gaude bero-bero.

Etxaferoak lehertzen gabilta festetan.
Gora gu! Gora haurrak! Inauterietan.

Etxafero, suziri...
Nagusiak dabilta beti haserretzen,
gu berriz ez gara, ez, sekula tristetzen.

PROZEDURA

Gure herri eta hirietan, festak ditugunean, suziriak botatzeko ohitura daukagu. Sorpresaz harrapatzen gaituztenean, pixka bat beldurtzen gara, baina oso dibertigarria da suziriak imitatzea.

Egingo al dugu proba? Ea bada, jarri eskua aho aurrean eta eman bueltak biribilean SSSSSSSSS egi-ten dugun bitartean, orain bi eskuak magalean, bixi-bixi kolpatuz, OOOOOOOOOOO!

Helburu didaktikoak:
I.6-8-15, II.9 (I), III.15 (H), 32 (MUS)

Etengabeko ebaluazioa:
ADIERAZPENA

Gaitasun motak: MOTORRAK,
KOMUNIKATIBOAK, AFEKTIBOAK

Jarduera mota: MOTIBAZIOA,
ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzea: LIBREA

Materiala: 2. CDa, 24. ABESTIA

Jarduera hau egiteko espazioa:
ADIERAZPEN TXOKOA

35. Jairako kanta: Txutxupetan

Txutxupetan txutxupetan,
Benedisebra.

Txutxupetan txutxupetan,
Benedisebra.(bis)

Bra! Bra! Benedisebra!

Bra! Bra! Benedisebra!

PROZEDURA

Haurrak, indiarrek balira bezala, biribilean belauniko jarriko dira, edo *apatx eginda* (eserita). *Txutxupetan* hitza datorrenean, marmarka bezala ahoskatuko dute, eta buruak makurtuta edota lurraren gainean jarriko dituzte. *Bra! Bra!* esaterakoan, ahotsaren tonua nabarmenki altxatuko dute, besoak jasoz (nahi bada euren artean eskua emanda, burua jasoko dute). Sekuentzia hau bitan edo hirutan errepika dezakete. Festari begira, biribilaren erdian indiarren etxea jar daiteke.

Helburu didaktikoak:
I.8-14, III.47 (MUS), III.30 (MUS), III.32 (MUS)

Etengabeko ebaluazioa:
ADIERAZPENA

Gaitasun motak: MOTORRAK, AFEKTIBOAK

Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA,
APLIKAZIOA

Taldekatzea: LIBREA

Materiala: 2. CDa, 25. ABESTIA

Jarduera hau egiteko espazioa:
ADIERAZPEN TXOKOA

36. Abestia: *Jon Braun*

PROZEDURA

Orain guk ere indiarrek bezala egingo dugu; surik ez daukagunez, erdian beste gauzaren bat jarriko dugu, eta haren inguruan dantzatuko gara.

Jon Braun indio txiki bat zen,
Jon Braun indio txiki bat zen,
Jon Braun indio txiki bat zen,
indio txiki bat zen Jon Braun.(bis)

Txiki bat, txiki bi, hiru indio txiki,
lau txiki, bost txiki, sei indio txiki,
zazpi txiki, zortzi txiki, bederatzia indio txiki,
hamar indio txiki, Jon Braun.

Jon Braunen abestia etxera eramango duten esku-programan idaztea pentsatu dugu (10. fitxa). Festa ikustera etortzen diren gurasoak parte hartzera animatu nahi genituzke, eta hau bezalako kantu erraz batekin ez dago aitzakiarik. Gurasoak askotan ikusle izatera mugatzen dira, baina abesti honekin parte hartzera bultzatzen dugu. Haurrei erakutsi ilaran joan behar dutela, eskua begien gainean jarrita, esploratzaileen modura, musikaren erritmora eman behar dutela pausoa... Ondoren, esku-programa bidali behar duzuen egunean, haurrei azaldu behar diezue kantua abesten eta dantzatzen erakutsi behar dietela gurasoei. Jai egunean, abesti hau aurkezten baduzue, gonbidatu gurasoak parte hartzera.

Helburu didaktikoak:
I.10-15, III.15(H), III.30 (MUS), III.32 (MUS)

Etengabeko ebaluazioa:
ULERMENA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak: MOTORRAK,
KOMUNIKATIBOAK, AFEKTIBOAK

Jarduera mota: MOTIBAZIOA,
ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzea: LIBREA

Materiala: 2. CDa, 26. ABESTIA; 10. FITXA

Jarduera hau egiteko espazioa:
HARRERA TXOKOA

37. Abestia: *Mak Mikel*

PROZEDURA

Jon Braunek badu laguntxo bat, "bakeroa da" eta zaldi gainean ibiltzen da. Mak Mikel du izena eta indiarren lagun ona da. Indiarren herrira gerturatzen diren lapur guztiak uxatzen ditu.

*Mak Mikel, Mak Mikel badoa,
zaldi pintto baten gainean
kantu bat ahoan, pistola gerrian,
Mak Mikel badoa zaldian.*

Apatxeen lagun egin zen,
komantxeen maitale,
ez zuen izan gehiago
txuriekin traturik.
Pum, Pum, Aaa!

Hiltzaile bihurtu ziren
xerifaren lagunak,
tiroz argitu zen
apatxe guztien gau iluna.

Helburu didaktikoak:
I.10-15, III.15(H), III.30 (MUS), III.32 (MUS)

Etengabeko ebaluazioa:
ULERMENA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak: MOTOREAK,
GIZARTERATZEKOAK

Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA,
APLIKAZIOA

Taldekatzea: LIBREA

Materiala: 2. CDa, 27. ABESTIA

Jarduera hau egiteko espazioa:
HARRERA TXOKOA

Goizetik eguzkipean
Mak Mikel onbidean
mendiko zazpi lapurrak
menperatu zituen.
Pum, Pum, Aaa!

Arratsalde bazetorren
lapurrekin herrira,
xerifak ez zion ordaindu
agindu zuen hainbat.

Mak Mikel, Mak Mikel badoa...

Imita dezagun Mak Mikel bere zaldi ganean. Santa Ageda bezpera egunean kantatzera irten bagara, makilak ere erabil ditzakegu zaldi moduan, eta, nahi izanez gero, kartoizko burua eginez, zaldia egin dezakegu.

SINTESIA

38. Ikasnorabideak: egindakoa gogoratzen

PROZEDURA

Egindakoa gogoratzea eta neurri batean haurren balorazioa jasotzea izango da jarduera honen helburua.

Taldean egindako sekuentzia didaktikoak banan-banan aipatu eta gogora ekarriko ditugu. Jantzien txokoa, *collagea*, inauteri-esta... edo gelan sortu direnak. Alderdi onak-eta azaltzen direnean, txarrak ere jasoko ditugu, eta ahal dela, hobetzeko proposamena egingo dugu. Haurrak iritzia ematera eta beren irudipenak azaltzera gonbidatuko ditugu.

Helburu didaktikoak:
SINTESIA

Etengabeko ebaluazioa:
GUZTIAK

Gaitasun motak: GUZTIAK

Jarduera mota: SINTESIA

Taldekatzeari:



Materiala: 1. FITXA

Jarduera hau egiteko espazioa:
HARRERA TXOKOA

7- “Jan, jan, jan eta jan” (Martxoaren 3-4 aste. Aste Santuko oporrak arte)

Sarrera

Unitatearen barruan egin daitezkeen sekuentzia didaktikoak

- Janariak ezagutu
- Gelako janari-denda
- Sukaldari izango gara

Hezitzailearen esku dago haurren interesetara egokitzea eta, horren arabera, jarduera bat edo bestea egitea.

Sekuentzia didaktikoaren ebaluazioa

- Abiapuntua (nondik hasi ginen eta zergatik)
- Sekuentziaren garapenean erabilitako baliabide materialek, jarduerak, lan taldeek eta abar ondo funtzionatu duten, ala aldaketak egin beharra dagoen hurrengo saio baterako.
- Sekuentziaren garapenean izan diren harremanak (haurren artean, hezitzailearekin...) eta jarra behatu.

HEZITZAILEAREN EGINKIZUNA

Hezitzaileak behaketa-lana egitearekin batera, datuak jasoko ditu.

HASIERAKOAK

1. Jolaserako kantua: Dilin-dilinka

PROZEDURA

Ttantto marigorrngok abesti bat erakutsiko digu zabuan kulunka ibiltzen garenerako.

DILIN-DILINKA

Dilin-dilinka balantzaka,
dilin-dalan, ziburuan. (bis)
Hankak aurrera,
zoaz zerura,
hankak atzera,
ta popa gora.
Dilin-dilinka balantzaka,
dilin-dalan, ziburuan. (bis)

Helburu didaktikoak:
I.13-15, III.15 (H), III.32 (MUS)

Etengabeko ebaluazioa:
ADIERAZPENA

Gaitasun motak:
KOMUNIKATIBOAK, MOTOREA

Jarduera mota:
MOTIBAZIOA, ESPERIMENTAZIOA,
APLIKAZIOA

Taldekatzea: LIBREA

Materiala:
2. CDa, 28. ABESTIA

Jarduera hau egiteko espazioa:
HARRERA TXOKOA

2. Elkarrizketa: Janaria

JARDUERAREN PLANIFIKAZIOA

Honako hauek dira elkarrizketa planifikatzeko orduan kontuan izan beharreko oinarritzko elementuak:

1. Haur guzien parte-hartzea lortu.
2. Elkarrizketa egiteko espazioa: eroso eta komunikazioa bultzatzen duena izan behar da. HARRERA TXOKOA
3. Jarduera aurrera eramateko denbora aurreikusi.
4. Galderen tipologia ondo pentsatu.
 - Galdera irekiak, baina haurren hizkuntza-kompetentzietara egokituta.
 - Pentsarazten duten galderak.

HEZITZAILEAK BERE ESKU-HARTZEAREN ERREBISIOA EGINGO DU

Haurren interesak

- Haurren esperientzien kontaketa bultzatu duzu jardueraren bitartez?
- Haurren interesak lehenetsi dituzu?

Helburu didaktikoak:
I.5, III.1, III.12, III.13

Etengabeko ebaluazioa:
NORTASUNA, ULERMENA,
ADIERAZPENA

Gaitasun motak:
KOMUNIKATIBOAK,
GIZARTERATZEKOAK, KOGNITIBOAK

Jarduera mota:
MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea:



Materiala: —

Erronka kognitiboak

- Galderak errebotatzen dituzu ala erantzuna ematen duzu?
- Hipotesiak eta arrazonamenduak egiteko eta iritziak emateko aukera eskaintzen duzu?
- Jardueraren amaieran, azaldutako ideiak laburbiltzen eta borobiltzen dituzu?

Ikus jarduera konstanteak: Horma-irudia.

3. Ikasnorabideak

PROZEDURA

Gai berria aurkeztean, aurreiritziak eta aurrezagutzak bilduko ditugu. Modu horretan jakingo dugu nondik abiatu behar dugun gaiari hasiera emateko, eta haurren nahietan eta interesetan oinarritu ahal izango dugu.


Kaixo, lagunak! Zer moduz ikastolan? Goseak al zaudete? Begira, egun hauetan janariez hitz egingo dugu eta hau guztia ikasiko dugu:

1. **Janariak ezagutuko ditugu.** Janariak izendatuko ditugu, eta beren ezaugarriak azertu. Sailkapenak egingo ditugu, jolas bat asmatuko dugu...
2. **Azoka ezagutuko dugu.** Bertan erosketasalmenta aztertuko dugu, dendak ikusiko ditugu, jakien izenak gogoratuko ditugu, janarien etiketetan prezioak irakurriko ditugu... eta, gainera, janari batzuk erosiko ditugu. Gainera, gure azoka muntatuko dugu gelan.
3. **Sukaldari izango gara.** Horretarako, ikastolako sukaldaria joango gara eta sukaldariak janaria prestatzen ikusiko ditugu. Ondoren, gelara itzuliko gara eta fruta-mazedonia goxo bat prestatuko dugu. Nahi izanez gero, ondoko gelako neska-mutilak ere gonbidatuko ditugu probatzera.
4. Azkenik, **gelako beste proposamenak.** Janariei buruzko beste zerbait bururatzen al zaizue? Edo marrazkiren bat egitea nahiago duzue?

HEZITZAILEAREN EGINKIZUNA

Hezitzailea entzulea eta dinamizatzailea izango da jarduera honetan. Gure zeregin nagusia haurren ideiak jasotzea, borobiltzea eta taldeari itzultzea izango da.

Hasiera batean ez da erreza izango haurrengandik aurreiritziak jasotzea. Helburua ez da lehen momentutik hori lortzea, baina bai dinamika honetan trebatzea eta haurren denborak eta iritziak errespetatzea.



4. Horma-irudia

JARDUERAREN PLANIFIKAZIOA
(Janariei buruzko elkarrizketan bezala)




PROZEDURA

Jakina da, hizkuntzaren ezagutza-mailaren eta heldutasunaren arabera, haur guztiek ezin izango dutela inola ere maila berean erantzun, hala ere, bes-teen erantzunak entzunez, eta hezitzailearen laguntzaz, aurrerapausoak eman daitezke. Bestetik, ebaluazioari begira, funtzio-sailkapen horrek haur bakoitzaren egoerari buruzko pistak emango dizkigu. Izan ere, atal bakoitzaren barruan errazenetik zailenerako ordenan (printzipioz) azaltzen zaizkigu funtzioak.

Ttantto ikusten al duzue? Non dago?

Ikus jarduera konstanteak: Horma-irudia.

Helburu didaktikoak: I.5, II.4 (I)-14 (I), III.16 (H)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK, GIZARTERATZEKOAK
Jarduera mota: ARAKETA, MOTIBAZIOA

Taldekatzea:   

Materiala: HORMA-IRUDIA

5. Tradiziozko abestia: Ikusi nuenean

IKUSI NUENIAN

Ikusi nuenean,
nik zure sudurra,
iruditu zitzaidan, maitia,
lukainka muturra.
Bai, ene maitia!
Nik zure sudurra.
Iruditu zitzaidan, maitia,
lukainka muturra.

Ikusi nuenean
nik zure begia,
iruditu zitzaidan, maitia,
gerezi gorria.
Bai, ene maitia!
Nik zure begia.
Iruditu zitzaidan, maitia,
gerezi gorria.

Ikusi nuenean
zure belarria,
iruditu zitzaidan, maitia
azaren orria.
Bai, ene maitia!
Zure belarria.
Iruditu zitzaidan, maitia,
azaren orria.


Ikusi nuenean
nik zure okotza,
iruditu zitzaidan, maitia,
gaztaina morkotsa.
Bai, ene maitia!
Nik zure okotza.
Iruditu zitzaidan, maitia,
gaztaina morkotsa.

Helburu didaktikoak:
II.9 (I), III.15 (H), 32 (MUS)

Etengabeko ebaluazioa:
ADIERAZPENA

Gaitasun motak:
KOMUNIKATIBOAK

Jarduera mota:
MOTIBAZIOA,
ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzea:



Materiala:
2. CDa, 30. ABESTIA

Jarduera hau egiteko espazioa:
HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Ikus jarduera konstanteak: Abestiak.

6. Antzezpen kolektiboa (ipuin dramatizatua)

TXORITXO MOKOFINA

	Behin batean, bazen txori txiki jaioberri bat. Aitak eta amak hegan nola egin behar zuen erakusten zioten.
	Gora eta behera, gora eta behera. Begira, hegoak gora eta behera mugitu behar dituzu.
	Gora eta behera, gora eta behera. Begira! Begira nola egiten dudan hegan!
	Goiz batean, gure txori txikia ibai aldera abiatu zen. Baina galdu egin zen.
Txio, txio, txio!	Agur! Bazkaltzerako itzuliko naiz!
	Kontuz ibili eta garaiz bueltatu!
Hegan alde egin.	Bai, ama! Agur!
Txio, txio, txio!	Ai, ama! Galdu egin naiz! Ñiiii...
Abestuz	<i>Txori txikia negarrez ari da, txio txioka amari deika...</i>
	Katagorri batek negarrez ikusi zuen.
	Kaixo, txori txiki! Zer duzu?

	Galdu egin naiz eta goseak nago. Lagunduko al didazu, faborez?
	Katagorriak esan zion:
	Lagunduko ez dizut, ba! Tori, jan itzazu intxaur goxo hauek.
	Ez, mila esker. Intxaurrak ez zaizkit gustatzen.
	(Nola dakizu ez zaizkizula gustatzen?) Probatu al dituzu? Ez, ez ditut probatu baina badakit! Ez zaizkit gustatzen!!
	Probatu gabe ez dago jakiterik. Sentitzen dut, baina ez dut beste janaririk. Agur!
	Txori txikia aintzira batera heldu zen. Aintzira bazterrean igel bat ikusi zuen.
	Kaixo, igela! Galdu egin naiz eta goseak nago. Lagunduko al didazu, faborez?
Kroak, kroak, kroak!	Lagunduko ez dizut, ba! Tori, jan itzazu barraskilo goxo hauek.
	Ez, mila ezker. Barraskiloak ez zaizkit gustatzen.
	Probatu al dituzu? (Nola dakizu ez zaizkizula gustatzen?)
	Ez, ez ditut probatu baina badakit! Ez zaizkit gustatzen!!
	Probatu gabe ez dago jakiterik. Sentitzen dut, baina ez dut beste janaririk. Agur!
	Txori txikia basoan barneratu zen. Basoan ontza zuri bat bizi zen.
	Kaixo hontza! Galdu egin naiz eta goseak nago. Lagunduko al didazu, faborez?
Uuu!	Lagunduko ez dizut, ba! Tori, jan ezazu sagu goxo hau.
	Ez, mila ezker. Saguak ez zaizkit gustatzen.
	Probatu al dituzu? (Nola dakizu ez zaizkizula gustatzen?)
	Ez, ez ditut probatu baina badakit! Ez zaizkit gustatzen!!
	Probatu gabe ez dago jakiterik. Tira, (gosea ezin dizudanez ase), zure habia topatzen lagunduko dizut.

	Eskerrik asko! Eskerrik asko! Nora joango gara?
	Zu lasai! Zuk lo egin, eta nik topatuko dut zure habia.
	Oso luzea egin zitzaion txori txikiari gau hura. Goizaldean hontza itzuli zen.
Uuu!	Txoritxo, txoritxo! Esna zaitez! Aurkitu dut zure habia!
	Benetan? Eta itzultzen lagunduko al didazu?
	Bai noski! Goazen azkar-azkar!
	Eta, esan bezala, hontzak bere habiara itzultzen lagundu zion. Aitatzok eta amatxok hegoak zabalik hartu zuten txori txikia.
	Non ibili zara? Oso kezkatuta geunden.
	Hegan hasi nintzen eta... konturatu gabe... urrundu...
	Urruntzen denak, bueltatzen ikasi behar du!
	Arrazoi duzue, ikasiko dut.
	Baina txori txikiak gose handia izaten jarraitzen zuen.
	Aitatzok, amatxok, goseak nago. Zer dago jateko?
	Begiak itxi itzazu eta probatu aitatzok prestatu duena.
	Aitatzok prestatu badu, goxo-goxoa izango da.
	Amak begiak estali zizkion eta txoritxoa janaria probatzen hasi zen.
	Zer da hau?
	Zuk probatu eta gero esango dizut.
	Hau bai janari goxoa! Zer da?
	Baratzeko barraskilo goxoak dira.
	Barraskiloak? Baina ez zitzaizkidan gustatzen!
	Probatu gabe ez dago jakiterik!
	<i>Hala bazan ez bazan, sar dadila...</i>

IPUINA AITZAKIA

7. Ipuinaren abestia: "Txori txikia negarrez ari da"


Donua: Zazpi jausiren dantza

Txori txikia negarrez ari da
txio txioka amari deika.

Gaur goizean
habiatik ihes egin du
iluntzean
basoan galdu zaigu.

Txio, txio...

Helburu didaktikoak: III.15 (H)- III.30 (MUS), III.32 (MUS)
Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: AFEKTIBOAK, KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea:  LIBERA

Materiala: 2. CDa, 31. ABESTIA
Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Ipuina antzetzten dugun bitartean, kanta erabili dezakegu espazioan zehar mugitzeko.
Ikusi Jarduera konstanteak: Ipuinaren abestia.


8. Ipuinaren elkarrizketa-jolasa atzamarrekin

Txotxongiloekin elkarrizketa-jolasa egiteko aukera bat proposatzen dugu.

PROZEDURA

Ikusi Jarduera konstanteak: Elkarrizketa-jolasak atzamarrekin.

Helburu didaktikoak: III.1 (H), III.12 (H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, AFEKTIBOAK, GIZARTERATZEKOAK
Jarduera mota: MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea:  BOLONDRESA

Materiala: ELKARRIZKETEN GIDOIA, 10. FITXA
Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

1)

Txio, txio, txio!	Baina txori txikia (besteetan baino hegaldi luzeagoa egin zuen eta) galdu egin zen. Katagorri batek negarrez ikusi zuen. Ai, ama! Galdu egin naiz! Ñiiii....
	Kaixo txori txiki! Zer duzu?
	Galdu egin naiz eta goseak nago. Lagunduko al didazu, faborez?
	Lagunduko ez dizut, ba! Tori, jan itzazu intxaur goxo hauek.

	Ez, mila esker. Intxaurrak ez zaizkit gustatzen.
	Nola dakizu ez zaizkizula gustatzen?
	Ez ditudalako inoiz probatu!
	Sentitzen dut, baina ez dut beste janaririk. Agur!

2)

	Eta, esan bezala, hontzak bere habiara itzultzen lagundu zion. Aitaxok eta amatxok hegoak zabalik hartu zuten txori txikia.
	Non ibili zara? Oso kezkatuta geunden.
	Hegan hasi nintzen eta... konturatu gabe...urrundu...
	Urruntzen dena, bueltatzen ikasi behar du.
	Arrazoi duzue, ikasiko dut. Baina orain goseak nago, zer dago jateko?
	Begiak itxi itzazu, eta probatu aitaxok prestatu duena.
	Aitaxok prestatu badu, goxo-goxoa izango da.

9. Elkarrizketak: Zehar-lerroa, balioak, trebetasun soziala

PROZEDURA

Gustatu al zaizue ipuina?

Zer gertatu zaio txoriari hegan egiten ikasi duenean?

Zergatik ez du jaten animaliek eskaintzen diotena?

Zuei janari guztiak gustatzen zaizkizue? Zer da gehien gustatzen zaizuen? Eta gutxien?

Zer iruditzen zaizue" ez zait gustatzen" esatea janaria probatu gabe?

Helburu didaktikoak:
I.5, III.1, III.12, III.13

Etengabeko ebaluazioa:
NORTASUNA, ULERMENA,
ADIERAZPENA

Gaitasun motak:
KOMUNIKATIBOAK,
GIZARTERATZEKOAK, KOGNITIBOAK

Jarduera mota:
MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea:



Materiala: —

Jarduera hau egiteko espazioa:
HARRERA TXOKOA

10. Hiztegi-jokoa

PROZEDURA

Ipuinean, txoritxoak galduta dagoenean, animalia bat baino gehiagorekin topatzen da. Animalia horiek jatekoa eskaintzen diote, baina arrazoi desberdinengatik ez du nahi izaten.

Antzeko egoerak asma ditzakegu, ipuinean bezala. Egoera horietan MIKATZA, GARRATZA, GAZIA hitzak sar ditzakegu janariei ezetz esateko, txori txikiak egiten duen moduan.

Baietz ere esan dezakegu, GOZOA erabiliz.

Helburu didaktikoak: I.5, III.1, III.12, III.13

Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA, ULERMENA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, GIZARTERATZEKOAK, KOGNITIBOAK

Jarduera mota: MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzeta:



Materiala: —

Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

11. Gure pertsonaiak

PROZEDURA

Beharrezko izango dituzten margoak eskura jarrita, haurrek ipuineko txori txikia eta gainerako pertsonaiak marraztuko dituzte paper handi batean. Haurrek taldeka bildu, talde bakoitzak ipuineko pertsonaia bat aukeratuko du, eta hura margotuko dute. Haurrei utziko diegu margotu nahi dutenaren aukeraketa egiten, baina desorekak gertatzen badira guk bideratuko ditugu.

Asmatuko al diogu denon artean izen bat txori txikiari? Idatziko al dugu bere izena, beti gogoan izan dezagun?

HEZITAILERAEN EGINKIZUNA

Hezitzaileak, prozeduraren behatzaile- eta moderatzaile-lana egingo du.

Helburu didaktikoak: I.12, III.8 (H), III.17 (PLAS)

Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK

Jarduera mota: APLIKAZIOA, ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzeta: LIBREA



Materiala: PAPERA, MARGOAK

Jarduera hau egiteko espazioa: ADIERAZPEN TXOKOA

12.-Zer daukagu bazkaltzeko?

PROZEDURA

Elkarrizketaren bitartez, talde handian, eta harrera-txokoan, ipuina gogoratuko dugu (gogoratu elkarrizketa kudeatzeko gomendioak 2. jardueran, *Elkarrizketa: janaria*).

Ipuinean agerl den egoerari helduz (janariak probatu egin behar dira, gustukoak dauzkagun ala ez erabakitzeko), haurren egunerokora hurbiltzea eta horri etekina ateratzea izango da jarduera honen helburua.

Ondoren, binaka jarrita (ikusit jarduera konstanteak) elkarrizketa txikia landuko dugu.

Prozedura arintzeko, eta haurrei erabakiak hartzen laguntzeko, janarien hiztegi-txartelak erabiliko ditugu. Hiztegi-txartelak erabiltzeko, bi modu daukagu:

Hiztegi-txartelak buruz behera daudela, bat aukeratuko dute, eta horren arabera egingo da elkarrizketa (gustuko janaria izan ala ez izan, elkarrizketa era batekoa ala bestekoa izango da).

Hiztegi-txartelak ikusiz, hezitzailearen aginduaren arabera gustukoa duten ala gustukoa ez duten janaria aukeratuko dute, eta horren arabera izango da elkarrizketatxoa.

Bi elkarrizketa proposatzen ditugu, aukeran:

1)

Haurra	Zer daukagu bazkaltzeko?
Aita/ama	Dilista gozoak.
Haurra	Ez, ez ditut dilistak nahi. Ez zaizkit gustatzen.
Aita/ama	Probatu al dituzu? (Nola dakizu ez zaizkizula gustatzen?)
Haurra	Ez, ez ditut probatu, baina badakit! Ez zaizkit gustatzen!!
Aita/ama	Probatu gabe ez dago jakiterik.


2)

Haurra	Zer daukagu bazkaltzeko?
Aita/ama	Makarroiak.
Haurra	Makarroiak asko gustatzen zaizkit. Gozoak dira!
Aita/ama	Probatu al dituzu? (Nola dakizu gustatzen zaizkizula?)
Haurra	Bai, bai, probatu ditut, eta asko gustatzen zaizkit.

Bukatzeko, lan-koadernoko 3. fitxa banatuko dugu. Talde handian, fitxari buruzko aurreiritziak jasoko ditugu eta, haurren laguntzarekin, fitxan egin beharrekoa zehaztuz joango gara.

Fitxa honetan, elkarrizketan landu duten janaria marraztuko dute mahai gainean dagoen platerean, eta haurraren aurpegian adieraziko dute janari hori gustukoa duen ala ez.

Haur bakoitzak fitxan adieraziko duen emaitzari baino gehiago, horretara iristeko prozedurari erreparatuko diogu.



JANARIAK EZAGUTZEN

Sekuentzia didaktikoa

JANARIEN HORMA-IRUDIA

Hasiera

Janariak ezagutzen hasiko gara. Lehen azterketa egiteko, hor dugu horma-irudia, aldizkarietako jakien argazkiak, bideo lagungarriren bat topa genezake... Bestetik, hurrek bizi izandako esperientziak eta etxetik ekar ditzaketen jakiak erabil ditzakegu.

Dena dela, ezer aurkeztu aurretik, hurrekin janariari buruz hitz egindakoa gogora ekarriko dugu.

Zer den gehien gustatzen zaiena, zer gutxien, zer hartzen duten gosaltzeko, bazkaltzeko, meriendan, afarian... eta hortik tiratuz joango gara, janari desberdinak gogora ekarriz.

Janari horiek denak arbelean idatziko ditugu. Behin zerrenda luzea daukagula, ordenatzeko eskatuko diegu hurrei (sailkatzeko irizpideak). Garrantzitsua da haurren ekarpenak kontuan hartzea.

Janarien horma-irudia egiteko, sailkapen bat baino gehiago erabil daiteke; hurrek proposatutako bat aukeratzea litzateke interesgarriena.

Garapena

Horma-irudia lau zatitan bana dezakegu:

Adibidez:

esnekiak	haragia / arraina
pasta / lekariak	barazkiak / frutak

Edo...

gosaria	bazkaria
merienda	afaria

Elikagaien etiketak eta argazkiak bilduko ditugu horma-irudia osatzeko. Haurrak lau taldeetan banatuko ditugu, eta talde bakoitzari horma-irudiaren zati bat emango zaio, dagozkion produktuekin osa dezaten.

Ondo azalduko diegu talde guztien ekarpena derrigorrezkoa dela, bestela, gure horma-irudia hankamotz geldituko zaigula. Horretarako, horma-irudia lau zatitan mozterakoan puzzlearen piezetako itxura eman diezaiokegu.

Amaiera: Janarien horma-irudia osatu.

Talde bakoitzak bere horma-irudiaren zatia aurkeztuko du, eta horma-irudia osatuz joango gara.

Oharra:

Horma-irudia pasiloan kokatuko dugu, ondoko gelakoekin ere konpartitu ahal izateko.

13. Olerkia

GALLETA GOXOEKIN

Gosaria bero.
Legatza ta angulak
legatza ta angulak
bazkaltzeko gero.
Meriendatzeko gazta
janez egunero,
laster gizenduko naiz
laster gizenduko naiz
hala janez gero.

Antton Kazabon

Helburu didaktikoak: II.14 (I), III.7 (H)-15 (H)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK
Jarduera mota: MOTIBAZIOA, ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: LIBREA
Materiala: —
Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA


Olerki honetan G fonema daukaten janari eta hitz asko ageri dira. Olerkia irakurtzean, fonema horri indarra eman diezaiokegu eta, nahi izanez gero, G fonema daukaten beste janari batzuk bilatu ere.

14. Gaia aberasten. "Txoko txuria"

PROZEDURA

Janariaren gaiarekin ari garenez, gelako liburutegian gaiari buruzko erreferentziak egotea derrigorrezkoa iruditzen zaigu, haurrek kontsulta ditzaten. Gelara ekar dezakegun materiala aukeratuko dugu: janariari buruzko liburuak, aldizkariak, menuak, errezeta-liburuak...

Bestalde, haurren senideei laguntza eska dakieke; ohar baten bidez eskatuko diegu etxean daukaten gaiari buruzko zenbait material ikastolara ekartzeko. Etxeko materiala behar bezala zainduko da, eta erabiltzeko, gordetzeko eta mantenua egiteko arauak gogoraraziko zaizkie haurrei.

Helburu didaktikoak: I.4, II.3 (I)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA
Gaitasun motak: KOGNITIBOAK, KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: INFORMAZIOA, MOTIBAZIOA
Taldekatzea: 
Materiala: JANARIARI BURUZKO LIBURUAK, ALDIZKARIAK, MENUEN LIBURUAK (HAURRENTZAT BADIRA, HOBE), SUKALDARITZAKOAK...
Jarduera hau egiteko espazioa: TXOKO TXURIA


15. Janariak beharrezkoak dira

Zehar lerroa: Osasunerako hezkuntza. Elikadura

PROZEDURA

Haurrek jakin behar dute osasun ona edukitzeko janari mota guztiak jan behar ditugula. Gorputzak hainbat behar ditu, eta janari bakoitzak behar horietako batzuk betetzen ditu. Hezitzaileok beharren eta janariaren arteko erlazioak era erraz batean adieraziko dizkiegu haurrei, adibidez:

Arraina, oso garrantzitsua da buruarentzat, gauzak ez ahazteko.

Helburu didaktikoak: II.3 (I), III.1 (H)-10 (H)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: KOGNITIBOAK, KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: INFORMAZIOA
Taldekatzea: 
Materiala: —
Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

Azenarioak oso garrantzitsuak dira gure begiek ongi-ongi ikusteko.

Ogia eta zerealak badakizue zertarako diren oso onak? Ilea osasuntsu izateko eta azal polita edukitzeke.

Esnea eta esnekiak badakizue zertarako? Ongi luzatzeko eta gure hezurrak ez gaitzeteke.

16. Janariak eta edariak bereizi

PROZEDURA

Edan eta **jan** aditzen esanahia (**janaria** eta **edaria** ere izan daitezke) bereizteko lehenengo pausoak eman nahi ditugu jarduera honetan. Horretarako, hiztegi-txarteletan *esnea* bakarrik dugunez, beste irudi batzuk erabili beharko dituzue (collagean jarritakoak, horma-irudian ikus ditzakegunak...) edota hitzen aipamena egin:

Ura, freskagarriak, esnea, kafesnea, kakaoa... aipatu, eta galdetu jateko ala edateko diren.

Hiztegiko beste elementuak erakutsi eta galdetu jateko ala edateko diren. *Jatea* esaten dugunean *mastekatu*, *murtxikatu* esan nahi dugula adierazi behar dugu, gure masail-hezurra mugituz. Edateko, *glu-glu* egin dezakegu, eta eskuarekin edateko keinua.

Bukatzeko, arbelean bi zutabe egin ditzakegu elikagaiak sailkatzeko: *Janariak eta edariak*.


Helburu didaktikoak:
II.3 (I), III.17 (MAT)

Etengabeko ebaluazioa:
ULERMENA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak:
KOGNITIBOAK, KOGNITIBOAK

Jarduera mota:
INFORMAZIOA, ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzea:



Materiala: —

Jarduera hau egiteko espazioa:
HARRERA TXOKOA

17. Asteko menua

PROZEDURA

Ikastolako aste honetako menua aztertuko dugu. Egunero, aste osoan zehar, bazkaldu aurretik irakurriko dugu jangelan geratuko diren haurren menua.

Bazkaldu ondoren, menu hori bera jan duten frogatuko dugu. Aldaketarik egon bada, apuntatu egingo dugu.

Ikastolan jangelarik ez badago, edo eta egonda ere, jantokian jaten ez dutenek ere aintzat hartzeko, haur guztiek etxean jandakoak erregistratuko ditugu honelako taula batean:

	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala
Leire					
Abraham					
Paul					
Li					

Haurrek saiatu behar dute zer jan duten gogoratzen, erregistroa osatzeko.


Helburu didaktikoak:
II.14 (I), III.1 (H)-3 (H)-8 (H)-9 (H)

Etengabeko ebaluazioa:
ADIERAZPENA

Gaitasun motak:
KOGNITIBOAK

Jarduera mota:
APLIKAZIOA

Taldekatzea:



Materiala: —

Jarduera hau egiteko espazioa:
HARRERA TXOKOA

18. Azokara goaz

PROZEDURA

Ikastola inguruko (edo herriko) azoka, janari dendak edo supermerkatua bisitatuko ditugu. Irtenaldi honek hainbat aukera eskainiko digu: kaleak zeharkatu, saltzaileekin eta erosleekin hitz egin...

Irten aurretik, beti bezala, arauak eta beste gogoratu behar ditugu, esate baterako, zein den egitera goazen irtenaldiaren helburua.

Azokan ahaleginduko gara janariak ikusten, identifikatzen, izendatzen, xehetasunak aipatzen, konparatzen, erlazionatzen, salmenta ezagutzen, jakien salneurria etiketatzen ikusten, denden izenak aztertzen.... Ondo legoke zerbait erostea, fruitu lehorrak, esate baterako.

Ikasgelara itzultzean, ikusitakoari buruzko elkarrizketa antolatuko dugu, horma-irudian daukagun azokarekin konparatuko dugu...

Helburu didaktikoak:
II.14 (I), III.1 (H)-3 (H)-8 (H)-9 (H)

Etengabeko ebaluazioa:
ADIERAZPENA

Gaitasun motak:
KOGNITIBOAK

Jarduera mota:
APLIKAZIOA

Taldekatzea:



Materiala: —

Jarduera hau egiteko espazioa:
AZOKA

19. Jogurtfonia

PROZEDURA

Jogurt-poteekin jostailu bat egingo dugu: *jogurtfonia*. Horretarako, bi jogurt-pote eta soka bat behar ditugu. Hasi baino lehen, poteen marrazkiei eta testu idatziari erreparatuko diegu. Poteen behealdean zulo txiki bana egingo diegu, eta sokaren mutur bakoitza zulo batetik sartuko dugu, barruan korapilo bat eginez. Horrela, bi poteak elkarri lotuta geratuko dira.

Ume batek pote bat hartu eta, ahora hurbilduz, barruan hitz egingo du. Beste ume batek beste potea belarran jarriko du, eta lagunaren ahotsa entzungo du. Nahi izanez gero, poteak pinturarekin apain daitezke, edo margotutako paperez estaliz.

Helburu didaktikoak: III.9 (H), III.17 (PLAS)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOA, KOGNITIBOAK

Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea: LIBREA

Materiala: JOGURT POTEAK, SOKA, MARGOAK, KOLA

Jarduera hau egiteko espazioa:
ADIERAZPEN TXOKOA

20. Harategiko janariak

PROZEDURA

Azokara joaten garenean, besteak beste, harategiak ikusiko ditugu. Joaten al dira zuen etxeak harategira? Eta zer erosten dute? Harategian mota askotako haragia saltzen da: behiarena, txekorrarena, arkumearena, oilaskoarena....

Xerra, oilaskoa, txorizoa, urdaiazpiko egosia (York urdaiazpikoa)... gustatzen al zaizkizue? Eta saltxitxak?

Helburu didaktikoak: II.3 (I), III.1 (H)-16 (H)

Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOA, KOGNITIBOAK

Jarduera mota: ARAKETA, ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzea:



Materiala: —

Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

21. Lekariak eta pasta

PROZEDURA

Hasteko, jolas bat egingo dugu. Garbantzua bat gordeko dugu esku batean, eta hurrek zein eskutan dagoen asmatu behar dute.

Lan-koaderenoko 2. fitxan hiru pote dauzkagu, eta bakoitzean itsatsiko ditugu, dagokien tokian, dilistak, arroza eta fideoak.

Ikusi fitxa denen artean, eta asmatu nola osatu beharko genukeen.

Non jasotzen ditugu dilistak? Eta arroza? Eta fideoak?...

Haurrei azalduko diegu fitxa adierazpen-txokoan egongo dela, eta nahi dutenean egin dezaketela.

Helburu didaktikoak:
I.11-13, III.9 (H)-16 (H)-41 (PLAS)-44 (PLAS)

Etengabeko ebaluazioa:
ADIERAZPENA

Gaitasun motak:
KOMUNIKATIBOA, MOTOREAK

Jarduera mota:
INFORMAZIOA, ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea: LIBREA

Materiala:
DILISTAK, ARROZA, FIDEOAK, GARBANTZU ALEAK, KOLA; 3. FITXA

Jarduera hau egiteko espazioa:
ADIERAZPEN TXOKOA

22. Platanoaren abestia

Zehar lerroa: Osasunerako hezkuntza

PROZEDURA

Eta postreak zer? Nori gustatzen zaio postrea? Eta zer postre?

Askotan, postre modura, eta bestetan, askariarekin (meriendarekin), fruta hartzen dugu. Oso garrantzitsua da fruta jatea. Sendagileek esaten dutenez, egunero gutxienez bi fruta ale jan behar dira. Zenbat esan dut? Bi, bai.

Ba al dakizue fruta gehienak zuhaitzetatik lortzen ditugula? Eta zer fruta gustatzen zaizkizue? Esan dezala bakoitzak zer fruta duen gustukoan. Baina, hori egin aurretik, fruta goxo-goxo baten abestia ikasiko dugu. Ea, eskuekin eta aurpegiarekin nik egiten dudana kopiatuko duzue. (Hezitzaileak keinu bidez adieraziko du abestiaren letrak adierazten duena).

PLATANOA

Platanoa,
zein goxoa!
Horia da niri atsegin zaidan margoa.
Platanoa,
zein goxoa!
Horiena hartuz zurrizera noa. (bis)

Izan, ba, gogoan,
hartu bat eskuan,
goxoro dastatuz,
zure ahotxoan.

Dubi-dubi-doa.
Dubi-dubi-doa.
Bai goxoa dela
platanoa!

Helburu didaktikoak: I.6, II.3 (I), III.14 (H)-15 (H), III.22 (MUS)

Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA,
ADIERAZPENA, NORTASUNA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOA,
KOGNITIBOAK, AFEKTIBOAK

Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, MOTIBAZIOA

Taldekatzea: LIBREA

Materiala: 2. CDa, 32. ABESTIA

Jarduera hau egiteko espazioa:
HARRERA TXOKOA.

23. Janariak zentzumenen bidez ezagutu

PROZEDURA

Ondoren datozen ekintzekin hasi aurretik, bost zentzumen ditugula adieraziko diegu haurrei: ikusmena, ukimena, dastamena, usaimena eta entzumenena. Bakoitzaren bitartez zer informazio jasotzen dugun azalduko dugu.

Ikusmenarekin janariak nolakoak diren azter dezakegu: koloreak, formak... Formen behaketan sakontzeko, itzalen formak identifikatzea proposatzen dugu. Pantaila ikuslearen aurrean jarriko dugu, eta proiektorea maindire zintzilikatu baten beste aldean. Horrela, haurrak itzala bakarrik ikusiko du, eta ez objektua. Pantaila alde batera utzita, koloreei erreparatuko diegu.

Usaimena. Usaimenaren lanketa egiteko, fruten azalak lehortzen ipiniko ditugu egun batzuetan. Ikastolako sukaldea oso urruti ez badago, bazkaldu aurretik bertaratu gaitzke eta hango usainei erreparatu. Zaila izan daiteke, baina zer prestatzen ari diren asmatzen saiatuko gara.

Ukimena da jakien formaren eta azalaren nolakotasunari buruzko informazio gehien ematen diguna. Lehen ekintza batean, elikagai bat sartuko dugu zaku edo kaxa batean, eta eskua sartuz, ukimenaz, zer den identifikatu behar dugu. Ondoren, fruta desberdinak sartu ditugu poltsa batean. Hezitzaileak bat aukeratu, eta marraztu egingo du arbelean, edota ahoz deskribatu. Haurrak, orduan, eskua poltsan sartu, eta ukimenaren bidez, hezitzaileak aukeratutako fruta aurkitu behar du. Fruten nolakotasunaz ari garenean, bereiztu egin behar ditugu fruta lehorrak eta fruta berdeak.

Entzumenarekin janariak jatean egiten ditugun soinuak azter ditzakegu. Soinua hobeto entzungo dugu belarriak tapatzen baditugu. Zenbait jakik elkarren kontra jotzean, edo lurretik botatzean egiten duten hotsa ere entzun dezakegu, intxaurrek, esate baterako.

Dastamenarekin, jakina, janarien gustua ezagutzen dugu: gaziak eta gozoak, garratzak eta mikatzak, beroak eta hotzak... Ikasleren bat begietan jarritako zapi batez itsutuko dugu. Jaki bat emango diogu eta zer jaki den identifikatu beharko du.

Helburu didaktikoak:
I.7, II.3 (I), III.7 (H)-13 (H)

Etengabeko ebaluazioa:
ULERMENA

Gaitasun motak:
KOMUNIKATIBOA, KOGNITIBOAK

Jarduera mota:
ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzea: LIBREA

Materiala:
FRUTA AZALAK, JANARIAK, PROIEKTOREA

Jarduera hau egiteko espazioa:
HARRERA TXOKOA

24. Frutak plastilinaz egin

PROZEDURA

Janariak zentzumenen bidez aztertu ondoren, plastilinarekin fruta batzuk egitea proposatuko diegu haurrei. Saiatuko gara aurreko jardueran aipatu ditugun koloreak, formak eta baita azalak ere irudikatzen. Unitateak irauten duen bitartean, erakusketa txiki bat eduki dezakegu gelan egindako lanekin.

Plastilinarekin lanketa hau librea edo zuzendua izan daiteke. Lanketa librean haurrari lasai utziko diogu frutak edo beste jaki batzuk egiten: txurroak, galletak...

Helburu didaktikoak:
III.17 (PLAS), III.19 (PLAS), III.21 (PLAS)

Etengabeko ebaluazioa:
ADIERAZPENA

Gaitasun motak:
KOMUNIKATIBOA, MOTOREAK

Jarduera mota:
ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzea: LIBREA

Materiala:
FRUTA AZALAK, JANARIAK, PROIEKTOREA

Jarduera hau egiteko espazioa:
HARRERA TXOKOA

Zuzenketak taldean, edo, behar denean, bakarka, egin daitezke, teknika batzuk proposatuz, eta plastikako hainbat urrats lantzea helburu bezala hartuta. Kasu horretan, honela egingo dugu: hasteko, bolak egingo ditugu eta, bola horietatik abiatuta, jakien forma emango diegu: platanoak, flautak, ogia, txorizoak, tartak, pastelak... Amaitzeko, jaki horietako batzuk apaintzen lagunduko diegu, markak egingez.

Haurrek lagunaren ekoizpenak errespetatzen ikasi behar dute, besteek egindako lanei begirada bat ematen eta lan horiek baloratzen. Lan guztiak bukatu ondoren, plastilina txukun eta garbi jasotzea eskatuko zaie.

25. Abestia: Aurrean duzun janari hori

PROZEDURA

Dastamenaren bidez egindako behaketak pertzepziora eta zapo-reak bereiztera garamatza. Hona hemen horietako batzuk bereizteko abesti bat (pixka bat dramatizatu dezakegu beroa, hotza, gazia, goxoa adierazteko):

AURREAN DUZUN JANARI HORI

Aurrean duzun janari hori
zergatik ez duzu jan?
Bero-beroa dago, aaj!
Bero-beroa dago, aaj!

Aurrean duzun janari hori
zergatik ez duzu jan?
Gazi-gazia dago, aaj!
Gazi-gazia dago, aaj!

Aurrean duzun janari hori
guztia jan duzu eta.
Goxo-goxoa dago, uum!
Goxo-goxoa dago, uum!

Helburu didaktikoak:
I.6, II.3(I)- III.13(H)-14(H)-15(H), III.30(MUS),
III.32 (MUS)

Etengabeko ebaluazioa:
ULERMENA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak:
KOMUNIKATIBOA

Jarduera mota:
ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzea: LIBREA

Materiala:
2. CDa, 33. ABESTIA

Jarduera hau egiteko espazioa:
HARRERA TXOKOA

26. Igarkizunak

PROZEDURA

Dagoeneko ezagunak zaizkigun igarkizunetara jo dezakegu berriro.

Gorria da eta ez da gerezia,
gozoa da, baina ez da eztia,
lurrean bizi da belar artean,
asma ezazu egia.
(marrubia)

Helburu didaktikoak:
II.3(I)- III.1(H)-2(H)-13(H)-15(H)

Etengabeko ebaluazioa:
ULERMENA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak:
KOMUNIKATIBOA, KOMUNIKATIBOA

Jarduera mota:
ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzea: LIBREA

Materiala: —

Jarduera hau egiteko espazioa:
HARRERA TXOKOA

Zumoa ona,
jateko aparta
frutadendan naiz
ikusgai.
Margoa eta
izena ditut
berdin-berdinak
hori bai!

(Ja, ja eta ja, deitzen didate laranja)

Goizean behiek emaNA,
kolore zuria daukaNA,
edateko oso oNA,
esan zuk bere izeNA.
(esnea)

Tortilla egiteko
beharrezkoa duzu.
Zoaz oilategira
aurkitu nahi baduzu.
(arrautza)

Laranja laranja frutategian erosterakoan, laranja laranja azala kentzerakoan, zer den asmatzen baduzu bat jango duzu. Zer da? (laranja)

Itsaso eta ibaietan bizi naiz eta nire gorputza beti dago bustita. Kanaberaz edo sare bidez harrapatzen naute. Zer da? (arraina)

Intxaurrondoaren fruitua. Kanpoko ez, baina barrukoa jan ahal izango duzu. Zer da? (intxaurra)

Gaztainondoaren fruitua, azal marroi eta leuna, mami zuria. Egosita edo erreta, puzkar eragile ona. Zer da? (gaztaina)

Hiztegi-txartelak banatuta, alderantzizko prozesuari ekin diezaiokegu: haurrek elikagaiak deskribatuz igarkizunak sortuko dituzte.

27. Entzunaldia

PROZEDURA

Bazkalondoren pixka batean lasai egotea onuragarria denez, atsendena hartzen dugun bitartean, musika entzun dezakegu: Chopinen 7. *balsa*, DO *sostenitu minorrean op. 64, 2.a*

Bisualizazio bat proposa dezakegu oraingo honetan. Begiak itxi eta lasaitasuna zer den irudikatzen saiatuko gara.

Ondoren, komunean jar dezakegu, bakoitzak zer pentsatu duen hitzez azalduz. Hasieran ez da jarduera erreza izango (denek antzeko zerbait pentsatuko baitute) baina helburua bisualizazioetan trebatzea izango da.

CHOPIN, Frédéric. Pianojole eta konpositore poloniarra (Zelazowa Wola, 1810 - Paris, 1849). Musika izan zen bere barneko emozioen eta sentimenduen adierazpide. Horregatik, forma eta arau klasikoak ez zitzaizkion egokiak iruditzen. Batez ere pianorako obrak idatzi zituen. Musika modernoaren oinarria da Chopinen musika.

Helburu didaktikoak:
I.8,III.26 (MUS)

Etengabeko ebaluazioa:
ULERMENA

Gaitasun motak:
MOTOREAK, KOMUNIKATIBOAK

Jarduera mota:
ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzea:



Materiala:
2. CDa, 35. ABESTIA

Jarduera hau egiteko espazioa:
HARRERA TXOKOA

JANARIAK SALTZEN ETA EROSTEN

Sekuentzia didaktikoa

GELAKO JANARI DENDA

Janari-denda prestatu

Hasiera

Talde txikietan antola dezakegu taldea (talde bakoitzak lan bat burutu dezake), txoko honetarako beharrezko ditugun gauza guztiak antolatzeko.

Dendaren kokapenaz hitz egin eta erabaki behar dugu: gelako espazioa aztertu, txokoa egun batzuetan mantendu nahi badugu, sor daitezkeen oztopoak aurreikusi...

Non jarriko dugu denda-txokoa? Zeren gainean jarriko ditugu salgaiak?

Zergatik ez da komenigarria hor jartzea?

Zer aldatu beharko dugu bazter honetan denda-txokoak leku egokia izan dezan?...

Denda honen erabilera egokia errespetatzeko eta baloratzeko, aztertuko ditugu bere ezaugarriak, elementu osatzaileak, funtzioak...

Jakiak kaxa honetan sartuz gero, dirua ere kaxa berean sar al dezakegu?

Non ipiniko dugu diru-kaxa, aurrean ala atzean?

Zer sartzen da diru-kaxan?...

Garapena

Etxekoei elkarlana eskatuko diegu denda hau egiteko. Gutun batean eskatuko diegu ikasleek janari-kaxak ekar ditzatela ikastolara: galletak, garbantzuak, dilistak, gaztatxoak...

Dirua prestatu behar dugu, eta salneurriak ere bai.

Bukatzeko, dena antolatuta eta produktuz hornituta daukagunean, jolasten hasteko arauak gogoratu ditugu.

Bukaera

Jolas gaitezen gure gelako janari-dendan!

Eta, animatzen bagara, gurasoak gonbidatuko ditugu gure denda ikustera.

GU SUKALDARI

28. Sukalde-txokoa

PROZEDURA

Sukalde-txoko bat prestatuko dugu Ikasgelan, denda baino sinpleagoa, nahi bada. Gelako txoko batean mahai bat ipiniko dugu jolaserako tresneria guztiarekin: ontziak, platerak, jaki batzuk, harraska... Txoko honetan haurrek bere kasa jolastuko dute. Gauza guztiak bere lekuan jarri beharko dituzte jolasaren amaieran; sukaldea txukundu beharko dute, *etxekoa txukuntzen den bezala*. Tresneria kaxetan gordeko dugu, eta kanpoaldean, etiketa batzuetan, kaxa bakoitzean zer gordetzen den idatziko dugu.

Helburu didaktikoak:
I.12-13,II.4 (I)-5 (I)-III.8 (H)-14 (H)-16 (H)

Etengabeko ebaluazioa:
ADIERAZPENA

Gaitasun motak:
MOTOREAK, KOMUNIKATIBOAK,
GIZARTERATZEKOAK, AFEKTIBOAK

Jarduera mota:
ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzea:



Materiala:
SUKALDEKO JOSTAILUAK

Jarduera hau egiteko espazioa:
SUKALDE TXOKOA

29. Jangela eta sukaldea bisitatu

PROZEDURA

Ikastolan jangela baldin badago, egokia izan daiteke hura bisitatzea, sukaldariak janariak prestatzen ikustea, sukaldeko hainbat tresna ezagutzera eta izendatzea, sukaldarien arropak ezagutzera eta sukaldaritzan aritzen garenean kaleko arropak kendu edo babestu egiten ditugula konturatzea... Sukaldaritzaren mugimenduak aztertuko ditugu: jakiak moztu, janariei buelta eman, gatza botatu... Ikastolan jangelarik ez badago, inguruko jatetxe baten laguntza eska dezakegu.

Helburu didaktikoak: II. (I)-2 (I)-7 (I), III.13 (H)

Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak: MOTOREAK

Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzea:



Materiala: —

30. Sukaldariaren mugimenduak imitatu

PROZEDURA

Sukaldeko bisita amaitu eta ikasgelara itzultzen garenean, gure gorputzaren adierazpen-aukerak hobetzeko, jangelan ikusitako sukaldariaren mugimenduak irudikatuko ditugu, imitazio bitartez. Jolas-kutsua eman nahi bazaio, hezitzaileak zer mugimendu egin behar duten esango du, eta haurrek hura antzeztu behar dute. Erne egon beharko dute haurrek, mugimenduak azkar aldatu beharko baitituzte. Adibidez: *gatza botatu, tipula moztu, ontziak garbitu...* esango du hezitzaileak segidan, eta haurrek keinuak eginez jarraituko dute.

Helburu didaktikoak:
I.6-14, III.14 (H)

Etengabeko ebaluazioa:
ADIERAZPENA

Gaitasun motak:
MOTOREAK

Jarduera mota:
ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzea:



Materiala: —

Jarduera hau egiteko espazioa:
HARRERA TXOKOA

31. Abestia: Salda bero-beroa

Salda bero-beroa
gaur dago guztiontzat,
goilara sartu orduko
denok hasten gara ia dantzan.

Lapikoa sutan jarri
eta gero ura bota.
Haragiak ez du falta izan behar.

Orain porru, azenario
eta gatz pixka bat,
dena nahastu,
igeri egiten dabil perrexila.

PROZEDURA

Dagoeneko ondo ikasi dugunez nola egiten duten lan sukaldariak, oraingoan ere abestearekin batera keinuak egingo ditugu.

Helburu didaktikoak: III.15 (H), III.30 (MUS), III.32 (MUS)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: LIBREA
Materiala: 2. CDa, 34. ABESTIA
Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

32. Sukaldari txanoa egin

PROZEDURA

Aurreko egunetan janariekin jolasean aritu garenez, jarduera honetan sukaldari-txanoa egingo dugu (batzuek lehendik egina izango dute, San Sebastianeko danborradarako). Txanoa egiteko beharko ditugu kartulina zuria (behealderako) eta zetazko papera edo pinotxo paper zuria (goialderako).

Txanoak sukaldeko txokoa erabil ditzakete ikasleek, edo etxera eram. Ondoren egingo dugun fruta-mazedonia egiteko ere jantziko dute.

Helburu didaktikoak:
III.19 (PLAS), III.21 (PLAS)
Etengabeko ebaluazioa:
ADIERAZPENA
Gaitasun motak:
KOMUNIKATIBOAK, MOTOREAK
Jarduera mota:
ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzea: LIBREA
Materiala: KARTULINA ZURIA,
PINOTXO PAPER ZURIA
Jarduera hau egiteko espazioa:
ADIERAZPEN TXOKOA

33. Gaur zer jan nahi duzue?

PROZEDURA

Lan-koadernoan menu desberdinak konbinatzeko aukera aurkituko dugu. Lehen platererako, bigarren platererako eta postrerako lau janariren artean aukeratuko dugu, eta nahi ditugun konbinazioak egingo ditugu.

Helburu didaktikoak:
III.3 (H)-4 (H)-8 (H)-9 (H)
Etengabeko ebaluazioa:
ADIERAZPENA
Gaitasun motak:
KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota:
ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzea: LIBREA
Materiala: 4. FITXA
Jarduera hau egiteko espazioa:
ADIERAZPEN TXOKOA

34. Zer ari da gertatzen hemen? Zehar lerroa: bakea, justizia

Helburu didaktikoak: I.5, II.4 (I)-5 (I), III.2 (H)-12 (H)-16 (H), II.20 (MAT), II.22 (MAT)

Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA, NORTASUNA

Gaitasun motak: GIZARTERATZEKOAK, AFEKTIBOAK, KOGNITIBOAK, KOMUNIKATIBOAK

Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzea:



Materiala: 5. FITXA

Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Fitxak egoera bat aurkezten digu: bost lagun, mahai baten inguruan bildurik, fruta-tarta jatera doaz; tarta bost zatitan moztu dute, baina haur batek bi zati hartu ditu, lagun bat ezer gabe utziz. Banaketa okerra egin dute, beraz.

Haurren justizia-zentzua pizteko eta bizitzako zenbait gertaeraren interpretazioa egiteko aukera izango dugu egoera honekin. Den-denok eskubide berak ditugula adierazi behar zaie.

Beti bezala, hainbat pauso emango ditugu egoera komunikatiboa lantzeko:

Hitzez adierazi. Ikusten dena deskribatu, arazoa identifikatu, hipotesiak formulatu, konponbideak proposatu, ondorioak atera. Izenburu bat proposatu, ahal dela ideia nagusira hurbilduz.

Printzipioa formulatu. Zer ikasi dezakegu hemendik? Guztiok daukate jateko eskubidea. Denen artean eta berdintasunean banatu behar dira gauzak...

Beste testuinguru eta egoeretan aplikatu. Non gertatzen dira sarriago horrelako egoerak? Etxean, parkean, ikastolan...

Idazketa. Izenburua edo printzipioa idatz dezakegu.

Elkarrizketa sortu eta dramatizatu.

Fitxa honetan lanerako beste aukera bat txertatu dugu. Marrazkiaren goialdean dauden apaingarriek zer forma duten galde diezaiekegu ikasleei: triangeluak, hirukiak eta laukia. Gainera, laukiak marroiak eta hirukiak berdeak dira. Koloreen eta formen seriazioa osatzeko dagoenez, hura bukatzea izango da beste lan bat.

35. Sagarraren olerkia

Sagar gorri
sagar hori,
barruan duzu
txuri-txuri
gozo-gozoa
bizi-bizia
azala, mamia
eta hazia.
Sagar gorri,
sagar txuri,
koxk egingo dizut
geroxeago zuri!

Maite Saenz

Helburu didaktikoak:
II.14 (I), III.7 (H)-15 (H)

Etengabeko ebaluazioa:
ULERMENA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak:
GIZARTERATZEKOAK, AFEKTIBOAK,
KOGNITIBOAK, KOMUNIKATIBOAK

Jarduera mota:
ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzea: LIBREA

Materiala: 6. FITXA

Jarduera hau egiteko espazioa:
ADIERAZPEN TXOKOA

PROZEDURA

Olerkia aurkeztu eta irakurri aurretik, erabakiko dugu nola banatu testua, eta zer keinu erabiliko ditugun ulermena errazteko.

Olerkia landu ondoren, irudikatu duten sagarra marraztuko dute, fitxan horretarako eskaintzen zaien tokian.

Sekuentzia didaktikoa

GU SUKALDARI

Materiala: 7. fitxa

Hasiera

Sukaldea nolakoa den ikusi dugu, baita sukaldariek nola egiten duten lan. Orain, guri sukaldari-lana egitea tokatzen zaigu.

Hurrekin batera, errezeta bat aukeratuko dugu. Horretarako, liburutegiko errezeta-liburuak ikus ditzakegu (Interneten ere aukera zabala dugu). (Erreferentzia-liburuak izan daitezke, esate baterako, Andoni Luis Adurizen *Txikitxef -Ariadna-*, *Pirritx eta Porrotx sukaldean* -Elkar-).

Eskolako sukaldera joateko aukerarik ez badugu, ezingo dugu gelan edozein errezeta egin; laberik, edo surik behar ez duen bat aukeratuko dugu. Gure proposamena: fruta-mazedonia.

Garapena

MAZEDONIA

Ikasleen lan-koadernoan aurkituko dugu gurasoei bidali beharreko gutuna. Gure errezeta egiteko ikastolara fruta batzuk ekartzea eskatzen diegu. Ikasleei gutuna irakurriko diegu etxera eraman aurretik, eta ikastolara ekartzeko data idatziko dugu

Gelan bildu ditugun frutekin mazedonia egingo dugu. Frutak manipulatu aurretik, eskuak garbitu behar ditugu. Aurreko gaien erakutsitako prozedurak ongi aplikatzen dituzten ikusi, ***eskuetan eta azazkaletan dugun zikinkeria*** ***ahora eraman ez dezagun***. Sukaldari-txanoak jantziko ditugu, ***mazedonian ilerik eror ez dadin***. Arropa babesteko, sukaldari-mantalak egingo ditugu; bestela, ikastolan erabili ohi ditugun mantalek ere balio dezakete. Ondoren, frutak zatitan moztuko ditugu, labana baten laguntzarekin, eta irakaslearen laguntzaz, jakina, eta ontzi batean ipiniko ditugu. Fruta zati guztiak nahastu, gainetik, nahi izanez gero, jogurta edo fruta-zukua bota, eta, beharrezkoa iruditzen bazaigu, azukrea gehituko diogu.

Bukaera

Mazedonia eginda daukagu! Orain probatu egingo dugu.

ON EGIN!!

36. Artelana: "Guindo jaunaren udareak", Zuloaga

Zer fruta marraztu du Zuloagak hemen? Ba al dakizue zer izen jarri zion bere lan honi marrazkilariak? (Guindo jaunaren udareak). Udare guztiak platerean marraztu al ditu? Zenbat utzi ditu kanpoan? Marrazkilariak marraztutako udare guztiak berdinak al dira? Ikusi al duzue beste inon horrelako bodegoirik? Eta ikusitako horietan ere udareak azalzen al ziren?

Lan-koadernoko 8. fitxan bodegoi bat margotzeko aukera izango du. Nahi izanez gero, puntzoiez zula dezakete fruta bat, edo ontzia osorik, eta atzean koloredun papera itsatsi.

Zuloaga Zabaleta, Inazio. Pintore gipuzkoarra (Eibar, 1870 – Madril, 1945). Erroma, Madril eta Parisen ikasi zuen. Zurbaran, Goya, Greko eta beste hainbat pintore klasikoren jarraitzaile izan zen. Inpresionismoarekiko lotura hautsi eta errealismo espainolaren eskolari eutsi zion. Zumaian bizi izan zen eta bertan museo bat sortu zuen bere koadroekin eta beste pintore askoren obrek. Donostiako San Telmo museoan ere badaude Zuloagaren lanak.

Helburu didaktikoak:
III.18 (PLAS), III.19 (PLAS),
III.23 (PLAS), III.24 (PLAS)

Etengabeko ebaluazioa:
ULERMENA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak:
KOGNITIBOAK, KOMUNIKATIBOAK,
MOTOREAK

Jarduera mota:
MOTIBAZIOA, ESPERIMENTAZIOA,
APLIKAZIOA

Taldekatzea: LIBREA

Materiala: 8. FITXA, 9. FITXA

SINTESIA

37. Ikasnorabidea: zati guztiak erlazionatuz, osotasuna antzeman

Haurtxoak, zer? Janariei buruz asko ikasi al duzue? Interesgarria izan da, ezta? Gustatu al zaizue mazedonia? Eta platanoaren abestia? "Du-bi-du-bi-doa, du-bi-du-bi-doa... Fruta bai, bai dela goxoa (sanoa)". Ea gogoratzen duzuen ikasi dugun guztia.

Ikasnorabidea atera, eta atal guztien birpasa txiki bat egingo dugu, landu diren kontzeptuak, prozedurak eta jarrera nagusiak azpimarratuz.

Helburu didaktikoak:
SINTESIA

Etengabeko ebaluazioa:
GUZTIAK

Gaitasun motak:
GUZTIAK

Jarduera mota:
SINTESIA

Taldekatzea:



Materiala: 1. FITXA

Jarduera hau egiteko espazioa:
HARRERA TXOKOA

8 - "Behin batean baserrian" **(Aste Santuko oporrak eta gero, 4 aste)**

Sarrera

Unitatearen zergatia: baserriko animaliak ezagutzeko, elikagai batzuen sorrera ezagutzeko eta, batez ere, 3 urteko haurrentzat animaliek daukaten erakargarritasunari etekina ateratzeko, ondo pasatzeko.

Unitatearen barruan egin daitezkeen sekuentzia didaktikoak

- Gure gelako MUSIKA BANDA
- Etxe-abereen bilduma
- Baserrira bisita

Hezitzailearen esku dago haurren interesetara egokitzea eta, horren arabera, jarduera bat edo bestea egitea.

Sekuentzia didaktikoen ebaluazioa

- Abiapuntua (nondik hasi ginen eta zergatik)
- Sekuentziaren garapenean erabilitako baliabide materialek, jarduerak, lan taldeek ea...ondo funtzionatu duten, ala aldaketak egin beharra dagoen hurrengo saio baterako.
- Sekuentziaren garapenean emandako harremanak (haurren artean, hezitzailearekin...) eta jarrera behatu.

HEZITZAILEAREN EGINKIZUNA

Hezitzaileak behaketa-lana egitearekin batera, datuak jasoko ditu.

HASIERAKOAK

1. Tradiziozko abestia (girotzeko kanta-jolasa)

PROZEDURA

Kanta honekin koreografia erraz bat egitea proposatzen dugu. Kontuan izanda, adin honetako hurrei *kaka* eta *txiza* hitzak oso erakargarri egiten zaizkiela, aprobeztatuko ditugu giro alaia eta dibertigarria sortzeko.

ASTORAREN KAKALIA

Astoaren kakalia,
arre mando!
Astoaren pixalia,
arre mando!
Bitoria, Bitoria, txibiribirinbonbooo.
Bitoria...

Asto hitza beste animalia batzuen izenarekin ordezkatu daiteke; *mando* ere ordezkatu beharko genuke. Gauza bera egin liteke, haserretzen ez badira behintzat, gelako haurren izenekin.

Helburu didaktikoak:
AURKEZPENA

Etengabeko ebaluazioa:
ULERMENA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak:
AFEKTIBOAK, KOGNITIBOAK,
KOMUNIKATIBOAK

Jarduera mota:
MOTIBAZIOA, ARAKETA

Taldekatzeta:



Materiala:
3. CDa, 3. ABESTIA

Jarduera hau egiteko espazioa:
HARRERA TXOKOA

2. Elkarrizketa: Baserria

JARDUERAREN PLANIFIKAZIOA

Elkarrizketa planifikatzerakoan, honako oinarrizko elementu hauek izango ditugu kontuan:

1. Haur guzien parte hartzea lortu.
2. Elkarrizketa egiteko espazioa: eroso eta komunikazio bultzatzen duena izan behar da. HARRERA TXOKOA
3. Jarduera egiteko denbora aurreikusi.
4. Galderen tipologia ondo pentsatu.
 - Galdera irekiak, baina haurren hizkuntza-kompetentzietara egokituak.
 - Pentsarazten duten galderak.

Helburu didaktikoak:
AURKEZPENA

Etengabeko ebaluazioa:
ULERMENA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak:
AFEKTIBOAK, KOGNITIBOAK,
KOMUNIKATIBOAK

Jarduera mota:
MOTIBAZIOA, ARAKETA

Taldekatzeta:



Materiala: —

Jarduera hau egiteko espazioa:
HARRERA TXOKOA

HEZITZAILEAK BERE ESKU-HARTZEAREN ERREBISIOA EGINGO DU

Haurren interesak

- Haurren esperientzien kontaketa bultzatu duzu jardueraren bitartez?
- Haurren interesak lehenetsi dituzu?

Erronka kognitiboak

- Galderak errebotatzen dituzu edo erantzuna ematen duzu?
- Hipotesiak, arrazonamenduak egiteko, iritziak emateko aukera eskaintzen duzu?
- Jardueraren amaieran, azaldutako ideiak laburbiltzen eta borobiltzen dituzu?

Ikus jarduera konstanteak: Horma-irudia.

3. Ikasnorabidea: Ttانتو marigorringoaren azalpenak (Ttانتoren panpina)

PROZEDURA

Gustatzen al zaizkizue animaliak?

1. *Hasteko, andereñoak/maisak ipuin polit bat kontatuko dizue, eta beti bezala, hainbeste gustatzen zaizkizuen igarkizunak, antzerkiak, olerkiak, abestiak, jolasak... egingo ditugu.*
2. *Baserrietan animalia asko bizi dira. Bada, bertara hurbilduko gara, abere horiek nola bizi diren ikasteko. (Ugaztun batzuk).*
3. *Baina ukuiluaz gain, oilategia ere izaten da gure baserrietan eta han ere badituzte laguntxoak; oilategian, bere izenak dioen bezala, oiloak eta noski, txitak, oilarrak, ahateak eta bestelako lumadunak bizi dira. (Hegazti batzuk)*
4. *Baina, guzti hori ikusteko baserrira hurbilduko gara. Bisitan joango gara. Beno, ba horiez ere hitz egingo dugu.*
5. *Azkenik, eta ohitura onak ez galtzarren, betiko toki hutsa utzi dut. Zertarako ote da?*

Ikus jarduera konstanteak: Ikasnorabideak.

Helburu didaktikoak:
AURKEZPENA

Etengabeko ebaluazioa:
ULERMENA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak:
AFEKTIBOAK, KOGNITIBOAK,
KOMUNIKATIBOAK

Jarduera mota:
MOTIBAZIOA, ARAKETA

Taldekatzea:



Materiala:
1. FITXA

Jarduera hau egiteko espazioa:
HARRERA TXOKOA

4. Horma-irudia

JARDUERAREN PLANIFIKAZIOA

Elkarrizketa planifikatzerakoan, honako oinarriko elementu hauek izango ditugu kontuan:

1. Haur guzien parte hartzea lortu.
2. Elkarrizketa egiteko espazioa: eroso eta komunikazio bultzatzen duena izan behar da. HARRERA TXOKOA
3. Jarduera egiteko denbora aurreikusi.
4. Galderen tipologia ondo pentsatu.
 - Galdera irekiak, baina haurren hizkuntza-kompetentzietara egokituak.
 - Pentsarazten duten galderak.

HEZITZAILEAK BERE ESKU-HARTZEAREN ERREBISIOA EGINGO DU

Haurren interesak


- Haurren esperientzien kontaketa bultzatu duzu jardueraren bitartez?
- Haurren interesak lehenetsi dituzu?

Erronka kognitiboak

- Galderak errebotatzen dituzu edo erantzuna ematen duzu?
- Hipotesiak, arrazonamenduak egiteko, iritzia emateko aukera eskaintzen duzu?
- Jardueraren amaieran, azaldutako ideiak laburbiltzen eta borobiltzen dituzu?

Ikus jarduera konstanteak: Horma-irudia.

Helburu didaktikoak: 1.5-II.1 (I), II.2 (I)-III.16 (H)
Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA, ULERMENA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK, AFEKTIBOAK
Jarduera mota: ARAKETA, MOTIBAZIOA

Taldekatzea: 

Materiala: HORMA-IRUDIA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

5. Jolaserako kantua: Astotxikika

JOLAS ETA JOLAS

Jolas eta jolas
nabil baserrian
ezkutatu den hori,
aurkitu nahian.
Astoa sartu dela,
nire ohe-azpian,
txerria gorde zaigu
horko tximinian,

hamar kontatuko dut
orain bat-batian (bis)
Bat, bi, hiru, lau... hamar!
Astotxiki!


M. Saenz

Helburu didaktikoak:
AURKEZPENA

Etengabeko ebaluazioa:
ULERMENA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak:
AFEKTIBOAK, KOGNITIBOAK,
KOMUNIKATIBOAK

Jarduera mota:
MOTIBAZIOA,
ARAKETA

Taldekatzea:


Materiala:
3. CDa, 4. ABESTIA

Jarduera hau egiteko espazioa:
HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Abesti hau ezkutaketa jolasteko da. Haur bati zenbatzea egokituko zaio, begiak estalita, beste guztiak ezkututzen diren bitartean. Denen artean diote kantu hau. Hamar arte zenbatu ondoren, lagun bati hasiko da, eta bat ikusten duen bakoitzean "asto txiki!" esango du. Lehenengo ikusten duen hari egokituko zaio zenbatzea hurrengo txandan.

6. Antzeppen kolektiboa (ipuin dramatizatua): *Bremengo musikariak*

PROZEDURA

Ipuinaren antzeppen kolektiboan sartu aurretik, ipuinaren sarrera bat egitea komeni da. Hau da, ipuinean azalduko diren pertsonaiak izendatu, antzeppen kolektiboan dauden arauak gogoratu...


Ikusi jarduera konstanteak: Antzeppen kolektiboa (ipuin dramatizatua).

Helburu didaktikoak:
I.6- III.1 (H), III.12 (H), III.13 (H)

Etengabeko ebaluazioa:
ULERMENA, ADIERAZPENA,
NORTASUNA

Gaitasun motak:
AFEKTIBOAK, KOMUNIKATIBOAK, MOTOREAK

Jarduera mota:
MOTIBAZIOA, ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzeta:


Materiala: —

Jarduera hau egiteko espazioa:
HARRERA TXOKOA

BREMENGO MUSIKARIAK

	Behin batean, bazen asto zahar bat baserri batean bizi zena. Lan asko eginarazten zioten gaixoari.
	Arre, arre, asto. Segi lanean!
	Aaa! Euf! Ezin dut gehiago!
	Arre, arre, asto zaharra. Segi lanean!
	Aaa! Euf! Euf! Ezin dut gehiago!
	Arre, arre! Lanik ezin baduzu egin, hil egingo zaitut.
	Orduan, astoak erabaki bat hartu zuen.
	Ez naute hilko. Ihes egingo dut. Musikaria egingo naiz. Biolina joko dut.
Borobilean bueltan kantatuz ibili.	<i>Astoak a-ja-ja! Zakurrak uau-uau! Oilarrak kukurruku! Katuak miau-miau! (bis)</i>
	Bidean zihoala, zakur bat ikusi zuen.
	Au-au-au! Kaixo, asto!

3. zehaztapen-maila

	Aaa, aaa! Kaixo, zakur, nora zoaz?
	au-au! Ihesi noa. Zahartu egin naiz eta nagusiak hil egingo nau.
	Aaa, aaa! (ni ere bai) Zatoz nirekin, danborra joko duzu.
	Au-au! Ederki. Goazen!
Borobilean bueltan kantatuz ibili.	<i>Astoak a-ja-ja! Zakurrak uau-uau! Oilarrak kukurruku! Katuak miau-miau! (bis)</i>
	Bidean zihoazela, katu bat ikusi zuten.
	Miau, miau, marramiau!
	Aaa, aaa! Kaixo, katu, nora zoaz?
	Miau, miau! Ihesi noa. Zahartu egin naiz eta nagusiak hil egingo nau Aaa, aaa! Zatoz gurekin, turuta joko duzu.
	Miau, miau! Ederki. Goazen!
Borobilean bueltan kantatuz ibili.	<i>Astoak a-ja-ja! Zakurrak uau-uau! Oilarrak kukurruku! Katuak miau-miau! (bis)</i>
	Bidean zihoazela, oilar bat ikusi zuten.
	Kukurruku, kukurruku!
	Aaa, aaa! Kaixo, oilar, nora zoaz!
	Kukurruku, kukurruku! Ihesi noa. Zahartu egin naiz eta nagusiak hil egingo nau.
	Aaa, aaa! Zatoz gurekin, abeslaria izango zara.
Borobilean bueltan kantatuz ibili.	<i>Astoak a-ja-ja! Zakurrak uau-uau! Oilarrak kukurruku! Katuak miau-miau! (bis)</i>
	Eta laurak bidean aurrera joan ziren. Bat-batean ilundu egin zitzairen.
	Aaa, aaa! Gaua da.
	Miau, miau! Hau da beldurra!
	Au-au-au! Gose naiz.
	Kukurruku, kukurruku! Nekatu naiz! Zer egingo dugu orain?
	Aaa, aaa! Begira! Argitxo bat! Etxe bat! Goazen janaria eskatzera!
	Etxera hurbildu ziren, baina leihotik begiratzean lapurrak ikusi zituzten.
	Aaa, aaa! Lapurrak daude!

	Miau, miau! Hau beldurra!
	Au-au-au! Baina mahaia janariz betea dute. Hau gosea!
	Kukurruku, kukurruku! Lo egin nahi dut!
<i>Haurrak banatu eta talde bakoitzak animalia baten soinua egiten du.</i>	Aaa,aaa! au-au! Miau, miau! Kukurruku, kukurruku!
	Eta lapurrak izutu egin ziren.
	Mamuak, mamuak! Goazen hemendik!
	Kar-kar-ka! Beldurtu egin dira! Beldurtu egin dira! Goazen barrura! Janari goxoa jango dugu! Mau, mau, mau...
	Eta lapurrak ez ziren gehiago itzuli. Lau animaliak han gelditu ziren bizitzen, eta inguruko herrietan musika jotzen zuten, lagun giroan.
	<i>Eta kanta, kanta, kanta, kantari. Eta dantza, dantza dantzari, Eman, eman bai</i>
	Hala bazan ez bazan...

IPUINA AITZAKIA

7. Ipuinaren abestia

ASTOAK AJA-JA!

Astoak aja-ja!
Zakurrak uau-uau!
Oilarrak ku-ku-rru-ku!
Katuak miau-miau! (bis)


*Eta kanta, kanta,
kanta, kantari,
eta dantza, dantza,
dantza, dantzari.
Eman, eman bai
danberrari,
eman, eman bai
turutari.*

Gaur arratsaldean abere denak
menditik zelaira etorri dira. (bis)

Eta kanta, kanta...

Astoak ostikoz, zakurrak hozka,
oilarrak mokoka, katuak zarpa! (bis)

*Helburu didaktikoak: III.15 (H)- III.30 (MUS), III.32 (MUS)
Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: AFEKTIBOAK, KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA*

Taldekatzea:  LIBERA

*Materiala: 3. CDa, 2. ABESTIA
Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA*

Eta kanta, kanta...

Astoa beheraka, zakurra gora,
oilarra hegan, katua jiran. (bis)

Eta kanta, kanta...

PROZEDURA

Ikusi jarduera konstanteak: Ipuinaren abestia.

8. Animalien kareta margotu, kanta antzezteko

PROZEDURA


Unitatearen bukaeran, eskuragarri dauzkazue astoa, katu, oilarra eta txakurraren marrazkiak. Horiek adierazpen txokoan haurren eskura jarri eta margotzeko eskatuko diegu.

Margotu aurretik, zein animalia aukeratuko duten adierazi beharko digute, modu horretan, animalia guztiak ordezkaturik daudela ziurtatuko dugu.

HEZITZAILEAREN EGINKIZUNA

Kareta margotzeko ditugula ondoren kanta antzezteko dugun bitartean erabiltzeko, azalduko diegu haurrei.

Bestetik, kudeatzaile lana egingo du eta, beti bezala, datuen bilketa eta gatazken bitartekari.

Helburu didaktikoak: III.15 (H) - III.30 (MUS), III.32 (MUS)
Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: AFEKTIBOAK, KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzea:  LIBERA
Materiala: ANIMALIEN KARETAK
Jarduera hau egiteko espazioa: ADIERAZPEN TXOKOA

9. Ipuinaren kanta antzeztu

PROZEDURA

Kareta erabiliz, "Bremengo musikariak" kanta eszenifikatu dezakegu: ostikoak emanez astoz mozarrotu direnak; hozka eginez txakurrez mozarrotu direnak; mokoka (eskuarekin adieraz daiteke), zarpa, goraka, beheraka, hegan, jirra eta dantzan.

Helburu didaktikoak: I.6-8, II.4 (I)-9 (I), III.14(H)-15(H), III.30(MUS), III.32(MUS)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: AFEKTIBOAK, KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: MOTIBAZIOA, ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzea: LIBERA
Materiala: ANIMALIEN KARETAK; 3.CDa, 2, ABESTIA
Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

10. Elkarrizketa

JARDUERAREN PLANIFIKAZIOA

Elkarrizketa planifikatzerakoan, honako oinarriko elementu hauek izango ditugu kontuan:

1. Haur guzien parte hartzea lortu.
2. Elkarrizketa egiteko espazioa: eroso eta komunikazio bultzatzen duena izan behar da. HARRERA TXOKOA
3. Jarduera egiteko denbora aurreikusi.
4. Galderen tipologia ondo pentsatu.
 - Galdera irekiak, baina haurren hizkuntza-kompetentzietara egokituak.
 - Pentsarazten duten galderak.

HEZITZAILEAREN EGINKIZUNA

Hezitzaile bakoitzak bere esku-hartzearen errebisioa egin beharko du.

Haurren interesak

- Haurren esperientzien kontaketa bultzatu duzu jardueraren bitartez?
- Haurren interesak lehenetsi dituzu?

Adibideak:

Gustatu al zaizue ipuina?

Zer gustatu zaizue gehien?

Zer iruditu zaizue astoaren, txakurraren, katuaren eta oilarraren jabeen portaera?

Eta animaliek lapurrei emandako sustoa?

Animaliek ba al dakite musika-tresnarik jotzen edo hori ipuinetan bakarrik gertatzen da?

Musika gustatzen al zaizue?

Gustatuko al litzaizueke handitan musika-tresnaren bat jotzea? Zer tresna?

Zuen herrira etortzen al da musika-bandarik? Noiz? Eta non jotzen du? Gustukoa al duzue? Zer eginguten duzue bandak (taldeak) jotzen duenean?

Helburu didaktikoak:
I.5, III.1, III.12, III.13

Etengabeko ebaluazioa:
NORTASUNA, ULERMENA,
ADIERAZPENA

Gaitasun motak:
KOMUNIKATIBOAK,
GIZARTERATZEKOAK, KOGNITIBOAK

Jarduera mota:
MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzeta:



Materiala: —

Jarduera hau egiteko espazioa:
HARRERA TXOKOA

11. Animaliak sailkatu eta "kontatzen" jolasa

PROZEDURA

Berriz ere kareta jantzita, zenbatu egingo ditugu haurrak. Lehenik, gelako guztiak. Ondoren, astoak, oilarrak, txakurrak... Multzoak osa ditzakegu honako irizpide hauen arabera; ondoren, multzo bakoitzean daudenak zenbatu eta, azkenik, dagokion zenbakia idatzi edo txartela erakutsi (hiztegi-txartelak ikusita hanka kopurua beha daiteke):

- Mokoak dutenak
- Lau hanka dituztenak
- Etxe barruan egon daitezkeenak (egon ohi direnak, katua eta txakurra alegia)
- Zaunkarik egiten ez dutenak
- Arrantza egiten ez dutenak
- ...

Zertan dira berdinak ahatea eta oiloa? Eta txerria eta ardia? Eta astoa eta txakurra?... (Ezaugarri komunak irizpide desberdinen arabera deduzitu).


Inoiz ikusi al duzue artalderik mendian? Esango al zenukete zenbat ardi zeuden gutxi gorabehera? Ea, esango al dituzue zenbaki handi-handiak? Idatziko al ditugu? Zenbat oilo egon daitezke oilategian? Eta zenbat untxi?

Helburu didaktikoak:
II.17 (MAT), II.19 (MAT), II.23 (MAT), II.25 (MAT)

Etengabeko ebaluazioa:
ULERMENA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak:
KOGNITIBOAK, KOMUNIKATIBOAK

Jarduera mota:
ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzea:
LIBREA 

Materiala:
ANIMALIEN KARETAK

Jarduera hau egiteko espazioa:
HARRERA TXOKOA

12. Ipuinaren elkarrizketa-jolasa atzamarrekin

PROZEDURA

Txotxongiloekin elkarrizketa-jolasa egiteko, aukera bat proposatzen dugu.

Helburu didaktikoak: I.13, II.14 (I), III.1 (H)-12 (H)

Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, GIZARTERATZEKOAK, MOTOREAK

Jarduera mota: MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea: LIBREA

Materiala: 10. FITXA

Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

Ikasle guztiak irakaslearen laguntzarekin	Behin batean, bazen asto zahar bat baserri batean bizi zena. Lan asko eginarazten zioten.
Baserritarra	Arre, arre, asto. Segi lanean!
Astoa	Aaa, aaa! Euf!!! Ezin dut gehiago!
Baserritarra	Arre, arre, asto zaharra! Segi lanean!
Astoa	Aaa, aaa! Euf! Euf! Ezin dut gehiago!
Baserritarra	Arre, arre! Lanik ezin baduzu egin, hil egingo zaitut.

Ikusi jarduera konstanteak: Elkarrizketa-jolasak atzamarrekin.


13. Zer musika-tresna jotzen du bakoitzak?

PROZEDURA

Bat-bat erlazioa landuko dugu, baina arazotxo batekin egingo dugu topo, oilarrak ez baitu tresnarik jotzen.

Zenbat dira bandan? Zenbat dira musika-tresnak? Guztiek jotzen al dute tresnaren bat? (Bai, oilarra **izan ezik**). Zer daude gehiago, musikariak ala musika-tresnak?

Lotu musikari bakoitza jotzen duen musika-tresnarekin.

Helburu didaktikoak: II.21 (MAT)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOGNITIBOAK KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzea: 
Materiala: 2. FITXA
Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

14. Hiztegi jolasa: "Nahastu-nahastu" jolasa edo "Batidora jolasa"

PROZEDURA

Lehenengo, hezitzaileak gidatuko du jolasa, horrela, eredia eskaintzen du.

HEZITZAILEA: *Nahastu, nahastu, nahastu* —esan, eta aukeratutako txartelak nahasten ditu.



HAURREK: *Nahiko!*

HEZITZAILEA; *Zer da?*

HAURREK:*da*

Behin baino gehiagotan horrela jolastu ondoren, haur bati eskatuko diogu jolasa bideratzea, dinamika berdina eramanez

Jolas honen dinamika ulertzen denean, eta tartea eman ondoren beraien kabuz jolasteko, hurrengo jolasa planteatu dezakegu.

Helburu didaktikoak: I.13,II.4, III.7 (H)-8 (H), II.16 (MAT)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA, NORTASUMA
Gaitasun motak: KOGNITIBOAK, MOTOREAK, GIZARTERATZEKOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzea:   LIBREA
Materiala: HIZTEGI TXARTELAK
Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

15. Gu ere musikari: Eskuen musika

ESKUEN MUSIKA

Musika nahi baduzu, entzun eidazu, musika politenak zurekin dituzu.

Eskuak kolpatzean...

Belaunak kolpatzean...

Bularra kolpatzean...

PROZEDURA

Gorputz-atalekin musika sortzen saiatuko gara, kolpatzeaz gain ahoarekin atera ditzakegun soinuak ere landuz.

Helburu didaktikoak: III.28 (MUS), III.19 (MUS), III.20 (MUS), III.21 (MUS)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: MOTOREA, KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzea: LIBREA
Materiala: 3.CDa 5. ABESTIA
Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

16. Turuta egingo dugu

PROZEDURA

Fitxan agertzen den patroia margotu eta, ondoren, moztu.
Moztu eta gero papera bildu, eta dagokion tokitik itsatsi.

Helburu didaktikoak:
i.11, II.3 (I), III.17 (PLAS), III.20 (PLAS)

Etengabeko ebaluazioa:
ADIERAZPENA, NORTASUNA

Gaitasun motak:
MOTOREAK, KOMUNIKATIBOAK

Jarduera mota:
ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea:



Materiala:
3. FITXA

Jarduera hau egiteko espazioa:
ADIERAZPEN PLASTIKORAKO TXOKOA

17. Abestia: Abereak maite ditugu

GUK MAITE DITUGU, ABEREAK

Guk maite ditugu, abereak: (bis)
zaldiak ta txakurrak, xoriak, arrainak,
denak maite ditugu,
politak dira eta.
Orain kanta dezagun:
Astoak ajaja!
Idiak mu-mu-mu!
Ahatetxoak kuakuakua!
Zaldiak iji-ji!
Xakelak kroa-kroa-kroa!
Txerriñoak kurrin-kurrin!
Txepetxak piri-pi!
Kilkerrak kri-kri-kri!
Oilarrak kukurru-kuku!
Kurru-kuku!
Katuak miau miau!
Txakurrak uau uau-uau!
Arkumeak bee-bee-bee!

Helburu didaktikoak: II.12 (I), III.30 (MUS), III.32 (MUS)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK

Jarduera mota: MOTIBAZIOA, ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea: LIBREA

Materiala: 3. CDa, 7. ABESTIA

Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Ikusi jarduera konstanteak: Abestiak.

18. Olerkia

Helburu didaktikoak: I.15, III.1 (H)-15 (H)

Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK

Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea: LIBREA

Materiala: —

Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

Arre!
Mando ipurterre.
Isoo!
Asto gainean bi uso.
Uau,uau,uau!
Zakurrak jango al hau!
Mix, mix, mix!
Katuak egin du pix.
Beee, beee...
Egunon, arkume.
(Irakurgaiak 1)

PROZEDURA

Ikusi jarduera konstanteak: Olerkiak.

Sekuentzia didaktikoa

1. GURE GELAKO MUSIKA-BANDA

Materiala: 3. CDa, 6. ABESTIA

PROZEDURA

Hasiera: ipuineko gorabeherak gogora ekarriko ditugu

Ipuinean gertatutakoa gogoratzeko, hezitzailearen kontaketa proposatzen dugu.

Hezitzailearen kontaketa egiteko jarduera konstanteak: hezitzailearen eginkizuna (18. or.)

Garapena

Ikastolako musika-gelan edo HH etapan dauden musika-tresnak bildu eta gelara eraman.

Musika-tresnak zaintzeko eta erabiltzeko behar diren arauak eta gomendioak ondo finkatu eta haur taldearekin adostu. Arau horiek D-3 orri batean idatzi, eta gelako pareta batean jarriko ditugu, gogoratu behar ditugunean eskura izan ditzagun.

Musika-tresnak haurren eskutan utzi, behaketarako tartea utziz. Behatzeko eta esperimintatzeko tarte honek garrantzi handia dauka, beraz, denbora emango diegu ondo azter ditzaten, arauak errespetatuz betiere.

Haurrak taldeka antolatu.

Talde bakoitzak tresna bat joko du eta bere tresna aipatzen dugunean, aurreratu eta soinua aterako dute. Tresnarik lortzen ez badugu, gorputz-atal batekin ordezkatu dezakegu

Gure gelako banda ondo funtzionatzeko, talde guztien parte hartzea ezin bestekoa dela konturatu behar dira. Tresna guztiak bere garrantzia daukatela eta denak beharrezkoak direla banda osatzeko.

Amaiera

Gelan, utzi musika-tresnak haurren eskura.

Bandako emanaldia ikastolako patioan eskainiko dugu, libre dagoen une batean. Aukera badugu, beste gonbidapena bidaliko diegu geletako hurrei.

AI BANDIS (bandan jotzeko kanta)

Ai, bandis musikandis, ai, bandis tronpeta:

po-po-po-po, po-po-po

po-po-po-po-po-po-po.

Ai, bandis, musikandis, ai, bandis danborra:

tan-taratan-taratan-tan-tan

tan-taratan-taratan-tan-tan.

Po-po-po-po, po-po-po

po-po-po-po-po-po-po.

Ai, bandis musikandis, ai, bandis pianoa:

pia-pia-piano,

pia-pia-piano.

Pan-taratan-taratan-tan-tan

tan-taratan-taratan-tan-tan.

Po-po-po-po, po-po-po

po-po-po-po-po-po-po.

(Hemen proposatzen dugun kanta aukera bat baino ez da; beste askorekin ere munta daitezke bandarako egokitzapenak)

BASERRIKO ANIMALIAK

19. Igarkizunak

PROZEDURA

Eskuinean adar bat daukat,
ezkerrean bestea,
sabel aldean berriz
titi edo errapea.

Goiko igarkizuna arbelean idaztea proposatzen dugu, errimak antzeman ditzaten (nahi izanez gero, "-ea" bukaera azpimarra daiteke). Izan ere, errimak antzemateko gaitasuna erlazionaturik dago irakurtzen eta idazten ikasteko gaitasunarekin (kontzientzia fonologikoa).

Kurrinka eta kurrin
baserri aldean nabil.
Tripa handia eta
buztana biribil.
Lokatz artean beti
pozik eta (baina) zikin.
(Txerria)

M. Saenz

Bi belarri handiak
zaldiaren antza,
ahoa irekita,
egiten du arrantza.
(Astoa)

Irakurgaiak 1

Helburu didaktikoak: II.12(I), III.1(H)-2(H)-12(H)-13(H)-15(H)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOGNITIBOAK, KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzea: LIBREA
Materiala: —
Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

Hiztegi-txartelak bana ditzakegu eta, deskribapenak eginez, igarkizunak asmatzen jarriko ditugu haurrak. Adibidez: *Mu-mu egiten dut eta esnea ematen dut.*

Gai honetan erraza eta baliagarria izango zaigu onomatopeiak erabiltzea.

20. Baserriko animaliei buruzko elkarrizketa

JARDUERAREN PLANIFIKAZIOA

Elkarrizketa planifikatzerakoan, honako oinarrizko elementu hauek izango ditugu kontuan:

1. Haur guzien parte hartzea lortu.
2. Elkarrizketa egiteko espazioa: eroso eta komunikazio bultzatzen duena izan behar da. HARRERA TXOKOA
3. Jarduera egiteko denbora aurreikusi.
4. Galderen tipologia ondo pentsatu.
 - Galdera irekiak, baina haurren hizkuntza-kompetentzietara egokituak.
 - Pentsarazten duten galderak.

HEZITZAILEAK BERE ESKU-HARTZEAREN ERREBISIOA EGINGO DU


Haurren interesak

- Haurren esperientzien kontaketa bultzatu duzu jardueraren bitartez?
- Haurren interesak lehenetsi dituzu?

Erronka kognitiboak

- Galderak errebotatzen dituzu ala erantzuna ematen duzu?
- Hipotesiak eta arrazonamenduak egiteko eta iritziak emateko aukera eskaintzen duzu?
- Jardueraren amaieran, azaldutako ideiak laburbiltzen eta borobiltzen dituzu?

Ikus jarduera konstanteak: Horma-irudia.



21. Aho-korapiloa: “rr” fonema

AKERRAK	AKERRAK
ADARRAK	DITU.
OKERRAK	ADARRAK
DITU.	OKERRAK
OKERRAK	AKERRAK
ADARRAK,	DITU

PROZEDURA

Aho-korapilo hau aurreko olerkiarekin proposatzen genuen bezala, arbelean idatzi dezakegu. Zutabea idatziko dugu bukaerak identifika ditzaten: **-rrak**. Ikas dezatela buruz paragrafo bat.

Ikusi jarduera konstanteak: Olerkiak.

Helburu didaktikoak: III.7(H)- 9 H)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOGNITIBOAK, KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: LIBREA
Materiala: —
Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA


22. Gaia aberasten. “Txoko txuria”

PROZEDURA

Baserriko animaliak edo abereak zein diren aztertzeko, hezitzaileak gai horri buruzko hainbat elementu eskuratuko ditu.

Euskarri horien zainketa eta erabilera-arauak gogoratzea garrantzitsua da. Beharko balitz, liburuak kontsultatzeko txandak ere antola daitezke.

Ikusi jarduera konstanteak: Gaia aberasten.

Helburu didaktikoak: II.12 (I), III.1 (H)-5 (H)-6 (H)-10 (H)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: KOGNITIBOAK, AFEKTIBOAK
Jarduera mota: MOTIBAZIOA, ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: 
Materiala: IPUINAK, ALDIZKARIAK...
Jarduera hau egiteko espazioa: TXOKO TXURIA

23. Olerkia: “Untxiari”

Helburu didaktikoak: I.15, III.7(H)-15(H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: MOTIBAZIOA, ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: LIBREA
Materiala: —
Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA, LIBURUTEGIA

Belarriak luze
ilea leun,
untxi txuri polit bat
daukat nik lagun.
Baserrian saltoka
dabil gau eta egun
azenarioak janez
igande eta astegun.

M. Saenz

PROZEDURA

Olerki honen bidez errimak ere landu ditzakegu.

Ikusi jarduera konstanteak: Olerkiak.

24. Kua, kua abestia

KUA, KUA

Kua, kua, kua, kua,
poliki-poliki doaz,
kua, kua, kua, kua,
poliki ahatekoak.

PROZEDURA

Ahateen ibilera imitatuko dugu kantua abesten dugun bitartean.

Helburu didaktikoak:
I.6, III.14 (H), III.30 (MUS), III.32 (MUS)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: MOTOREA, KOMUNIKATIBOA
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzea: LIBREA
Materiala: 3. CDa, 8. ABESTIA
Jarduera hau egiteko espazioa:
HARRERA TXOKOA

25. Igerian

PROZEDURA

Nola egiten dute igeri ahateek?

Eta arrainek?

Eta guk? Zer modu desberdinetan egiten dugu igerian pertsonok?

Txakurren modura, "tximeleta" estiloan, "braza", "kroll", bizkarrez... hainbat igeriketa estilo imitatuko ditugu besoen mugimendua landuz. Hanken mugimendua egiteko, lurrean etzan beharko dugu.

Helburu didaktikoak: I.6-8-9
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: MOTOREAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: LIBREA
Materiala: —
Jarduera hau egiteko espazioa:
HARRERA TXOKOA / PATIOA

26. Oilategiko lagunak. Zertan dira berdinak eta zertan desberdinak?

PROZEDURA

Hainbat animalia pentsatu, eta, lehenik, berdintzen eta desberdintzen dituzten ezaugarriak identifikatu eta aipatuko ditugu; ondoren, ezaugarri komunak inferituko ditugu.


Zertan dira berdinak ahateak, oiloak, oilarrak, usoak, txitak...?

Zertan dira desberdinak?

Orduan, hegazti guztiek ... d(it)u(z)te.

Kopurua lantzen jarrai dezakegu, animalien gorputzen deskribapena lantzen ari garen bitartean:

Bi hanka; bi begi; belarririk ez (0); sudurra?; mokoa; lumak; hegoak (batzuk besteak baino handiagoak); arrautzetatik jaiotzen dira; zenbat luma?...

Helburu didaktikoak: II.12 (I), II.16 (MAT), II.19 (MAT), II.23 (MAT)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOGNITIBOA
Jarduera mota: INFORMAZIOA, ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: 
Materiala: —
Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

27. Arrautzetatik txitak jaiotzen dira

PROZEDURA

Lan-koadernoko 4. fitxan txiten jaiotze-prozesua erakusten zai-
gu, baina ez dago ordena egokian. Beraz, haurrek irudiak moztuko
dituzte, eta hurrengo fitxan, 5.enean, ordenan itsatsiko dituzte.

*Ikus orrialde hau, ondo al dago? Txitatxoak jaio ondoren, sar-
tzen al dira berriro arrautza barrura?*

Zer gertatzen da lehenago?

Eta ondoren?

Eta azkenik?

Helburu didaktikoak:
I.11-15, II.12(I), III.1(H)-3(H)-8(H), II.20(MAT)

Etengabeko ebaluazioa:
ULERMENA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak:
KOGNITIBOAK, KOMUNIKATIBOAK

Jarduera mota:
APLIKAZIOA

Taldekatzea: LIBREA

Materiala:
4. eta 5. FITXAK

Jarduera hau egiteko espazioa:
ADIERAZPEN TXOKOA

28. Olerkia: Oilaloka kakaraka, txitatxoak txioka

Oilaloka, (ari da)
arrautzak berotzen.
Txitatxoak, berriz,
elkarri galdetzen:
-Irtengo al dugu?
Ni ez naiz ausartzen!
-Ama haserretu egingo da
ez badugu irteten.
-Goazen ba, goazen!

Maite Saenz

PROZEDURA

Puntuzko marren gainetik pasa, eta marrazkia apainduko dugu. Horretarako, aukera bat baino
gehiago daukagu: plastilina gainetik zabalduz, lastoa eta arrautza-azala itsatsiz (hau da zailena) edota
mosaiko moduan, eskuz edo guraizez moztutako paper (txarol papera) zati txikiak itsatsiz...

Horrekin batera, olerkia "irakurri" egingo dugu.

OHARRA:

4., 5. eta 6. fitxak batera planteatuko ditugu bi espaziotan. Talde handian aurkeztu ondoren, haurrei
utziko diegu nahi duten fitxa aukeratzen. Hezitzailearen lana izango da haur kopuruaren kudeatzea
eta espazioaren antolatzea.

Helburu didaktikoak:
I.11-15, III.8 (H)-15 (H), III.18 (PLAS), III.20 (PLAS)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, MOTOREAK

Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, APLKAZIOA

Taldekatzea: LIBREA

Materiala: 6. FITXA

Jarduera hau egiteko espazioa:
ADIERAZPEN TXOKOA

29. Abestia

TXAKUR BAT EROSI DUT

Txakur bat erosi dut
uau, uau, uau
merke azokan,
zikina zegoela (bis)
eta sartu dut baineran.

*Uau, uau, uau, uau,
txakur bat erosi dut
merke azokan.*

Baineran sartu eta
uau, uau, uau,
dabil uretan,
trago bat egin eta (bis)
ia ito zait uretan.

*Uau, uau, uau, uau,
txakur bat erosi dut
merke azokan.*

Garbitu eta gero
uau, uau, uau
ongi lehortu
arkakoxo txolinak (bis)
itota dira geratu.

*Uau,uau, uau, uau,
txakur bat erosi dut
merke azokan.*

Txakur bat erosi dut
uau, uau, uau
merke azokan,
ilundu zaigu eta (bis)
alfonbran jarri dut lotan.

*Uau, uau, uau, uau,
txakur bat erosi dut
merke azokan.*

PROZEDURA

Ikusi jarduera konstanteak: abestiak (23. or.)

30. Olerkia

Miai eta miau
Mix-mix katuak (miau)

Bi belarri dauzka
tente-tenteak,
ahoa inguratuz
bibote luzeak,
buztana beltza eta
begiak berdeak.

Miau eta miau
Mix-mix katuak (miau)

M. Saenz

Helburu didaktikoak:
III.15 (H), III.30 (MUS), III.32 (MUS)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: MOTIBAZIOA, ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: LIBREA
Materiala: 3. CDa, 9. ABESTIA
Jarduera hau egiteko espazioa:
HARRERA TXOKOA

Helburu didaktikoak:
I.15, III.8 (H)-9 (H)-15 (H), III.18 (PLAS), III.19 (PLAS)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: MOTIBAZIOA, ESPERIMENTAZIOA,
APLIKAZIOA
Taldekatzea: LIBREA
Materiala: KARTULINA, KATU BATEN MARRAZKIA
Jarduera hau egiteko espazioa:
HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Kartulina batean (din A4) katu baten profila marraztuko eta fotokopiatuko dugu. Haurrek katua margotu edo collage moduan apainduko dute; bibotea egiteko, soka mehe edo lokarri bat itsatsi. Aurreko aldean (sartzen bada) edo atzeko aldean olerkia idatz dezakegu, marrazkiari begira "irakur" dezaten.


31. Ikusmen-diskriminazioa JOLASA

PROZEDURA

Bi marrazki hauek berdinak dirudite, baina...

Lan-koadernoan azaltzen diren bi irudien behaketa konparatiboa egingo dugu, talde handian eta elkarrizketatuz, lehenik. Ondoren, bakarka markatuko dituzte desberdintasunak.

Jarduera honen helburua ez da desberdintasun guztiak aurkitzea, horretan aritzea eta arreta jartzea baizik.



Sekuentzia didaktikoa

2. ETXE-ABERE BILDUMA

Materiala: ALBUMERAKO AZALA, 8. FITXA

PROZEDURA

Hasiera

Etxe-abereen album bat osatzea proposatzen dugu, gelako liburutegian edukitzeko.

Horretarako erabiliko ditugu, batetik, material osagarriaren atalean daukagun albumaren azala, eta bestetik, lan-koadernoko **8. fitxa**.

Garapena

Hainbat bide ditugu abereen album hori osatzeko:

- Ikasleei eskatu etxean dituzten abereen argazkiak (unitatearen azken atalean lantzen ditugu), edota bestelako abereen eta animalien argazkiak.

Horretarako gutuna:

Guraso agurgarriak:

Tttantto naiz, ezagutzen al nauzue? Horixe ba, zuen seme-alaben ikastolako laguntzua!... eta, ba al dakizue zertarako idazten dizuedan gutun hau? Ez? Bada, mesedetxo bat eskatzeko! Dakizuen bezala, ikastolan "Baserría eta etxe-abereak" gaia lantzen ari garenez, etxe-abereen album bat egitea gustatuko litzaiguke. Zuen edota familiako baten etxean duzuen animalia baten argazkia ikastolara bidaltzea eskatu nahi dizuegu. Familian ez baduzue animaliarik, berdin zaigu aldizkari, egunkari edo nahi duzuen lekutik hartutako argazki bat, edota mendira joaten zarete-nean bertan ikusitako animalia bati ateratakoa.

Lagunduko al diguzue? Bai, ezta? Baina, baina zer guraso super-jatorrak zareten!

Ah, eta gehiegitxo eskatzea ez bada, saiatuko al zarete argazkia apaisatua izan dadin eta, lau lerrotxotan, animalari buruzko zerbait kontatzen?

Merezi dituzuen eskerrak aurretik emanez... Laster arteeee!

- Hezitzaileak liburuetakoko argazkiak hartu eta fotokopiatu (zuri-beltzean egiten badira, margo daitezke).
- Aldizkarietakoko argazkiak moztu (badira naturaren gaiak lantzen dituzten aldizkari ez oso garestiak, eta bertan animaliak baldin badaude, baliagarriak izan daitezke).

Gelarekin batera adostuko dugu bide horietatik zein aukeratu,.

Bildumaren azala egiteko, material osagarrietan daukazuen eredia baliatu dezakezue, kartulina batean fotokopiatuz.

Atzeko azalean, "Egileak" izenburupean gelako haur guztien izenen zerrenda idatzi. Data ere jarriko dugu.

Bukaera

Irudiak gelara iritsi ahala, lan-koadernoko fitxan itsatsi, izena idatzi, eta ekarri duenaren izena eta deitura ere idatziko ditugu. Beheko eskuineko koadroan orriaren zenbaki ordinala jarriko dugu.

Horrela, gure liburutegirako animalien albuma osatuz joango gara.

32. Artelana: Luis Otaegi, "Natura kutxetan"

PROZEDURA

Luis Otaegi Balerdi (Donostia, 1952 - Santander, 1991)

Zenbat irudi daude artelan honetan?

Pinturak al dira?

Nola daude eginda?

Gustatzen al zaizkizue?

Non jasoko ote zituen artistak kutxetan sartzeko gauzak (lastoa, hariak, oilategiko hesia, iratzea, barraskiloak, makilatxoak, lurra...)?

Gauza guztiek naturan duten kolorea azaltzen al dute? (Tindatuta daude batzuk.)

Inoiz ikusi al duzue honelako artelanik?

Baserria ikustera joaten garenean jasoko al ditugu guk ere honelako gauzak, ondoren artelan bat egiteko?


Helburu didaktikoak:
III.16 (H), III.23 (PLAS), III.24 (PLAS)

Etengabeko ebaluazioa:
ULERMENA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak:
KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK

Jarduera mota:
ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzea:



Materiala:
9. FITXA

Jarduera hau egiteko espazioa:
HARRERA TXOKOA

33. Igarkizuna

PROZEDURA

Ikusi jarduera konstanteak: olerki-testuak, aho-korapiloak, esaera zaharrak (22. or.)

Nire osaba batek
atarian dauka,
norbait hurbiltzen bada,
egiten du zaunka.

(Irakurgaiak 1)

Helburu didaktikoak:
II.12 (I), III.1 (H)-2 (H)-15 (H)

Etengabeko ebaluazioa:
ULERMENA

Gaitasun motak:
KOGNITIBOAK, KOMUNIKATIBOAK

Jarduera mota:
ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea: LIBREA

Materiala: —

Jarduera hau egiteko espazioa:
HARRERA TXOKOA

34. Entzunaldia

PROZEDURA

Entzungo dugun musika Camille Saint SAËNS-en, *Animalien Inauteriaren* atal bat da. Izenburua: *Txoritegia*.

Haurrei adierazi izenburua eta galdetu ea inon entzuten duten txoririk, edota txoritegi batean egon daitekeen soinua gogorarazten ote dien.

SAINT-SAËNS, (Charles) Camille. Konpositore, pianojole eta organojole frantsesa (Paris, 1835 - Aljer, 1921). Mundu osoan zehar ibili zen kontzertuak ematen. Poema sinfonikoak (*Animalien Inauteria*, 1886), lan lirikoak (*Sanson eta Dalila*, 1877), pianorako bost kontzertu, organorako lanak eta ganbara-musika konposatu zituen.


Helburu didaktikoak:
III.26 (MUS)

Etengabeko ebaluazioa:
ULERMENA

Gaitasun motak:
KOMUNIKATIBOAK

Jarduera mota:
MOTIBAZIOA, ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzea:



Materiala:
3. CDa, 11. ABESTIA

Jarduera hau egiteko espazioa:
HARRERA TXOKOA

Sekuentzia didaktikoa

3. BASERRIRA IRTENALDIA

Gaian zehar aipatu diren hainbat elementu eta animalia baserri batean ikusteko, honako sekuentzia hau proposatzen dugu.

Horren ondoren, horma-irudia osatuko dugu. Horren helburua; haurrek ikusi dutenari buruz duten ikuspuntua islatzea.

PROZEDURA

Hasiera

Baserrira irteera bat egitea proposatzen dugu. Irteeraren ondoren, gaia eta irteeran bizitakoa eta ikusitakoa adieraziko dugu horma-irudi batean.

Garapena

Baserrira joateko arauak taldearekin finkatu eta adostu beharko ditugu.

Bestetik, noiz joango garen, nora, zer eraman behar dugun, zertara goazen, zer jaso behar dugun... adostu eta erabaki.

Elkarrizketaren ondoren, arbelean planifikatuko dugu gurasoei eramango diegun oharra, eta testua-ren ezaugarri batzuk aztertuko ditugu:

Norentzat idatziko dugu gutuntxoa? (hartzailea)

Zertarako idatziko dugu? (helburua)

Noiz eramango dugu etxera? (denbora baldintzak)

Koloreetako kartulina batean (din A4 baten erdia nahikoa da), egin dezatela marrazki bat, baserria eta etxe-abereak gaitzat hartuta. Atzean, beren modura, arbeleko datuak idatziko dituzte. Nora goazen, zertara, noiz, zer eraman behar duten...

Irtenaldian gogoratu artelana egiteko materialak bildu beharko ditugula: artoa (alea, artabizarra, hostoak, zurtoinak...), zereal-aleak, belarra, iratzea...

Bukaera

Ikusitakoarekin eta jasotako materialekin horma-irudia egingo dugu. Egindakoa gogoratzeko, ikasnorabideak erabil ditzakegu.

Berrikusketa honetan gogora ekarriko ditugu olerkiak, abestiak, hiztegia, irteera...

SINTESIA

35. Ikasnorabidea: Ttantto marigorringoaren azalpenak

Beno, haurtxoak, zer moduz pasa duzue animaliekin? Gustatu al zaizkizue nire laguntxoak? Asko ikasi al duzue? Ea, esadazue, zer gustatu zaizue gehien?

Eta musika-banda, zer moduz pasa duzue bandan? Eta oilategiko animaliekin?

Zuek bai argiak, zenbat gauza ikasi dituzuen...

Nahikoa ibili gara baserrian eta animalia artean, beraz, zer iruditzen zaizue hiria ezagutzera joaten bagara?

Ttantto marigorringoaren azalpenen fitxa atera, eta atalez atal gogoratzen dutena adieraz dezatela. Birpasa honetan gogora ekar ditzakegu olerkiak, abestiak, hiztegia, irtenaldia...

Helburu didaktikoak:
SINTESIA

Etengabeko ebaluazioa:
GUZTIAK

Gaitasun motak:
GUZTIA

Jarduera mota:
SINTESIA

Taldekatzea:



Materia:
1. FITXA

Jarduera hau egiteko espazioa:
HARRERA TXOKOA

9 - "Eguzkitan din-dan" (4 aste)

Sarrera

Unitate honetan baratzeak eta barazkiek protagonismoa hartuko dute. Horiekin erlazioa duten jarduerak egiteko komeni litzateke espazio txiki bat erreserbatzea txoko batean (harrera-txokoaren barruan, adibidez), eta, aukera balego, baratze edo lur-zati txiki bat ere bai.

Unitatearen barruan egin daitezkeen sekuentzia didaktikoak

- Lekaletik landarera
- Ikastolako baratzea: Baratzean parte hartu / Txorimaloa egin
- Irtenaldia: negutegia edo baratzea

Hezitzailearen esku dago haurren interesetara egokitzea eta, horren arabera, jarduera bat edo bestea hautatzea.

Sekuentzia didaktikoaren ebaluazioa

- Abiapuntua (nondik hasi ginen eta zergatik)
- Sekuentziaren garapenean erabilitako baliabide materialek, jarduerak, lan taldeek eta abar ondo funtzionatu duten, ala aldaketak egin beharra dagoen hurrengo saio baterako.
- Sekuentziaren garapenean emandako harremanak (haurren artean, hezitzailearekin...) eta jarrera behatu.

HEZITZAILEAREN EGINKIZUNA

Hezitzaileak behaketa-lana egitearekin batera, datuak jasoko ditu.

HASIERAKOAK

1. Tradiziozko abestia

TXORI TXIKI POLIT BAT

Txori txiki polit bat
leihoan kantari,
kontu txiki polit bat,
esan dit gaur niri.

Kontutxo bat, kontutxo bi
ez galdetu niri hori.
kontu hori galdetu,
txori txikiari.

PROZEDURA

Ikusi jarduera konstanteak: Abestiak.

Helburu didaktikoak:
AURKEZPENA

Etengabeko ebaluazioa:
ULERMENA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak:
AFEKTIBOAK, KOGNITIBOAK,
KOMUNIKATIBOAK

Jarduera mota:
MOTIBAZIOA, ARAKETA

Taldekatzeta:



Materiala:
3. CDa, 12. ABESTIA

Jarduera hau egiteko espazioa:
HARRERA TXOKOA

2. Elkarrizketa: baratzea

JARDUERAREN PLANIFIKAZIOA

Elkarrizketa planifikatzerakoan, honako oinarriko elementu hauek izango ditugu kontuan:

1. Haur guzien parte hartzea lortu.
2. Elkarrizketa egiteko espazioa: eroso eta komunikazio bultzatzen duena izan behar da. HARRERA TXOKOA
3. Jarduera egiteko denbora aurreikusi.
4. Galderen tipologia ondo pentsatu.
 - Galdera irekiak, baina haurren hizkuntza-kompetentzietara egokituak.
 - Pentsarazten duten galderak.

Helburu didaktikoak:
I.5, III.1, III.12, III.13

Etengabeko ebaluazioa:
NORTASUNA, ULERMENA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak:
KOMUNIKATIBOAK,
GIZARTERATZEKOAK, KOGNITIBOAK

Jarduera mota:
MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzeta:



Materiala: —

HEZITZAILEAK BERE ESKU-HARTZEAREN ERREBISIOA EGINGO DU

Haurren interesak

- Haurren esperientzien kontaketa bultzatu duzu jardueraren bitartez?
- Haurren interesak lehenetsi dituzu?

Erronka kognitiboak

- Galderak errebotatzen dituzu edo erantzuna ematen duzu?
- Hipotesiak, arrazonamenduak egiteko, iritziak emateko aukera eskaintzen duzu?
- Jardueraren amaieran, azaldutako ideiak laburbiltzen eta borobiltzen dituzu?

Ikus jarduera konstanteak: Horma-irudia.

3. Ikasnorabidea: Ttantto marigorringoaren azalpenak (Ttanttoen panpina)

PROZEDURA

Hau poza, haurtxoak, udaberrian gaude! Neguko arropa kendu eta loredun alkandora laster jantzi beharko dut. Zer moduz garraioekin, kalean gora, kalean behera? Orain kalea pixka batean utzi eta lorategi eta zelaietara hurbilduko gara udaberrian zein politik dauden ikusteko.

1. ire laguntxo Anderren aitonaren baratzean gertatutako istorio harri-garri bat kontatuko dizue irakasleak.
2. Eta baratzeaz ari garela, bertako landare eta lanen berri ere izango dugu.
3. Barazkiekin gauza asko egingo ditugu: jango ditugu, jolastuko dugu, margotuko dugu... ikusiko duzue!!
4. Eta azkenik, beti bezala, tartetxo bat utzi dizuet hutsik, lore polit bat margotu nahiko bazenute...

Ikus jarduera konstanteak: Ikasnorabideak.

Helburu didaktikoak:
AURKEZPENA

Etengabeko ebaluazioa:
ULERMENA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak:
AFEKTIBOAK, KOGNITIBOAK,
KOMUNIKATIBOAK

Jarduera mota:
MOTIBAZIOA, ARAKETA

Taldekatzea:



Materiala:
1. FITXA


Jarduera hau egiteko espazioa:
HARRERA TXOKOA

4. Horma-irudia: Baratzea eta lorategia

PROZEDURA

Gai honetan, elementuen kokapena aprobetxatuz, espazioaren deskribatzaileak landuko ditugu: *aurrean, atzean, inguruan, aldamenean, goian...*

Ikus jarduera konstanteak: Horma-irudia.

Helburu didaktikoak: 1.5-II.1 (I), II.2 (I)-III.16 (H)
Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA, ULERMENA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK, AFEKTIBOAK
Jarduera mota: ARAKETA, MOTIBAZIOA
Taldekatzea: 
Materiala: HORMA-IRUDIA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA


5. Jolaserako kantua

EGUZKI POLITENA


Lurrean jarri gara,
apatx egin eta,
bi eskuz hartu dugu,
soka luze bat.
Bi hankak aurrera,
bizkarra atzera
eguzki politena
osatuz lurrean.

PROZEDURA

Haurrak biribilean eseriko dira lurrean, eta soka luze bati helduko diote bi eskuekin. Sokak biribil baten forma hartu behar du, horixe izango baita eguzkiaren ertza. Ondoren, abestiak esaten duen bezala, hankak aurrera luzatuko ditugu eta poliki-poliki bizkarra atzera botako dugu, lurrean etzan arte. Haurrak konturatzea zaila izango den arren, goitik begiratuta, eguzki baten irudia osatuko dugu.

Helburu didaktikoak:
AURKEZPENA
Etengabeko ebaluazioa:
ULERMENA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak:
AFEKTIBOAK, KOGNITIBOAK,
KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota:
MOTIBAZIOA,
ARAKETA
Taldekatzea:

Materiala:
3. CDa, 13. ABESTIA
Jarduera hau egiteko espazioa:
HARRERA TXOKOA

6. Antzeppen kolektiboa (ipuin dramatizatua): Azenario erraldoia



AZENARIO ERRALDOIA

	Behin batean, Ander gau osoan erraldoiekin ametsetan ibili ondoren, esnatzean oparitxo bat zuela konturatu zen.
<i>Harriduraz</i>	Mmmmm! Zer da hau? Hazi bat! Zer egingo dut honekin? Tira! Badakit! Aitonaren baratzean ereingo dut!
	Eta Ander aitonaren baratzera joan zen.
<i>Abestia</i>	<i>Azenario bat nuen baratzean, handiagorik ez zen plazan...</i> Hazia erein. Orain ura bota . Uf! Bukatu dut! Etxera noa. <i>Azenario bat nuen baratzean, handiagorik ez zen plazan...</i>
	Handik egun batzuetara, aitona Anderren etxera joan zen bazkaltzera, eta Anderrek galdetu zion:
	Aitona, zer moduz baratzean?
	Ondo, ondo, baina azenario-landare handi-handi bat azaldu da.
	Azaldu egin dela? Landatu gabe?
	Bai. Haizeak ekarriko zuen hazia.
	Egun gutxitan azenarioa handi-handia egin zen, eta inguruko urtxintxa guztiak jatera joaten ziren.
	Txop-txop-txop (hop, hop) Zein azenario goxoa! Mau-mau-mau...
	Alde hemendik, urtxintxa! Tori, tori eta tori!
	Eta egun batean basurde bat ere etorri zen.

3. zehaztapen-maila

	Kurrin, kurrin, kurrin... Zein azenario goxoa! Mau-mau-mau...
	Alde hemendik, basurde! Tori, tori eta tori!
	Kurrin, kurrin... GRRRR....
	Atx! Ai ama, nire ipurdia! Hau mina!!!
	Eta aitona korrika etxera itzuli zen. Eta amonak esan zion:
	Baina non ibili zara? Ipurdia bistan duzu! Kar-kar-kar!
	Baratzea animaliaz beteta daukat. Nazkatu naiz! Azenarioa atera egingo dut!
	Eta hurrengo egunean aitona eta amona baratzera joan ziren azenarioa ateratzera.
	Tipi, tapa, tipi, tapa... Amona, zuk heldu hortik.
	Ondo da.
	Ondo heldu. Bat, bi eta hiru! Tiraaaa!!!!
	Ez da mugitu. Ezin dugu!
	Anderri deituko diogu. Ander, etorri hona eta heldu gogor!
	Ondo da.
	Ondo heldu. Bat, bi eta hiru. Tiraaaaa!!!!
	Ez da mugitu. Ezin dugu! Aitari deituko diogu. Aita, etorri hona eta heldu gogor!
	Ondo da.
	Ondo heldu. Bat, bi eta hiru. Tiraaaaa!!!!
	Ez da mugitu. Ezin dugu! Amari deituko diogu. Ama, etorri hona eta heldu gogor!
	Ondo da.
	Ondo heldu. Bat, bi eta hiru. Tiraaaaa!!!! luuppp!
	Atx! Hau kolpea! Nire ipurdia!!!
	Ez da mugitu! Ezin dugu atera!

	Jende gehiago behar dugu, eta traktore bat ere bai.
	Azkenean, denen laguntzaz azenarioa atera zuten, eta, ospatzeko, herriko plazan azenario-entsalada handi bat egin zuten denentzat.
	<i>Hala bazan ez bazan, sartu dadila...</i>

PROZEDURA

Ipuinaren antzeppen kolektiboan sartu aurretik, komeni da ipuinaren sarrera bat egitea; hau da, ipuinean azalduko diren pertsonaiak izendatu, antzeppen kolektiboan dauden arauak gogoratu....

Ikus jarduera konstanteak: Antzeppen kolektiboa (ipuin dramatizatua).

IPUINA AITZAKIA

7. Ipuinaren abestia

AZENARIO BAT

Azenario bat nuen baratzean,
handiagorik ez zen plazan. (bis)
Ez jakin nondik sortu zen hazia,
konponezinezko auzia. (bis)

Nire aitaren haserre bizia,
aitonaren praka hautsiak. (bis)
"Ene, gizona, barregarri zaude,
horixe da ipurtaldea!". (bis)


Bat-batean untxiak,
segidan basurdeak,
zer ote zen hura, ordea?
Untxi lotsagabeak,
basurde gosetiak.
Agur etxeke bakeak! (bis)

Baratzetik kanpora
azenario denak!
Hura zen helburu zuzena:
entsalada onena,
plazan prestatu zena.
Horixe nahi genuena. (bis)

PROZEDURA

Ikusi jarduera konstanteak: Elkarrizketa-jolasak atzamarrekin.

Helburu didaktikoak: III.15 (H), III.30 (MUS), III.32 (MUS)
Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: AFEKTIBOAK, KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea:  LIBERA

Materiala: 3. CDa, 11. ABESTIA
Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

8. Elkarrizketa: gustatu al zaizue ipuina?

JARDUERAREN PLANIFIKAZIOA

Elkarrizketa planifikatzerakoan, honako oinarritzko elementu hauek izango ditugu kontuan:

1. Haur guzien parte hartzea lortu.
2. Elkarrizketa egiteko espazioa: eroso eta komunikazio bultzatzen duena izan behar da. HARRERA TXOKOA
3. Jarduera egiteko denbora aurreikusi.
4. Galderen tipologia ondo pentsatu.
 - Galdera irekiak, baina haurren hizkuntza-kompetentzietara egokituak.
 - Pentsarazten duten galderak.

HEZITZAILEAK BERE ESKU-HARTZEAREN ERREBISIOA EGINGO DU

Haurren interesak

- Haurren esperientzien kontaketa bultzatu duzu jardueraren bitartez?
- Haurren interesak lehenetsi dituzu?

Erronka kognitiboak

- Galderak errebotatzen dituzu edo erantzuna ematen duzu?
- Hipotesiak, arrazonamenduak egiteko, iritziak emateko aukera eskaintzen duzu?
- Jardueraren amaieran, azaldutako ideiak laburbiltzen eta borobiltzen dituzu?

Adibideak:

Gustatu al zaizue ipuina? Barregarria al zen? Zer zen barregarriena? (aukerak eman)

Inoiz egin al duzue ametsik? Gogoratzen al duzue? (eredu modura, hezitzaileak bere "ametsa" konta dezake)


Ba al dakizue zer den erraldoi bat? Ezagutzen al duzue erraldoirik? Ipuin honetako erraldoia nolakoa zen, gaiztoa ala zintzoa?

Ikusi al duzue inoiz baratzerik? Nolakoa zen? Zer zegoen bertan? Ba al zegoen azenario erraldoirik?

Jan al duzue inoiz azenarioa entsaladan? Zer beste modura jan daiteke azenarioa? Gustatzen al zaizue?

Bazkaldu al duzue inoiz herriko plazan (edo pilotaleku batean...)? Zer moduz pasa zenuten?

...



Sekuentzia didaktikoa

1. LEKALETIK, LANDARERA

Materiala: HAZIAK, PLASTIKOZKO PLATERAK, KOTOIA, JOGURT POTEAK...

Sekuentzia honen helburua landareen prozesuari buruzko hausnarketa egitea izango da (haziatik landarera); Jaten ditugun barazkiak nola eta nondik sortzen diren aztertzea, alegia.

Hortarako bi lan burutuko ditugu:

Haziak erein, eta prozesu horren hormairudia osatu.

PROZEDURA

Hasiera

Gaiari buruz hitz egiten hasteko, hezitzaileak babarrunak, dilistak, garbantxuak... eramango ditu gelara.

Ipuina gogora ekarriko dugu eta aprobeztatuko dugu hazien prozesuari buruzko hipotesien bilduma egiten joateko.

Beste aukera batzuen artean, haziak landatzearena atera daiteke; ez bada sortzen, hezitzaileak proposatuko du.

Garapena

Plater edo ontzi zapal batean kotoi puska handi samar bat jarriko dugu. Kotoia pixka bat bustiko dugu, eta gainean hainbat ale jarriko ditugu. Landare gehiago nahi izanez gero, lau edo bost plateretan jarri eta bakoitzean ale mota bat.

Gainetik beste kotoi-geruza bat jarriko dugu, eta hori ere busti. Egunero behatuko dugu kotoia bustia edo hezea ote dagoen, eta beharraren arabera ureztatuko dugu. Hori egiterakoan gaineko geruza kontu handiz altxatuko dugu, aleetan aldaketarik eman den ikusteko.

Sustraia, zurtoina eta hostoak bistan ditugunean, jogurt-poteetara alda ditzakegu landareak, eta behaketarekin eta argazkiekin jarraitu. Koskor samarrak direnean, ahal izanez gero, baratzerak edo ontzi handiago batera pasako ditugu. Babarrunen kasuan, oso erraza da loratzea eta leka osatzen ikustea. Horrela, prozesua biribila izango litzateke.

Esperientzia hau talde txikitik egiten badugu, plater bakoitzean ale desberdinak jartzea aholkatzen dugu, ale batzuk besteak baino azkarrago ernaltzen baitira. Horrela, haurrek, ale ezberdinen prozesua behatzeaz gain, ez dute frustraziorik izango talde baten haziak beste batenak baino lehenago hazi direlako. Jogurt poteetan uzten baditugu, gustura asko eramango du nork bere potea etxera.

OHARRA:

Komeni da jarduera hau unitatearen hasieran hastea, denbora luzea eskatzen baitu hazien prozesuak eta behaketak.

Bukaera

Aldaketa nabarmen bat gertatzen den bakoitzean, argazki bat atera daiteke, prozesua horma-irudi batean azaltzeko. Horma-irudian izenburua jarriko dugu eta, pausoz pauso, argazkia itsatsi eta azalpen laburra jarriko dugu.

Horma-irudia beste gelakoekin zein etxeakoekin konpartitu dezakegu.

9. Ipuinaren antzezpen txikia

Txotxongiloekin elkarrizketa-jolasa egiteko, aukera bat proposatzen dugu.


Helburu didaktikoak:
I.6, III.1 (H)-12 (H)-14 (H)

Etengabeko ebaluazioa:
NORTASUNA, ADIERAZPENA, ULERMENA

Gaitasun motak:
AFEKTIBOAK, MOTOREAK, GIZARTERATZEKOAK,
MOTOREAK

Jarduera mota:
MOTIBAZIOA, ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea:



Materiala: 9. FITXA

Jarduera hau egiteko espazioa:
HARRERA TXOKOA

Hezitzailea	Eta hurrengo egunean, aitona eta amona baratzera joan ziren azenarioa ateratzera.
<i>Hezitzailea eta bi haur</i>	Tipi, tapa, tipi, tapa.... Amona, zuk heldu hortik.
	Ondo da.
	Ondo heldu. Bat, bi eta hiru! Tiraaaa!!!!
	Ez da mugitu. Ezin dugu!
<i>Hezitzailea eta haur guztiak</i>	Ondo heldu. Bat, bi eta hiru! Tiraaaa!!!!
<i>Hezitzailea eta haur guztiak (ipurdikoa hartuta)</i>	Atx! Hau kolpea! Nire ipurdia!!!

PROZEDURA

Hezitzaileak elkarrizketa honen antzezpena egingo du, bi haurren laguntzarekin.

Azkeneko bi esaldietarako gelako haur gehiagoren laguntza eskatuko du. Bukaeran, denak lurrera eroriko dira.

Jarduera honen helburua ondo pasatzea da, beraz, haurren parte-hartzea librea izatea derrigorrezkoa da.

10. Elkarrizketa: zenbat lagun?

PROZEDURA

Azkenean, zenbat lagunen artean atera zuten azenarioa? (hamar)

Kontatuko al dugu guk ere hamar arte. Bat, bi...


Jarriko al gara hamar lagun bata bestearen atzean tiraka? Sokatira egingo al dugu?

Gelako guztiak parte hartu nahi izanez gero, zenbat egongo ginateke alde bakoitzean? (Haurrak bi taldetan banatu banaka-banaka: bat alde honetara, bestea beste aldera...) Kontatuko al ditugu?

Ilara bakoitzean daudenak aurrez aurre jarri eta bikoteak osatuko ditugu (bat-bat erlazioan). Alde bateko guztiak al dute bikotea beste aldean?

Bukatzeko, sokatira egingo dugu:

—Ondo heldu. Bat, bi, hiru! Tiraaaaa!!!



Sekuentzia didaktikoa

2. IKASTOLAKO BARATZEA

Aukera balego, lur-zati bat lor daiteke ikastola inguruan, baratze bat antolatzeke. Bestela, lorentzi handitan landa eta erein ditzakegu landareak.

PROZEDURA

Hasiera: ba al dago baratzerik ikastolan?

Garapena

Hiru urteko haurren parte-hartzerako bi aukera proposatzen ditugu:

1. Baratzeke lanetan parte hartu

Ikastolan edo inguruan lursail txiki bat edukiz gero (3 m x 3 m, adibidez, nahikoa da), baratze txiki bat antola dezakegu, lehendik antolatuta ez badago. Hasteko, belarrak eta sasiak kenduko ditugu, eta komeni litzateke lur gozoa eta ongarria (simaorra edo bestelakoak) botatzea. Baratzearen ertzak mugatzea ere komeni da, inork zapal ez dezan. Ondoren, ilarak antolatuko ditugu, landarea eta hazia erosi, landatu eta erein.

Landatutako ilaretan produktuaren izena eta bere marrazkia jarriko ditugu, etiketa handi batzuetan (plastikoz babestuta). Egunero joango gara, aldaketaren bat sumatzen ote den ikustera, belarrak kentzera eta, beharrezkoa denean, ureztatzea. Bertatik ateratzen ditugun produktuak haurrek etxera eramantuz ditzakete.

Ilaretako batean negutegi txiki bat antola dezakegu plastiko handi batekin (alanbrea edota makilak erabili altuera emateko); konparaketa egin ahalko dugu barruan eta kanpoan hazitako produktuen artean, eta zein sortzen den lehenago egiaztatu.

2. Txorimaloa egin, baratzean, lorategian... ipintzeko

*Malo, malo Txorimalo,
Burua lastoz eta hanka palo.*

Haziak erein ditugu, baina orain kontuz ibili beharra daukagu, txoriei haziak ikaragarri gustatzen baitzaizkie. Txoriek haziak jan ez ditzaten jartzen dituzte nekazariak txorimaloak baratzetan. Horrela, txoriek nekazaria dagoela pentsatzen dute. Horregatik dute txorimaloek gizakion itxura: burua, besoak... Egingo al dugu guk ere txorimalo polit bat?

Txorimaloaren neurriak eta formak kokatuko dugun tokiaren arabera izango dira (baratzean, gela barrua dekoratzeko, etxera eramateko...).

Edozein kasutan, hurrei eskatuko diegu izenda dezaten zer gorputz-atal jarriko dizkiogun.

Bolumenean egiten badugu, maindire zuri zaharrekin egin dezakegu. Burua egin dezakegu barruan egunkari-papera sartuz, aurpegia margotuz... Bestela, lastozko erratz batekin egingo dugu burua, begiak eta sudurra itsatsiz... Gorputz-enborra eta adarrak egiteko, arropa zaharrak baliatuko ditugu (adabakiekin bada, hobe), oihalez edo egunkari-paperez beteaz. Zakua ere erabil daiteke burutik behe- janzteko. Lastozko txapela batekin apainduko dugu.

Paperean ere egin daiteke txorimaloa. Kartulina batean txorimaloaren profila marraztuko dugu (profilaren fotokopia emanda, edo gabe), edota materialak zuzenean itsatsi: oihalak, paperak, lastoa...

Bukaera

Baratzean ereindakoa eta landatutakoa zaindu eta mimatu beha da ikastolako kide guztien artean.

Txorimaloa egiten edo baratzeke lanetan parte hartu badugu, baratzeke landareek aleak edo loreak ematen dituztenean, haurren artean banatuko ditugu, argazkiak aterako ditugu eta denen artean banatu... Ikastolan egindako lana etxekoekin ere konpartitu nahi genuke.

OHARRA:

Ondoren proposatzen diren hainbat jarduera baratze horretan egin daitezke. Baratzea jartzerik ez badugu, gela barruan loreontzietan egin ditzakegu hemen proposatzen direnak.

11. Txorimaloaren abestia

TXORIMALO KASKARIN

Txorimalo kaskarin,
parkeko zaindari!
Mutur beltz, praka zikin,
ez barrerik egin!

Uztaiak banan-banan
nolan edo halan,
baietz jarri zintzilik
ongi dakit nondik!

Besotik bat, bi!
Bestetik berdin!
Lepotik bat, bi!
Kokotetik berdin!

Txorimalo kaskarin...

Helburu didaktikoak: I.9-13, II.4 (I), III.15 (H), III.30 (MUS), III.32 (MUS)

Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak: AFEKTIBOAK, GIZARTERATZEKOAK, KOMUNIKATIBOAK

Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea: LIBREA

Materiala: 3. CDa, 17. ABESTIA

Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA, BARAZKIEN TXOKOA

Uztaiak banan-banan,
nolan edo halan,
baietz kendu gainetik
nolatan badakit!

Kokotetik bat, bi!
Lepotik berdin!
Besotik bat, bi!
Bestetik berdin!

Txorimalo kaskarin...

PROZEDURA

Abestiak dirauen bitartean, jolas bat egingo dugu. Horretarako, bost haur behar ditugu: batek txorimaloarena egingo du, eta beste laurek uztai bana hartuko dute.

Abestiak adierazten duen moduan, banan-banan jarriko dizkiote uztaiak txorimaloari: *Besotik bat, bi! Lepotik eta kokotetik* (berrito lepotik) *bat, bi!*

Jarri dizkioten bezala, abestiak adierazten duenean kenduko dizkiote.

12. Txorimalo hauek berdinarik al dira?

PROZEDURA

Fitxa egin aurretik, behaketa-lana bideratuko dugu elkarrizketa bidez:

Zer ikusten duzue?
Zenbat irudi daude? Zer dira, berdinarik ala antzekoak?
*Zer dago txorimaloaren **alde batera**? (erleak eta tximeleta)*
*Eta zer **beste aldera**? (txoria)*
*Eta txorimaloaren **azpian**?*
*Zer du txorimaloak buru **gainean**?*
Aipatuko al dituzue irudian azaltzen diren hiru kolore?

*Lehen esan dugu irudiak ez direla berdinarik, alegia, desberdinarik direla. **Zertan dira desberdinarik?** Apuntatuko al dugu? (Txapelaren kolorea, sudurraren luzera, botoi bat falta da, adabakiak batean margotuta daude, bestean zuriz, mahukak batean margotuta bestean margotu gabe).*

*Eta **zertan dira berdinarik irudiok?** (Bietan lau aza daude, bi erle eta toki berdinean...)*

Parte hartu duten hurrekin (denekin batera) azterketa egin ondoren, adierazpen-txokora joan daitezke fitxan aipatutako diferentziak topatzera.

Helburu didaktikoak: 1.7, 11.3 (I), 11.16 (MAT), 11.23 (MAT)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA
Gaitasun motak: KOGNITIBOAK, KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzea: LIBREA
Materiala: 2. FITXA
Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

13. Guk ere haziak ereingo ditugu

Ipuina gogoratu:

*“Arratsalde hartan bertan, aitonaren baratzer joan, eta erein zuen erraldoiak emandako hazia, ura ere bota zion...”
entzun dugu ipuinean.*

Ba al dakizue nola ereiten diren haziak? Ikusi al duzue horma-irudian inor haziak ereiten?

Ereingo al dugu guk ere haziren bat, ea landare erraldoia ateratzen zaigun?

PROZEDURA

Loradendetan lore-haziak poltsa txiki batzuetan egoten dira salgai. Bat erosiko dugu, eta haziak zein txikiak diren behatu. Ondoren, loreontzi zapal batean ereingo ditugu. Ikastolan baratzea badugu, baratzeko produkturen bat erein dezakegu: ilarrak, baratxuria...

Egunero arduratuko gara ereindakoa zaintzeaz: ureztatu, belar txarrak kendu.... Antolaketa hainbat irizpideren arabera egin daiteke, baina beraiekin horretaz hitz egitea eta taldeak nola antolatuko lituzketen galdetzea proposatzen dugu.

Hartzen dugun erabakia idatziz adieraziko dugu, eta haurren zerrendak egutegi baten arabera zehaztu.

Helburu didaktikoak: II.4 (I)-5 (I)-12 (I), III.8 (H)-9 (H)
Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA, ADIERAZPENA, ULERMENA
Gaitasun motak: AFEKTIBOAK, KOGNITIBOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: LIBREA
Materiala: LORE HAZIAK, LOREONTZIAK
Jarduera hau egiteko espazioa: BARATZEA, EDO GELAN PRESTATUTAKO ESPAZIOA

14. Azenarioak landuko ditugu

PROZEDURA

Azenarioak erosiko ditugu, baina osorik, zurtoin, hosto eta guzti. Ondoren, nahi badugu sustraiaren (zati laranjaren) pusketarik handiena moztuko dugu, zuritu eta haurren artean banatuko dugu jan dezaten. Bide batez, azenarioaren zaporeaz, gozotasunaz, duen zukuaz... hitz egingo dugu. Zurtoinarekin batera geratu zaigun sustrai zatia landatu egingo dugu, lurrez, ibaiko hareaz eta hartxintzar pixka batez egindako nahasketa batean. Horiek lortzeko zailtasunak baditugu, lur gozoan landatuko dugu loreontzi zapal batean. Toki argitsu eta epel batean kokatu, eta laster ikusiko dugu nola hazten eta indartzen diren hostoak.

Helburu didaktikoak: I.7, II.4 (I)-5 (I)-12 (I)
Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA, ADIERAZPENA, ULERMENA
Gaitasun motak: AFEKTIBOAK, KOGNITIBOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: LIBREA
Materiala: AZENARIO TXIKIAK
Jarduera hau egiteko espazioa: BARATZEA. EDO GELAN PRESTATUTAKO ESPAZIOA

15. Azenario erraldoiarekin seriozioa

PROZEDURA


Lan-koadernoko 3. eta 4. fitxak landuko ditugu. Lehenean, azenarioaren hazte-prozesua ikusten dugu, baina desordenatuta dago. Hurrek irudiak moztu, eta, hurrengo fitxan, itsatsiko dituzte ordena egokian.

Anderrek hazia erein zuenean, azenario txiki-txiki bat jaio zen, baina abiadura bizian hazten hasi zen....

Irudi hauek berdinak al dira? Zertan dira berdinak? Eta zertan desberdinak?

Zer gertatu zen hasieran? Eta ondoren?...

Lan-koadernoan azaltzen diren irudiak ongi ordenatuta al daude? Horrela ez bada, moztu eta itsatsi dagokien ordenan.

Helburu didaktikoak: II.16 (MAT), II.20 (MAT)
 Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
 Gaitasun motak: KOGNITIBOAK
 Jarduera mota: APLIKAZIOA
 Taldekatzea:  LIBREA
 Materiala: 3. eta 4. FITXAK
 Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA, ADIERAZPEN TXOKOA

16. Sekuentziekin jolasean. Komikia: Zer dio aitonak?

PROZEDURA

Ipuineko laminetan pertsonaiek globoen bidez adierazten dute esaten dutena (hitzezko nahiz marrazki bidezko globoak). Oraingo honetan, hurrek globo horien behaketa egingo dute: marrazkiz eta idatziz osaturiko globoak bereiztu beharko dituzte.

Etxean komikirik duten galdetuko diegu; erantzuna baiezkoa bada, ekartzeko eskatuko diegu eta talde txikitan jarriko ditugu haiek ikusten. Komeni da, badaezpada ere, guk geuk komiki batzuk eskura edukitzea: prentsan azaltzen diren tirak, komiki-ipuinak, txisteak.... Aurrerago hasiko gara komikien berezko ezaugarriak aztertzen. Oraingoan, behaketa honekin nahikoa izango dugu.

Fitxa honetan, komikien hizkuntzarekiko lehen hurbilpen bat egin dezakegu, marrazki bidez edota beraien erara idatziaz. Globoetan jarri nahi duguna adostu dezakegu, edo ez; **beren kasa idatz dezakete.**

Beti bezala, jarduera honek hainbat aukera eskaintzen dizkigu: sekuentziak ordenatu ditzakete eta ipuina kontatu; sekuentzia bat edo bi ezkutatu eta falta dena asmatu; ipuina desordenan kontatu; hasiera, korapiloa eta bukaera bereizi...

Helburu didaktikoak: II.14 (I), III.3 (H)-5 (H)-8 (H)-9 (H)
 Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
 Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
 Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA
 Taldekatzea: LIBREA
 Materiala: 5. FITXA
 Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA, ADIERAZPEN TXOKOA

17. Hiztegi-jolasa

PROZEDURA


Pertsonaien txartelekin hainbat jolas egin dezakegu: memoria-jokoa, batak besteari txartelak eskatu eta bikoteak osatu, edota, besterik gabe, pertsonaien txartelak manipulatu.

Izen idatziari dagokionez, irakurri txartela eta ohartarazi bi hitzez osatuta dagoela, eta bi hitzen artean hutsune bat dagoela. Zenbat pertsonaia gehiago azaldu zaizkigu bi hitzez idatzita? Antzik ba al dute beren artean?

Hiru txerrikumeak
Bremengo musikariak
Azenario erraldoia

Ikusi jarduera konstanteak: Hiztegia.

Helburu didaktikoak: I.12, II.4 (I), III.7 (H)-8 (H)-9 (H), II.23 (MAT)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: KOGNITIBOAK, MOTOREAK, GIZARTERATZEKOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea:  LIBREA

Materiala: HIZTEGI TXARTELAK
Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

BARATZEA ETA BARAZKIAK




18. Elkarrizketa: Barazkiak

JARDUERAREN PLANIFIKAZIOA

Elkarrizketa planifikatzerakoan, honako oinarriko elementu hauek izango ditugu kontuan:

1. Haur guzien parte hartzea lortu.
2. Elkarrizketa egiteko espazioa: eroso eta komunikazio bultzatzen duena izan behar da. HARRERA TXOKOA
3. Jarduera egiteko denbora aurreikusi.
4. Galderen tipologia ondo pentsatu.
 - Galdera irekiak, baina haurren hizkuntza-kompetentziara egokituak.
 - Pentsarazten duten galderak.

Helburu didaktikoak: I.5-II.1 (I), II.2 (I) - III.16 (H)
Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA, ULERMENA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK, AFEKTIBOAK
Jarduera mota: ARAKETA, MOTIBAZIOA

Taldekatzea:   

Materiala: ———
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

HEZITZAILEAK BERE ESKU-HARTZEAREN ERREBISIOA EGINGO DU

Haurren interesak

- Haurren esperientzien kontaketa bultzatu duzu jardueraren bitartez?
- Haurren interesak lehenetsi dituzu?

Erronka kognitiboak

- Galderak errebotatzen dituzu ala erantzuna ematen duzu?
- Hipotesiak eta arrazonamenduak egiteko eta iritziak emateko aukera eskaintzen duzu?
- Jardueraren amaieran, azaldutako ideiak laburbiltzen eta borobiltzen dituzu?

PROZEDURA (adibideak)

*Inoiz ikusi al duzue baratzerik? Ba al dakizue zer egoten den bertan?
Ba al dakizue zer diren negutegiak? Eta zertarako erabiltzen diren?
Zer jasotzen dugu baratzetatik?
Gustatzen al zaizkizue patatak? Eta azenarioa? Eta lekak, ilarrak...?*

Barazkien zerrenda egin dezakegu arbelean, ahal dela marrazkitxo bat alboan jarritz. Ondoren, bozkatu egingo dugu. Bakoitzak gustuko dituen bizpahiru barazki aukeratuko ditu eta makilatxoak jarriko ditugu aukeratutakoaren alboan. Ondoren, kontaketa egin eta kopurua idatzi. Barazki irabazlea(k) zein d(ir)en jakingo dugu.

Haurrei adierazi behar zaie barazkiak jatea oso beharrezkoa eta komenigarria dela.

Patata aukeratzen badugu, nola jaten duten galdetuko diegu: frijituta, purea eginda, egosita, beste janarien lagungarri...

19. Barazkietarako txokoa. "Txoko txuria"

PROZEDURA

Jarduera hau elkarrizketarekin lotu daiteke, baina elkarrizketa luzea edo nekagarria egiten bazaie, beste memento baterako utziko dugu.

Lehenik eta behin, haurren iritzia jaso dezakegu:

*Zer egin dezakegu ekarriko ditugun barazkiekin?
Non gorde ditzakegu?*

Ondoren, ideia bat baino gehiago badago, horiek aztertu:

Zer iruditzen zaizue Mikelek esandakoa? Norbaiti zerbait gehiago bururatzen zaio?

Bukatzeko, denen artean erabakitakoa martxan jarriko dugu. Espazio horretan funtzionatzeko zer arau ezarriko ditugun...

*Helburu didaktikoak: I.5-II.1 (I), II.3 (I), II.4 (I), II.5 (I) - III.16 (H)
Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA, ULERMENA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK, AFEKTIBOAK
Jarduera mota: MOTIBAZIOA*

Taldekatzea:   

Materiala: —

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

Espazio horren mantenurako ardurak banatu daitezke. (Kontuan izan behar dugu barazkiak galdu daitezkeela, eta pasatuta daudenak bota behar direla.)

Hori dena hurrekin batera adosten badugu, barazkietarako espazioa antolatutzat emango dugu.

20. Patata-sustraiaren sustraiak

PROZEDURA

Gelara dozena erdi bat patata ekartzeko eskatuko diogu haur bakoitzari, hainbat lan egiteko. Lauzpabost patata aukeratu, zaharretakoak, eta egunkari-paper batean edo plater batean jarriko ditugu. Egunak pasa ahala, sustraiak nola sortzen eta luza-tzen zaizkien ikusiz joango gara.

Hurrei azalduko diegu patatak, azenarioak bezala, lurpean sortzen direla, sustrai bat direla, alegia.

Aurretik landatzeko ekarri genituen azenarioak ere izan ditzakegu gelan.

Helburu didaktikoak: II.3 (I)-12 (I)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA
Gaitasun motak: KOGNITIBOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: LIBREA
Materiala: PATATAK, EGUNKARI PAPERA
Jarduera hau egiteko espazioa: BARAZKIEN TXOKOA

21. Patatarekin eta azenarioarekin estanzazioa

PROZEDURA

Patatak eta azenarioak moztuko ditugu hainbat forma emanez: karratuak, biribilak, obalatuak, ilar-giak, izarrak... Tanpoi moduko batzuk egingo ditugu patata eta azenarioekin; plater batean koloretako tenperak jarri, eta, bertan patata edo azenarioa bus-tiz, estanzazioak egingo ditugu.

Oihala margotzeko pintura ere erabil dezakegu. Kasu horretan, etxetik kamiseta zuriren bat edo ekartzeko eskatuko diegu hurrei. Gogoratu, kamisetaren alde batetik bestera pintura ez pasatzeko, egunkari edo kartoi bat jarri beharko dugu azpian. Ohartaraziko zaie, bestalde, etxera eramandakoan, pintura lehortu ondoren, kamiseta atzealdetik lisatu behar dela pintura oihalean finkatzeko.

Hainbat eratako irudiak proposa ditzakegu: figuratiboak edo ez figuratiboak, irudi gidatuak ala libreak... Ertz batean hurrek beren izena (sinadura) jar dezakete.

Helburu didaktikoak: I.11, III.17 (PLAS), III.18 (PLAS), III.19 (PLAS), III.20 (PLAS), III.21 (PLAS), III.24 (PLAS)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: LIBREA
Materiala: PATATAK, AZENARIOAK, KUTERRA, TENPERAK, PAPERA
Jarduera egiteko espazioa: ADIERAZPEN TXOKOA

22. Zeren antza dute patatek?

PROZEDURA

Patatak, handiak badira, oso forma bitxiak izaten dituzte batzuetan: aurpegi formakoak, globoak, animaliak... Pataten formak antzeman ondoren, paperez edo margoz apainduko ditugu. Eraikinak ere egin ditzakegu, patata txikiak eta handiak txotxen bidez elkarri lotuz.

Helburu didaktikoak: I.7, III.20 (PLAS), III.24 (PLAS)
Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA, ULERMENA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOGNITIBOAK, MOTOREAK, KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzea:



Materiala: PATATA HANDIAK

Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

23. Patata labean erre

PROZEDURA

Ikastolako labea erabili badezakegu, bertan egingo dugu jarduera. Nolanahi ere, aluminio paperean patata bat bilduko dute haurrek. Patata bilduta etxera eramán, eta, etxeko labean erre ondoren, ikastolara ekarriko dute bueltan, bertan jateko (hotza baldin badago ere). Patata errea dastatuko dugu, eta haren zapo-reari buruzko elkarrizketa egingo dugu.

Helburu didaktikoak: I.7- 11, II.3 (I), III.16 (H)

Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA

Gaitasun motak: KOGNITIBOAK, MOTOREAK

Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzea:



Materiala: PATATAK, LABEA

Jarduera hau egiteko espazioa: BARAZKIEN TXOKOA

24. Igarkizunak

PROZEDURA

Baratzetik azokara,
 azokatik lapikora,
 lapikotik, platerera,
 plateretik, zure ahora.

Ea, zenbat erantzun ematen dituzuen!

Igarkizun horrekin, erantzun anitzak dituzenez, haurrek baratzeko produktuak izendatuz joatea bilatzen dugu, zenbat eta gehiago hobea. Erantzunak arbelean idatz daitezke eta, zenbatu ondoren, kopurua idatzi edo txartela jarri.

Untxiek atsegin dute jatea,
 etxea du baratzea,
 eta ez da azalorea.
 Behea laranja, goia berdea
 begiak zaintzen trebea.
 Zer da?

(azenarioa)

Helburu didaktikoak:
 II.3 (I)-12 (I), III.1 (H)- 2 (H)-8 (H)-12 (H)-13 (H)-15 (H)

Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA

Gaitasun motak: KOGNITIBAK, KOMUNIKATIBOAK

Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea: LIBREA

Materiala: —

Jarduera hau egiteko espazioa:
 BARAZKIEN TXOKOA, HARRERA TXOKOA

Nekazariaren laguna,
baratzean ezaguna,
txorientzako tuntuna.
Lanbidea du astuna,
baratzean pasatzen baitu
negua, uda, goiza, arratsa,
gaua eta gainera eguna.
Zer da?

(txorimaloa)

Beti bezala, hurrek beren igarkizunak sortuko dituzte. Horretarako, hiztegi-txartelak bana diezazkiekegu.

Sekuentzia didaktikoa

2. IRTENALDIA: NEGUTEGIA EDO BARATZEA

PROZEDURA

Hasiera

Irtenaldia egin aurretik, komeni da hurrei galdetzea ea inork baduen baserrian bizi den edo baratze nahiz negutegia duen aitona-amonik edo familiartekorik. Etxean galdetu dezatela. Bakarren bat balego, bertara joateko buruzpideak egin ditzakegu, baratzeke gorabeherak zuzenean jaso ahal izateko.

Garapena

Joan aurretik, irtenaldia planifikatuko dugu; ahaleginduko gara ikusi behar dugunaz ahalik eta informazio gehiena eskuratzen. Ez badugu eskura baratze edo negutegi ezagunik, loradenda batera joan gaitzake, eta erosketa txiki bat egiteko aprobetxatu. Herriko lorategiak ere bisita ditzakegu.

Ohi bezala, komeni da irtenaldiaren helburuaz, eraman beharreko gauzez, jokabide-arauez... hitz egitea, bai eta gurasoei irtenaldiaren berri idatziz ematea ere.

Bukaera

Landareen (loreak, landareak...) bilduma bat egitea proposatzen dugu. Irtenaldian landare eta loreak bilduko ditugu, edota argazkiak aterako ditugu gure bilduma osatzeko.

8. unitatean animalien bilduma osatu genuen bezala, oraingoan, landareekin, prozedura bera jarraituko dugu. Ikusi "Behin batean baserrian" unitatearen *Animalien bilduma* sekuentzia didaktikoa.

25. Abestia

LORETAN LOLO ENE POTXOLO

Lo, lo, lo, lilian, lo, lo,
Hamalau lili lilian, lo, lo;
Hamalau lilian lo, lo,
Loretan lo, lo, ene potxolo.

Lo, lo, lo lilian, lo, lo,
lainoak bili-bili bonbolo,
lainoak bili bonbolo,
loretan lo, lo, ene potxolo.

Lo, lo, lo, lilian, lo, lo,
lelotan ama, lo-leri-lelo,
lelotan lo-leri-lelo.,
loretan lo, lo, ene potxolo.

PROZEDURA

Memento lasaia hartu dezakegu kanta honekin aritzeko; irtenaldia egin ondoren, argazkiak edo bildutako landareak biltzen eta sailkatzen ditugun bitartean, edota erlaxazio-ariketa modura.

Bestetik, kantuan *lili* hitza ageri denez, aprobetxa dezakegu lore horren argazki bat eta azalpen-tes-tua aurkezteko, hurrengo jardueran proposatzen dugun bezala.

26. Olerkia: "Krabelin"

Krabelin usaina zerutik,
krabelin usaina lurretik.

Krabelin zeruko,
krabelin lurreko.

Krabelin
krabelin.

J. K. Igerabide

PROZEDURA

Ikusi al duzue inoiz krabelinik? Nolakoak dira? Politak al dira? Loreen izenik ezagutzen al duzue? Ea, nik esango ditut batzuk: bitxilorea, ezkila-lorea, arrosa, krabelina, lilia, eguzki-lorea, kamelia, jasmirna, hiazintoa...

Loreak azaltzen diren liburuak beha ditzakegu liburutegian.

Helburu didaktikoak:
III.7 (H) - 15 (H) - 52 (H)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK

Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea: LIBREA

Materiala: 3. CDa, 15. ABESTIA

Jarduera hau egiteko espazioa:
BARAZKIEN TXOKOA, HARRERA TXOKOA

Helburu didaktikoak: 1.15; III.15 (H)-16 (H)

Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK

Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzea:



Materiala: —

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

27. Abestia

MARGOEN MUSIKA

Zeruan eguzkia,
tximeletak zelaian,
euritan blai-blai dago lurra,
badator ortzadarra.
Magoz jantzi zaigu zelaia,
magoz mendi gailurrak.

PROZEDURA

Ba al dakizue zer den ostadarra? Norbaitek ikusi al du? Noiz? Non? Eta ba al dakizue nola sortzen den? Ba al dakizue izen piloa duela? Erromako zubia, ortzadarra, ostadarra...

Ikusi jarduera konstanteak: Abestiak.

Helburu didaktikoak:
III.15 (H)-16 (H), III.32 (MUS)
Etengabeko ebaluazioa: ULERENA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOA
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzea: LIBREA
Materiala: 3. CDa, 14. ABESTIA
Jarduera hau egiteko espazioa:
HARRERA TXOKOA

28. Abestia

EGUZKITAN DIN DAN

Eguzkitan din, dan,
euritan ziprisplan,
baratz(e)an larrosak eta krasminak
dantzan ta dantzan.

Din, dan, don,
gure baratzean,
larrosak dantzan.
Txiplisplan, txiplisplan,
euri tantak bihotzean.

PROZEDURA

Abesti honen bidez gorputz-adierazpena lantzea proposatzen dugu. Loreak eguzkitan daudenean zabaldu egiten dituzte beren petaloak, eta hazten dira. Haurrek ere, gorputzaren mugimenduaren bidez, besoak zabalik, goranzko joera adierazi behar dute. Euripean berriz, uzkurto egingo dira gure loreak, itxi, makurtu eta bildu.

Helburu didaktikoak:
I.6, III.15 (H), III.30 (MUS), III.32 (MUS)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK,
MOTOREAK
Jarduera mota: MOTIBAZIOA, ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: LIBREA
Materiala: 3. CDa, 16. ABESTIA
Jarduera hau egiteko espazioa:
HARRERA TXOKOA

29. Koxme barraskiloa

PROZEDURA

Koxme barraskiloari, barraskilo guztiei bezala, asko gustatzen zaizkio barazkiak. Guri ere!!

Lan-koadernoan Koxme barraskiloa ageri zaigu, baina ez dago batere dotore. Apainduko al dugu? Nahi dugun bezala apainduko dugu. Olerki txikia ere irakurriko dugu!

Koxme barraskiloa,
etxea bizkarrean duela,
mendira doa.



Barraskiloez etxea bizkarrean al daramate? Nola deitzen zaio barraskiloaren "etxeari"? (maskorra)

Hezitzaileak kontuan hartuko du zer teknika erabiliko duten horma-irudia apaintzeko (loreak, txi-meletak edo zuhaitzak egiteko...). Plastilina, zetazko papera, zelofana, collagea... erabiliko badituzte, fitxa honetan margoak erabili ditzakete (tenperak, argizariak...). Bestela, plastilinarekin ere osa daiteke maskorra.

Barraskiloaz ari garen honetan, zuzeneko behaketa lantzeko aprobetxa dezakegu: nolakoak diren, non dituzten begiak, ukituz gero zer egiten duten... Klean barraskiloen arrastoa ikus dezakegu askotan, eta lorategi edo baratzeak hostoetan hozkadak antzeman ditzakegu, barraskiloak bertan izan diren seinale.

HEZITZAILEAREN EGINKIZUNA

Hezitzailea arduratuko da adierazpen-txokoa behar bezala hornitua egon dadin. Bestalde, jardueraren jarraipena egin beharko du: haurren interesa, harremanak, eskaintzen zaien materialen egokitasuna...

Helburu didaktikoak: I.11, III.9 (H), III.19 (PLAS), III.21 (PLAS)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: MOTOREAK, KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA
Taldekatzeta:  
Materiala: 6. FITXA
Jarduera egiteko espazioa: ADIERAZPEN TXOKOA

30. Artelana: "Artistaren lorategia Givernyn", 1900, Claude Monet


PROZEDURA

Koadro hau marraztu zuen artistari ikaragarri gustatzen zitzaizkion lorategiak, nonbait. Koadro pila margotu zuen loreak gaitzat hartuta.

Zoazte ikastolako liburutegira, eta ea Claude Monet buruzko libururik ba ote dagoen begiratu. Ea nolakoak diren...

Zer kolore ikusten dituzue koadro honetan? Eta zein dira gehien ikusten diren koloreak? Gustatzen al zaizue? Hartzen al diozue lorategiaren antzik? Zer dago lorategi honetan? Ezagutzen al duzue horren antza duen lorategirik?

Monet, Claude. Pintore frantsesa (Paris, 1840 – Giverny, Eure, 1926). Impresionismoko artista nabarmena izan zen. Paisaiaren argia eta lanbro-efektuak landu zituen. Kolore argi eta azkarrak erabili zituen eta bere obrek bat-batekotasun sentsazio betea eta bizitasuna lortu zuten

Helburu didaktikoak: II.2 (I), III.23 (PLAS)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: MOTIBAZIOA
Taldekatzeta: 
Materiala: 7. FITXA
Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA


31. Entzunaldia: "Udaberria", Vivaldi

PROZEDURA

Lau urtaroak kontzertutik "Udaberria" atalaren zati hau aukeratu dugu gure oraingo entzunaldirako. Era honetan, ikasturtean zehar kontzertu osoaren zenbait atal entzun ahal izango dituzte. *Lau urtaroak* kontzertua osorik edukiz gero (disko hau eskuratzen oso erraza da), plastika saio batean edo osorik jar daiteke, ea aipaturiko zatiak ezagunak egiten zaizkien. "Udazkena" atalean planteatzen genuen bezala, *erritmoa margotzen* saia gaitzke. (Badaude irudiz osaturiko oso musikograma ederrak honen inguruan.)

Antonio Vivaldi. Bibolinjole eta konpositore italiarra (Venezia, 1678 - Viena, 1741). Konpositore oparoa izan zen; opera asko eta obra erlijioso eta profano ugari konposatu zuen, baina bere lanik garrantzitsuena musika instrumentalaren arlokoa da.

Helburu didaktikoak: I.7, III.26 (MUS)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA
Gaitasun motak: MOTOREAK, KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: MOTIBAZIOA

Taldekatzea: 

Materiala: 3. CDa, 19. ABESTIA
Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

SINTESIA

32. Ikasnorabidea: zatiak erlazionatuz, osotasuna antzeman

Ttanttoren gutuna:

Kaixo laguntxoak:

Uuuuu! Baina zein polita den udaberria!

Alaia, apaina, koloretsua, dotorea, argitsua, bizia, ederra, zoragarria, mundiala!


Eta, gainera, laster oporrak datoz!

Hasia naiz, honez gero, oporretan pentsatzen. Baina tira! Oporrei buruz hurrengo gaian hitz egingo dugu!

Baina zuei, haurtxoak, zer iruditu zaizue udaberria? Ondo pasa al duzue? Baratzerik edo lorategirik ikusi al duzue? Nolakoak ziren? ...

Ttantto marigorringo

Helburu didaktikoak: SINTESIA
Etengabeko ebaluazioa: GUZTIAK
Gaitasun motak: GUZTIAK
Jarduera mota: SINTESIA

Taldekatzea: 

Materiala: 1. FITXA
Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

Ikasnorabidea (1. fitxa) berriro hartu, eta birpasa ezazue ikusitakoa, atalez atal.

10- "Igerian, jolasean..." (Ikasturtea bukatu arte)

Sarrera

Unitate honen helburua ikasturtean zehar ikasitakoa eta ikusitakoa gogoratzea da, eta, horrekin batera, oportetarako prestatuko gara.

Unitatearen barruan egin daitezkeen sekuentzia didaktikoak

- Erakusketa antolatu
- Uraren azterketa
- Oportetarako festa antolatu

Hezitzailearen esku dago haurren interesetara egokitzea eta, horren arabera, jarduera bat ala beste egitea.

Sekuentzia didaktikoaren ebaluazioa

- Abiapuntua (nondik hasi ginen eta zergatik)
- Sekuentziaren garapenean erabilitako baliabide materialek, jarduerak, lan taldeek eta abar ondo funtzionatu duten, ala aldaketak egin beharra dagoen hurrengo saio baterako.
- Sekuentziaren garapenean emandako harremanak (haurren artean, hezitzailearekin...) eta jarrera behatu.

HEZITZAILEAREN EGINKIZUNA

Hezitzaileak behaketa-lana egitearekin batera, datuak jasoko ditu.

HASIERAKOAK

1. Tradiziozko abestia: Isil-isilik nago

ISIL ISILIK DAGO

Isil isilik dago,
kaia barrenean,
ontzi txuri polit bat,
uraren gainean.

Goizeko ordu bietan
esna(tu)tzen gara,
arrantzaleak beti
joateko urrutira

Pasatzen naizenean
zure leihopetik
negarra irteten zait
begi bietatik.

Zergatik? Zergatik? Zergatik?
Zergatik?
Zergatik negar egin?
Zeruan izarra dago,
(Nondik?)
Itsaso aldetik. (bis)

Bat, bat, bat
bart parrandan ibili. (bis)
Bi, bi, bi
ez naiz ondo ibili. (bis)
Hiru, hiru, hiru
kolkoa bete diru. (bis)
Lau, lau, lau
sardina bakalau.

PROZEDURA

Kantarekin hasteko, goizeko lehen ordua (taldea elkartzen denean) aprobeitza dezakegu. Kantatzen hasi gaitzake gozo gozo eta, kanta aurrera doala, *Bat, bat, bat...* paragrafoa iristean, haurrekin jai giroa sortu.


Helburu didaktikoak:
II.9 (I), III.15 (H), III.32 (MUS)

Etengabeko ebaluazioa:
ULERMENA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak:
AFEKTIBOAK, KOMUNIKATIBOAK

Jarduera mota:
MOTIBAZIOA, ESPERIMENTAZIOA,
APLIKAZIOA

Taldekatzeta:



Materiala:
3. CDa, 20. ABESTIA

Jarduera hau egiteko espazioa:
HARRERA TXOKOA

2. Elkarrizketa: Oporretan zer egingo dugu?

JARDUERAREN PLANIFIKAZIOA

Elkarrizketa planifikatzerakoan, honako oinarrizko elementu hauek izango ditugu kontuan:

1. Haur guzien parte hartzea lortu.
2. Elkarrizketa egiteko espazioa: eroso eta komunikazio bultzatzen duena izan behar da. HARRERA TXOKOA
3. Jarduera egiteko denbora aurreikusi.
4. Galderen tipologia ondo pentsatu.
 - Galdera irekiak, baina haurren hizkuntza-kompetentzietara egokituak.
 - Pentsarazten duten galderak.


Helburu didaktikoak:
I.5, III.1, III.12, III.13

Etengabeko ebaluazioa:
NORTASUNA, ULERMENA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak:
KOMUNIKATIBOAK, GIZARTERATZEKOAK,
KOGNITIBOAK

Jarduera mota:
MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzeta:



Materiala: —

Jarduera hau egiteko espazioa:
HARRERA TXOKOA

HEZITZAILEAK BERE ESKU-HARTZEAREN ERREBISIOA EGINGO DU

Haurren interesak

- Haurren esperientzien kontaketa bultzatu duzu jardueraren bitartez?
- Haurren interesak lehenetsi dituzu?

Erronka kognitiboak

- Galderak errebotatzen dituzu edo erantzuna ematen duzu?
- Hipotesiak, arrazonamenduak egiteko, iritziak emateko aukera eskaintzen duzu?
- Jardueraren amaieran, azaldutako ideiak laburbiltzen eta borobiltzen dituzu?

Ikus jarduera konstanteak: Horma-irudia.

3. Ikasnorabideak

PROZEDURA

1. *Beti bezala, ipuin polit bat ikasiko dugu, eta, nola ez, jolas berriak, abestiak, olerkiak eta igarkizunak ere bai. Ikasturtean zehar ikusi eta ikasi ditugunak gogoratuko ditugu.*
2. *Uraren inguruan jolastu eta ikasi egingo dugu. Urari buruzko ikerketa bat egingo dugu, zientzialariek bezala!*
3. *Oporretan egin daitezkeen zenbait ekintza ezagutuko ditugu: kanpina, kirola, mendi-irtenaldiak, bidaiak, dantza... Zenbat gauza!*
4. *Azkenik, gelako beste proposamen batzuk. Zer edo zer gehiago bururatzeko al zaizue uraren eta oporren inguruan? Horrela bada, marraz ezazue zuriz utzi dugun flotagailuan! Ikasi nahi duzuen guztia irakasleari adierazi, berak erraztuko baitizue ikasteko norabidea.*

Ikus jarduera konstanteak: Ikasnorabideak.

Helburu didaktikoak:
AURKEZPENA

Etengabeko ebaluazioa:
ULERMENA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak:
AFEKTIBOAK, KOMUNIKATIBOAK,
KOGNITIBOAK

Jarduera mota:
MOTIBAZIOA, ARAKETA

Taldekatzea:



Materiala:
1. FITXA

Jarduera hau egiteko espazioa:
HARRERA TXOKOA

4. Jolaserako kantua


ZEZEN BELTZ BAT

Zezen beltz bat badator
adar zorrotzak ditu,
alde egiten ez badugu
harrapatuko gaitu.
Bi begi biribilak
isatsa luze-luze
lau hanka oso arinak,
bi belarriak erne.

PROZEDURA

Zezen beltzaren abestiak harrapaketan ibiltzeko aukera ematen digu. Haur bat (zezen beltza) harrapatuta geratzen denean, taldeak abesti hau kantatuko dio, gorputz mugimenduen bidez letra adieraziz, eta ondoren, korrika ihes egingo dute.

Helburu didaktikoak: I.6-I.13, III.15 (H), III.32 (MUS)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: MOTIBAZIOA, ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea: 

Materiala: 3. CDa, 21. ABESTIA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

5. Horma-irudia. Zehar-lerroa: prebentzioa, suziriak

PROZEDURA

Horma-irudian azaltzen diren elementuei buruz, Tough-ek definitutako hizkuntza-funtzioen 3., 4., 5., 6. eta 7. atalak aktibatzen saiatuko da hezitzailea. Funtzio asko direnez, saio bat baino gehiagotan lantzea aholkatzen dugu edo eta horma-irudiari egokien zaiona aukeratzea

Horma-irudi honetan **arrisku** egoera bat sartu dugu: haurrak suziriarekin jolasten. **Suzirien** eta **petardo**en eraginez istripu asko gertatzen dira; irudia baliatuko dugu gai horren inguruko elkarriketa bideratzeko.




Ikus jarduera konstanteak: Horma-irudia.

Helburu didaktikoak:
I.5-II.1 (I), II.2 (I)-III.16 (H)

Etengabeko ebaluazioa:
NORTASUNA, ULERMENA,
ADIERAZPENA

Gaitasun motak:
KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK,
AFEKTIBOAK

Jarduera mota:
ARAKETA, MOTIBAZIOA

Taldekateza:   

Materiala:
Horma-irudia

Jarduera hau egiteko espazioa:
HARRERA TXOKOA

TTANTTOREN OPOR SEKRETUAK

	Behin batean gure lagun guztiak ikastolan zeuden. Oporrak gertu zeudenez, oso pozik zeuden denak.
<i>Hezitzailea</i>	Ba al dakizue datorren astean oporrak hasiko direla?
<i>Haurrak</i>	Bai!!!! lufi!!
	Ipuinen txokoan, Ttantto eta Txanogorritxo Katu Botadunaren ipuina elkarrekin ikusten jarri ziren.
<i>Txanogorritxo</i>	Bota horiek banitu, saltoka-saltoka, oporretan urrutira joango nintzateke. Baina amonaren etxera joango naiz. Eta, zu, oporretara joango al zara?
<i>Ttantto</i>	Bueno..., ezin dizut esan. Sekretu bat da.
	Jolas-orduan, Txanogorritxo eta Arroxali ikastolako patioan kromoetan jolasten hasi ziren.
<i>Txanogorritxo</i>	Arroxali, ba al dakizu Ttanttok sekretu bat duela? Oporretara doa eta ez du esaten nora.
<i>Arroxali</i>	Nik uste dut hondartzara joango dela. Horiek bai oporrak!
<i>Txanogorritxo</i>	Bai horixe. Neu ere gustura joango nintzateke hondartzara!
	Bazkaltzeko ordua iritsi zenean, denak jangelara joan ziren. Arroxaliren alboan Hiru Txerrikumeak eseri ziren mahaian.
<i>Arroxali</i>	Txerrikumeok, ba al dakizue Ttanttok sekretu bat duela? Oporretara doa eta ez du esaten nora.
<i>Txerrikumeak</i>	Guk uste dugu kanpinera joango dela. Horiek bai oporrak!
<i>Arroxali</i>	Bai horixe! Neu ere gustura joango nintzateke kanpinera!
	Arratsaldeko saioa hasi aurretik, siesta txiki bat egin zuten. Hiru Txerrikumeak zurrungan ari ziren Prudentzi postariaren alboan.
<i>Prudentzi postaria</i>	Aizue, zurrungan ari zarete eta ezin dut lorik egin!
<i>Txerrikumeak</i> <i>Esnatzen dira eta ahopeka hitz egiten dute.</i>	Ahhh!!! Barkatu! Barkatu! Baina gauzatxo bat, Prudentzi, ba al dakizu Ttanttok sekretu bat duela? Oporretara doa eta ez du esaten nora.
<i>Prudentzi postaria</i>	Nik uste dut Parisera joango dela trenean. Horiek bai oporrak!
<i>Txerrikumeak</i>	Bai. Geu ere gustura joango ginateke Parisera!
	Arratsaldean, antzerki-gelara joan ziren denak mozorrotzera. Pinpox arropa aukeratzen ari zela Prudentzik esan zion:

<i>Prudentzi postaria</i>	Pinpox, ba al dakizu Ttanttok sekretu bat duela? Oporretara doa eta ez du esaten nora.
<i>Pinpox</i>	Nik uste dut Donostiako Akuariuma ikustera joango dela.
<i>Prudentzi postaria</i>	Bai. Neuk ere gustura asko bisitatuko nuke Donostiako Akuarioa.
	Arratsaldeko saioa ere bukatu zen eta denak elkarrekin parkera joan ziren, jolasera. Gorde-gordeka ari zirela Txantxangorri Mokofina inguratu zitzairen.
<i>Denak batera</i>	Txantxangorri, ba al dakizu Ttanttok sekretu bat duela? Oporretan doa eta ez du esaten nora.
<i>Txantxangorri</i>	Txio, txio! Nik uste dut zoo bat ikustera (Cavarcenora) joango dela.
<i>Denak batera</i>	Geu ere gustura joango ginateke zoo batera (Cavarcenora)!
	Astea ziztu bizian pasatu zitzairen. Azkeneko egunean denak pozak zorutzen zeuden oporrak iritsi zirelako.
<i>Denak batera</i>	Aupa! Oporrak iritsi dira! Eta zuk, andereño, zer egingo duzu oporretan?
<i>Hezitzailea</i>	Oso nekatuta nagoenez landetxe batera joateko asmoa dut.
<i>Denak batera, Ttanttoren oporretan interesatuagoak</i>	Puufff! Landetxe batera....! Eta zuk, Ttantto, zer egingo duzu?
<i>Ttantto</i>	Ezin dizuet esan, sekretu bat dela!!!
	Denek jakin nahi zuten sekretu hura eta argitzeko asmoz, bere pauso guztiak jarraitzea erabaki zuten. Txanogorritxo ikastolako atea zaintzen geratu zen.
<i>Txanogorritxo</i>	Aizue, lagunok! Etorri hona! Ttantto ez da ikastolatik atera!
<i>Denak batera</i>	Ziur al zaude? Ondo zaindu al duzu atea?
<i>Txanogorritxo</i>	Baietz, ba! Eta ez da atera. Goazen barrura! Beharbada komunean itxita gelditu da!
	Barrura sartu eta ikastola miazten hasi ziren, baina Ttantto ez zen ageri. Halako batean, Ttanttoren ahotsa entzun zuten.
<i>Denak batera</i>	Ttantto, Ttantto, non zaude?
<i>Ttantto</i>	Hemen nago, hemen nago!
<i>Denak batera</i>	Non? Komunean?
<i>Ttantto</i>	Ez, hemen, gelan, liburu barruan. Ez nizuen esan nahi, baina nik hurrengo ikasturteko haurrei itxaron behar diet. Haiei ere ipuinak eta istorio politak kontatu behar dizkiet.

<i>Denak batera</i>	Horregatik ez zenuen esaten oportretan nora joango zinen!
	Besarkada handi bat eman zioten, eta, begietan malkoak zituztela, agurtu zuten. <i>Hala bazan ez bazan...</i>


IPUINA AITZAKIA

8. Ipuinaren abestia: Ttantto marigorringoa

PROZEDURA

Dagoeneko ezaguna zaigun kantara joko dugu berriro, eta gogora ekarriko dugu.

Helburu didaktikoak: III.15 (H)- III.30 (MUS), III.32 (MUS)
Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: AFEKTIBOAK, KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea:  LIBERA

Materiala: 2.CDa, 1. ABESTIA
Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

9. Ipuinari buruzko elkarrizketa

PROZEDURA


Gustatu al zaizue ipuina?

Zer da gehien gustatu zaizuena?

Zergatik kezkatu dira Ttanttoren lagunak ikastolatik atara ez denean?

Zergatik gelditzen da Ttantto liburuaren barruan?

Helburu didaktikoak: I.5, III.1, III.12, III.13
Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA, ULERMENA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, GIZARTERATZEKOAK, KOGNITIBOAK
Jarduera mota: MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea: 

Materiala: —
Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

10. Elkarrizketa jolasa atzamarrekin

PROZEDURA

Txotxongiloekin elkarrizketa-jolasa egiteko, hiru aukera proposatzen ditugu.

Helburu didaktikoak:
I.13, II.14 (I), III.1 (H) - 12 (H)

Etengabeko ebaluazioa:
NORTASUNA ADIERAZPENA

Gaitasun motak:
KOMUNIKATIBOAK, GIZARTERATZEKOAK,
MOTOREAK

Jarduera mota:
MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea: LIBREA

Materiala: 10. FITXA

Jarduera hau egiteko espazioa:
HARRERA TXOKOA

1)

	Jolas-orduan, Txanogorritxo eta Arroxali ikastolako patioan kromoetan jolasten hasi ziren.
	Arroxali, ba al dakizu Ttanttok sekretu bat duela? Oporretara doa eta ez du esaten nora.
	Nik uste dut hondartzara joango dela. Horiek bai oporrak!
	Bai, horixe. Neu ere gustura joango nintzateke hondartzara!

2)

	Arratsaldeko saioa hasi aurretik siesta txiki bat egin zuten. Hiru Txerriku-meak zurrungan ari ziren Prudentzi postariaren alboan.
	Aizue, zurrungan ari zarete eta ezin dut lorik egin!
<i>Esnatzen dira, eta ahopeka hitz egiten dute.</i>	Ahhh!!! Barkatu! Barkatu! Baina gauzatxo bat, Prudentzi, ba al dakizu Ttanttok sekretu bat duela? Oporretara doa eta ez du esaten nora.
	Nik uste dut Parisera joango dela trenean. Horiek bai oporrak!
	Bai. Geu ere gustura joango ginateke Parisera!

3)

	Ikastolan sartu eta miatzen hasi ziren, baina Ttantto ez zen ageri. Halako batean, Ttanttoren ahotsa entzun zuten.
	Ttantto, Ttantto, non zaude?
	Hemen nago, hemen nago!
	Non? Komunean?
	Ez, hemen, gelan, liburuen barruan.

	Ez nizuen esan nahi, baina nik hurrengo ikasturteko haurrei itxaron behar diet. Haiei ere ipuinak eta kontu politikak kontatu behar dizkiet.
	Horregatik ez zenuen esaten nora joan behar zinen oporretan!
	Besarkada handi bat eman zioten, eta malkoak begietan zituztela agurtu zuten.

11. Jolasa: Zuk zer uste duzu?

PROZEDURA

Ipuinaren honako pasarte hau hartuko dugu, haurren hipotesiekin jolasteko:

Helburu didaktikoak: I.13, II.14 (I), III.1 (H)-12 (H)
Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, GIZARTERATZEKOAK, MOTOREAK
Jarduera mota: MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzea: LIBREA
Materiala: 10. FITXA
Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

1. haurra, ba al dakizu Ttanttok sekretu bat duela? Oporretara doa eta ez du esaten nora.
2. haurra	Nik uste dut joango dela.
1. haurra	Bai. Ni ere gustura joango nintzateke-ra.

12. Hiztegiarekin jolasean: Zer falta da?

PROZEDURA

Gure hiztegi-txartelen artetik 4/5 aukeratuko ditugu, denen aurrean jarri, eta, guztion artean, banan-banan gogoratuko ditugu txartelen izenak.

HEZITZAILEA: Bat bi eta hiru, itxi begiak, tranparik ez!


HEZITZAILEA: Prest zaudete?

HAURRAK: Prest gaude.

HEZITZAILEA: Ireki begiak. Zer falta da?

HAURRAK: falta da.

HEZITZAILEA: Bai, bai, asmatu duzue. / Ez, ez eta ez. Ez da falta

Helburu didaktikoak: III.1 (H), III.13 (H) - II.16 (MAT)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOGNITIBOAK, KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA
Taldekatzea: 
Materiala: IPUINEKO HIZTEGI TXARTELAK
Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

Hasteko, beste jolasetan bezala, hezitzaileak bideratuko du jolasa. Jolasaren dinamika ulertuta da-goenean, haur batek egin dezake, hezitzailearen laguntzarekin betiere.

HAUR BATEK: Bat bi eta hiru, itxi begiak!

HAUR BATEK: Prest zaudete?

BESTE HAURRAK: Prest gaude.

HAUR BATEK: Zer falta da?

HAURRAK: falta da.

HAUR BATEK: Bai, bai asmatu duzue. / Ez, ez eta ez. Ez da falta

OHARRA: Hiztegi-jolas honen ordeztu, besteren bat egin liteke.

Ikus jarduera konstanteak: Hiztegia.

13. Non dago Ttantto?

PROZEDURA

Ipuinean bezala, Ttantto gure gelako txoko batean edo gure gorputzaren gordeleku batean gorde da.

Jolasteko, Ttanttoren panpina edo txotxongioloa erabiliko dugu. Haurrek, banan-banan, panpina gorputzaren atal batean ezkutatu dute lehenik, eta, ondoren, ikasgelako txokoren batean. Ondoren, gainerako haurrek ahoz adierazi behar dute non gorde den Ttantto. Hezitzaileak oinarritzko espazio kontzeptuak adieraztera bideratuko ditu haurrak.

Adibidez: *Ttanto nire besapean gordeljarri da. Nire buru gainean...*

Amaitzeko, 6. unitateko 16. jardueran ikasitako olerkia ekar dezakegu gogora:

Goian daukat burua,
erdian bularra,
alboetan besoak,
esku eta atzamarrak,
sabelaren erdian,
zilborra kaxkarra,
atzeko ipurditik
bota dut puzkarra.

Helburu didaktikoak: I.1, 15, II.33 (MAT)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOGNITIBOA, KOMUNIKATIBOA

Jarduera mota: APLIKAZIOA

Taldekatzea:



Materiala: TTANTTOREN PANPINA/TXOTXONGILOA

Jarduera hau egiteko espazioa: GELA

14. Gure pertsonaiak

PROZEDURA

Ikasturte amaieran gaudenez, begirada bat emango diegu pertsonaia guztiei.

Ipuin bakoitzeko pertsonaia nor den galdetuko diegu haurrei (hizkuntza idatzian ere erreparatu dezakegu: izenaren luzera, lehenengo letra, gelako izenen letrekin konparazioak egin...).

Modu horretan, pertsonaia guztien bilketa egingo dugu, aurrerago prestatuko dugun erakusketan jartzeko.

Helburu didaktikoak:
III.2 (H), III.3 (H), III.5 (H), III.7 (H), III.8 (H), III.9 (H), III.10 (H), III.12 (H), III.13 (H), II.21 (MAT), II.29 (MAT)

Etengabeko ebaluazioa:
ADIERAZPENA

Gaitasun motak:
KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK, MOTOREAK

Jarduera mota:
ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea:



Materiala:
PERTSONAIEN HORMA-IRUDIAK

Jarduera hau egiteko espazioa:
ADIERAZPEN TXOKOA

ERREPASOA

15. Gelako argazkia egin

PROZEDURA

Ikasturte hasieran, gelako argazki-album bat egitea proposatu genuen. Oraingo hau une egokia da gelako lagunen argazkia egiteko. Ikastolako jolastokian bilduko ditugu haur guztiak argazkia egiteko.

Haurrak oporretara joaten direnean, beren gelakideen argazkia eramango dute etxera, eta etxekoeti azaldu zein diren beren taldekideak eta zer izen duten.

Helburu didaktikoak: II.4

Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA

Gaitasun motak: AFEKTIBOAK, GIZARTERATZEKOAK

Jarduera mota: APLIKAZIOA

Taldekatzea:



Materiala: ARGAZKI KAMARA

Jarduera hau egiteko espazioa: IKASTOLAKO JOLAS TOKIA

16. Gelako argazkia

PROZEDURA

Egindako argazkia inprimatu eta fotokopiatuko dugu (zuri beltzean nahikoa izango da). Kopia aurrean artean banatuko ditugu eta, eskuartean dutela, 2. fitxa aztertuko dugu.

Gogoratzen duzue zertarako atera dugun argazkia?

Iruditzen al zaizue asko handitu zaretela kurtsoan zehar?

Zenbat urte geneuzkan kurtso hasieran? Eta orain? (Batzuek urteak egin dituzte kurtsoan zehar, hori gogora dezakegu.)

Fitxaren atzeko aldean taldekoen izenak idazteko aukera emango diegu.

Helburu didaktikoak: I.5-II.4 (I) - III.16 (H)

Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA

Gaitasun motak: AFEKTIBOAK, KOGNITIBOAK

Jarduera mota: APLIKAZIOA, MOTIBAZIOA

Taldekatzea:



Materiala: 2. FITXA

Jarduera hau egiteko espazioa: PLASTIKAKO TXOKOA

17. Hiztegia

PROZEDURA

Ikasturtean zehar hitz berri ugari ikasi ditugu. Hiztegi-txartelak hartu eta, marrazkiari begiratuz, hitza gogoratzeko saiaturako gara. Beste behin, eta batere marrazkirik gabe, hitzen familiak egin ditzakegu. Horretarako, landu ditugun unitateen gaiak kontuan izango ditugu. Adibidez: *Ea zenbat janariren izenak ikasi ditugun; zenbat animaliarenak; edota, zenbat gorputz-atal ezagutzen ditugun... Zenbat ikasi dugun ikastolan!*

Ondoren, txartel bat aterako dugu, eta ageri den irudiaren ezaugarriak aipatzen saiaturako gara, ahalik eta zehazkien.

Ohi bezala, hurrek txarteletan azaltzen diren irudiak **erlazioa** ditzakete, **bereizi**, berdintzen eta desberdintzen dituzten ezaugarriak **identifikatu**...

Aurretik esan dugun bezala, hainbat irizpideren arabera **sailkapenak** egin daitezke: gaia, animalia/landarea/objektua, gustatu / ez gustatu, handia/txikia, jatekoa / ez jatekoa... Horretarako, txartel multzo bat eskainiko diegu hurrei (erlazioatu eta desberdindu dezaketena) eta horiekin bi talde egiteko eskatu. Ondoren, egindakoa hitzez adieraziko dugu: *Zergatik jarri dituzue hauek hemen eta beste horiek hor?* Multzo bakoitzeko elementuen ezaugarri komuna eskatuko diegu (hasieran, gure laguntzarekin).

Lehenengo txartel berak beste bi multzo desberdinetan banatzeko erarik inork ikusten al duen galde-tu, eta lehenengo hitzez adierazte-prozesua errepikatu.

Hezitzaileak irizpide baten arabera sailkatuko du txartel multzo bat, hurrei aurkeztu, eta **ezaugarri komuna inferitzea** eskatuko die. Lehenengo aldian hezitzaileak ahoz adieraziko du ezaugarria aukeratzeko prozesua: guztiak ez dira frutak, ezta gorriak ere, ezta... ere, a, bai! Guztiak jatekoak dira.


Beste aukera bat da txartel multzo batean **ezaugarri komuna betetzen ez duen** elementu bat sar-tzea, eta multzotik zein txartel eta zergatik kendu behar duten hitzez adierazteko eskatzea.

Helburu didaktikoak: II.2, 3 (I) - III.13 (H), II.16 (MAT), II.17 (MAT), II.19 (MAT)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK

Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea: 

Materia: HIZTEGI TXARTELAK

Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

18. Ipuinak gogoratzen

PROZEDURA

Kurtsoan zehar 10-11 ipuin ikusi eta ikasi ditugu. Ipuine-tako pertsonaiekin egin dugun bezala, lehenengotik azke-neraino zerrendatzen eta arbelean apuntatzen joango gara. Denak apuntatuta daudenean, gustukoena zein den bozkatuko dugu.


Bozketan ipuin gustukoena aukeratu ondoren, antze-pen kolektiboaren bitartez gogoratuko dugu (aukeratuta-koa zein besteren bat).

Helburu didaktikoak: III.1 (H), III.3 (H), III.8 (H), III.9 (H)

Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNITATIBOAK, KOGNITIBOAK

Jarduera mota: APLIKAZIOA

Taldekatzea: 

Materia: HIZTEGI TXARTELAK

Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

Sekuentzia didaktikoa

1. ERAKUSKETA ANTOLATU

PROZEDURA

Hasiera: Elkarrizketa sortu gindako lanak gogoratzeko

Kurtsoan zehar egindako hainbat lan ekar ditzakegu gogora. Lan horiekin erakusketa bat antola dezakegu. Haurrei lagunduko diegu egindako lanak gogora ekartzen, eta beren iritzia eskatuko diegu aukeraketa bat egiteko.

Ipuinetako pertsonaiak: horma-irudiak, txotxongiloak...

Artelanak

Irteeren argazkiak

(5. unitatean:)

Eguraldia behatzeko tresnak eta prozesuaren argazkiak

Egutegia

(6. unitatean:)

Collagea

Inauteri-festako argazkiak

(7. unitatean:)

Janariaren horma-irudia

Jogurtfonoak (argazkiak)

Janari-dendaren argazkiak

....

Garapena

Egin ditugun lanak gogoratu ditugu; orain, erabakiak hartzeko unea iritsi zaigu.

Haurrekin batera lanak aukeratuko ditugu, eta erakusketa non kokatu eta nola antolatuko dugun erabakiko dugu. Haurrak talde txikietan lanean jartzea proposatzen dugu. Taldeak sortzeko, koloreen jolasa egin dezakegu.

Koloreen jolasa:

Hiru koloretako txartelak prestatuko ditugu denentzat. Txartelak nahastu eta haurren artean banatuko ditugu. Hiru kontatzean, kolore bera duten lagunak bilatu behar dituzte eta, horien artean, taldea sortuko dute. Koloreen orde bestea edozein ezaugarri edo elementu erabili daiteke.

Behin hiru taldeak sortu ditugula, lana nola banatu pentsatuko dugu.

Taldeka lanean:

Talde batek materiala bildu eta kutxa batean sartuko du, erakusketa egingo dugun tokira eramateko.

Bigarren taldeak gonbidapenak egingo ditu, eta beste gelakideen artean banatuko ditu.

Hirugarren taldea erakusketa apaintzeaz arduratuko da; behar dugun materiala bilatu (zeloak, grapak, eta grapak...), eta erakusketan ipintzeko apaingarriak prestatuko ditu.

Talde guztiak batera funtzionatzeko zailtasunak sortu daitezkeenez, talde bakoitzaren zereginak egun desberdinetan planteatu daitezke. Lan-dinamika horrekin haur guztiak helburu argi batekin proiektu berean parte hartzea sustatu nahi dugu.

Amaiera

Erakusketa muntatuta eta apainduta dagoenean, gonbidatuei erakutsiko zaie.

URA

19. Zer lekutan aurki dezakegu ura?

PROZEDURA

Ura non aurki dezakegun galdetuko diegu hurrei. Erantzunak errazteko, zenbait galdera egin ditzakegu. Adibidez: *Nondik hartzen duzue ura egarriak zaudetenean? Zer lekutan bainatzen gara udan bero asko egiten duenean?...*

Ondoren, mapa bat ekarriko dugu gelara eta bertan itsasoa eta ibaiak seinalatuko ditugu. Gure herrian edo inguruan dagoen ibaiaren edo itsasoaren izenak aipatuko ditugu. Elkarrizketa honek lotura izan dezake oporrei buruzko elkarrizketarekin. Aprobetxa ditzakegu haurren oporretako tokiak eta bertan ura bilatu (piszinak, itsasoa, ur-botilak, iturriko ura...).

Helburu didaktikoak:
II.2 (I)-3 (I), III.16 (H)

Etengabeko ebaluazioa:
ULERMENA

Gaitasun motak:
KOGNITIBOAK

Jarduera mota:
INFORMAZIOA

Taldekatzea:



Materiala: —

Jarduera hau egiteko espazioa:
HARRERA TXOKOA

20. Ura zertarako?

PROZEDURA

Uraren balioaz jabetzen hasteko, ura zertarako erabiltzen dugun gogoratuko dugu:

Ura egarria kentzeko, edateko

Ura landareei botatzeko, landareak hazteko

Ura animaliek edateko

Ura itsasontziak ibiltzeko

Ura garbitzeko

Ura igerian ibiltzeko

...

Hezitzaileak haurren erantzunak arbelean idatziko ditu. Ondoren erantzun guztiak berriro irakurriko dira, irakurritakoa eskuarekin jarraituz.

Helburu didaktikoak: II.2 (I)-3 (I), III.8 (H), 9 (H), 12 (H), 16 (H)

Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOGNITIBOAK, KOMUNIKATIBOAK

Jarduera mota: INFORMAZIOA

Taldekatzea:



Materiala: —

Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

21. Ur gehiago, ur gutxiago

PROZEDURA

Edalontzi batzuk hartu eta bakoitzean kantitate desberdin bat jarriko dugu seriazio bat eginez. Haurrek *gutxilgehiago, gehiago/asko* adierazpenekin kantitateak identifikatuko dituzte.

Koilara batekin ontzietan kolpatuz, musika-doinuak aterako ditugu; ur kantitatearen arabera, haurrek hots desberdinak antzemango dituzte. Ikastolan laborategia baldin badugu, bertako saio-hodiak euskarri batean jarriz, soinu-kalitate hobea lortuko dugu.

Metroa edo erregela erabiliz, hodietan ura noraino iristen den neur dezakegu (zentimetrotan) eta idatzi. Probetak eskura baditugu, erregela antzeko bat duela ikusiko dugu, eta uraren bolumena neurtuko dugu, zentimetro kubikotan edo mililitrotan (probetaren idazkeraren arabera).

Haurrek luzeraren eta bolumenaren unitateak ezagutzen ez badituzte ere, egokia da, jada, horien izenak entzuten hasia.

Helburu didaktikoak: I.7, II.3 (I), III.28 (MUS), III.31 (MUS)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOGNITIBOAK, KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzeta: LIBREA
Materiala: EDALONTZAIK, LABORATEGIKO HODIAK, NEURTZEKO TRESNA...
Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

Sekuentzia didaktikoa

2. URAREN AZTERKETA

PROZEDURA

Hasiera: Urari buruz hitz egiten jarraituko dugu.

Ura nondik hartzen dugun eta zertarako erabiltzen dugun badakigu; orain, uraren ezaugarriak aztertuko ditugu. Horretarako, hiru talde egingo ditugu.

A taldea: Uraren kolorea aztertu eta, hezitzailearen laguntzarekin, ondorioak apuntatu.

Gelako mahai batean urez betetako beirazko ontziak jarriko ditugu. Ontziak tamaina eta forma desberdinetakoak badira, hobe. Bestetik, harritxoak, jostailu txikiak, kanikak eta antzekoak jarriko ditugu mahai gainean, horiekin probak egin ditzaten.

Haurrei uraren kolorea behatzeko eskatuko diegu. Interesgarria izan daiteke egiten dituzten hausnarketak idaztea edo grabatzea.

Kolorerik ez duela esateko zailtasunak badauzkate, hezitzailearen laguntza izango dute:

– *Zergatik ikusten dira jostailuak edo kanikak uretara botatzen ditugunean? Ez al da izango kolorerik ez duelako?*

– *Urak kolorea izango balu, berdin ikusiko genituzke barruko gauzak?*

Temperarekin ur-ontziak kolorez tindatu ditzakegu eta ondorioak atera. Koloreen inguruko ondorioak apuntatuko dira (hezitzailearen laguntzarekin). Mezua denen artean eraiki eta idazkari bat izendatuko dugu. Idazkariak bere modura idatziko du adostu den esaldia, eta hezitzaileak transkripzioa egingo du.

B taldea: Uraren usaina aztertu eta, hezitzailearen laguntzarekin, ondorioak apuntatu.

Gelako mahai batean urez betetako ontziak prestatuko ditugu. Haurrei usaintzeko eskatuko diegu, eta egiten dituzten hausnarketak grabatu edo idatziko ditugu.

Beste ontzi batean, kolonia pixka bat jarriko dugu, eta hirugarren batean ozpina, laranja-zukua edo zuei bururatzen zaizuen.

Talde honetako hurrek ura usaindu, eta haren usaina "deskribatu" beharko dute.

Urak ez duela usainik ondorioztatzea ez da erraza izango, baina interesgarriena ez da emaitza, baizik eta ondorio horretara iristeko eraikitzen den hausnarketa.

Aurreko taldean bezala, ondorioa laburtzen duen esaldi bat erabakiko da taldean, eta taldekide batek esaldi hori bere modura idatziko du. Mezua eraikitzeke eta transkribatzeko hezitzailearen laguntza izango dute.

D taldea: Uraren zaporea aztertu eta, hezitzailearen laguntzarekin, ondorioak apuntatu.

Azken taldeak zaporeari buruzko azterketa egingo du. Horretarako, ura dastatuko dute.

Uraren zaporea identifikatzea oso gauza zaila da, horregatik, beste edari batzuekin konparazioak egitea proposatzen dugu.

Ontzietan ura, Coca-Cola, laranja-zukua, esnea... ipiniko ditugu, eta, dastatu ondoren, uraren zaporea nolakoa den adostuko dugu denen artean.

Aurreko bi taldeetan bezala, denen artean esaldi bat eraiki, eta taldekide batek idazkariarena egingo du.

OHARRA:

Hiru taldeen kudeatzea oso zaila egiten bada, talde handian egin daitezke azterketa-lanak

Bukaera

Uraren azterketaren ondorioz bildu diren esaldiak edo ondorioak elkartu, eta txukun prestatuko ditugu gurasoei bidaltzeko.

Horretarako, azterketaren ondorengo hausnarketak ordenatu, eta ordenagailuan idatz ditzakegu. Talde bakoitzak egindako hausnarketari buruzko marraskia egingo du, eta, bukatzeko, taldekide bakoitzak bere izena idatziko du.

22. Olerkia: Itsas barraskiloa

ITSAS BARRASKILOA

Karakola belarrian:

Itsasoaren arnasa.

Karakola belarrian:

Itsasoaren doinu.

Karakola belarrian:

Itsasoaren jolasa.

Ikusi jarduera konstanteak: Olerkiak, aho-korapiloak, esaera zaharrak.

Helburu didaktikoak: I.5, III.1 (H), 15 (H)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: ESPERIENTAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzeta: LIBREA
Materiala: —
Jarduera hau egiteko espazioa:
 HARRERA TXOKOA

23. Artelana: Txalupak arrastian (Hondarribia), 1982. Menchu Gal

PROZEDURA

Dagoeneko urari buruzko gauza asko ikasi ditugu: kolorea, usaina, zaporea, nondik hartzen dugun, zertarako erabiltzen dugun...

Arte-lan honetan ura ageri da, eta uretan txalupak. Kostan bizi bazarete, denek emango dituzte arrantzaren inguruko xehetasunak; bestela, haurren batek jakingo du zertarako diren txalupak horiek, oporretan kostara joan ohi delako, edota aitona-amona kostakoak direlako...

Gustukoa al duzue itsasoari eman dion kolorea? Eta zerukoa?

Zer ordutan uste duzue marraztu zuela koadroa? Goizez? Arratsaldez?

Nola egin ditu hodeiak?

Koadro honetan ez da pertsonarik ageri. Zer uste duzue adierazi nahi izan duela Menchuk? Zergatik ez ditu pertsonak marraztu?

Menchu Gal Orendain. Pintore gipuzkoarra (Irun, 1919-2008). Irunen Gaspar Montes Iturriozekin ikasi eta Parisen bizi ondoren, itzuli eta San Fernando akademiara joan zen. Euskal Herriko paisaiak eta espressionismo-kutsuko erretratuak nabarmentzen dira bere obran. Hasiera batean kubismo-teknikan esperimentatu bazuen ere, pixkanaka koloreak garrantzi handiagoa hartu zuen bere obran. Madrilgo eskola gazteko kide izan zen eta, beste sari anitzen artean, Gipuzkoako Diputazioarena (1955), Espainiako pintura-sari Nazionala (1959) eta Arte Ederretako erakusketa nazionalekoa jaso ditu (1962).

Helburu didaktikoak:
III.23 (PLAS)

Etengabeko ebaluazioa:
ULERMENA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak:
KOGNITIBOAK

Jarduera mota:
MOTIBAZIOA

Taldekatzea: LIBREA

Materia:
3. FITXA

Jarduera hau egiteko espazioa:
HARRERA TXOKOA

24. Igarkizunak

Hondarrez osatuta
itsasoa alboan,
hautxoak niregana,
datoz pozik udan.
Zer da?
(hondartza)

Itsasoa bare dagoenean,
ez nauzue ia ikusten.
Baina haserre dagoenean,
beldurgarri bihurtzen naiz.
Surflariek nire gainean
ibili nahi izaten dute.
Zer naiz?
(olatua)

Uretan bizi naiz.
Igeri egiten dut
Zer naiz?
(arraina)

Igeri eta igeri,
hegatsak, bi begi.
Itsasoan eta ibaian
ibiltzen naiz beti.
Zer naiz?
(arraina)

Zulo asko eta asko ditut.
Nire barruan arrainak preso daude,
eta ezin dute ihes egin.
Zer naiz?
(arrantzarako sarea)

Helburu didaktikoak:
II.2 (I),3 (I)-III.1 (H),2 (H),12 (H),13 (H),15 (H)

Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOGNITIBOAK, KOMUNIKATIBOAK

Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea: LIBREA

Materia: —

Jarduera hau egiteko espazioa:
HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Ttanttoren lagunek ez dakite nora joango den Ttantto oporretan. Agian Ttanttori ere ura gustatzen zaio eta hondartzara doa oporretan, edo agian ez...

Hona hemen asmakizun batzuk. Oporretan hondartzara joaten direnek erraz asmatuko dituzte. Izango ote da Ttantto horietako bat?

Beti bezala, haurrak asmakizunak asmatzera gonbidatuko ditugu. (Hiztegi-txartelak erabil ditza-kegu.)

25. Irtenaldia: Hondartza**PROZEDURA**

Aukera izanez gero, hondartzara joango gara. Hondar pixka bat ekar dezakegu fitxa apaintzeko, bai eta harri batzuk ere, hurrengo jarduera egiteko.

Hondartzara joan aurretik, irtenaldia proiektatuko dugu: etxetik zer eraman behar dugun pentsatu eta adierazi, gurasoentzako oharra prestatu...

Interesgarria izan daiteke inguruko acuarium bati edo itsasoaren inguruko museo bati bisita egitea.

Hondartzan, libreki jolasteaz gain, zenbait ekintza bidera ditzakegu, hala nola:

- Hondar bolatxoak egin eta leku zehatz batera bota (azaldu begietara botatzeak duen arriskua.)
- Hondartzarako tresneriarekin tontorrak, zubiak, tunelak, zuloak, tartak... eraiki
- Hatzen, oinen eta eskuen arrastoak egin
- Hondarrean hitz bat idatzi
- Egindako eraikuntzetan hondartzan aurkitzen ditugun makilatxoak eta bestelako objektuak txertatu, esanahiren bat emanaz
- Gorputz-atal bat hondarrez estali
- Olatuak behatu, beren hotsak identifikatu, tamainak bereizi...
- Itsasertza zer den ikasi
- Putzuak saltatu

...

Behin gelara itzulita, haurren lan-koadernoko 4. fitxa hartuko dugu: "Marraz itzazu olatuak eta olerkia irakurri". Itsasoko olatuak dauzkagu, beren arrastoak egiteko, eta olerki txiki bat, hurrek entzuteko, errezitatze edota irakurtzeko.

Hondartzatik hondar pixka bat ekarri badugu, fitxako *hondartzan* kola zabaldu eta poliki-poliki hondarrez estaliko dugu. Lan-koadernoan zakar-ontziaren gainean bertikalki jarrita, soberan dagoen hondarra eroriko da. Itsasoa apaintzeko, zelofan paperezko (berdea eta urdina) tirak moztu eta itsatsi gainean.

Helburu didaktikoak:
I.11, 15- II.1 (I), 2 (I), 3 (I), 7 (I), 10 (I)-III.11 (H),
12(H), 15 (H), III.17 (PLAS), III.19 (PLAS),
III.21 (PLAS), III.24 (PLAS)

Etengabeko ebaluazioa:
ULERMENA, ADIERAZPENA, NORTASUNA

Gaitasun motak:
KOMUNIKATIBOAK, AFEKTIBOAK,
GIZARTERATZEKOAK, MOTOREAK, KOGNITIBOAK

Jarduera mota:
ESPERIENTAZIOA, APLIKAZIOA, MOTIBAZIOA

Taldekatzea:



Materiala: 4. FITXA

Eguzkitan bero-bero
Izerditan egunero.
Uf, uf, hondartzara noa gero!
Uf, uf, hondartzara noa gero!

26. Abestia: Arraunketan

PROZEDURA

Estropadetan jolasteko nahikoa da bata bestearen atzean lurrean eserita jartzea, hankak zabalik, eta guztiok batera abestiaren erritmoari jarraituz arraunean egitea:

ARRAUNKETAN

Arraunketan, arraunketan,
arraun, arraunketan,
laino lainotan....
lanbro lanbrotan
arrain denak arrain saretan.

Helburu didaktikoak:
I.6, 8, 9, 14, 15-III. 15 (H), III.30 (MUS), III.32 (MUS)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, MOTOREAK
Jarduera mota: ESPERIENTAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzea: LIBREA
Materiala: 3. CDa, 23. ABESTIA
Jarduera hau egiteko espazioa:
HARRERA TXOKOA

27. Olerkia

Boga, boga
marinelak,
batela boga,
itsasoan boga
boga, marinelak.

PROZEDURA


Itsasoaren inguruan **b** fonema duten zenbait hitz: *batela, berdela, belaontzia...*

Helburu didaktikoak:
I.15-III.7 (H), 15 (H)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, MOTOREAK,
KOGNITIBOAK
Jarduera mota: ESPERIENTAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzea: LIBREA
Materiala: —
Jarduera hau egiteko espazioa:
HARRERA TXOKOA

28. Gaia aberasten. "Txoko txuria"

PROZEDURA

Beste gaietan egin dugun bezala, hainbat elementu ekartzeko gonbitea egingo diegu hurrei eta gurasoei, Txoko txuria betetzeko: kantak, ipuinak, eta, oro har, udarekin lotura duten materialak.

Helburu didaktikoak: II.3 (I), II.12 (I), III.1 (H), III.5 (H), III.6 (H), III.10 (H)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK
Jarduera mota: MOTIBAZIOA, ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: 
Materiala: IPUINAK, ALDIZKARIAK...
Jarduera hau egiteko espazioa: TXOKO TXURIA

29. Igerilekua

PROZEDURA

Ttantto, hondartzara ez bada, igerilekura joango da, agian. Nola ibiliko ote da igerilekuan gure Marigorringo maitea?

Gelako lurrean karratu bat marraztuko dugu, igeltsuz edo kolorezko zinta eransgarri batez. Karratu hau gure igerilekua izango da, beraz, bertara salto egingo dute hurrek eta "igeri" egingo dute. Aulki batez tranpolina adieraziko dugu eta bertatik jaurtiketak egingo dituzte. Istripurik ez izateko, haur batek edo irakasleak aulkiari helduko dio, mugi ez dadin. Hurrek txandaka egingo dute salto.

Ahal izanez gero, eta eguraldiak laguntzen badu, jolastokian ipini ohi den igerileku puzgarri bat ekarriko dugu; bestela, inguruko igeritoki batera joango gara.

Jolastokirako igerilekurik ez badugu, ureztatzeko mahuka bat erabiliko ureekin jolasteko.

Helburu didaktikoak:
1.6, 8, 9, 10, 14-II.2 (I), 3 (I), 7 (I)

Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA, NORTASUNA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, AFEKTIBOAK, GIZARTERATZEKOAK, MOTOREAK, KOGNTIBOAK

Jarduera mota: ESPERIENTAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea: LIBREA

Materiala: —

Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

30. Itsasoan eta ibaietan arrainak bizi dira.

Zehar-lerroa: ingurugiro-hezkuntza

PROZEDURA

Liburutegitik itsasoko eta ibaietako animaliei buruzko dozena-erdi bat liburu eskuratu, eta hurrek taldeka behatuko dituzte. Talde batek bukatzen duenean besteari pasa diezaiola, horrela, talde guztiek liburu guztiak, edo nahi dituztenak, ikusi arte.

Ondoren, ikasleen lan-koadernoko 6. fitxan ("Nora joan nahi ote dute arrainek?") bi ibairen (edo itsaso zatiren) marrazkiak aurkituko ditugu. Bat garbia dago, bestea, oso zikina.

Elkarrizketa garatu: nork zikintzen duen, ura beharrezkoa ote dugun, arrainek eta animaliek ura behar ote duten...

Helburu didaktikoak:
II.1 (I), 3 (I), 10 (I), 15 (I), III.10, 16 (H)

Etengabeko ebaluazioa:
ULERMENA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak:
KOMUNIKATIBOAK, KOGNTIBOAK

Jarduera mota:
APLIKAZIOA

Taldekatzea: LIBREA

Materiala: ITSASOKO ETA IBAIETAKO ANIMALIEI BURUZKO LIBURUAK

Jarduera hau egiteko espazioa:
HARRERA TXOKOA / ADIERAZPEN TXOKOA

31. Arrainak margotu. Zer egingo dugu?

PROZEDURA

Aurreko jardueran arrainek non bizi ohi diren aztertu dugu. Oraingoan, arrain batzuk margotuko ditugu, itsasoan itsasteko. Berriz ere zehar-lerroa ekarriko dugu gogora: ingurugiro-hezkuntza.

Arrainak margotu ondoren, moztuko dituzte, eta, hurrengo fitxan, aukeratzen duten itsas zatian itsatsiko dituzte.


Non bizi nahi izango dute arrain polit hauek?

Helburu didaktikoak: III.17 (PLAS), III.19 (PLAS)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, MOTOREAK

Jarduera mota: APLIKAZIOA

Taldekatzea: 

Materiala: 5. eta 6. FITXAK

Jarduera hau egiteko espazioa: ADIERAZPEN TXOKOA

OPORRAK ETA FESTAK

32. Zer ari da gertatzen hemen?

PROZEDURA

Ez dakigu nora joango ote den Ttanttto oporretan; hondartzara? kanpinea? Oraingoan, kanpin batean gerta daitekeen egoera bat aztertuko dugu.

Hauxe da egoera komunikatibo honen helburu nagusia: datorren ikasturtean lau urteko haurrak ingeleseko saioekin hasiko direnez, beste hizkuntzekiko eta beste herrialdeetako eta arrazetako haurrekiko interesa eta errespetua piztea.

Hitzez adierazi. Ikusten duguna deskribatuz, iritziak emanez... Globoen presentzia nabarmenduko du irakasleak eta zer jartzen duen azalduko du:

1. bineta

Familia bat kanpin batera iritsi da. Gurasoak autokarabana antolatzen duten bitartean, bi seme-alabak inguruan jolasten ari diren beste haurrei begira daude. Arraza ezberdinetako haurrak daude: afrikarrak (azal ilunekoak), txinatarrak (azal horixkakoak)...

2. bineta

Bi haur iritsi berriak besteengana hurbildu dira, eta haiekin jolasen ari dira. Nork bere hizkuntzan hitz egiten du (hitz-globoetan hizkuntza ezberdinak bereiz daitezke).

Egoerak deskribatu ondoren, haurrei galderak egin:

Kanpinetan ibili al zarete inoiz? Harremanik izan al duzue beste herrialdeetako haurrekin? Nola hitz egiten zenuten? (keinu bidez, gaztelaniaz...).

Hizkuntzak jakitea gustatuko al litzaizueke? Zuen gurasoek edo lagun handiagoek ba al dakite beste hizkuntzarik? Zertarako balio du beste hizkuntzak jakiteak?...

(Datorren ikasturtean ingelesa ikasiko badute, egoera hau balia dezakegu haurrak lasaitzeko eta motibatuzeko, zenbaitek ezagutzen ez duen guztiari beldurra izaten baitio).

Azkenik, beste arrazetako haurrik ezagutzen al duten galdetuko diegu, lagunak al diren...

Zertan desberdintzen gara pertsonak?

Antzerkia. Inoiz gauzak hitzen bidez adierazten ez dakigunean, mimikaz baliatzen gara guk nahi duguna adierazteko. Irakasleak eredu bat emango du eta haurrei eskatuko die hitzik gabe zer edo zer adierazteko. Adibidez:

- *Pixagaleak nago eta komunera joan nahi dut.*
- *Goseak nago eta gustura jango nuke.*
- *Egarriak nago.*
- *Zer ordu da?*
- *Ni halako naiz eta zu?*
- ...


Helburu didaktikoak:
I.1, I.2 - II.4 (I), 5 (I) - III.12 (H), 16 (H)

Etengabeko ebaluazioa:
ULERMENA, ADIERAZPENA, NORTASUNA

Gaitasun motak:
KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK,
GIZARTERATZEKOAK

Jarduera mota:
MOTIBAZIOA, ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzea:



Materiala:
7. FITXA

Jarduera hau egiteko espazioa:
HARRERA TXOKOA

33. Elkarrizketa: kanpina

JARDUERAREN PLANIFIKAZIOA

Elkarrizketa planifikatzerakoan, honako oinarritzko elementu hauek izango ditugu kontuan:

1. Haur guzien parte hartzea lortu.
2. Elkarrizketa egiteko espazioa: eroso eta komunikazio bultzatzen duena izan behar da. HARRERA TXOKOA
3. Jarduera egiteko denbora aurreikusi.
4. Galderen tipologia ondo pentsatu.
 - Galdera irekiak, baina haurren hizkuntza-kompetentzietara egokituak.
 - Pentsarazten duten galderak.


Helburu didaktikoak:
I.5, III.1, III.12, III.13

Etengabeko ebaluazioa:
NORTASUNA, ULERMENA, ADIERAZPENEA

Gaitasun motak:
KOMUNIKATIBOAK, GIZARTERATZEKOAK, KOGNITIBOAK

Jarduera mota:
MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea:



Materiala: —

Jarduera hau egiteko espazioa:
HARRERA TXOKOA

HEZITZAILEAK BERE ESKU-HARTZEAREN ERREBISIOA EGINGO DU

Haurren interesak

- Haurren esperientzien kontaketa bultzatu duzu jardueraren bitartez?
- Haurren interesak lehenetsi dituzu?

Erronka kognitiboak

- Galderak errebotatzen dituzu edo erantzuna ematen duzu?
- Hipotesiak, arrazonamenduak egiteko, iritziak emateko aukera eskaintzen duzu?
- Jardueraren amaieran, azaldutako ideiak laburbiltzen eta borobiltzen dituzu?

34. Mendi irtenaldiak

PROZEDURA

Eguraldi ona dugun batean, inguruko mendi batera joan gaitezke. Zelaian zilipurdika ibili, baratzeak ikusi, baserritar batekin hitz egin, animaliak eta landareak ikusi...

Haurrei erakutsi behar zaie animaliak bakean utzi behar direla, beraz, ahal dela, ez ukitzeko eta ez lekuz aldatzeko. Eta landareekin gauza bera, zenbait lore ezin dituztela nolana jaso.

Mendi irtenaldiarekin uraren gaia lotu dezakegu, erreka edo iturriren bat ikusiz gero. Interesgarria litzateke, ihintza ikusten badugu, ura nola kondentsatu den behatzea; horretarako, oso aproposak izaten dira armiarma-sareak.

Irtentaldia egin aurretik, honako abesti hau erakutsiko diegu; abestearekin batera, gorputz mugimenduak ere egingo dituzte.


Helburu didaktikoak:
I.5, III.1, III.12, III.13

Etengabeko ebaluazioa:
NORTASUNA, ULERMENA, ADIERAZPENEA

Gaitasun motak:
KOMUNIKATIBOAK, GIZARTERATZEKOAK, KOGNITIBOAK

Jarduera mota:
MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea:



Materiala: —

Jarduera hau egiteko espazioa:
HARRERA TXOKOA

TIPI-TAPA

Tipi-tap, tipi-tapa,
tipi-tap, tipi-tapa.
Tipi-tap...

Mendi bidean jarri naiz,
igande goiz batean,
mendiko botak soinean,
motxila bizkarrean.

Aralar alde batean,
Añamendi bestean,
basoak eta zelaiak
daude nire bidean.

Tipi-tapa...

35. Kanpinean

PROZEDURA

Ikasgelaren txoko batean kanpin-denda bat eraikiko dugu, mahai baten inguruan oihal bat ipiniz. Haurrek kanpin batean egiten den bizitza antzez-tuko dute: bertan lo egin, bazkaldu...

Ikasleen lan-koadernoko 8. fitxan kanpin-denda bat aurkituko dugu. Dendaren atea eta leihoa puntzoiz zulatu behar dute, ireki eta itxi ahal izateko. Beste orrialde batean, kanpin barruan dauden pertsonak edo gauzak marraztuko dituzte. Orri hori fitxaren atzean itsatsi, eta, horrela, leihoa edo atea zabalduta, azpian dagoen irudia agertuko da (hezitzaileak lagunduko die marrazkiak leku egokian kokatzen).

Zulatu kanpineko atea eta leihoa, eta zabaldu. Ea zer dagoen barruan!

Helburu didaktikoak:
III.1 (H), III.2 (H), III.5 (H)

Etengabeko ebaluazioa:
ULERMENA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak:
KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK

Jarduera mota:
APLIKAZIOA

Taldekatzea:



Materiala: 8. FITXA

Jarduera hau egiteko espazioa:
HARRERA TXOKOA

36. Okerrak zuzendu

PROZEDURA

Hainbat esaldi esango dizkiegu, zentzugabeak batzuk, eta zentzudunak besteak. Haurrek okerrak direnak identifikatu eta zuzendu beharko dituzte.

*Arraina arbolan dago eta urtxintxa uretan.
Txoria zuhaitzean dago eta olagarroa itsasoan.
Errekan arrainak bizi dira.
Plazako iturrira noa esnea edatera.
Gizon batek txalupa erosi du mendian ibiltzeko.
Arrantzaleak kanabera erabili du arrainak harrapatzeko.
Arrain bat ikusi dut hodei artean hegana.*

Helburu didaktikoak:
III.1 (H), III.2 (H), III.5 (H)

Etengabeko ebaluazioa:
ULERMENA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak:
KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK

Jarduera mota:
APLIKAZIOA

Taldekatzea:



Materiala: —

Jarduera hau egiteko espazioa:
HARRERA TXOKOA

37. San Joan jaia

PROZEDURA

Egun hauetan, San Joan sua prestatzen ikusteko aukera izango dugu hainbat herritan. Guk ere gure su txikia presta dezakegu. Suaren esanahia azalduko diegu ikasleei, eta suaren aurrean dantza bat egingo dugu (hurrengo jardueran proposatuko duguna, adibidez). Ikasleak dantzariz jantzita etorriko dira. Ondoren, sua egingo dugu, ikasleak inguruan eserita daudela. Aurretik, komeni da adieraztea zer arrisku duen suarekin jolasteak.

Helburu didaktikoak:
II.9 (I), III.31 (MUS), III.32 (MUS)

Etengabeko ebaluazioa:
NORTASUNA, ADIERAZPENA, ULERMENA

Gaitasun motak:
KOMUNIKATIBOAK, MOTOREAK, AFEKTIBOAK,
KOGNITIBOAK

Jarduera mota:
ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea:



Materiala: —

Jarduera hau egiteko espazioa:
HARRERA TXOKOA

38. Dantza-saioa

PROZEDURA

Herrietako festetan jendea dantzan ikusiko dute hurrek. Beraiek ere dantzak ikastera animatuko ditugu. Hasteko, *Alpargatak urratuta* dantzarekin saiatuko gara, ez baita oso zaila. Ez zaie oraindik dantza zuzen egitea eskatuko, baina bai irakasleari begira, imitatzen saiatzea. Ondoren, kalejira bat egingo dugu.

Alpargatak urratuta,
zapatarik ez,
Ernion gelditu nintzen
oineko minez.

Hauxe da egia,
zortziko berria,
hiru txiki ardorekin
librako ogia.

Helburu didaktikoak: I.8, I.9, I.10, I.12-III.51 (MUS),
III.52 (MUS)

Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, MOTOREAK

Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea:



Materiala: 3. CDa, 24. ABESTIA

Jarduera hau egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

Material osagarria

IRUDIEN AURKIBIDEA

1. *hiruhilabetea*

- Ttانتو, Txirritx eta Xango txotxongiloak
- Ttانتو txotxongiloa
- Ttانتoren marrazkia
- Ipuinetako txotxongiloak:
 - Arroxali
 - Hiru txerrikumeak
 - Txanogorritxo
 - Ametsak airean

2. *hiruhilabetea*


- Ipuineko txotxongiloak (6.unit.): Oneida eta Amerin


3. *hiruhilabetea*

- Animalien kareta (8. unit.):
 - Astoa,
 - Katua
 - Oilarra
 - Txakurra
- Animalien bilbumarako azala (8. unit.)


Tt antto, Txirritx eta Xango







Arroxali



Hiru txerrikumeak







Ametsak airean




Bi indiar txiki inauterietan














1. hiruhilabetea

1. IKASTOLA. Ikastolako lagunak
2. ETXEA. Etxean goxo-goxo
3. MENDIA. Mendian udazkenean
4. GABONAK. Gabonak, Gabonak, hau zoriona!

2. hiruhilabetea

1. NEGUA. Hotzez dar-dar
2. GORPUTZA ETA JANTZIAK. Hau da nire gorputza, polita benetan!
3. EGUNEROKO JANARIAK. Jan, jan, jan eta jan

3. hiruhilabetea

1. ETXABEREA. Behin batean baserrian
2. LOREAK ETA BARAZKIAK. Eguzkitan din-dan
3. IBAIA ETA ITSASOA, URETAKO JOLASAK. Igerian, jolasean...